

## **1.165/1995 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko Araudia onetsi duena (EAO Uztailaren 28koa)**

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen bitartez, alde batetik, 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera fabrikazioaren gaineko zerga berezien sistema muga fiskalik gabeko Europako Elkartearen errealitate berrira moldatu zen; beste alde batetik, eta nolabait ere aipatu errealitate berriak eraginda, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezi berria sortu zen. Lege horren testuari zenbait aldaketa egin zaizkio dagoeneko, honako xedapenak direla bide: maiatzaren 21eko 7/1993 Errege Dekretu-legea, presazko neurriak jarri dituen Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia, Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra, Kanariar Uharteetako Ekoizpen eta Inportazioaren gaineko Ariela eta Merkatugaien Sarreraren gaineko Uharteetako Arielaren Tarifa Berezia egokitu eta eraldatzeko; 13/1993 Errege Dekretu-legea, abuztuaren 4koa, presazko zerga neurriei buruzkoa; 21/1993 Legea, abenduaren 29koa, Estatuaren 1994ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 41/1994 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuaren 1995eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta 42/1994 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzkoa.

Elkartearen arautegia 38/1992 Legearen bidez egokitu zen Espainiako Zuzenbidean. Txertatze prozesua eta legea bera garatu ziren moduagatik, ordea, ezinezkoa izan zen garai hartan 38/1992 Legea araudi bakarrean garatzea. Horregatik, ordutik hona legea garatzeko eman diren arauak biltzen dituzten tresna nagusiak hauek dira:

- a) Abenduaren 29ko 1.623/1992 Errege Dekretua. Honek Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagozkion gaietan garatu du 38/1992 Legea.
- b) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko Araudia, otsailaren 19ko 258/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsia. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien inguruan legeak ekarritako berrikuntzak garatu ditu.
- c) Zerga Bereziei buruzko Araudi zaharra, abenduaren 27ko 2.442/1985 Errege Dekretuak onetsia, eta 38/1992 Legearen aurreko beste araudi batzuk, legean xedatutakoarekin bat datozen heinean; legea eragin duen Elkarteko arautegia, eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko Araudia.

Arauek zergen arloan duten dispertsio hori, beste alde batetik, modu iragankorrean eta denboran mugatuta soilik justifika daiteke. Hori dela eta, Errege Dekretu honek amaiera eman dio egoera horri, arauzko gorputz bakarrean finkatuta, Zerga Bereziei buruzko azaroaren 28ko 38/1992 Legea garatzen duten arau guztiak, eta orain arte indarrean egon diren arauen aplikazioak agerian jarri dituen alderdi batzuk zuzenduta.

Gainera, Errege Dekretu honen bidez, Batzordearen abenduaren 22ko 94/74/EEE Zuzentarauaren transposizioa egin zen; horren bitartez, honako Zuzentarau hauek aldatu ziren: 92/12/EEE Zuzentaraua, zerga bereziei lotutako produktuen araubide orokorrari, edukitzeari, zirkulazioari eta kontrolei buruzkoa; 92/81/EEE Zuzentaraua, hidrokarburoen zerga bereziaren egiturak harmonizatzeari buruzkoa, eta 92/82/EEE Zuzentaraua, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren motak hurbiltzeari buruzkoa (“sinplifikazioko bigarren Zuzentaraua”), Lege lerruneko araurik behar ez duten alderdietan.

Hori dela bide, Ekonomia eta Ogasuneko Ministroak proposatuta, Estatu Batzordeak ezarritakoaren arabera, eta Ministroen Batzordeak 1995eko uztailaren 7an egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, haux.

XEDATU DUT:

## **Artikulu bakarra.**

Onetsi egin da Errege Dekretu honen eranskintzat agertzen den Zerga Bereziei buruzko Araudia.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehena.**

Errege Dekretu hau onetsi duen Arautegiko araei dagokiela ulertu behar dira honako arau hauei buruzko aipamenak: Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien Behin-behineko Arautegiaren (otsailaren 19ko 258/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta abenduaren 28ko 38/1992 Legearen zenbait manu garatu dituen abenduaren 29ko 1623/1992 Errege Dekretuaren arauak; horren bidez, zenbait eskumen bereganatu dira Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren inguruko kudeaketa, bilketa, egiaztapen eta ikerketaren arloko eskumenak. Izan ere, hala gauzatu dira zenbait zerga-prozedura aldatzearen gaineko maiatzaren 28ko 803/1993 Errege Dekretuaren 4. eranskineko 43. zk.tik 85. zk.ra.

### **Bigarrena.**

Otsailaren 19ko 258/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko Araudiko 56. artikuluko 2. ataleko c) paragrafoan ezarritakoaren arabera kokaleku finkoetan muntaturik dauden distilazio aparatuak halakotzat hartuko dira, Errege Dekretu honen eranskintzat onetsitako Araudian ezarritakoaren ondoreetarako.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa.**

Oro har, euren edukia Errege Dekretu honetan eta beronen eranskinean ezarritakoaren aurkakoa ez bada, ematea egitean adierazitako baldintzetan mantenduko da orain indargabetu den araudiaren babesean emandako baimenen indarraldia; hala eta guztiz ere, baimen horiei dagokienez eskatzeko modukoak diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dira, Errege Dekretu honetan eta beronen eranskinean ezarritakoaren arabera.

### **Bigarrena.**

Lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondoreetarako, eranskintzat onetsi den araudian ezarritakoaren eraginpean dauden establezimenduen titularren hiru hilabeteko epea edukiko dute, Errege Dekretu hau indarrean sartzetik zenbatzen hasita, sortu beharreko berme berriak aurkezteko eta, oro har, eskatzeko moduko betekizun nahiz baldintza berri guztiak betetzeko.

### **Hirugarrena.**

Kerosenoari markagailuak eransteko betebeharra (eranskintzat onetsi den Araudiko 108. eta 114. artikuluan ezarritakoaren arabera) derrigorrezkoa izango da, produktu horretarako markagailuok onesten dituen agindua ematen denetik aurrera.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

1. Errege Dekretu hau indarrean jartzen denetik, honako xedapen hauek indargabeturik geldituko dira:
  - a) Abenduaren 27ko 2442/1985 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Bereziei buruzko Araudiko arauak, baldin eta horien indarraldia mantendu egin bada, bai abenduaren 28ko 38/1992 Legeko lehenengo indargabetze xedapeneko 2. atalean ezarritakoaren (Zerga Bereziei buruzko Legea) eta bai otsailaren 19ko 258/1993 Errege

Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoaren ondorioz (Dekretu horren bidez onetsi egin da Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko araudia).

- b) Alkoholaren eta Alkoholdun Edarien gaineko Zerga mistelei eta ardo bereziei aplikatzeko behin-behineko Araudiko Arauak (urtarrilaren 23ko 154/1987 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa), baldin eta horren indarraldia mantendu egin bada, abenduaren 28ko 38/1992 Legeko lehenengo xedapen indargabetzaileko 2. artikuluan ezarritakoaren (Zerga Bereziei buruzko Legea) eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko Araudiko 54. artikuluan ezarritakoaren ondorioz (otsailaren 19ko 258/1993 Errege Dekretuaren bitartez onetsitakoa).
  - c) Abenduaren 29ko 1623/1992 Errege Dekretua; horren bitartez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko manu batzuk garatu eta eskumenak eratziki ziren, kudeaketaren, bilketaren, egiaztapenaren eta ikerketaren arloan, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokionez. Hala eta guztiz ere, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziako Sailen artean eskumenak berriro banatu arte, indarrean mantenduko da 1623/1992 Errege Dekretuko 5. artikuluan ezarritakoa.
  - d) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko behin-behineko Araudia, otsailaren 19ko 258/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.
  - e) Errege Dekretu honetan eta beronen eranskinean ezarritakoaren aurkakoak diren lerrun bereko edo beheragoko arau guztiak.
2. Errege Dekretu honetan eta honen eranskinean xedatutakoarekin kontraesanean diren puntuetan izan ezik, indarrean jarraituko du 1988ko azaroaren 28ko Aginduak. Agindu horrek beren-beregi industria-, merkataritza- edo nekazaritza-aplikazioetarako, aplikazio klinikoetarako zein aplikazio zientifikoetarako ibilgailuen homologazioa lortzeko prozedura eta baldintzak arautzen ditu; bertan Balio Erantsiari buruz egiten diren erreferentziak Garraiobide Jakin batzuei buruzko Zerga Bereziaren ingurukoak direla ulertu beharko da.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa.**

Ekonomia eta Ogasun Ministroari baimena eman zaio, Errege Dekretu honetan eta beronen eranskinean ezarritakoa garatzeko eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

### **Bigarrena.**

Errege Dekretu hau 1995eko urriaren 1ean jarriko da indarrean.

## **ERANSKINA ZERGA BEREZIEI BURUZKO ARAUDIA**

### **LEHEN IZENBURUA FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK**

#### **LEHEN KAPITULUA FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIEI BURUZKO XEDAPEN KOMUNAK**

##### **1. ATALA KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK**

#### **1. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.**

Araudi honen I. tituluaren ondorioetarako, hurrengo definizio hauek ulertuko dira:

1. Zirkulazio emate-agiria. Fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen zirkulazioa babesten duten dokumentuak, baldin eta administrazioko dokumentu elektronikoak, larrialdiko laguntzako dokumentuak, laguntzako dokumentu sinplifikatuak, zerga markak edo aduana-agiriak ez badira.
2. Biltegi fiskala. Araudi honetan ezarrita dauden baldintzekin, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak (zerga barneko lurralde-eremuan sortuta dutenak, baina tasa murriztua edo salbuespeneko kasua aplikatuta), jaso, biltegiratu eta banatzeko baimena duen establezimendua. Biltegi fiskal gisa baimendutako establezimendu batean fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak, zerga-tasa orokorra aplikatuz zerga sortzen dutenak, jaso, biltegiratu eta banatu ere egin ahal izango dira.
3. Erreferentziako Administrazio Kodea. Espedizioko Estatu kideko eskudun agintariak administrazioko dokumentu elektronikoari, zirriborroaren datuak balidatutakoan, esleitutako erreferentziako zenbakia. Kode honen erreferentziak "ARC" siglen bidez egingo dira.
4. Administrazioko dokumentu elektronikoak. 92/12/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zerga berezien araubide orokorrari buruzko 2008. urteko abenduaren 16ko Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarauak eta fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen komunitate barneko zirkulazioa, eteteko erregimenean, babesteko 2009. urteko uztailaren 24ko Batzordearen 684/2009 zk.dun Araudiak (EE) ezarritako dokumentu elektronikoak.

Administrazioko dokumentu elektronikoak eteteko erregimenean diren fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen edo salbuespenen bat zein tasa murriztua duten produktuen zirkulazioa babesteko erabiliko da, baldin eta jatorria eta xedea barneko lurralde-eremuan badute, beti ere Araudi honetan eta garapen-arautegian jasotako moldaketak eta salbuespenak kontuan hartuta.

5. Larrialdiko laguntzako dokumentua. 2008/118/EE Zuzentarauak eta 684/2009 zk.dun Araudiak (EE) eteteko erregimeneko komunitate barneko zirkulazioa laguntzeko ezarritako papereko euskarriko dokumentua, kontrol informatizatuko sistema produktuak emateko momentuan erabilgarri ez dagoenean. Aipatutako kasu horietan, bidaltzaileak zirkulazioari hasiera eman ahal izango dio Araudi honetan eta garatzeko arauetan ezarritako eskakizunak beteta.

Larrialdiko laguntzako dokumentua jatorria eta xedea barne lurralde eremuan duten eta administrazioko dokumentu elektronikoak behar duten kasuetan sistema informatizaturik erabilgarri ez dagoenean erabiliko da, beti ere Araudi honetan eta garapen-arautegian jasotako moldaketak eta salbuespenak kontuan hartuta.

6. Laguntzako dokumentu sinplifikatua. 1992. urteko abenduaren 17ko Batzordearen 3649/92 zk.dun Araudiak (EEE) fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen komunitate barneko zirkulazioa, bidalketa bermatuen prozeduraren arabera, babesteko ezarritako dokumentua. Administrazioko laguntzako dokumentu sinplifikatua izan daiteke, aipatutako Araudiaren eranskin gisa ageri den ereduaren arabera edo, bestela, merkataritzako laguntzako dokumentu sinplifikatua izan daiteke, administrazioko dokumentuak eskatutako informazio-elementu berberak eduki behar dituenak. Eta hauetako bakoitza administrazioko dokumentuaren lauki bakoitzarekin bat etorriko den zenbaki batekin identifikatuta egon beharko da.
7. Legea. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea.
8. Inportazioaren tokia. Aduanako araudian xedatutakoarekin bat etorritik libre praktikara bidaltzeko momentuan produktuak dauden tokia.
9. Bulego kudeatzailea. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egitura organikoaren arabera zerga berezien inguruan eskumena duen organoa.
10. Galerak. Fabrikazio edo biltegiratzeko prozesu batean sartzeko produktuen baturaren eta bertatik ateratako produktuen baturaren artean egoten den edozein diferentzia, beharrez,

unitate homogeenotan neurtuta, hasiera eta amaierako izakin egokiak kontuan hartu ondoren. Garraioari dagokionez, "galeratzat" garraioko eragiketa bat hasten duten produktuen kopuruaren eta amaitzen duten edo aipatutako eragiketaren barruan egindako egiaztapen batean ateratzen diren produktuen kopuruaren artean dagoen edozein diferentzia, beharrez, hartuko da.

11. Hobekuntza fiskala. Prozedura honen bidez, eteteko erregimenean jasotako fabrikazioko zerga berezien xede diren produktu batzuetatik abiatuz, Araudi honen barruak ezarritako baldintzak beteta, fabrikazioko zerga berezien xede ez diren produktu konpentsatzaileak lortzen dira, ondoren esportatu behar direnean, horrela eteteko erregimena bukatuz.
12. Galeren arauko ehunekoa. Araudi honetan eragiketa edo prozesu jakin batzuetarako ezarritako galeren gehieneko portzentajezko muga. Muga honetaraino aipatutako galerak onargarritzat hartzen dira justifikatu edo frogatzeko beharrik gabe. Justifikatu ahal izango da zenbatutako kopuruaren eta egindako neurketetatik ateratzen direnen arteko aldeak galeren arauko ehunekoak baino handiagoak direnean neurtzeko elementuen berezko zehaztugabetasunak direla kausa izatea. Zerga bakoitzaren arau espezifikoetan xedatutakoa baztertu gabe, galeren ehunekoa aztertutako prozesu edo eragiketan sartutako produktuen kantitatearen gainean aplikatzen da. Osatzen duten prozesu sinple bakoitzean egondako galerak zehazterik ez dagoen prozesu integrala denean, prozesu integralaren galeren arauko ehunekoa prozesu sinple bakoitzari dagozkion galeren arauko ehunekoen batura haztatuaren emaitza izango da.
13. ...
14. Sistema informatizatua. Zerga berezien mendeko produktuen mugimenduak prozedura informatiko bidez kontrolatzeko sistema, administrazioko dokumentu elektronikoan oinarritzen dena. Sistema hori izendatzeko «EMCS» siglak erabiliko dira.
15. Hornidura zuzena. Beren xedea dela eta salbuespenen bat edo tasa murriztua duten zerga berezien mendeko produktuen zirkulazioa, soilik barne-eremuan, eteteko erregimenetik kanpo, eskudun agintariek baimendutako emate-toki batera, eta Araudi honetan xedatzen diren baldintzetan.
16. Hirugarren herri edo hirugarren lurralde baterako xedea duen bidaiaria. Amaierako xede gisa hirugarren herri edo lurralde batean ageri den aire edo itsaso bidezko garraioko titulua edukitzen duen bidaiari oro.

## **2. ATALA** **EGITURAZKO ELEMENTUAK**

### **2. artikulua. Autokontsumoen sortzapena.**

Autokontsumoko eragiketetan, fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ez dira sortuko, produktuak araubide etengarriko eragiketak egiteko erabiltzen direnean.

### **3. artikulua. Zerga hobekuntza.**

1. Legeko 7. artikuluko 1. ataleko b) paragrafoan aipaturiko fabrikatzaileek araubide etengarriko produktuak jasotzeko baimena eskatuko diote, konpentsazioko produktuen fabrikazioaren gaineko zerga bereziei lotutako produktuak erabiliko dituen establezimenduko kudeaketa bulegoari. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
  - a) Lurralde erregistroan inskribatzeko eskabiderako eskatutakoa, konpentsazioko produktuak fabrikatzeko eragiketei dagokienez.
  - b) Konpentsazioko produktuen fabrikazio prozesuaren azalpen memoria; bertan, aditzera eman behar da fabrikazioaren gaineko zerga bereziei loturiko produktuak zein neurritan ageri diren konpentsazioko produktuaren osaketan, baita fabrikazio prozesuan

kontsumitzen direnen osaketan eta lorturiko azpiproduktuetan zein neurritan ageri diren ere.

- c) Aurreko hiru urteetan egindako konpentsazioko produktuen esportazioen laburpena, edo bestela, fabrikazio eta esportazio aurreikuspenen laburpena.
  - d) Fabrikazioaren gaineko zerga bereziei lotutako produktuak araubide etengarrian eskuratzeko programa; aditzera eman beharko dira izena, helbidea, zerga identifikazioaren zenbakia, jardueraren kodea eta baimendutako gordailuzainaren nahiz gordailuzainen establezimendua.
2. Aurreko 1. atalak aipatzen duen baimena emateko beharrezko baldintza izango da hurrengo atalak aipatzen duen urteko gehieneko kantitateari dagozkion kuoten 100eko 2,5eko zenbatekoko bermea aurkeztea. Hornitzailea komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan ezarritako baimendutako gordailuzaina izango balitz, berme honek ondorioak ere izango ditu hartzaile erregistratu gisa eteteko erregimenean produktuak jasotzeari dagokionez.
  3. Kudeaketa bulegoak bidezko erabakia hartu eta, behar izanez gero, araubide etengarrian jasotako produktuak erabiliko dituen establezimendua lurralde erregistroan inskribatuko du; gainera, araubide etengarriko hornidurarako baimena emango du, eskatzaileak izendaturiko hornitzaile bakoitzeko, eta araubide horretan urtero hornitzeko moduko gehieneko kantitatea adieraziko du.
  4. Araubide etengarrian jasotako produktuak konpentsazioko produktuak lortzeko erabili beharko dira, sei hilabeteko epean, jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Lorturiko konpentsazioko produktuak esportatu egin beharko dira, urtebeteko epean, lortzen direnetik zenbatzen hasita. Lehenengoak erabili ezean edo bigarrenak esportatzen ez badira, kasuan kasuko zerga zorra likidatu beharko da; halakoetan, produktuak jasotzeko unean indarrean zeuden tasak aplikatu eta kasuan kasuko berandutze interesak likidatuko dira.
  5. Konpentsazio-produktuen fabrikatzaileak eteteko erregimenean jasotako kopuruak adierazten dituen kontabilitatea egin beharko du, eta kontabilitate horretan hainbat datu jaso beharko ditu: administrazioko dokumentu elektronikoaren data, hornitzailea eta erreferentziak, konpentsazio-produktuak fabrikatzeko prozesuan egunero erabiltzen edo kontsumitzen diren kopuruak, fabrikatutako konpentsazio-produktuak eta horien artetik esportatutako kopurua, esportazio-agiria adierazita.
  6. Kargu-idazpenak eteteko erregimenean jasotako fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen zirkulazioa babestu duen administrazioko dokumentu elektronikoaren ARC bidez justifikatuko dira. Konpentsazio-produktuen esportazioei buruzko data-idazpenak esportazio-aduanak emandako esportazio-adierazpenaren kopia bidez justifikatuko dira.
  7. Konpentsazioko produktuak esportatzean, esportazio aitorpenean zerga hobekuntzako araubidean egindako esportazioa dela adierazi beharko da.

### **3. ATALA SALBUESPENAK**

#### **4. artikulua. Salbuespenak nazioarteko harremanen eta hornidura jakin batzuen esparruan.**

1. Legearen 9. artikulua 1. atalaren a) eta b) lerrokaidek aipatzen dituzten salbuespenen aplikazioa egingo da erregimen diplomatiko, kontsular eta nazioarteko erakunde frankizia eta salbuespenei buruzko eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorra aldatzeko abenduaren 29ko 3485/2000 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritik egingo da.
2. Legearen 9. artikulua 1. atalaren c) lerrokaidek aipatzen duen indar armatuek egindako eskuraketei buruzko salbuespenari dagokionez, alkohol eta edari alkoholikoen gaineko

zergaren, Tabakoko Lanen gaineko zergaren xede diren produktuak edo Hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektiboen jasotako erregaiak direnean, hobaria aplikatzeko prozedura hasiko da Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeei, aipatutako Erakundearen Nazioarteko Kuartel Nagusiei eta aipatutako itun horretan parte hartzen duten Estatuiei dagozkien zerga-salbuespenak garatzen dituen araudia onartzen duen eta, Defentsa Ministerioari Espainiak sinatutako nazioarteko Hitzarmen egokietan finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatuta, berau aplikatzeko prozedura ezartzen duen otsailaren 8ko 160/2008 Errege Dekretuarekin bat etorritik. Aipatutako egiaztatzea egiaztatutakoan, salbuespenaren onuradunak zentro kudeatzailearen bere aplikazioa eskatuko du. Eskabide honetan, aipatutako egiaztatzearekin batera aurkeztuko dena, salbuespenarekin eskuratu nahi diren produktuen klasea eta kantitatea zehaztuko dira, aurreikusitako beharrezanekin bat etorritik. Zentro kudeatzaileak fabrikazioko zerga berezien salbuespena duen horniduraren baimena emango du, justifikatutako kontsumoko beharrezanetara egokitzen den kantitatean.

3. Legearen 9. artikularen 1. atalaren d) letrak aipatzen duen salbuespenaren aplikazioa aitortu egiten duen akordioan aurreikusitako baldintzetan egingo da eta, bertan aurreikusita ez dagoen guztian, aipatutako 3485/2000 Errege Dekretuaren arauarekin bat etorritik aplikagarri den guztian. Hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektiboen jasotako erregaiak direnean, gainera, Araudi honen 5. artikuluan ezarritakoa ere bete beharko da.
4. Aurreko 2. eta 3. atalek aipatzen duten produktuen hornidura honela egin beharko da:
  - a) Inportatutako produktuak edo komunitatetik kanpoko merkantziaren aduanako estatutua duten produktuak badira, inportazioko aduanatik edo, bestela, zona edo gordailu franko batetik edo aduanako gordailu batetik.
  - b) Barneko lurralde-eremuan kokaturiko produktuak badira, lantegi, gordailu fiskal edo biltegi fiskal batetik.
  - c) Aurreko a) eta b) paragrafoek aipatzen dituzten establezimenduetako kontabilitatearen data-idazkunak kasuan kasuko hornidura-baimenen eta ondoko e) paragrafoak aipatzen dituen zirkulazio-dokumentuen bidez justifikatuko dira.
  - d) Komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik hornitzen diren produktuak baldin badira, salbuespenen onuradunak eteteko erregimenean jaso ahal izango dituzte zuzenean. Halako kasuetan, hornidura-baimenak «salbuespen-ziurtagiri» gisa eman beharko dira Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak horretarako xedatutako ereduari jarraiki, eta ARC zein den adierazten duen agiri bat ere aurkeztu beharko da harekin batera. Salbuespenaren onuradunak hartu izanaren jakinarazpen elektronikoa bete beharko du.
  - e) Baldin eta aurreko a) eta b) paragrafoetan aurreikusitako kasuetan produktuek barneko lurralde-eremuan badute jatorria eta xedea, bidalketa-lekutik jomugara arteko zirkulazioa administrazioko dokumentu elektronikoen baten babespean egingo dute. Salbuespenaren onuradunak hartu izanaren jakinarazpena bete beharko du. Onuradunak hala eskatuz gero, jakinarazpena elektronikoa ez diren beste bide batzuk erabilita egiteko baimena eman ahalko du bulego kudeatzaileak.
5. Legearen 9. artikuluko 1. ataleko e) eta f) paragrafoek alkoholari eta alkoholodun edariei buruzko zerga berezien inguruan eta Tabakoaren Lanen gaineko Zergen inguruan aipatzen dituzten salbuespen-kasuetan, xedea esportazioaren jakinarazpenaren bidez frogatuko da.

Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak, zergaren salbuespenez, itsasontziak eta aireontziak horni daitezkeen edari alkoholikoen eta tabakoaren gehieneko kopuruak zehaztuko ditu, horiek nazioarteko itsaso edo aireko nabigazioa egin behar badute. Nabigazioaren iraupena eta tripulatzaileen nahiz bidaiarien kopurua kontuan hartuko dira.

## 5. artikulua. Erregaien hornidurak nazioarteko harremanen esparruan.

1. Legearen 9. artikulua 1. atalaren c) eta d) letrek aipatzen duten salbuespenen aplikazioa, Hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektuan jasotako erregaien hornidura denean, eskuratutako erregaien prezioan jasotako zergaren kuoten itzulketaren bidez egingo da, hurrengo atal hauetan ezartzen den prozedurarekin bat etorritik.
2. Erregaien eskuraketa kreditu, zordunketa edo erosketen txartelak erabiliz egin beharko da. Hauek, xede honetarako, zentro kudeatzaileak aurretik onartuta egon beharko dira. Txartel horiek onartzeko beharrezko baldintza izango da hurrengo baldintza hauek betetzea:
  - a) Txartela onuradunaren izenean eman behar da eta bertan ibilgailuaren matrikula jasoko da.
  - b) Erregaiaren eroslea zein saltzailea identifikatuta gelditu beharko dira.
  - c) Eskuratutako erregaiaren klase eta kantitatearen berri jaso beharko da, baita eskuraketaren zenbatekoa zein den ere.
  - d) Edozein kreditu-erakundetan irekitako eta onuradunak adierazitako kontu korrontean kargatu beharko da erositako erregaiaren zenbatekoa.
  - e) Txartela ematen duen erakundeak artikulua honen 6. atalean ezarritakoa betetzeko ahalmena eduki beharko du.
3. Legearen 9. artikulua 1. atalaren c) letrek aipatzen dituen indar armatuen instalazioetara zuzendutako erregaiak eskuratzen direnean, berriz, Araudi honen 4. artikulua 2. atalean ezarritako prozedura jarraituko da.

Erregaien entrega hornitzaileak ere egin ahal izango du aipatutako indar horien edo bere zerbitzupeko langile zibilen ibilgailuei zuzenean hornituz; xede horrekin, indar armatuen aginteak zentro kudeatzaileari, Defentsa Ministerioaren bitartez, hauen jabetzako ibilgailuen eta onuradunen zerrenda igorriko dio, izen-abizenak, identifikatzeko txartel berezien zenbakiak eta aipatutako ibilgailuen matrikula adierazita. Erregaien hornidura aurreko 2. atalean ezarritako prozedurarekin bat etorritik egin beharko da, horretarako zerrendan onuradun bakoitzak aipatutako atalak aipatzen dituen txartelak emateko aukeratzen duen erakundea jasoko da.

4. Zentro kudeatzaileak, egotekotan, itzultzeko eskubidea duten erregaien hornidura baimenduko du, aipatutako erabakiaren berri onuradunek izendatutako txartelak ematen dituen erakundeari emanaz, ibilgailuaren jabearen izena, horren matrikula eta itzultzeko eskubidea aitortzen den erregaiaren hileko gehieneko kantitatea espresuki adierazita.
5. Estatu bakoitzeko Misioek eta indar armatuen ordezkartzeko pertsonak zentro kudeatzaileari jakinaraziko dizkiote aurreko 2. eta 3. atalek aipatutako eskabideei dagokienez egondako aldaketak, aipatutako atal horietan ezarritako prozedurari jarraiki. Zentro kudeatzaileak aldaketak jakinaraziko dizkie ukitutako txartelak eman dituzten erakundeak.
6. Txartelak ematen dituzten erakundeak, Ekonomia eta Ogasun Ministroak erabakitzen dituen bide eta prozedura elektronikoa, informatikoa edo telematikoa, hiru hilabete bakoitza bukatu ondoko hilaren 20an bukatuko den epe baten barruan, hurrengo datu hauek jasotzen dituen zerrenda aurkeztuko dute:
  - a) Erakunde igorlearen izen edo sozietatearen izena, helbidea eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.
  - b) Ibilgailuaren matrikula, bai eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta bere jabearen izena eta zordunketako bezeroaren kontuko kodea (b.k.k.) ere.



- c) Erregai mota bakoitzaren guztizko kopurua, litrotan edo kilogramotan adierazia eta txartela erabiliz erositako, hilean baimendutako gehieneko kopururaino, eta hiruhilekoan zor den guztizko zenbatekoa.

Txartelak ematen dituzten erakundeak aipatutako zerrenda horietan jasotzen diren datuen eta erabilitako ordaintzeko bideetatik ondorioztatzen direnen arteko korrespondentziaren arduradunak izango dira.

- 7. Bulego kudeatzaileak, hala denean, eskuraturiko erregai kantitatearen Hidrokarburoen gaineko Zergaren ziozko kuotak itzultzea erabakiko du, baimendutako gehienekoa gainditu gabe, eta txartelak jaulki dituen erakundeari itzuli beharreko zenbatekoa ordaintzea aginduko du. Itzuli beharreko kuota zehazteko, erregai bakoitzean indarrean izandako hiruhilekoan egon diren zerga-tasak aplikatuko dira; tasa horiek aldatu badira, batez besteko tasa aplikatuko da, bakoitzaren indarraldiari dagozkion egunekin haztatua. Txartelak jaulki dituen erakunde Hidrokarburoen gaineko Zergaren subjektu pasiboa izango balitz, bulego kudeatzaileak, erakundeak hala eskatuta, hauxe baimendu lezake: itzultzeko erabakia hartu deneko erabakiari dagozkion zerga-aldiaren kuota gutxituz edo minoratuz egitea itzulketa.

Txartelak ematen dituen erakundeak onuradun bakoitzari itzulitako kuoten zenbatekoa ordainduko dio, beranduenez lehenengo likidazioa egiten dion egunean, itzulketari dagozkion kantitatea eta zein hiruhilekoa den espresuki kontsignatuta.

#### **4. ATALA ITZULKETAK**

##### **6. artikulua. Itzulketei buruzko arau orokorrak.**

- 1. Legeko 10. artikuluan ezarritako itzulketa kasuetan, itzulitako kuoten zenbatekoa jasandako kuoten zenbatekoaren berdina izango da.
- 2. Hala eta guztiz ere, zenbateko hori zehaztu ezin denean, kuotak zehazteko, itzulketa eskubidea sortu duen eragiketa egiteko egunaren aurreko hiru hilabeteetan indarrean zegoen tasa aplikatuko da.
- 3. Zergaren itzulketa behin-behineko baimendu ahal izango da. Behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira Ikuskapenak egindako egiaztapenaren ondorioz edo, bestela, lau urteko epearen barruan egiaztatzen ez badituzte, epe hori itzulketa jasotzeko eskubidea sortzen duen eragiketa egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 4. Kudeaketa bulegoak, behin-behineko itzulketa erabaki baino lehen, eskatzaileari zergak ordaindu izanaren ziurtagiria eskatu ahal izango dio (zerga horien itzulketa eskatzen ari baita). Egiaztapen hori egiteko, batez ere honako hau erabiliko da:
  - a) Zergaren ordainketa jasotzen duen faktura, Araudi honetako 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.
  - b) Aurreko letran adierazitakoa ez bezalako zirkulazio emate-agiria edo, hala badagokio, administrazioko dokumentu elektronikoa, baldin eta barneko lurralde-eremuko erosketak badira.
  - c) Zergaren zerga oinarrian sartu izana egiaztatzen duen kontabilitateko idazpena, baimendutako gordailuzainek urrunera egindako salmenten kasuan.
  - d) Zergaren ordainketa egin izanaren ziurtagiriak, eskatzailea zergaren zergaduna denean, barrukoa ez den Elkarteko lurralde eremutik iritsitako produktuen inportazioei edo jasotzei dagokienez.
- 5. Barruko lurralde eremuan marka fiskalak erabiliz zirkulatu duten produktuen itzulketa guztietan, itzulketa erabakitzeko, beharrezkoa izango da marka horiek balio gabetzea edo

suntsitzea, zerga administrazioaren kontrolpean, produktuak barruko lurralde eremutik irten baino lehen.

Horretarako, interesatuak idatziz jakinaraziko dio, kudeaketa bulegoari eta aduanari, marka fiskalak balio gabetzeko edo suntsitzeko asmoa duela, eta hori egiteko lekua eta modua ere jakinaraziko dio. Kudeaketa bulegoak edo aduanak, berriz, beharrezko guztia egingo du, balio gabetzea edo suntsitzea hirurogeita hamabi orduko epean (larunbatak eta jaiegunak zenbatu barik) eta Zerga Administrazioako zerbitzuen kontrolpean egiteko.

6. Establezimenduaren titularra zergapeturiko produktuen jabea ez denean (itzulketa eskubidea sortu duten helburuetarako establezimenduan erabiltzen diren produktuak), itzulketarako eskatzen diren agiriak establezimenduaren titularrak eta zergapeturiko produktuen jabeak bete beharko dituzte, eta azken horri kasuan kasuko itzulketa egingo zaio.
7. Zerga berezien ondorioz ordaindutako kuoten itzulketa prozedurak ebazteko (ondoren adierazitako prozedurak), gutxienez sei hilabeteko epea egongo da, honako data hauetatik zenbatzen hasita:
  - a) 5. artikuluan jasotako prozeduretan (karburante hornidurak, nazioarteko harremanetan), epea artikuluko horretako 6. atalean aipaturiko zerrenda zentralizatua (txartelak ematen dituzten erakundeek bidalita) kudeaketa zentroko erregistroan sartzen denean hasiko da zenbatzen.
  - b) 7. artikuluan jasotako prozeduretan (esportazioaren ondoriozko itzulketak), epea merkantziak Europar Batasuneko aduana lurraldetik irteten diren egunean hasiko da zenbatzen.
  - c) 8, 9 eta 10. artikuluetan jasotako prozeduretan (barrukoa ez den Elkarteko lurraldeari egindako bidalketen ondoriozko itzulketak), epea artikuluko horietako 5, 4 eta 4. ataletan (hurrenez hurren) aipaturiko eskabidea kudeaketa bulegoko erregistroan sartzen den egunean hasiko da zenbatzen.
  - d) 54 eta 80. artikuluetan jasotako prozeduretan (alkohola eta alkoholduen edariak erabiltzearen ondoriozko itzulketak, prozesu batzuetan), epea lehenengo artikuluko 5. atalean eta bigarren artikuluko d) paragrafoan aipaturiko eskabidea kudeaketa bulegoko erregistroan sartzen den egunean hasiko da zenbatzen.
  - e) 109, 110 eta 111. artikuluetan jasotako prozeduretan (erabilera batzuetan hidrokarburoak erabiltzearen ondoriozko itzulketak), epea artikuluko horietako bakoitzeko 4., 8. eta 5. ataletan (hurrenez hurren) aipaturiko eskabidea berori tramitatzeko eskumena duen erakundearen erregistroan sartzen den egunean hasiko da zenbatzen.
  - f) 124. artikuluan jasotako prozeduran (tabakoaren lanak birziklatzearen edo suntsitzearen ondoriozko itzulketa), bertako 5. atalean jasotako kasuari dagokionez, epea artikuluko horretako 1. atalean aipaturiko eskabidea kudeaketa bulegoko erregistroan sartzen den egunean hasiko da zenbatzen.

Administrazioak kasu guztietan berariazko ebazpena emateko duen betebeharraren kalterik gabe, atal honetan jasotako kasuetan itzulketa eskabideak gaitziritzi egingo dira, aipaturiko epean berariazko ebazpenik eman ez denean.

8. 55, 112 eta 124. artikuluetan jasotako itzulketa prozeduretan (zerga bereziei lotutako ondasun batzuk lantegian edo gordailu fiskalean berriro sartzeari buruzko artikuluetan), Administrazioak zazpi eguneko epea dauka, artikuluko horietako 1, 1 eta 1. ataletan (hurrenez hurren) aipaturiko eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita, produktuak berriro ere lantegira edo gordailu fiskalera bidaltzeko baimena emateko. Eskabide hori onartutzat hartuko da, epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez denean.

Halaber, Administrazioak sei hilabeteko epea edukiko du (aurreko paragrafoan aipaturiko eskubidea aurkezten denetik zenbatzen hasita), itzuli beharreko kuotaren zenbatekoa ezartzeko. Epe hori berriazko ebazpenik gabe igaroz gero, kuotaren zenbatekoa interesatuak aipaturiko eskabidean adierazitako datuen ondoriozkoa dela joko da.

Produktuak lantegian edo gordailu fiskalean jaso ondoren, baimendutako gordailuzain hartzaileak (55, 112 eta 124. artikuluetako 4, 4 eta 4. ataletan aipaturikoa, hurrenez hurren) hilabeteko epea edukiko du (itzuli beharreko kuotaren zenbatekoa, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, berriazko edo ustezko ebazpenaren bidez zehazten denetik zenbatzen hasita), zenbateko hori itzulketa eskabidea egin duenari ordaintzeko.

9. Baldin eta Arautegi honetako 7. artikulutik 10. artikulura eta 109.etik 112.era arteko artikuluetan ezarritako itzulketak Hidrokarburoen gaineko Zergaren xedeko eremuaren barruko produktuei badagozkie eta produktuon zati bat Legearen 51.3. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu zaion bioerregaia bada, produktuari benetan jasanarazitako kuotan baino ez du eraginik izango itzulketak.

Hori dela eta, produktuak zenbat biokarburante daukan agiri bidez zehazterik ez dagoenean, analisi kimikoaren bidez zehaztuko da. Aduanetako eta zerga berezietako laborategietan egingo da analisi hori, horiei buruzko arautegian ezarritako prozedurari jarraituz. Ondorio horietarako, 8, 9, 10 eta 110. artikuluetan aurreikusitako itzulketetarako aukera ematen duten bidalketak egin aurretik Zerga Administrazioari zerbitzuak jakitun jarri beharko dira.

## **7. artikulua. Esportazioaren ondoriozko itzulketak.**

1. Legeren 10. artikuluko 1. ataleko a) eta b) letretan aipatzen diren itzulketa eskatzeko, Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroak xedatutako ereduaren arabera eskabide bat aurkeztu beharko da, eta eskabide hori aduanako esportazio-dokumentuan jasota utzi beharko da. Eskabidea aduanako esportazio-dokumentua aurkeztu eta berehala aurkeztu beharko da.

Aduanak esportatutako salgaien motari eta kopuruari buruzko egiaztapenak egiten dituenean, esportatzailearen egoitzari dagokion bulego kudeatzaileak itzulketa-espeditzea bideratuko du, eta hala badagokio, kasuan kasuko kuotak ordaintzeko aginduko du. Esportatzaile bakoitzak hilabetez egindako esportazioei dagozkien itzulketak taldekatzea baimendu ahalko du bulego kudeatzaileak, baldin eta halako erabaki bat justifikatzen duen arrazoirik egonez gero. Halakorik eginez gero eskabidea hurrengo hileko lehenengo zazpi egunetan zehar aurkeztu beharko da. Eskudun organoak esportatzailearen zerga-egoitzari dagokion bulego kudeatzaileari jakinaraziko dio taldekatze-baimena.

2. Itzulketa eskabidearen barruan ezin izango dira kuota batzuk sartu, horien itzulketa Legearen artikulua hauetan ezarrita dagoenean:
  - a) 22. artikulua.
  - b) 43. artikuluko.
  - c) 52. artikuluko a) letra.

3. Elkarteko aduana lurraldetik irteteko epea kontuan hartuko da, itzuli beharreko kuota zehazteko, baldin eta Araudi honetako 6. artikuluko 2. atalean ezarritakoa aplikagarria bada.

## **8. artikulua. Itzulketak gordailu fiskalean sartzeagatik.**

1. Legearen 10. artikuluan 1. atalaren c) lettran aurreikusitako zerga itzultzeko prozedura, gordailu fiskal batean ondoren komunitatetik kanpoko lurralde-eremuaren barruan ezarrita edo helbideratuta dagoen hartzaile bati bidaltzeko sartzen diren fabrikazioko zerga berezien

xede diren produktuei dagozkien kuotei dagokienez, artikuluan honetan ezartzen denaren bidez zuzenduko da.

2. Produktuak sartzen diren gordailu fiskalaren titularrak hauen sarrera bere kontabilitatean erregistratuko du, karguko dokumentu gisa enpresariak emandako zirkulazioko dokumentuak balio izango du. Produktu hauek ezin izango dute komunitatetik kanpoko lurralde-eremura bidaltzea beste xederik eduki, baimendutako gordailuzainaren erantzukizunpean.
3. Gordailu fiskalaren produktuen irteera kontabilizatzeko orduan, gainera, karguko idazpen egokiaren erreferentzia ere jasoko da. Enpresariak adierazitako xederainoko zirkulazioa eteteko erregimeneko komunitate barneko zirkulaziorako ezarritako zirkulazioko dokumentuaz babestuko da.
4. Gordailu fiskalaren titularrak enpresariari harrerako jakinarazpenaren kopia bat igorriko dio. Bidaltzaileak, aipaturako kopia horretan, bere kontabilitatean idazpen egokiari dagokion erreferentzia jasoko du.
5. Enpresariak, produktuak irteerako establezimendu bakoitzari dagokion bulego kudeatzailean, itzultzeko eskabidea aurkeztuko du, Ekonomia eta Ogasun Ministroak onartzen duen eredura egokitzen dena. Eskabide honek aldeztu aurretik gordailu fiskalean sartuta komunitatetik kanpoko lurralde-eremura egindako bidalketak, hiruhileko bakoitzean bere xedera iritsi direnak, barne hartuko ditu.
6. Eskabidea hiruhilekoa amaitu ondorengo hileko lehenengo hogeita egun naturaletan aurkeztu beharko da, eta bertan honakoa jaso beharko da idatziz operazio bakoitzeko:
  - a) Establezimendutik atera den data.
  - b) Produktuak sartu dituzten gordailu fiskala, jarduera eta establezimenduaren kodea adierazita (JEK).
  - c) Xedeko Estatua.
  - d) Hartzailearen izena, abizenak edo sozietatearen izena eta helbidea, eta bere identifikazio fiskaleko zenbakia BEZaren ondorioetarako eta bere identifikazio fiskaleko zenbakia zerga berezien ondorioetarako, baimendutako gordailuzaina edo hartzaile erregistratua bada, edo xedeko Estatuko agintari fiskalek esleitutako bidalketaren baimen-zenbakia, noizbehinkako hartzaile erregistratua bada.
  - e) Itzulketa eskatzen den zerga bakoitzaren epigrafeetako bakoitzaren produktu bidalien klasea eta kantitateak, epigrafe bakoitzaren unitateetan adierazita.
  - f) Baimendutako gordailuzainak bidaltzeko data, bai eta honek emandako administrazioko dokumentu elektronikoaren dokumentua ere.
  - g) Hartzaileak egindako harreraren jakinarazpenaren data, eta
  - h) Eskatzen den itzulketaren zenbatekoa, Araudi honen 6. artikuluan 1. atalean edo, bestela, 2. atalean ezarritakoarekin bat etorritik kalkulaturik.
7. Enpresariak, lau urteko aldi batez, bulego kudeatzailearen edo ikuskatzeko zerbitzuaren eskuragarri edukiko ditu artikuluan honen 4. atalari aipatzen dituen kopiak eta komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan fabrikazioko zerga berezien ordainketa edo kontabilitateko kargua egiaztatzen duten dokumentuak. Azkeneko dokumentu hauek hurrengo datu hauek egiaztatzen dituen eginbide batez ordezkatu ahal izango dira:
  - a) Xedeko Estatuko agintari fiskalen bulego eskudunaren helbidea.

- b) Aipatutako bulego horrek deklarazioa eta deklarazio honen erreferentzia edo erregistroko zenbakia onartu zituen data.
- 8. Araudi honen 6. artikulua 2. atalean ezarritakoa aplikatzearen ondorioetarako, itzulketarako eskubidea eragiten duen eragiketa produktuak xedeko Estatuan jasotzea dela jotzen da.
- 9. Enpresariak, lau urteko aldi batez, bulego kudeatzailearen edo ikuskatzeko zerbitzuaren eskuragarri mantenduko ditu zerga bidalitako produktuengatik barneko lurralde-eremuaren barruan ordaindu izana egiaztatzen duten dokumentuak.
- 10. Bulego kudeatzaileak itzulketaren espedientea ebatziko du eta, beharrezkoa bada, egokiak diren kuotak ordaintzea erabakiko du.

### **9. artikulua. Bermaturiko bidalketen sistemaren bidezko itzulketa.**

- 1. Legeko 10. artikuluko 1. ataleko d) paragrafoan zerga itzultzeko ezarritako prozedura, fabrikazioaren gaineko zerga bereziei loturiko produktuen kuotei dagokienez (barruko lurralde eremuaren barruan, barrukoa ez den lurralde eremura bidaltzeko, bermaturiko bidalketa sistemaren bitartez), artikulua honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.
- 2. Enpresariak, produktuak eman baino lehen, egiaztatu egin beharko du jasotzaileak fabrikazioaren gaineko zerga berezien ordainketa Estatu jasotzailean bermatu duela.
- 3. Produktuek laguntzako agiri sinplifikatuaren babesean zirkulatuko dute, eta agiri hori ematea egiten duen enpresariak emango du.
- 4. Enpresariak itzulketa eskabidea aurkeztuko du, ematea egin duen establezimendu bakoitzari dagokion kudeaketa bulegoan; eskabide hori, berriz, Ekonomia eta Ogasun ministroak onetsitako ereduaren arabera izango da, eta barruan, bermaturiko bidalketen prozeduraren bidez egindako emateak adieraziko dira (baldin eta horien zerga barrukoa ez den lurralde eremuan ordaindu bada, hiruhileko bakoitzean).
- 5. Eskabidea aurkeztuko da hiruhilekoa bukatu ondoko lehenengo hogeitun egunen barruan aurkeztuko da eta bertan, eragiketa bakoitzeko, honako hauek adieraziko dira:
  - a) Emandako laguntzako dokumentu sinplifikatuaren erreferentzia-zenbakia.
  - b) Irteteko eguna.
  - c) Xedeko Estatu kidea.
  - d) Hartzailearen izena, abizenak edo sozietatearen izena eta helbidea, bai eta BEZaren ondorioetarako bere identifikazio fiskaleko zenbakia ere.
  - e) Itzulketa eskatzen den zerga bakoitzaren epigrafeetako bakoitzaren gainean emandako produktuen klasea eta kantitateak, epigrafe bakoitzaren unitateetan adierazita.
  - f) Hartzaileak jasotzen dituen eguna,
  - g) Xedeko Estatu kidean egindako zergaren ordainketaren eguna eta erreferentzia, eta
  - h) Eskatzen den itzulketaren zenbatekoan, Araudi honen 6. artikulua 1. atalean edo, bestela, 2. atalean ezarritakoarekin bat etorritik kalkulaturik.
- 6. Araudi honetako 6. artikuluko 2. atalean ezarritakoa aplikatzearen ondorenetarako, itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa zerga Estatu jasotzailean ordaintzea edo kargatzea dela joko da.

7. Enpresariak, lau urteko aldi batez, bulego kudeatzailearen edo ikuskatzeko zerbitzuaren eskuragarri mantenduko ditu emandako laguntzako dokumentu sinplifikatuen aleak, zerga, emandako produktuengatik, barneko lurralde-eremuaren barruan ordaindu izana egiaztatzen duten dokumentuak, hartzaileek itzulitako laguntzako dokumentu sinplifikatuen aleak eta zerga xedeko Estatu kidean ordaindu izanaren frogagiriak.
8. Kudeaketa bulegoak itzulketa espedientea ebatzi eta, bidezkoa izanez gero, kasuan kasuko kuoten ordainketa erabakiko du.
9. Zerga ordaintzeko zero tasa aplikaturik duten produktuak direnean, horiek bidaltzen dituen enpresariak artikuluko honetako 2, 3 eta 7. artikuluetan ezarritakoa bete beharko du.

#### **10. artikulua. Urruneko salmentaren sistemaren bidezko itzulketa.**

1. Legeko 10. artikuluko 1. ataleko e) paragrafoan ezarritako itzulketa, fabrikazioaren gaineko zerga bereziari loturiko produktuen kuotei dagokienez (produktuok barruko lurralde eremuko enpresari baten establezimendutik bidali zaizkionean, barrukoa ez den lurralde eremuan helbideraturiko pertsona bati, urruneko salmenten sistemaren bitartez), artikuluko honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.
2. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziei loturiko produktuak barrukoa ez den lurralde eremura bidali nahi dituzten enpresariak (urruneko salmenten prozeduraren bidez), bestalde, bidalketak egiteko establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoan halakotzat jasota gelditzeko eskabidea egin beharko dute.
3. Establezimendu bakoitzean, prozedura honen bidez egindako bidalketen kontabilitatea eraman behar da, eta bertan hauxe erregistratu beharko da bidalketa bakoitzari dagokionez:
  - a) Bidalketaren ordena korrelatiboa.
  - b) Establezimendutik irteteko eguna.
  - c) Fakturaren edo horren ordezeko merkataritza agiriaren zenbakia.
  - d) Jasotzailearen izen-deiturak, egoitza, helbidea eta identifikazio fiskalaren zenbakia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoretarako.
  - e) Estatu jasotzailea.
  - f) Estatu jasotzailean bidalketa baino lehen emandako bermearen erreferentzia.
  - g) Bidalitako produktu mota; horiek sailkatzen dituen kodea eta kasuan kasuko zergaren tarifa zein epigrafea ere adierazi beharko dira.
  - h) Bidalitako produktuen kantitatea, kasuan kasuko epigrafeetan ageri diren unitateetan adierazita.
  - i) Jasotzaileari emateko eguna.
  - j) Zerga Estatu jasotzailean ordaintzeko eguna eta ziurtagiriaren erreferentzia.
  - k) Itzultzeko eskatzen den kuotaren zenbatekoa.
  - l) Kasuan kasuko itzulketa eskabidearen hiruhilekoaren eta urtearen erreferentzia.
4. Enpresariak, establezimendu bakoitzari dagokion kudeaketa bulegoan, itzulketa eskabide bat aurkeztuko du, Ekonomia eta Ogasun ministroak onetsitako ereduaren arabera; bertan, urruneko salmenten prozeduraren bidez egindako bidalketak jasoko dira, horien zerga barrukoa ez den lurralde eremuan eta hiruhileko bakoitzean ordaindu bada.

5. Eskabidea, berriz, hiruhilekoa amaitu osteko hilabetearen lehenengo hogeitun egunetan aurkeztuko da, eta bertan, Estatu jasotzaile bakoitzari dagokionez, haxe adieraziko da: zerga bakoitzeko epigrafe bakoitzeko produktuen kantitateak, epigrafe bakoitzeko unitateetan adierazita, produktu horien ondoriozko itzulketa eskatzen baita; eskabidean jasotako bidalketen ordena zenbakiak eta eskatzen den itzulketaren zenbatekoa, Araudi honetako 6. artikuluko 1. edo, bestela, 2. atalean ezarritakoaren arabera kalkulatu.
6. Araudi honetako 6. artikuluko 2. atalean ezarritakoa aplikatzearen ondoretarako, itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa zerga Estatu jasotzailean ordaintzea edo kargatzea dela joko da.
7. Enpresariak fakturak, bidalitako produktuengatik barneko lurralde-eremuan zor zituen zergak ordaindu izana egiaztatzen duten ordainagiriak eta xede Estatuko zerga ordaindu izanaren egiaztariak gorde beharko ditu lau urtez (itzulketa eskatzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita), haiek hala eskatuz gero bulego kudeatzaileari zein ikuskaritza-zerbitzuei eman ahal izateko.
8. Kudeaketa bulegoak itzulketa espedientea ebatzi, eta, bidezkoa izanez gero, kasuan kasuko kuoten ordainketa erabakiko du.
9. Produktuak lantegi edo gordailu fiskal batetik bidaltzen direnean, ez da beharrezkoa izango artikuluko honetako 2, 4 eta 5. ataletan ezarritakoa betetzea. Establezimenduko izakinen kontabilitatean, goiko 3. atalean aipaturiko datuak jaso beharko dira. Itzulketa egiteko, itzuli beharreko kuotak murriztu beharko dira, zerga Estatu jasotzailean ordaintzeko zerga-aldian ordaindu behar ziren kuotetatik.
10. Zergari dagokionez zero tasa duten produktuak direnean, horiek urruneko salmenten prozeduraren bidez bidali dituen enpresariak artikuluko honetako 2, 3 eta 7. ataletan ezarritakoa bete beharko du, bertako 9. atalean ezarritakoaren kalterik gabe.

## **5. ATALA**

### **GORDAILUAK ETA BILTEGIAK**

#### **11. artikulua. Gordailu fiskalak.**

1. Zentro kudeatzaileak horrela eskatzen duten pertsonen gordailu fiskalak ezartzeko baimena eman ahal izango die. Gordailu hauetan, eteteko erregimenean, honakoa egin ahal izango dute:
  - a) Fabrikazioko zerga berezien xede diren ondasunak jaso, biltegiratu eta eman ahal izango dituzte.  
  
Eragiketa hauen barruan aipaturiko ondasunak kontserbatu eta ontziratze eragiketarik daudela joko dira, bai eta eraldaketa ez diren nahasteko eragiketarik ere, hurrengo b) eta c) letretan xedatutakoa izan ezik.
  - b) Markagailuak eransteko edo desnaturalizatzeko eragiketarik egin ahal izango dira.
  - c) Hidrokarburoen gordailu fisikaletan, Hidrokarburoen gaineko Zergaren xede diren produktuen nahasketarik egin ahal izango dira, elkarren artean edo bestelako produktuekin, betiere lortutako nahasketa zergaren eremu objektiboaren barruan jasota badago.
2. Gordailu fiskal baten baimena hurrengo eskakizun hauek betetzearen baldintzapean egongo da:
  - a) Urte natural batean zehar irteeren batez besteko hiruhileko bolumenak hurrengo zenbateko hauek gainditu beharko ditu:

- 1.a. Alkohola: 400.000 litro alkohol puru. Kanaria eta Balearretan muga hau alkohol puruko 100.000 litrokoa izango da.
- 2.a. Eratorritako edariak: 25.000 litro alkohol puru
- 3.a. Estraktu eta kontzentratu alkoholikoak bakarrik: alkohol puruko 3.500 litro
- 4.a. Bitarteko produktuak: 150.000 litro.
- 5.a. Ardoa eta edari irakinak: 150.000 litro.
- 6.a. Garagardoa: 150.000 litro.
- 7.a. Edari alkoholikoak batera: alkohol puruko 30.000 litroren baliokideko kantitatea.
- 8.a. Hidrokarburoak: 2.500.000 kilogramo.
- 9.a. Tabakoaren lanak: Jendeari saltzeko bere gehieneko prezioaren arabera kalkulatuta 2.500.000 euroko balioa duen kantitatea.
- 10.a. a) atal honen aurreko zenbakietan ezarritakoa alde batera utzita, irteeren gutxieneko bolumena betetzea ez da eskatuko hurrengo gordailu fiskal hauen baimenarekin lotuta:
  - 1.' Ontzi eta aireontzietan kontsumitu edo saltzera zuzendutako edari alkoholiko eta tabakoko lanen horniduraren eragiketak egiteko bakarrik baimentzen diren gordailu fiskalak.
  - 2.' Portu eta aireportuetan kokaturiko eta txikizkako establezimendu gisa bakarrik funtzionatzen duten edari alkoholiko eta tabakoko lanen gordailu fiskalak.
  - 3.' Kerosenoak eta abiazioko gasolinak banatzera bakarrik zuzentzen diren aireportuko instalazioetan kokaturiko gordailu fiskalak.
  - 4.' Legearen 50 bis eta 51.3 artikuluek aipatzen dituzten olio eta koipeen eta alkohol metilikoaren (metanola) banaketan bakarrik aritzen diren gordailuak.
  - 5.' Hidrokarburoen Zergaren 2. tarifaren barruan jasotako produktuak banatzen bakarrik aritzen diren gordailu fiskalak.
  - 6.' Desnaturalizatu gabeko alkohol ontziratua, titularrak berak fabrikatuta, biltegiatzen bakarrik aritzen direnak. Honek xede exentua izango du barneko lurralde-eremuan edo komunitatetik kanpoko lurralde-eremura edo esportaziora zuzenduko da

Zenbaki honetako 1' eta 2' puntuek aipagai dituzten gordailu fiskalek edari alkoholdunak eta tabakoaren lanak (edo bi produktuetako bat) ere bidali ahalko dituzte, beti ere gordailu fiskal igorlearen operazio berberetarako baimena duten gordailu fiskaletara igortzen badituzte, eta produktuak itzuli ahalko dizkiete jatorrizko hornitzaileei.

- b) Bi urte baino gehiagoz erregulariki eta etenik gabe funtzionatzen ari den gordailu fiskal baten titularra denak eskatzen duenean, produktuen kategoria berbererako gordailu fiskalen bere izenean baimentzea, aurreko lerroakadak aipatzen dituen mugimenduko bolumenak 100eko 25ean murriztuko dira.

Murrizketa ere aplikagarria izango da gordailu fiskalaren eskatzailea bi urte baino gehiagoz erregulariki eta etenik gabe funtzionatzen ari den eta gordailuaren eskabidearen aurreko hamabi hilabeteko aldian zehar irteeren batez besteko hiruhileko bolumenak aurreko a) letran ezarritako zenbatekoak gainditzen dituen produktuen kategoria bereko lantegi baten titularra denean.



Aurreko lerroak aipatzen dituen murrizketak ez dira aplikagarriak izango hidrokarburoen gordailu fiskalen baimenarekin lotuta.

- c) Zerga gordetegiak edozein jarduera egiten denekiko instalazio independenteetan kokatuko dira, zerga segurtasun eta kontrol arrazoiak direla-eta, gordetegiaren agintaritzak zehaztutakoarekin bateragarria ez bada. Bereziki, hidrokarburoen zerga gordetegiak jendeari saltzeko instalazioekiko edo petrolio erregaiak ibilgailuei hornitzen dizkieten horiekiko instalazio independenteetan kokatuko dira. Instalazioa independentetzat joko da beste batekin komunikaziorik ez duenean eta herri bidera zuzeneko sarbidea ageri denean.

Hala eta guztiz ere, kudeaketa bulegoak lokalaren zona mugatu bat, gordetegia duena, bertatik kanpokotzat jotzea baimen dezake; nolana ere, hori bakarrik etenaldiaren araubidea azkentzearen ondorioz zerga sortu zutenak eta, ondoren, titularrari itzuli zitzaizkionak gordetzeko eta, gero, produktuak bidaltzeko izango da.

Produktu horien mugimendua xede horrez gaitutako liburuan erregistratuko da eta karguaren idazpenak itzultzen duen pertsonak edo erakundeak egindako albaranarekin justifikatuko dira; berriz bidalitako produktuen zirkulazioa babesteko, dataren idazpenak egindako albaranaren bitartez justifikatuko dira.

- d) Zerga gordetegietan solteko likidoak sartzen badira, produktuak biltegitratzeko tangak izango dituzte. Nolanahi ere, establezimenduan produktuen sarrera-bolumena kontuan hartuta, kudeaketa bulegoak eskatzen duen gutxieneko biltegitratze edukieraz hornituko dira. Tangak mota eta zehaztapenen arabera bereiziko dira, zenbatuak azalduko dira eta neurketa-elementuak izango dituzte, erakunde ofizialak edo agintaritza eskudunak behar bezala baimendu ostean.
- e) Gordailu fiskal guztietan izakinen kontabilitatea egin beharko da Araudi honetako 50. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kargu-idazpenak emateko toki gisa gordailu fiskala erakusten duten administrazioko dokumentu elektronikoen ARC bidez justifikatuko dira. Data-idazpenek irteten diren produktuei emandako tratamendu fiskal ezberdinak bereizteko aukera ematen dute, eta gordailuaren titularrak emandako zirkulazio-dokumentuen bidez justifikatuko dira. Gordailu fiskalean eraldaketa-eragiketak egiten badira Legearen 15. artikulua xedatutakoari jarraiki, eragiketa horiek gordailuko kontabilitatean jasota geratu beharko dira.
- f) Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak ukitzen dituen petrolioko produktuekin lotuta bere jarduera garatzen duten hidrokarburoen gordailu fiskalak, aipatutako lege horren gainean adierazten diren aginduetan ezarritakoarekin bat etorritik, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenei bakarrik baimendu ahal izango zaizkie:
  - 1.a. 40.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik garraioko instalazioetarako edo biltegitratzeko parkeetarako administrazioko baimen baten titularrak direnei.
  - 2.a. Handizkako operadorearen izaera dutenei 42. eta 45. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.
  - 3.a. Xede honetarako baimendutako instalazioetatik petrolioko produktuen txikizkako banatzailearen jarduera egiten dutenei, 43., 46. eta 47. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.
- g) Gas naturalaren gordailu fiskal gisa baimendu ahal izango da gas-sistema, Hidrokarburoen Sektorearen Legearen 59. artikuluan beraz deskribatzen den bezalaxe, barne hartzen duten instalazioetako edozein. Gordailu fiskal bakar gisa baimendu ahal izango dira aipatutako instalazioetako hainbat, betiere bere titularra pertsona berbera bada eta hauen kontrol zentralizatua badago.

- h) Aireportuetan zerga gordetegi baimenduetan tangak, sute-ahoak eta produktuez hornitzeko unitateak biltegitratze-instalazioak izango dira.

Aipatutako instalazio horiek gordailu fiskal gisa baimentzeko, aplikagarri diren eskakizun orokorrak betetzeaz gainera, beharrezkoa izango da eskatzailea aipatutako 34/1998 Lege horren 67. eta 73. artikuluetan jasotakoetan, kasuaren arabera, bidezkoa den administrazioko baimena edukitzea.

3. Gordailu fiskal baten baimenaren eskabideak, edozelan ere, zerga-obligaziodunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia eta, beharrezkoa bada, ordezkatzen duen pertsonarenak, jaso beharko ditu, eta interesdunek zentro kudeatzailearen aurrean aurkeztuko dute. Aipatutako eskabidearekin batera hurrengo agiri hauek ere aurkeztuko dituzte:
  - a) Eskatzen duten baimenarekin lotuta garatu nahi duten jardueraren deskribapen-memoria eta urte natural batean zehar irteeren batez besteko hiruhileko bolumenaren aurreikuspen arrazoitua. Aipatutako memoria horretan gordailu fiskalean burutzea planeatzen den eraldatzeko eragiketak ere deskribatu behar dituzte.
  - b) Establezimenduaren esparruaren eskalako planoak, gordailu kopurua eta bere edukiera adierazita. Oliobide edo gasbideen sareei buruzkoak diren eskabideetan hodi-sarearen eta kokapenaren planoak eta punpatzeko elementuen klasea, bai eta sarea osatzen duten aipatutako elementuen, produktuen fluxuaren neurketak egiteko erabilien eta, egonez gero, biltegitratzeko baliabideen adierazpena ere.
  - c) Artikulu honen 2. atalaren c), d) eta e) letretan xedatutakoa betetzearen egiaztagiriak.
  - d) Administrazioko bestelako erakunde batzuei ematea dagozkien baimenen egiaztagiriak. Zehazki eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektiboan jasotako produktuei buruzko jarduerari dagokienez, beharrezkoa izango da Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean eta berau garatzeko araudian xedatutakoa aplikatzeagatik eman beharreko baimenaren egiaztagiriak aurkeztea. Tabakoaren lanei dagokienez, beharrezkoa izango da Tabakoen Merkaturako Ordezkararen Operadoreen Erregistro egokian inskribatuta egotea, Tabakoen Merkaturako Antolatzailearen 4ko 13/1998 Legean eta Zerga Araudian eta garatzeko bere araudian ezarritakoarekin bat etorritik.
  - e) Araudi honen 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik aurkeztu beharreko bermearen proiektua.
4. Aurreko atalak aipatzen dituen agiriak eta eskabidea jasotakoan, zentro kudeatzaileak ikuskapeneko zerbitzuei igorriko dizkie egiaztapen egokiak egin ditzaten.
5. Gordailu fiskala ezartzeko baimena emandakoan, berau funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa izango da bere kokapenaren tokia dagokion bulego kudeatzailearen lurraldeko erregistroan inskribatzea eta berme egokia aurkeztea, Araudi honen 40. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, hurrenez hurren.
6. Gordailu fiskalak eteteko aduanako edozein erregimeneko merkantziak biltegitratzeko prestatzeko instalazioetan, aldi baterako gordailuaren biltegi gisa prestatutako lokal edo eremuetan edo zona edo gordailu frankoetan baimendu ahal izango dira. Aipatutako aukera hori aduanaren ondorioetarako instalazio horien kontrola artikulu honen 2. atalaren e) letrak aipatzen duen kontabilitateko informatika-sisteman integratzearen baldintzapean. Horrela bada uneoro aipatutako instalazio horietan sartutako merkantzien zerga edo aduanako estatutua ezagutzeko aukera egon beharko da.
7. Gordailu fiskalen instalazioa eta funtzionamendua Araudi honen barruan jasotako arau eta mugen mende egongo dira, bai eta bere baimena dela kausa ezartzen diren baldintza partikularren mende ere.

8. ...

## **12. artikulua. Harrerako gordailuak.**

1. Erregistratutako hartzaileek, komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik, eteteko erregimenean, etorritako fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak jaso ahal izateko, harrerako gordailuak gordailu hauetako bakoitzari dagozkien bulego kudeatzaileen lurralde-erregistroetan inskribatu beharko dituzte.
2. Aurreko atalak aipatzen duen harrerako gordailuen inskripzioa bere titularrak komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik produktuak eteteko erregimenean jaso ohi izatearen baldintzapean egongo da. Eskakizun hau ez betetzeak harrerako gordailuaren baja inskribatuta dagoen lurralde-erregistroan egitea ekarri ahal izango du.
3. Hurrengo 5. atalean xedatutakoa baztertu gabe, harrerako gordailu bakoitzean izakinen kontabilitatea eraman beharko dute. Honetan, karguan, eteteko erregimenean jasotako produktuak idatziko dira, harrerako data, ARC, produktuen klase eta kantitatea eta aplikatu beharreko epigrafea adierazita.
4. Zerga-aldi bakoitzean zehar sortutako kuotak hartzaile erregistratuak ordaindu beharko ditu, autolikidazio bidez, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ezartzen dituen toki, forma, epe eta inprimakietan, hurrengo 6. atalak aipatzen dituen egoerak gertatzen direnean izan ezik.
5. Harrerako gordailua biltegi fiskal baimendutzat dagoenean ere, bertan jasotzen diren produktuak (biltegi fiskaletik banatzeko, salbuespen baten babesean edo tasa murriztua aplikatuta) egunero datatu beharko dira harrerako gordailuaren kontuan, eta biltegi fiskalean ere kargatu beharko dira.
6. Harrerako gordailuan sartutako produktuak fabrikazioaren gaineko zerga berezien salbuespen eskubidea sortzen duten helburuetarikoaren baterako erabiltzen badira (Araudi honetan ezarritako baldintzak betez), helburu horietan kontsumituriko zenbatekoak izakinen kontabilitatean datatuko dira egunero, "salbuetsitako kontsumoak" adierazpidea ipinita. Hala eta guztiz ere, bete egin beharko dira zergaren salbuespena duten produktuen erabiltzaile izatearen berezko betebeharrak.

## **13. artikulua. Biltegi fiskalak.**

1. Bulego kudeatzaileek biltegi fiskalaren irekiera eta funtzionamendua baimendu ahal izango dizkiete horrela eskatzen duten pertsona eta erakundeei. Baimenaren eskabideak, edozelan ere, zerga-obligaziodunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia barne hartu beharko ditu eta, egonez gero, hau ordezkatzeko duen pertsonarenak, eta instalazioa kokaturik dagoen tokia dagokion bulego kudeatzailearen aurrean aurkeztuko da. Aipatutako eskabide horrekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztuko dira:
  - a) Ordezkaritza, egonez gero, egiaztatzen duen agiria.
  - b) Garatu beharreko jardueraren memoria.
  - c) Instalazioen planoak, biltegitratzeko gaitasuna adierazita.
  - d) Administrazioko beste organo batzuei ematea egokia den baimenen egiaztageria.
2. Legeko 15. artikuluko 5. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, biltegi fiskalak honako leku hauetan baimendu ahal izango dira: merkantziak edozein aduana etengarritan pilotzeko instalazioetan, harrerako gordailuetan eta biltegietan, aldi baterako gordailuko biltegitzat gaitutako aldeetan edo alde zein gordailu frankoetan, baldin eta pilaturiko merkantzien kontabilitateko kontrola egiten bada, merkantzia bakoitzaren estatutua (aduanakoa eta zergen arlokoa) jakin ahal izateko.

Gas sistema, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 59. artikuluan deskribatuta dagoen moduan, osatzen duten instalazioetako edozein baimendu ahal izango da gas naturaleko biltegi fiskal izateko. Instalazio horietako bat baino gehiago biltegi fiskal bakar modura baimendu ahal izango dira, betiere titularra pertsona berbera baldin bada, eta instalazioen kontrol zentralizaturik badago.

3. Kudeaketa bulegoak biltegi fiskalaren funtzionamendurako baimena emango du; hori lurraldeko erregistroan inskribatu eta kasuan kasuko inskribapen txartela emango du. Kudeaketa bulegoak baimena kantitate jakinera mugatu ahal izango du, eta gainera, eskatzaileari hornitzaileak aurretiaz izendatzeko eskatu ahal izango dio.
4. Biltegi fiskalean dauden izakinen kontabilitatea egin beharko da Araudi honetako 50. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Idazpen horiek dagozkien zirkulazio-dokumentuen bidez justifikatuko dira. Kontabilitateak biltegi fiskalean sartzen eta biltegitratzen diren produktu guztien kontrola egitea eta izakinak zenbatzea ahalbidetu behar du.
5. Biltegi fiskalean izakinen kontabilitatea eraman beharko dute, horrela, karguan jasotako produktuak jasoko dira eta datan, berriz, biltegitik atera direnak, eta espresuki kontsignatuta zerga hori tasa orokorrean sortuta, zergaren salbuespenarekin edo tasa murriztua aplikatuta jaso eta bidalitako produktuak diren. Idazpen hauek laguntzako dokumentu egokien edo ordezkatzan dituzten dokumentuen bidez justifikatuko dira Araudi honetan xedatutakoaren arabera. Kontabilitatearen multzoak biltegi fiskalean sartu eta biltegitratutako produktu guztiak kontrolatzea eta izakinen kontaketa egokiak ahalbidetu beharko ditu.
6. Biltegitik salbuespen batekin edo mota murriztuarekin irteten direnean, fabrikazioaren gaineko zerga bereziei lotutako produktuak (barruko lurralde eremuaren barruan) jardueraren edo ezarkuntzaren kodea (JEK) esleiturik duten lurralde erregistroetan inskribaturiko pertsonen nahiz establezimenduen eta xehekariei soilik bidali ahal izango zaizkie. Hala eta guztiz ere, Hidrokarburoen gaineko zergaren eremuko produktu hauek biltegi fiskaletik banatu ahal izango dira (Araudi honetan ezarritako baldintzetan):
  - a) Hegazkinen eta itsasontzien hornidurarako erabiltzen direnak.
  - b) Mota murriztua aplikatuta, azken kontsumitzaileei bideratzen zaizkienak.
  - c) Araudi honetako 116. bis artikuluko 1. atalean zehazturiko produktu apurkorak, azken kontsumitzaileei bideraturikoak.
7. Hidrokarburoen sektorearen araudiarekin bat etorritik hornidurak instalazio finkoei egiteko baimenduta dauden establezimenduak biltegi fiskaltzat hartuko dira, baina hornidurak azken kontsumitzaileei bakarrik egin ahal izango zaizkie.

8. ...

### **13 bis artikulua. Berrigorleak.**

...

## **6. ATALA ARAUBIDE ETENGARRIA**

### **14. artikulua. Eteko erregimena bukatzea.**

1. Lantegitik edo gordailu fiskaletik, barneko lurralde-eremura zuzenduta, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak ateratzen direnean, baldin eta eteko erregimenari helduta ez badaude, irteera hauek establezimenduaren izakinen kontabilitatean erregistratuko dira, eta bidezko zirkulazio-dokumentua emango da.

Zerga sortzea eragiten duten autokontsumoko eragiketak ere izakinen kontabilitatean erregistratuta gelditu beharko dira.

2. Produktuak esportatzeko xedez irteten direnean lantegitik edo gordailu fiskaletik, baldin eta barneko lurralde-eremuan dagoen aduana batetik irteten badira Erkidegotik, esportazio-tokian jasotzailearen ordezkari den pertsonaren izena eta identifikazio fiskalerako zenbakia jaso beharko dira administrazioko dokumentu elektronikoan horretarako dauden laukietan.

Erkidegoko lurraldeko irteera-aduanak esportazioen kontrolerako sistema elektronikoan (ECS-Export Control System) beteko du irteera, eta sistema horrek EMCS nazionalera irauliko du informazioa.

3. Eten araubidean esportatzeko zerga gordetegitik edo fabrikatik ateratzen diren produktuak ehun eta hogeit egunez biltegira daitezke esportaziorako salgaiak aurkezteko aduana agintaritza aginpidedunak baimendutako tokietan, eten araubidean dauden produktuen baldintza galdu gabe. Sarrerak arestian aipatu baimenari dagokion titularraren erregistroan kontabilizatuko dira eta karguaren idazpena justifikatzen duen administrazio dokumentu elektronikoan nahiz dataren idazpena justifikatzen duen esportazio idatzagiria aipatuko dira. Epe berean, produktu horiek edo horien zati bat irteerako zerga gordetegira edo fabrikara itzul daitezke, establezimendua inskribatua dagoen lurralde erregistroko kudeaketa bulegoak baimendu ostean eta zirkulazio aipatu baimenean oinarrituko da.

Esportaziorako salgaiak aurkezteko aduana agintaritza eskudunak baimentzen dituen tokietan produktuak hartu diren datatik produktua esportatu edo jatorrizko zerga gordetegi ala fabrikara itzuli gabe ehun eta hogeit eguneko epea igarotakoan eten araubidea azkendutzat joko da. Produktuen irteerako zerga gordetegi edo fabrikaren titularrak, egoera horren ondoriozko zerga-obligazioak betetzez arduradunak, hamabost egun naturalen buruan produktua dagoen tokiko kudeaketa bulegoari jakinaraziko dio, likidazioa egin dezan. Dagokion ondoretarako, eten araubidearen azkentzea epea amaitu eta lehenengo egun baliodunean egina dagoela ulertuko da.

Aurreko paragrafoan aipatu ustezkoan, produktuak esportaziorako salgaiak aurkeztutako aduana agintaritza eskudunak baimendu dituen tokietatik erretira daitezke, dauden tokiko kudeaketa bulegoak baimendu ondoren. Horretarako, lehenago, batetik, aurreko paragrafoan xedatutako baldintzetan jardun dela eta, bestetik, zerga berezietan buruzko kuotak ordaindu direla egiaztatuko beharko du. Produktuak ateratzeko araubidez aurrez ikusitako dokumentuak izango dira.

4. Ondoren Erkidegoko lurraldetik barneko lurralde-eremuan dagoen aduana batetik irtengo diren esportaziorako produktuak eteteko erregimenari lotuz gero, eteteko erregimen hori lotura amaitzen den unean bukatuko da. Administrazioko dokumentu elektronikoan horretarako dagoen laukian eteteko aduana-erregimenarekiko lotura baimentzen duen aduana-kodea jaso beharko da.
5. Araudi honen 3. artikulua aipatzen dituen kasuetan, eteteko erregimena produktu konpentsatzaileen esportazioarekin bukatuko da. Aipatutako produktu horiek Komunitatearen lurraldetik atera direla egiaztatuko da aduanako araudian aurreikusitako moduan.
6. Komunitatetik kanpoko lurralde-eremura egindako bidalketetan, baimendutako gordailuzain batera edo erregistratutako hartzaile batera zuzenduta, komunitate barneko zirkulazioaren prozeduraren azkentzea egiaztatuko da zerga berezien xede diren produktuak hartu dituztelako jakinarazpen baten bidez. Jakinarazpen hau hartzaileak aurkeztuko du EMCSaren bitartez.
7. Produktuak eteteko erregimenean dauden bitartean galeren arauzko ehunekoen aplikazioari dagozkionak baino handiagoko galerak gertatuz gero, Araudi honen 15., 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

8. Eteteko erregimeneko produktuen zirkulazioa bukatuko da aipatutako produktuak ematen dituzten momentuan eta, esportazioen kasuan, berriz, produktuek Komunitatearen lurraldea utzi duten momentuan.
9. Dokumentu elektronikoko administratiboetan babestutako produktuen esportazioen kasuetan (barneko lurralde-eremuan ezarritako lantegi edo gordailu fiskal batetik egindakoa eta produktuak Komunitatearen lurraldetik aipatutako lurralde-eremu horretan kokatuta ez dagoen aduana batetik irtenda), Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak esportazioaren jakinarazpena, produktuak Komunitatearen lurraldetik irteten den Estatu kideko eskudun agintariak igorri beharrekoa, jasotzen duenean, esportazioa egiten duten lantegi edo gordailu fiskalaren titularrari bidaliko dio.

Erkidegoko lurraldeko irteera-aduanak esportazioen kontrolerako sistema elektronikoa (ECS-Export Control System) beteko du irteera, eta sistema horrek EMCS nazionalera irauliko du informazioa.

Dokumentu elektronikoko administratiboetan babestutako produktuen esportazioen kasuetan (komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan ezarritako lantegi edo gordailu fiskal batetik egindakoa, produktuak Komunitatearen lurraldetik barneko lurralde-eremuan kokaturiko aduana baten bitartez irtenda), Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak, irteteko Espainiako aduanak emandako bisatuan, Batzordearen 2454/93 EEE Araudiaren 2. atalaren 793 bis. artikuluan aipatutakoan, oinarriturik (honek produktuak Komunitatearen lurraldea utzi dutela ziurtatuko du), esportazioko jakinarazpena beteko du eta esportazioa egiten duen lantegi edo gordailua kokaturik dagoen Estatu kideko eskudun agintariari igorriko die.

10. Zerga berezien xede diren produktuen komunitate barneko zirkulazio bat, eteteko erregimenean, bukatu delako frogara, 32 artikuluan xedatutakoa xedatuta ere, Araudi honen 31.A.1 artikuluan aurreikusitako harreraren jakinarazpena da edo, bestela, aurreko 9. atalean aurreikusitako jakinarazpenaren jakinarazpena.
11. Aurreko atalean aurreikusitakoa alde batera utzita, eta komunitate barneko zirkulazioari dagokionez, 32 artikuluan azaldutako arrazoiaren bestelako batzuegatik harreraren jakinarazpenik ezean edo, bestela, esportazioaren jakinarazpenik ezean, zirkulazioa bukatu delako frogara aurkeztu ahal izango da xedeko Estatu kideko agintariak emandako baieztapenaren bidez. Azken honek, frogara egokietan oinarriturik, adierazi behar du produktuak deklaraturiko bere xedera benetan iritsi direla. Esportazioari dagokionez, berriz, egin daiteke Komunitatearen lurraldetik irteteko aduana kokaturik dagoen Estatu kideko eskudun agintariak emandako baieztapenaren bidez. Honek, era berean, aipatutako produktu horiek Komunitatearen lurraldetik atera direla ziurtatu behar du.

Ondorio hauetarako, frogatzeko elementu egokia izango da harrerako jakinarazpen edo esportazioko jakinarazpenaren datu berberak jasotzen dituen dokumentu oro, hartzaileak aurkeztutakoa.

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak, aurreko lerrokadarekin bat etorriz, frogara egokia onartzen duenean, EMCSn zirkulazioa bukatutzat emango du.

Hartu izanaren jakinarazpenik jaso ezean, bere eskura dauden bitartekoak erabilita ezin lortu izan duela ziurtatu ondoren igorleak hala eskatzen bada, zerga berezien arloko administrazio-lankidetzari buruzko Kontseiluaren azaroaren 16ko CE 2073/2004 Araudia indargabetzen duen zerga berezien arloko administrazio-lankidetzari buruzko maiatzaren 2ko UE 389/2012 Araudian jasotako prozedurak hasi ahal izango ditu bulego kudeatzaileak.

12. Zirkulatzeke orduan jatorria eta jomuga barne lurralde eremua bada, harrera jakinarazpenik izan ezean, 32. artikuluan azaldu diren arrazoi desberdinengatik, zirkulazioa amaitu izanaren frogara igorlearen kudeaketa bulego eskudunaren aurrean egiazta daiteke eta zuzenbidean onar daitekeen edozein frogara bitarteko erabili ahal izango da, harrera jakinarazpeneko datu berdina baditu.

Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak aurreko paragrafoarekin bat, froga egokia onartu duenean, barneko administrazio dokumentu elektronikoaren bidez zirkulazioa amaitutzat joko du.

#### **15. artikulua. Lantegien eta gordailu fiskalen barruko galerak.**

1. Arauzko portzentajeak gainditzen dituzten galerak (produkzio edo pilaketa prozesuetan, fabrikatik edo gordailu fiskaletik irten arte), aurkako frogarik egon ezean, fabrikaturiko eta fabrikatik nahiz gordailu fiskaletik irteerako edo autokontsumituriko ondasuntzat hartuko dira.
2. Baimendutako gordailuzainak nahiz administrazioak eginiko zenbaketen ondoriozko diferentziak agertzen badira, kontabilitatea erregularizatuko da idazpen egokia eginez.
3. Baldin eta alde onargarriak gainditzen dituzten diferentziak agertzen badira administrazioak eginiko zenbaketetan, gehiagoko diferentziak badira, kontabilitate eta erregistro arloko zergaren arau-hauste larri gisa zigortuko da, salbu eta beren beregi ezarritako zehapen bereziren bat aplikatu behar bada. Gutxiagoko diferentzia bada, likidazioa egin eta zerga arau-hauste larri gisa zigortuko da.
4. Zenbaketak hiruhileko hasierako edo amaierako egunetan egiten ez direnean, eta galeren arauzko portzentajeak hiruhileko magnitudeetan oinarrituz ezarrita daudenean, galera horiek zehazteko aplikatu beharreko portzentajea hiruhileko horretatik igarotako egun kopuruaren araberkoa izango da.
5. Hiruhilekoan kontabilitatea ixtean galerak daudela berariaz aipatzen ez bada, ez direla egon ulertuko da.

#### **16. artikulua. Zirkulazioko galerak.**

##### **A) Galerak barruko zirkulazioan.**

1. Barne zirkulazioan zehar eteteko erregimena duten fabrikazio-zerga berezien mendeko zenbat produktu galdu den zehazteko administrazio dokumentu elektronikoan jasotako kopuruaren eta hartzaileak bere establezimenduan jasotzen duenaren arteko aldea edo zirkulazioan zehar egindako egiaztapenetatik ondorioztatzen dena hartuko da kontuan.
2. Galerek ez badituzte araudiko portzentajeak aplikatuta lortzen direnak gainditzen, hurrenez hurren administrazio dokumentu elektronikoan eta harrera-jakinarazpenean jasotako kopuruengatik data- eta kargu-idazpenak onartuko dira igorlearen eta hartzailearen kontabilitateetan, zerga-arauketaren beharrik gabe.
3. Galerak arauzko portzentajeak aplikatzearen ondoriozkoak baino handiagoak badira, eta Administrazioak zirkulazioan egindako egiaztapenen bitartez aurkitu badira, kasuan kasuko prozedura hasiko da, bidezko zerga erantzukizunak zehazteko, eta hori, berez, bidalketa egin duenaren aurkakoa izango da.
4. Galerek araudian jasotako portzentajeak aplikatzearen emaitza gainditzen badute eta jasotzerako unean hartzaileak gorabeheraren berri ematen badu, harrera-jakinarazpenean jaso beharko da.
5. Baimendutako gordailuzain igorleak edo erregistratutako igorleak kasuan kasuko erregularizazio-idazpena jasoko du bere kontabilitatean, eta idazpen hori arauzko portzentajea aplikatuta lortuko litzatekeen kopurua gainditzen duen zenbatekoaren adinakoa izan beharko da. Bost egun naturaleko epea izango du horretarako harrera-jakinarazpena jasotzen duenetik hasita.
6. Galera ustekaberen edo ezustekoren baten ondoriozkoa izanez gero, baimendutako gordailuzain igorleak edo erregistratutako igorleak lau hilabeteko epea izango du

(bidalketa-egunetik aurrera) galera eragin zuten baldintzak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen froga-elementuak bulego kudeatzailearen aurrean aurkezteko. Aurkeztutako frogak egokiak diren ebatzi beharko du bulego kudeatzaileak, eta hala badagokio, Legearen 6. artikuluko 2. atalean xedatutako zergapenik eza aitortuko du.

7. Aurreko atalean aipatutako frogak aurkezten ez badira, edo aurkeztu arren bulego kudeatzaileak ez baditu zergapenik eza aitortzeko nahikotzat jotzen, galeren arauzko portzentajea gainditzen duen galduriko produktuen kopurua zergaren oinarrian sartuko da eta zerga-administrazioak erregularizatu egingo du.

**B) Galerak komunitate barneko zirkulazioan.**

1. Araudi honen 17. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe, Araudi honen 1.12 artikulua aipatzen dituen galerak, komunitate barneko zirkulazioan zehar gertatutakoak, bai eteteko erregimenean bai honetatik kanpo, zehaztuko dira erabilitako zirkulazioko dokumentuan kontsignatutako dokumentuaren eta hartzaileak barneko lurralde-eremuan jasotzen duen edo Espainiako aduana batean Komunitatearen lurraldetik ateratzeko aurkezten den kantitatearen artean dagoen aldearen bidez.

Aurrekoa ulertzen da zirkulazioan zehar egindako egiaztapenetatik atera daitezkeen aldeak baztertu gabe.

Irregularitasuna gertatu dela irizten zaio zergapean ez dauden kasuak dakartzaten ez bezalako galerak daudenean.

2. Espainiako Administrazioaren edozein zerbitzu eskudunak barneko lurralde-eremuan jatorri edo xedea duen zirkulazio batean zehar galerak egon direla egiaztatzen duenean, egiaztatutako galeren kantitatea eginbide batean jasoko du. Azken honen berri emango zaio lurraldearen arabera eskudun den bulego kudeatzaileari, bai eta zentro kudeatzaileari ere.
3. Galerak barneko lurralde-eremutik kanpoko jatorria eta xedea dituen zirkulazio batean zehar egiaztatzen direnean, egiaztatutako galeren kantitatea jasotzen den eginbidea zentro kudeatzaileari igorri beharko zaio.

Zentro kudeatzaileak, beharrezkoa bada, espedizioaren Estatu kideari jakinaraziko dio.

**17. artikulua. Irregularitasunak komunitate barneko zirkulazioan.**

1. Legearen 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, irregularitasunak zerga bereziaren sortzapena barneko lurralde-eremuan gertatzea ekarri badu, eskudun organoak zerga-zorra likidatzeko prozedura hasiko du eta zentro kudeatzaileari jakinaraziko dio, beharrezkoa bada, espedizio eta xedearen Estatu kideetako eskudun agintariei edo hauetako bati bakarrik jakinarazteko, egokia denaren arabera.
2. Zerga bereziaren sortzapena barneko lurralde-eremuan gertatu dela jotzeko Legearen 17. artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen ez direnean, dagokion bulego kudeatzaileak aipatutako irregularitasuna jakinaraziko dio zentro kudeatzaileari, beharrezkoa bada, espedizioaren Estatu kideko eskudun agintariei jakinarazteko.
3. Barneko lurralde-eremutik, komunitatetik kanpoko lurralde-eremura edo hirugarren herri batera edo hirugarren lurralde batera zuzenduta, igorritako produktuak bere xedera iristen ez direnean edo Komunitatearen lurraldetik benetan ateratzen ez direnean eta irregularitasuna gertatu den tokia zein den zehaztea ezinezkoa denean, espediziotik aurrera irregularitasuna benetan gertatu zen tokiaren edo eragiketaren erregularitasunaren proba nahikoa aurkeztu gabe lau hilabete igarotzean, berau barneko lurralde-eremuan gertatu dela joko da, eta zerga-zorra likidatzeko prozedura hasiko da.
4. Zirkulazio bat hasteko egunetik aurrera hiru urteko epearen barruan zerga bereziaren sortzapena eragiten duen barneko lurralde-eremuan irregularitasun bat gertatu dela



zehaztuz gero, eskudun organoak dagokion likidazioa egingo du eta zentro kudeatzaileari jakinaraziko dio irteteko Estatu kideko eskudun agintariei eta, beharrezkoa bada, hasiera batean zerga ordaindu duten Estatu kidekoei jakinarazteko.

5. Zirkulazioaren irregulartasun bat barneko lurralde-eremuan gertatu dela uste izan eta zerga berezi egokia kobratu denean, hiru urteko epearen barruan, aipatutako zirkulazioaren hasieratik zenbatuta, eragiketa erregularra izan dela edo irregulartasuna barneko lurralde-eremutik kanpo gertatu delako froga aurkeztuz gero, eskudun bulego kudeatzaileak ordaindutako zorra itzultzea erabakiko du.
6. Barneko lurralde-eremuan hasten diren, zerga lurralde horretan sortzen duten eta xedea komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan duten bidalketen kasuan gorabeheraren bat gertatzen bada eta ondorioz hori gertatu den edo gorabehera antzeman den Estatu kideak zergak kobratu baditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak itzuli egingo ditu jasotako zerga bereziak, beti ere Estatu kide horrek zerga horiek jaso dituela egiaztatzen duten frogak aurkeztuz gero.
7. Artikulu honetan xedatutakoa ulertzen da egokiak izan litezkeen zehapenak baztertu gabe.

## **7. ATALA JASANARAZPENA**

### **18. artikulua. Jasanarazpena.**

1. Jasanarazpena faktura edo antzeko dokumentu baten bidez egin beharko da, eta bertan fabrikazio-zerga bereziengatik jasandako kuoten zenbatekoa jaso beharko dute subjektu pasiboek; aplikatutako zerga-tasa ere adierazi beharko dute. Adierazi beharreko zenbatekoan bereizi egin behar dira fabrikazio-zerga bereziengatik kuoten zenbatekoa eta produktuaren zein emandako zerbitzuaren zenbatekoa. Jasanarazpenetik bereizitako adierazpen-betebehar hori zerga zergapetutako produktuak lantegitik edo zerga gordetegitik irteteterakoan sortzen denean baino ezingo da eskatu. Gainerako kasuetan, jasanarazpen-betebeharra betetzeko «Zerga Berezia prezioan sartu du \_\_\_\_-ko tasarekin» esapidea jarri beharko da agirian.
2. Zergaren jasanarazpenetik bereizitako kontsignazioak, aurreko atalean adierazitako moduan, lantegi edo gordailu fiskalen titularren jardueren garapena nabarmen aztoratzen duenean, zentro kudeatzaileak, ukitutako pertsona edo sektoreen eskabidearen ostean, zerga prezioaren barruan jasanaraztea baimendu ahal izango du, eta dokumentuan "Prezioaren barruan barne hartutako Zerga Berezia" adierazpena jaso beharko da.
3. 1. atalean xedatutakoarekin bat etorritz zergaren jasanarazpena bereiz kontsignatzeraz behartuta ez dauden subjektu pasiboek azkeneko kontsumitzaileei egindako zuzeneko salmenten kasuetan, zentro kudeatzaileak, horiek eskatuta, dokumentu edo fakturan "Prezioaren barruan barne hartutako Zerga Berezia" adierazpena sartzeko betebeharretik salbuetsi ahal izango ditu, betiere berau eransteak bere jardueren garapena asaldatzen badu.
4. Sortzapenik sortu ez denean edo salbuespenen bat aplikagarria izanez gero, hori fakturan edo antzeko agirian jaso beharko da, kasuan kasuko legezko manua ere aipatuz.
5. Hala eta guztiz ere, fabrikazioaren gaineko zerga bereziei loturiko produktuen fakturazioa, horren tasa zero denean, ez da ezein baldintzaren menpe egongo jasanarazpenaren arloan.
6. ...
7. Arautegi honetako 108. artikulua araberako hornituriko gasa denean, honako hau egin beharko dute argindarraren eta energia termiko baliagarriaren baterako sorkuntzarako zentralen titularrek jakinarazitako behin-behineko portzentajearen araberako sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi duten subjektu pasiboek: gas naturalaren helmugaren behin betiko

portzentajearen arabera jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu, berau zein den jakindakoan, Arautegi honetan ezarritako prozeduraren bidez zehaztutakoan.

## **8. ATALA ZIRKULAZIOA**

### **19. artikulua. Zirkulazioaren araubide orokorra.**

1. Hurrengo 2., 3. eta 4. ataletan aurreikusitako kasuetan eta baldintzekin izan ezik, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak, bere lurralde-eremuan barrena, zirkulazioko dokumentuen babespean zirkulatuko dira. Aipatutako dokumentu horiek Administrazioaren agenteek eskatzen dituztenean aurkeztu beharko dira.
2. Legearen 21. artikulua 2. atalean, 51. artikulua 5. eta 6. ataletan eta 61. artikulua 2. atalean jasotako salbuespenak aplikatuta inportatzen diren fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuek ez dute bere zirkulazioa babesten duen dokumenturik behar izango.
3. Partikularrek, bere lurralde-eremuan, bere kontsumorako egiten dituzten eta beraiek garraiatzen dituzten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen eskuraketek ez dute behar izango bere zirkulazioa babesten duen dokumenturik, betiere hurrengo arau hauekin bat etorritik merkataritzako xedeetara zuzentzen ez badira:
  - a) Komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan egindako eskuraketak.

Eskuratutako ondasunak honelakoak badira:

    - 1.a. Legearen 15. artikulua 9. atalean ageri diren kantitateak gainditzen ez dituztenean edari alkoholduak edo tabakoa baldin badira, edo 5 litrokoak desnaturalizatu gabeko alkohola edo guztiz desnaturalizatutako alkohola baldin bada
    - 2.a. Garraioko era atipikoen bidez zirkulatzen ez badira, Legearen 15. artikulua 10. atalean zehaztuta dauden bezala, hidrokarburoak badira eta hurrengo 3. lerrokadan xedatutakoa baztertu gabe.
    - 3.a. Eduki garbiko 40 kilogramo gainditzen ez dituztenean bonbonetako petrolioaren gas likidotuak badira edo 20 kilogramo kerosenoa izanez gero.
  - b) Barneko lurralde-eremuan xehekariei egindako eskuraketak. Eskuratutako ondasunak honelakoak direnean:
    - 1.a. Legearen 15. artikulua 9. atalean ageri diren kantitateak ez gainditzea edari alkoholduak edo tabakoa izanez gero. Hala ere, edari eratorriak, zigarretak edo biltzeko tabako xeheaizanez gero, dagokien zigilua eduki beharko dute.
    - 2.a. 5 litro baino gehiagokoak ez izatea desnaturalizatu gabeko alkohola edo guztiz desnaturalizatutako alkohola izanez gero.
    - 3.a. 200 litro edo kilogramo ez gainditzea eta garraioko era atipikoen bidez ez zirkulatzea, Legearen 15. artikulua 10. atalean zehaztuta dauden bezala, hidrokarburoak badira eta hurrengo zenbakian xedatutakoa baztertu gabe.
    - 4.a. Edukiera garbiko 40 kilogramo ez gainditzea bonbonetako gas likidotuak badira edo 20 kilogramo kerosenoa izanez gero.
4. Barneko lurralde-eremuan kokaturiko xehekariei aipatutako eremu horretan kokaturiko beste merkataritza batzuek edo enpresari kontsumitzaileek egiten dizkieten fabrikazioko zerga berezien xedeko produktuen eskuraketek ez dute zirkulazioko dokumenturik behar izango aurreko atalean partikularrentzat ezarritako baldintza berberetan, errekaragudun salmentarako baimendutako establezimenduen titularrek dendetan eskuratutako tabakoko

lanak direnean izan ezik. Azken kasu honetan dendaren titularrak zirkulazioko albarana eman beharko du.

5. Trenbideen enpresa eta garraioko enpresak, oro har, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazioa zaintzeaz bereziki arduratzen diren Administraziooko agenteei fakturazio eta salgaiak iristeko liburuak, ibilbide-orriak eta garraioarekin lotutako gainerako dokumentuak eta frogagiriak erakustera behartuta egongo dira.
6. Aduanako erregimenen arloko nazio eta komunitateko xedapenak baztertu gabe, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak eteteko erregimenean daudela joko dira barneko lurralde-eremuko jatorria eta komunitatetik kanpoko lurralde-eremuko xedea edo alderantziz dituztela bidaltzen direnean,
  - a) Europako Merkataritza Askeko Elkartearen (EFTA) Estatu kide baten bitartez, barneko komunitateko zirkulazioko erregimenaren babespean, edo
  - b) Europako Batasuneko edo Europako Merkataritza Askeko Elkartearnak (EFTA) ez diren Estatu kide bat edo batzuen bitartez, TIR koaderno baten (TIR hitzarmena) edo ATA koaderno baten (ATA hitzarmena) babespean.
7. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazioa, eteteko erregimenetik kanpo, barneko lurralde-eremuan hasi eta bukatzen dena, beste Estatu kide batean barrena, laguntzako dokumentu baten babespean egon beharko da. Gainera, kargatutako ondasunen bidaltzaileak eta hartzaileak produktu hauen bidalketa eta harrera jakinarazi beharko dizkiete mende dauden bulego kudeatzaileei.
8. Zergaren sortzapena tasa orokorrean duten inportazioko produktu bidalien zirkulazioa, inportazioaren tokitik barneko lurralde-eremuko xede batera, dagokion aduanako dokumentuaren babespean egingo da, beharrezkoa bada, marka fiskalak eskatzea baztertu gabe.
9. Zentro kudeatzaileak, interesdunak eskatuta, titular beraren establezimenduen arteko eteteko erregimeneko zirkulazioaren prozedura sinplifikatuak erabiltzea baimendu ahal izango du, betiere zirkulazioa osoa barneko lurralde-eremuan gertatzen baldin bada.

## **20. artikulua. Zirkulazioko dokumentuak emateko eskumena.**

1. Oro har, zirkulazioa hasten den establezimenduen titularrek zirkulazioko dokumentuak emango dituzte.
2. Bidalketa bermatuen prozeduraren bidez komunitatetik kanpoko lurralde-eremurako bidalketak direnean, laguntzako dokumentu sinplifikatua aipatutako prozeduran bidalketa egiten duen enpresariak emango du.
3. Administrazioko dokumentu elektronikoen baten babespean zirkulatu behar duten praktika askera bidalitako produktuen kasuan, baita aduanako gordailu erregimenari loturikoen kasuan ere, erregistratutako igorleak eman beharko du zirkulazioko dokumentua.
4. Inguruabar bereziengatik komenigarria denean, igorleari dagokion bulego kudeatzaileak xedatu gabeko kasuetarako zirkulazioko dokumentuak ematea onartu ahal izango du, bereziki izen eman gabeko operadoreei dagokienean.

## **21. artikulua. Zirkulazioko dokumentuen klaseak.**

1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazioa babesteko gauza diren dokumentuak hurrengo hauek dira:
  - a) Administrazioko dokumentu elektronikoa.
  - b) Larrialdiko laguntzako dokumentua.

- c) Laguntzako dokumentu sinplifikatua.
  - d) Ordainagiriak eta entregaren frogagiriak.
  - e) Marka fiskalak.
  - f) Zirkulazioko albaranak.
  - g) Aduanako dokumentuak.
2. Zirkulazioko dokumentuak paperean ematen diren kasuetan zirkulazio dokumentu hori galduz gero, igorleak bideratutako fotokopia batek ordezkatu ahal izango du agiria. Laguntzarako dokumentu sinplifikatua bada, aldiz, fotokopia hori produktuen irteera-establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileak ikus-onetsi beharko du.
  3. Salbuespen gisa, bulego kudeatzaileak 1. atalean zerrendatutakoak ez bezalako berariazko dokumentuak baimendu ahal izango ditu titular beraren establezimenduen arteko zirkulazioa babesteko. Halaber, bulego kudeatzaileak erabakiko du nola aurkeztuko zaion Zerga-administrazioari dokumentu horietan jasotako informazioa.

## **22. artikulua. Administrazioko dokumentu elektronikoa.**

1. Araudi honetan xedatutako baldintzei jarraiki, administrazioko dokumentu elektronikoa fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen zirkulazio-kasu hauetan erabiliko da:
  - a) Eteteko erregimenean egiten den barneko eta komunitate barneko zirkulazioa.
  - b) Salbuespen-kasuren bat aplikagarri duen barneko zirkulazioa.
  - c) Zerga-tasa murriztua aplikagarri duen barneko zirkulazioa.
2. Aurreko 1. atalean xedatutakoa mantenduta, ez da administrazioko dokumentu elektronikorik eman beharko honako kasuetarako:
  - a) Hegazkinen erregai-hornidura aireportuetan dauden lantegietan, gordailu fiskaletan, biltegi fiskaletan zein baimendutako hornidura-puntuetan egiten bada, beti ere hornidura horiek Araudi honetako 101 artikuluan xedatutako emate-egiaztagiri edo emate-ordainagiri bidez dokumentatzen badira.
  - b) Zergak tasa murriztuan sortzen dituzten eta azken kontsumitzaileari xehekari batek saldu dizkion hidrokarburoen kasuan. 1.8 idazpuruan jasotako kasuan, baita xehekariak produktua azken kontsumitzaileari banatzen badio edo beste xehekari bati banatzen badio azken horrek azken kontsumitzaileei saltzeko. Paragrafo honetan xedatutakoa gorabehera, ezinbestekoa izango da Araudi honetako 19, 106, 107 eta 108 artikuluetan jasotakoa ere betetzea.
  - c) 27. artikuluari jarraiki, bideko salmenten prozedura aplikagarri denean.
  - d) Legearen 50. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. tarifako produktuak direnean eta Lege horren 51. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako salbuespena aplikatzen zaienean.
  - e) 1.4 idazpuruan xedatutako tasa aplikagarri duen gasolioa denean, baldin eta baimendutako azken kontsumitzaileen enpresa-jarduera dagoen lekutik hornitu beharreko makineriak dauden toki ezberdinetara lekualdatzen bada 106. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Halako kasuetan, gasolio-zirkulazioa 106. artikuluko 4. ataleko c) paragrafoak aipagai duen baimenaren eta kokaleku bakoitzeko egingo den emate-agiriaren babespean gauzatuko da; emate-agiritan makina bakoitzeko identifikazio-datuak eta hornitutako erregaiaren bolumena jaso beharko dira eragiketa egin ondoren.

- f) 14.3. artikulua aurrez ikusten dituen ustezkoetan (esportaziorako salgaiak aurkezteko aduana agintaritzaren aginpidedunak baimendutako tokietan gorde ostean, esportatzera bideratutako produktuen zerga gordetegi edo fabrikara itzultzea) dagokion kudeaketa bulegoak baimendu ondoren.
  - g) Bulego kudeatzaileak zirkulazio jakin batzuk babesteko dokumentu bat sortzeko baimena ematen dueneko gainerako kasuak. Dokumentu hori baimena bera edo emate-agiri bat izan daiteke.
3. Aurreko 1. atalean xedatutakoa errespetatuta, ez da administrazioko dokumentu elektronikorik eman beharko lanteregi edo gordailu fiskal moduan izen emandako instalazioetara hodi finko bidez zuzenean deskargatzen diren produktuen inportazioetan.
  4. Barne-zirkulazio kasuetan, bulego kudeatzaileak administrazioko dokumentu elektronikoan zenbait lauki ez betetzeko baimena eman ahalko du.

### **23. artikulua. Laguntzako agiri sinplifikatua.**

1. Agiri horrek fabrikazioaren gaineko zerga bereziei loturiko produktuen Elkarrekin barruko zirkulazioa babesteko du, bermaturiko bidalketen prozeduraren bidez, eta laguntzako agiri sinplifikatu administratiboa edo merkataritzakoa erabili ahal izango da.
2. Laguntzako agiri sinplifikatuak sekuentzien arabera zenbakituko dira, egutegiko urteak kontuan hartuz, eta bidalketa egiten duen pertsonak edo horren ordezkariak sinatu beharko ditu. Azken baldintza hori ez da derrigorrezkoa izango, kudeaketa bulegoak ez sinatzeko baimena eman duenean.
3. Laguntzako dokumentu sinplifikatuen igorpen-kasuetan, Araudi honetan dokumentuaren zenbait ale aipatzen direnean merkataritza-dokumentuaren kopiez ere ari dela ulertuko da baldin eta azken agiri hori eman badaiteke administraziokoaren ordez.
4. Laguntzako dokumentu sinplifikatuen igorleek hilean zehar emandako laguntzako dokumentu sinplifikatuei dagozkien datuak laburbiltzen dituen zerrenda bat aurkeztu beharko dute telematikoki fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen irteera-establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean, igorketa egin ondorengo hilabetean aurkeztu ere.

### **24. artikulua. Zirkulazioko albaranak.**

1. Zerga berezien mendeko produktuek zirkulazio-dokumentu baten babesa behar badute zirkulatzeko baina ez bada administrazioko dokumentu elektronikorik edo laguntzako dokumentu sinplifikaturik eman behar ezta aduana-dokumenturik erabili behar, zirkulazio hori xede horretarako emandako emate-agiriak babesteko du. Dena den, zerga-markak ere erabili beharko dira Araudi honetako 26. artikuluan xedatutakoari jarraiki.
2. Zirkulaziorako emate-agiritzat hartuko dira enpresa igorleak erabili ohi dituen fakturak, emate-agiriak eta gainerako merkataritza-agiriak.

Dokumentu horiek paper euskarrian eginak daudenean, ereduaren arabekoak ez dira izango eta gutxienez originalaz nahiz matizeaz hornituko dira; dokumentu horiek zirkulazioaren albarantzat jotzen direnean, honako datuak izendatu beharko dira: izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta, bidezkoa bada, igorlearen nahiz hartzailearen CAE, produktuen mota eta kopurua, baita igorpen data ere, igorpen eta emate tokia eta, hala badagokio, produktuaren graduazioa.

3. Zirkulaziorako emate-agiriei urte naturalen arabeko ondoko ondoko zenbakiak jarriko zaizkie, eta zenbaki horiek ezingo dira errepikatu. Hala ere, bulego kudeatzaileak zenbakikuntza-segida ezberdinak ezartzea baimendu ahalko du.

Igorleak edo haren ordezkariak sinatu egin beharko ditu zirkulaziorako emate-agiriak, salbu eta dokumentua bulego kudeatzaileak onartutako prozedura informatiko bidez ematen bada eta bulegoak sinadura ez jartzea baimentzen badu.

4. Bideko salmenten sistemako emate-oharrak dagokien zirkulaziorako emate-agiriaren zati direla ulertuko da.
5. Produktuak Erkidegoko ez barneko lurralde eremutik barneko lurralde eremura bidaltzen direnean urrutiko salmenta prozeduraren bidez, zirkulazio-albaranaren baliokidea izango da Arautegi honetako 33. artikuluan aipaturiko harrera-baimena, 39.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo hori ezean, saltzaileari igorriko zaien agiri komertziala, non 2. idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipaturiko datuak ezarriko diren.

## **25. artikulua. Aduanako dokumentuak.**

1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak barneko lurralde-eremuan barrena zirkulatzea, eteteko aduanako erregimen batekin lotuta edo aldi baterako gordailuan salgaien aduanako estatutua mantentzen duten bitartean, Araudi honen ondorioetarako, aduanako araudian aurreikusitako dokumentuak babestuta geldituko da. Halaber, despatxuko aduanako dokumentua erabiliko da zerga bereziaren sortzapena tasa orokorrean duten inportazioko produktu bidalien zirkulazioa, barneko lurralde-eremuko inportazioko tokitik eremu bereko xede batera, babesteko.
2. Hurrengo 26. artikuluko 6.d) atalean xedatutakoa alde batera utzi gabe, ahotsezko aitortpenaren bidez zordunketa-taloiak inportatutako ondasunen zirkulazioa babestuko du, aduana-arautegiarekin bat, inportazioa agiri horretan formalizatzen den kasuetan.
3. Garraioko dokumentuetan edo zirkulazioko dokumentu gisa balio duten merkataritzako dokumentuetan ageri behar diren balizko adierazpen osagarriak, bai eta azkentzeko prozedura egokitzeko beharrezko aldaketak ere, fabrikazioko zerga berezien xede diren ondasunak barneko komunitateko zirkulazioko prozedura sinplifikatu baten babespean zirkulatzen direnean, 2008/118/EE Zuzentarauaren 43. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera erabakiko dira.

## **26. artikulua. Marka fiskalak.**

1. Gai tekniko-sanitarioan eta etiketatu eta ontziratze arloan bete beharreko eskakizunak alde batera utzita, eteteko erregimenetik kanpo, botilatze edo ontziratze lantegi independentea ez den barneko lurralde-eremuaren barruko xedea dutela zirkulatzen diren edari eratorriak, zigarretak eta biltzeko tabako xehea zirkulazioko xingola edo beste marka fiskal bat duten ontzietan jaso beharko dira Araudi honetan aurreikusitako baldintzetan.

Hala eta guztiz ere, 100eko 6ko bolumena gainditzen ez duen graduazioa duten edari eratorriak jasotzen dituzten 0,5 litro baino gutxiagoko ontziek ez dute xingola edo marka fiskalik eduki beharko, ezta dezilitro bat arteko ontziek ere, bere graduazioa edozein dela ere.

2. Xingolak dokumentu zigilatu eta zenbakituak dira, Ogasun Ministroa onartutako ereduari lotuta daudenak. Moneta eta Tinbrearen Lantegi Nazionalak egingo ditu eta ontzietan erantsi beharko dira hurrengo arau hauekin bat etorritz:
  - a) Edari deribatuen ontziak direnean, zigiluak modu ezabaezinean itsatsiko zaizkio botilaren lepoari, inola ere ezkutuan edo disimulatuak gelditu gabe. Zerga araudi ez fiskal batek botila lepoaren gainean zigilua jartzea galarazten duenean, edo alde zurretik behar bezala justifikaturiko salbuespenezko kasuetan, bulego kudeatzaileak baimena eman dezake zigilua ontzian ikusteko moduko beste toki batean jartzeko.

Hala eta guztiz ere, txikizka saltzeko asmoz zorrotan multzokatzen diren litro erdi baino gutxiagoko edukiera duten ontziak direnean, betiere edari eratorrien zorroaren

edukiera osoa 5 litro baino handiagoa ez bada, zorroari, gutxienez berau osatzen duten edari eratorrien edukiera osoari dagokion xingola bakarria erantsi ahal izango zaio.

Edari deribatuen ontzietarako zigiluek, identifikazio kode ikusgaiaz gain, segurtasun kode elektronikoa izango dute eta horri esker berehala egiazkotasuna egiaztatuko da eta telematikoki marka fiskal bakoitza entregatuko den establezimenduari (establezimendu eta jarduera kodea) eta titularrari (identifikazio fiskalaren zenbakia) buruzko datuekin lotuko da.

- b) Zigarreten kasuan, kontsumitzaileari saltzeko unitatea osatzen duten paketei jarri beharko zaizkie xingolak. Ongi ikusteko moduan eta kontsumitzaileak laborea erabili aurretik ezin kentzeko moduan jarri beharko dira xingola horiek, paketea biltzen duen estalki gardenaren edo zeharrargiaren azpian (halakorik edukiz gero).
- c) Zigarreten edo biltzeko tabako xehearen kasuan, Erkidegoko lurraldean jomuga duten bidaiariei saltzeko badira, baita hirugarren herrialdeetara joan behar duten bidaiariei saldu behar bazaizkie ere, bai itsasontzi edo aireontzietan, aldeztatik eksklusiboki hornidura horietarako gordetegi fiskal baimenduetan entregatuz gero, bai portu eta aireportuetan kokatutako gordetegi fiskaletan, eksklusiboki txikizkako establezimendu modura funtzionatuz gero, biak, hurrenez hurren, araudi honen 11.2.10.1. eta 2. artikuluan definituak, merkaturatzeko marka fiskalak modu ezabaezinean erantsiko dira ontzi baimenduaren kanpoaldean. Hala, betiere ikusiko da eta egiazkotasuna identifikatu nahiz egiaztatuko da.

Edari deribatuen, zigarreten edo biltzeko tabako xehearen bidalketen hartzaileek jaso ondoren, zirkulazioa babesteko ontzi ala bilgarri guztiek eskatutako markak ezin hobeki itsatsiak ez badituzte eta kodeak ulergarriak ez badira edo segurtasun neurriak ez badituzte, gorabehera berehala jakinarazi beharko diote harrera-tokiarekiko kudeaketa-bulegoari.

- 3. Ogasun Ministerioak baimendu ahal izango du xingolak, beharrezko berruz, bestelako marka mota batzuek ordezkatu ahal izatea.
- 4. Gordetegi fiskalen eta harrera gordetegien fabrikatzaile eta titullarrek eta, bidezkoa bada, aldizka erregistratutako hartzaileek, hartzaile baimenduek, urrutiko saltzaileen ordezkarik fiskalek eta inportatzaileek bide elektronikoz marka fiskalen eskaerak formulatuko dituzte, Ogasun ministroak onartutako prozedurarekin bat. Nolanahi ere, establezimendu eskatzailea erregistratu den kudeaketa-bulegoak edo, hori izan ezean, eskatzailearen egoitza fiskalari dagokionak aldeztatik marka fiskalen entrega fisikoa baimendu beharko du.

Establezimendu eskatzailearen titularrak marka fiskalak ontzi edo bilgarrietan itsatsiko ditu, barneko lurralde-eremutik kanpo, jatorrian itsatsi direnean izan ezik edo botilaratzeko planta independentean itsasteko bidali direnean salbu.

Aurreko kasuetatik kanpo ez dago baimenduta establezimendu edo operadore ezberdinen artean zuzenduta dauden ontziei erantsi gabe dauden marka fiskalak transferitzea.

Edari deribatuak fabrika edo gordetegi fiskaletik kanpo botilaratzen direnean, baita zigarretak edo biltzeko tabako xehea horietatik kanpo biltegitratzen denean ere, gordailuzain baimenduak, bere erantzukizunpean, botilaratzeko edo biltegitratzeko plantari zigiluak emango dizkio.

Hala eta guztiz ere, pertsona bat hainbat establezimenduren titularra denean eta araudiaren 45. artikuluko 2. atalean aipatzen den berme orokorra eskaintzen duenean, zigiluak berme orokorraren barruan sartzen den edozein fabrika edo gordetegi fiskaletan ipin daitezke. Horretarako, berme orokorra eman duen kudeaketa-bulegoak entrega baimendu behar du.

Marka fiskalak hartu ondoren, edari deribatuen kasuan, establezimendu eskatzailearen titularrak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion egoitza elektronikoa

marka fiskalen harrera-datari, harrera-establezimenduaren identifikazio fiskalari, marka fiskalak itsasteko tokiari eta produktuaren lote-zenbakiari buruzko informazioa erantsiko du, Ogasun ministroak onartutako prozedurarekin bat.

Edari deribatuen ontzietan erantsitako marka fiskalak eten araubidean dauden beste establezimendu batzuetara bidaltzen badira, baita ontzietan ipintzeko edari deribatuetarako zigiluak beste establezimenduei igortzen bazaizkie ere, bidalketa-establezimenduaren titularrek gorabehera Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari jakinaraziko diote, Ogasun ministroak onartutako prozedurarekin bat.

5. Marka fiskalen entrega, betiere bermeen arloan ezarritakoa betetzen bada, hurrengo arau hauekin bat etorri egingo da:

a) Hil natural bakoitzaren barruan, bulego kudeatzaileak, gehienez ere, emango dituen xingolen kopurua hauek aplikatu ahal zaizkien edari eratorri, zigarretei edo biltzeko tabako xehea dagozkien kuota teorikoen zenbatekoa Araudi honen 43. artikularen 2., 3. edo 7. ataletan xedatuketatik ateratzen dena koefizienteaz biderkatu ondoren duguna baino handiagoa ez izateko moduan izango da:

1.a. 1,4 lantegi eta gordailu fiskaletarako edari eratorriak baldin badira.

2.a. 4,2 harrerako gordailuetarako edari eratorriak baldin badira.

3.a. 83,4 lantegi eta gordailu fiskaletarako zigarretak eta biltzeko tabako xehea baldin badira.

4.a. 166,8 harrerako gordailuetarako zigarretak eta biltzeko tabako xehea baldin badira.

Bulego kudeatzaileak ez du xingolen eskabiderik hartuko, baldin eta bere kopuruak aipatutako muga gainditzen badu, soberakinagatik kuotaren 100eko 50eko berme osagarria aurkezten bada izan ezik.

b) a) letran xedatutakoarekin bat etorri entregatu ahal daitezkeen arren interesdunek eskatu ez dituzten xingolak, urte naturalaren barruan eman ahal izango dira.

c) Interesdunak fabrikazioko zerga berezien kontzeptu egokiagatik bere zerga-zorren ordainketa egunean ez baldin badu, berme berezia aurkeztu beharko du, xingolak eskatzen dituen produktuekin lotuta sor litezkeen kuota teoriko guztiengatik bakarrik erantzungo duena.

Berme honen aurkezpenak jardueraren jarraipena larriki kaltetu ahal izanez gero, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren Ordezkarriak betebeharrak honetatik salbuesi ahal izango du, bere ordez kautelazko neurriak hartzeko aukera baztertu gabe, ordainketaren gerorapen eta zatikapenentarako Diru-bilketaren Araudi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuan ezarritako terminoetan.

d) Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioentarako, kuota teorikotzat honakoak hartuko dira:

1.a. Edari eratorriekin lotuta, eteteko erregimena bukatuta eta salbuespenak aplikatu gabe, interesdunak aurreko urte naturalen zehar egin eta biltegitatu eta xingola moten arabera edukiera handieneko ontzietan botilaratutako bategen beste graduazioarekin edari eratorri batzuetatik, lantegi edo gordailu fiskaletik ateratzean, sorraraziko liratekeenak.

2.a. Zigarreta eta biltzeko tabako xeheari dagokionez, fabrika edo gordetegi fiskaletik irtendakoan sortuko lirateke, eten araubidea azkenduta eta salbuespenik aplikatu gabe; zigarreten jendearekiko salmenta-prezioa interesdunak fabrikatu edo biltegitatutako bategen beste bategen berdina litzateke; biltzeko tabako xeheak, berriz, jendearekiko salmenta prezioa interesdunak fabrikatuta edo biltegitatutako bategen



bestekoaren ehuneko 110ekoa izango luke. Bi kasuetan aurreko urte naturalean litzateke.

- e) Aurreko a) eta c) letrek, hurrenez hurren, aipatzen dituzten berme osagarriak eta berezia desafektatuko dira txandaka hurrengo hau egiaztatzen denean, aipatutako bermeez kentzea babestu zuten xingolei aplikagarri izango litzazkiekeen edari eratorri, zigarreten edo biltzeko tabako xehea kantitate baten aldean:

1.a. Zerga-zor egokiaren ordainketa.

2.a. Jaso beharreko edari eratorri, zigarretei edo biltzeko tabako xehea dagozkien kuota teorikoak estaltzen dituen bermea aurkeztuta dagoen beste lantegi edo gordailu fiskal batean jasotzea.

- f) Zerga bereziei lotutako produktuei markak aplikatzen zaizkienean, horiek eskuratzeko bermatutako zenbateko oro liberatuko da zerga bereziak beste estatu kide batean sorrarazi eta bildu baldin badira.
- g) Ziguilua ematerakoan kontuan hartu den bermeak erantzungo die artikulu honen aplikazioaren ondorioz gerta daitezkeen zerga-obligazio guztiei, baita egindako likidazioen ondoriozko zorren ordainketari ere.
- h) Zerga-markak itsatsita dituzten edari deribatuak, zigarretak edo bildutako tabako xehea inportatu ez direlako edo azken horiek itzuli ez direlako inportazioei buruzko hurrengo 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki bermea betearazi behar denean, Administrazioak erabakiko du, kasuan kasuko likidazioaren bidez, betearazi beharreko bermearen zenbatekoa zein izango den. Zenbateko hori justifikatu gabeko zerga-marka horiei dagozkien edari deribatuen, zigarreten edo bildutako tabako xehearen kopuruari dagokion Zerga Bereziaren kuota teorikoaren adinakoa izango da, eta artikulu honen 6. ataleko a) letran xedatutakoari jarraiki kalkulatu da.
- i) Barne lurraldearen eremuan edari deribatu, zigarreta edo bildutako tabako xeheak fabrika eta gordetegi fiskalen artean edo aurreko establezimendu mota bakarreko establezimenduen artean marka fiskalak itsatsiak badituzte, eten araubidearen zirkulazioa ezingo da egin jomugako establezimenduak jasotako marka fiskalak babesteko nahikoa bermerik gabe, artikulu honetako 5.a) atalak xedatutakoari jarraiki. Kudeaketa-bulegoak kasu horietan aplikagarriak diren kontrol arauak eta prozedurak garatuko ditu.

Aurreko idatz-zatian aipatutakoa, modu berean, aplikagarria izango da edari deribatuak, zigarretak edo bildutako tabako xehea barneko lurralde-eremuan kokatutako fabrika edo gordetegi fiskaletan hartzen direnean, barneko ez den erkidegoko lurralde eremuko edo inportazio-aduanetako marka fiskalak badituzte, jardun librean saldu ondoren.

- 6. Edari deribatuak, zigarretak edo bildutako tabako xehea inportatzen direnean, inportatzaileak hautatu ostean, marka fiskalak jomugan edo jatorrian itsatsi daitezke, Ogasun ministroak onetsitako prozedurarekin bat, hurrengo baldintzen arabera:
  - a) Jomugan itsastea: Erregistratutako igorleak, salbuespen bat aplikatuz inportatzen badu, edo inportatzaileak, tasa osoz inportatzen badu, zirkulazio agirian idatziz jaso utziko dute ontziek edo bilgarriek marka fiskalik ez dutela, inportatutako ontzi edo bilgarrien kopuruarekin batera. Erregistratutako igorleak edo inportatzaileak elektronikoki behar dituzten marka fiskalak eskatuko dituzte, Ogasun ministroak onartutako prozedurarekin bat, horiek erabakitako tokian itsasteko, betiere ZAEAREN esku-hartze edo ikuskapen zerbitzuen kontrolpean eta horien aurrean.
  - b) Jatorrian itsastea: Inportatzaileak marka fiskalak jatorriko lantegian ipintzea aukeratzen badu, bere helbidetara dagokion bulego kudeatzaileak beharrezko xingolen harrera baimenduko dizkio, horiek aplikatu ahal zaizkien edari eratorri, zigarreten edo biltzeko

tabako xehea kopuruari legozkiekeen kuoten 100eko 100aren zenbatekoko bermea aurkeztu ondoren. Bermatu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, edari eratorriak baldin badira, aipatutako edari horiek 100eko 40ko bolumeneko graduazioa dutela eta edukiera handieneko ontzietan botilaratuta daudela, xingola moten arabera, suposatuko da. Zigarretak edo biltzeko tabako xehea baldin badira, berriz, bermea kalkulatzeko erabiliko den prezioa fabrikatzaile edo inportatzaileek gehien saldutako zigarreta edo biltzeko tabako xehea klaserako finkatutakoa izango da.

Xingolak itsatsita dituzten edari eratorriak, zigarretak edo biltzeko tabako xehea inportatu edo azken horiek itzuli nahi izanez gero, eragiketa urtebeteko epean egin beharko da, ematen diren egunetik zenbatzen hasita. Epealdi hori beste sei hilez luzatu ahal izango da gehienez, baina ezingo da inolaz ere produktuak duen bermearen indarraldia baino luzeagoa izan, ez behintzat berme berria eman ezean.

- c) Baimendutako gordailuzain batek edari eratorriak, zigarretak edo biltzeko tabako xehea inportatzen dituenean, lantegi edo gordailu fiskal batean sartzeko, xingolak xedean edo jatorrian ipini ahal izango dira Bi kasuetan, interesdunari zigiluak entregatzeko baimena fabrika edo gordetegi fiskalaren egoitzari dagokion kudeaketa-bulegoak emango du artikuluko honetako 4. eta 5. ataletan aurrez ikusitako baldintza orokorrekin.

Zigiluak itsatsita dituzten edari deribatu, zigarretak edo bildutako tabako xehea inportatu edo azken horiek itzuli nahi izanez gero, eragiketa urtebeteko epean egin beharko da, ematen diren egunetik zenbatzen hasita. Epealdi hori beste sei hilez luzatu ahal izango da gehienez, baina ezingo da inolaz ere produktuak duen bermearen indarraldia baino luzeagoa izan, ez behintzat berme berria eman ezean. Aipatutako epea eta, egonez gero, luzapena amaitu ondoren ez bada inportaziorik edo itzulketarik egin, emandako bermeak betearazi egingo dira.

- d) Bere inportazioa hitzezko adierazpen bidezko zordunketako taloi bidez formalizatu duten edari eratorriak, zigarretak eta biltzeko tabako xehea direnean, ez da beharrezkoa izango aipatutako xingolak ipintzea inportatutako kantitateak 10 litro edo 800 zigarreta edo kilogramo bat, baino handiagoak ez badira, hurrenez hurren.

- 7. Komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik etorritako edari eratorri, zigarretak eta biltzeko tabako xehea jasotzeko kasuetan hurrengo arau hauek aplikatuko dira marka fiskalak itsasteko:

- a) Eteteko erregimenean edo bidalketa bermatuen prozeduraren bidez jasotzea: marka fiskalak itsasteko aurreko 6. atalaren c) letran ezarritakoa aplikatu beharko da, eta egokia den bulego kudeatzaileak entrega baimenduko dizkio egokia den lantegi, gordailu fiskal, hartzaile erregistratu edo hartzaile baimenduari.

- b) Urrutiko salmenta-prozeduraren bidezko harrera: marka fiskalak jatorrian jarriko dira eta kudeaketa-bulegoak ordezkari fiskalari entregatzea baimenduko du, hori inskribatua dagoen tokian eta eskaini duen bermearen arabera.

7. atalean aipatzen diren kasuetan edari eratorriak, zigarretak edo biltzeko tabako xehea xingolak jarrita jasotzen ez badira edo aurreko 6 atalean aurreikusitako epearen barruan itzultzen ez badira, emandako bermea betearazi egingo da. Horretarako Administrazioak bermatutakoaren zerga-zorra xedatuko du kasuan kasuko likidazioaren bidez. Zorraren zenbatekoa artikuluko honetako 6. ataleko a) letrak hizpide duen Zerga Bereziaren kuota teorikoen adinakoa izango da (edari eratorriei, zigarretei edo biltzeko tabako xehari itsatsita etorri ez diren zerga-marken edo adierazitako epean itzuli ez direnen gaineko zerga, hain zuzen).

Bermeak ez dira betearaziko baldin eta jaso edo itzuli ez izana ustekabean edo halabeharrez zerga-markak suntsitu direlako izan dela egiaztatuz gero. Horretarako, baina, frogatu egin beharko da hala gertatu dela, eta hori egiteko biderik onena suntsiketa gertatu den Estatu kideko zerga-agintariek jazoeraren inguruan emandako frogagiria aurkeztea da.

Ondore horretarako erabiltzen diren 1.000 zerga-markako 0,5 galtzea onartuko da, baina ezingo dira suntsitzeko aurkeztu eta ezingo da, ezta ere, suntsitu direla frogatu gabe utzi.

Komunitate barneko zirkulazioaren irregulartasunen kasuan, hauen ebazpena bermea exekutatu ondoren baina aurreko atalaren adierazitako epeen barruan gertatzen bada, Araudi honen 17. artikulua 5. atalean aurreikusita dagoena beteko da.

8. Aurreko 8. eta 9. ataketan aurreikusitako kasuetan, edari eratorri edo zigarreten inportazioa edo harrera, xingolak, jatorrian ipintzeko asmoz, eman zituztenaren bestelako bulego kudeatzaile baten mugapenean gertatzen denean, hark honi horren berri emango dio ondorio egokiak izan ditzan.
9. Gutxienez urtean behin, ikuskaritza-zerbitzuek edo, hala badagokio, kontu-hartzailletza zerbitzuek marka fiskalen zenbaketa egingo dute halakoak jaso dituzten titularren establezimenduetan.

Hala ere, xingolak jaso dituzten titularren establezimenduetako egoera egiaztatzeko zein emandako zerga-marken inguruan araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen adina kontrol egin ahal izango ditu bulego kudeatzaileak, edozein unetan egin ere.

Zerga-administrazioak egiten dituen kontrolen eta zenbaketen ondoretarako, onartu egingo da, ondoren inolako ondoriorik izan gabe, kontabilitatean honako xingolak ez jasotzea:

- a) Administrazioaren kontrolpean suntsitu direnak.
- b) Kontu-hartzailletzari edo Ikuskaritzari hondatuta aurkezten zaizkionak (horiek Administrazioaren kontrolpean suntsitzen dira).
- c) Erabilitakoen 100ko 0,5a ordezkatzen dutenak, suntsitzeko aurkeztu ezin dituzten arren.
- d) Araudi honen 14. artikulua terminoetan ezinbesteko edo ustekabeko kausagatik suntsitu dituztela egiaztatzen direnak, betiere hauen suntsiketa bulego kudeatzaileari berehala jakinarazi badiote eta zenbaketa egin baino lehenago.

Administrazioak egindako kontroletan agerian utzitako zerga-marken gabeziak, aurreko atalean azaldutakoaren arabera justifikatuzat jotzen direnak kendu ondoren, emandako bermearen betearazpena ekarriko du, eta Administrazioak, kasuan kasuko likidazio bidez, bermatutako zerga-zorra zenbatekoa den erabakiko du. Zenbateko hori justifikatu gabeko zerga-markei dagozkien artikulua honen 5. ataleko a) letran jasotako Zerga Bereziaren kuoten adinakoa izango da.

10. Zerga-marken jasotzaileek kontabilitatearen liburu bat eraman beharko dute, eta ematen dizkieten zerga-markak, hala badagokio, eta ontzi bakoitzari itsasten zaizkienak idatzi beharko dituzte bertan.

Aurrekoaz gain, liburu bat izango dute zigilua itsatsia duten ontzien edo bilgarrien mugimendua zenbatzeko. Nolanahi ere, establezimenduan bertan daudenak eta bertatik irteten direnak ageriko dira. Irteerei dagokienez, nola gertatu diren bereiziko da: eten araubidea, establezimendu hartzailearen JEK islatuta, edo zerga berezia sortu duten irteerak.

Ogasun ministroak onartutako prozeduraren bidez marka fiskalen kontabilitatea eramateko baldintzak eta xehetasunak zehaztuko dira. Behartuta dauden establezimenduetzat aukeran mugimenduak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren egoitza elektronikoari elektronikoki eskaintzea aurrez ikus dezake.

Kontabilitate liburuak paperean eramanez gero, eskatzailearen mugapeari dagokion kudeaketa-bulegoak gaitu beharko ditu.

Artikulu honen 5. atalaren b) letran xedatutakoa alde batera utzita, lantegi edo gordailu fiskaleko marka fiskalen izakinak, ontzietan dagoeneko itsatsita daudenak zein oraindik erantsi gabe daudenak, ezin izango dira inolaz ere hilabetean eman ahal zaizkion xingolen gehieneko kopurua baino 200eko 100 handiagoa izan, artikulu honen 5. atalaren a) letran adierazitakoaren arabera, aipatutako muga hori gainditu behar duten xingolei dagozkien kuota teorikoen 100eko 100agatiko berme osagarria aurkezten badute izan ezik. Berme osagarri hau, egonez gero, ezeztatuko da establezimenduan dauden zerga fiskalen izakinak kopuru batetik beherakoak direnean bere titularrari hilabetean eman ahal zaizkion xingolen gehieneko kopurua baino 200eko 100 handiagoa izateari uztean.

Artikulu honetako 9. atalean xedatzen diren marka fiskalak kontabilitatean baja ematea onartuko da, administrazioak esku-hartzearen arabera ez diren establezimenduetan egindako marka fiskalen kontrol eta kontaketa gerian gelditu badira.

11. Zirkulazioko marka fiskalak izan behar dituzten produktuak esportatu eta, komunitate barneko zirkulazioko edozein prozedura erabiliz, komunitatetik kanpoko lurralde-eremura bidaltzeko kasuetan, aipatutako eragiketa horiek baimenduta daudela jotzeko eta, egotekotan, eteteko erregimena bukatu dela jotzeko, aurretiko eskakizuna izango da aipatutako xingola horiek ezgaitu edo suntsitzea, Zerga Administrazioaren kontrolpean, barneko lurralde-eremutik atera aurretik. Araudi honetako 6. artikuluko 5. atalari dagokion bigarren idatz-zatian aurrez ikusitako prozeduraren bidez suntsitu edo erabilezin bihurtuko dira.
12. Zerga fiskalak itsatsiak dituzten ontzi eta bilgarriei dagokienez, edari deribatuen zirkulazioan eten araubidea azkentzen denean, irteera egingo duen establezimenduko titularrak eten araubidea azkentzea eta marka fiskal bakoitzaren edo masiboki marka fiskal kopuru zehatzaren segurtasun kodeak aktibatzea eskatuko dio Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari, Ogasun ministroak onartutako prozedurarekin bat.
13. Zerga Administrazioaren kontrolpean erabilezin bihurtzeko edo suntsitzeko kudeaketa-bulegoei edari deribatuen marka fiskalak itzultzean, establezimenduaren titularrak edo, bidezkoa bada, itzultzen duen operadoreak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari jakinaraziko dio, Ogasun ministerioak onartutako prozedurarekin bat. Modu berean jardun beharko da ustekabez edo ezinbestez marka fiskalak suntsitzen direnean.

Edari deribatuen ontzi edo bilgarrietara itsasten diren marka fiskaletan sartuta, segurtasun kodeak aktibatzea eskatzen duenari dagozkio aplikagarriak zaizkion marka fiskalen eskatzailearen zerga-obligazioak.

## **27. artikulua. Salmentak ibilbidean.**

1. Oro har, produktuak lantegi, gordailu fiskal edo biltegi fisikaletik atera ahal izango dira ibilbideko salmenten prozeduraren bidez, betiere zerga sorrarazi bada tasa arrunta edo murriztua aplikatuta. Bulego kudeatzaileak ibilbideko salmenten prozedura baimendu ahal izango du erregaiak aireontzietan eta itsasontzietan hornitzeko, salbuespen bat aplikatuta.

Bidean salmenta prozeduraren bidez produktuak instalazioetara bidal daitezke, horien titulartasuna igorleena bada. Produktua jaso eta, ondoren, azken kontsumitzaileen etxebizitzaraino bideratuta entregatuko da.

Hala eta guztiz ere, gasolioa ezin izango da biltegi fiskal edo xehekari bati bidali ibilbideko salmenten prozeduraren bidez zerga Legearen 50. artikuluan 1. atalaren 1.4 epigrafean aurreikusitako tasa murriztua aplikatuta sorrarazten denean.

2. Aurreko atalean xedatutakoa aplikatzeko hurrengo baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Bidaltzaileak kontrolatzeko sistema eduki beharko du, eta honek uneoro establezimendutik produktuaren gainean egindako irteerak, jasotzaile bakoitzari emandakoak eta establezimendura itzultzen direnak ezagutzea ahalbidetu beharko du.
- b) Jatorrizko establezimendura itzultzea gertatu behar da irteten den egunaren osteko bigarren egun baliodunaren barruan gertatu behar da. Itsasontzietatik hornidura emateko kasuetan, berriz, aipatutako epea bost egun balioduneko izango da, hornitzeko eragiketak azkentzen direnetik aurrera zenbatuta.
- c) Zirkulazioa zirkulazioko albaran baten bidez babestuko da. Bertan jasoko da ibilbideko salmenten prozeduraren bidez banatzeko irtendako produktuak direla.
- d) Produktua erosle bakoitzari ematerako orduan, eragiketa frogatzen duen emate-ohar bat sortuko da zirkulaziorako emate-agiriaren kargura. Erosleak sinatu egin beharko du establezimenduaren esku geratzen den emate-oharraren alea. Bideko salmenta egiten duen ibilgailuak elektronikoki ematen baditu emate-oharrak, erosleek ere elektronikoki sinatu ahal izango dituzte.

Salgaiak ematerakoan eroslea bertan ez badago, emate-oharra establezimenduan edo egoitzan dagoen edonork sinatu ahal izango du nor den adierazita, eta produktua emateko toki gisa adierazitako tokiko jabeen erkidegoko langileek ere sinatu ahal izango dute, baina beti bete beharko da azken kontsumitzaile izaera egiaztatzearen inguruan 106. artikuluko 4. atalean xedatzen dena.

- e) Zirkulazioko albaranean egiten diren entregak idazten joango dira, hauek egiten diren neurrian.
  - f) Izakinen liburuan dataren idazpen negatiboa egingo da fabrian berriz sartu diren produktuei dagokienez datako idazpen negatiboa justifikatuko da irteteen egindako zirkulazioko albaranaren bidez. Albaran honetan egindako entregak jasoko dira, bai eta entrega-oharren kopiak ere.
3. Kudeaketa-bulegoak aireontzien eta itsasontzien erregai-hornidurarako bidean salmenta-prozedura baimen dezake eta legeak 51. artikuluko 2. atalaren a) eta b) hizkietan ezarritako salbuespenak aplikatuko dira. Halakoetan, artikuluko 2. atalean azaldutako prozedura jarraituko da.

Hornidurak egiteko itsasontzia erabiliz gero, jatorrizko establezimendura bost egun naturalen buruan itzuli beharko da, zirkulazioa hasten denetik zenbatzen hasita.

4. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, igorleak zerga berezien arabera produktuak zirkulatzen has ditzake, zirkulazio-albaranaren zirriborroa elektronikoki aurkezteko sistema informatikoa eskura ez badago, baina hurrengo baldintza kontuan hartu beharko du:
- a) Produktuak albaran batekin batera joango dira eta albaran-zirriborroaren datu berdinak aurrez ikusiko ditu, hau da, artikuluko honen 2. ataleko b) hizkiarekin bat elektronikoki aurkeztu beharko liratekeenak.
  - b) Bidaltzaileari dagokion kudeaketa-bulegoari jakinarazi behar zaio eskuratzeko modurik ez dagoela, zirkulazioa hasi baino lehen, jakinarazpena jaso izana agerrarazitako edozein bide erabilita, eta eskuragarri ez izate horren zioen eta aurreikusitako iraupenaren berri eman behar da (horiek jakinez gero). Alabaina, aurretik kudeaketa-bulegoak baimena emanda, baliokidetzat hartu ahal izango dira jakinarazpena batetik eta bidaltzaileak erregistro automatizatuak eta auditoria egiteko modukoak diren erregistroak izatea bestetik, betiere zirkulazio-albaranaren zirriborroa jakinarazteko modua izan ez dela frogatzen badute.

Sistema berriro abian jartzen denean (gehienez konexioa berrezarri eta hurrengo lanegunean) igorleak zirkulazio-albaranaren zirriborroa elektronikoki beteko du 2. artikuluan, xedapen osagarrietan eta garapen xedapenetan ezarritakoaren arabera.

5. Hidrokarburoen gaineko Zergaren xede diren produktuak, biltegi fiskaletatik, ibilbidean saltzeari dagokionez, biltegi fiskalari dagokion bulego kudeatzaileak lantegi edo gordailu fiskaletik zuzeneko hornidurak baimendu ahal izango ditu hurrengo baldintza hauek beteta:
  - a) Lantegiak edo gordailu fiskalak administrazioko dokumentu elektronikoa bat sortuko du, eta bertan produktuen entrega egingo den biltegi fiskala jarriko du hartzaile gisa.
  - b) Produktuak eramango dituen ibilgailuak hartu-agiria emateko eta administrazioko dokumentu elektronikoa zerga-biltegiko izakinen kontabilitatera helarazteko behar diren baliabide teknikoak eduki beharko ditu.
  - c) Igorpena egindakoan eta biltegi fiskalaren kontabilitatean karguko idazpenaren justifikazio informatikoa dagoela, zuzeneko hornidurak egin ahal izango dira ibilgailuaren sistema informatikoaren bidez emandako entrega-oharren bitartez.
  - d) Ibilbideko salmenten prozedura garatuko da aurreko ataletan adierazitako gainerako baldintzak beteta.
  - e) Hornidura zuzenean eginez gero, bulego kudeatzailearen baimenik gabe, establezimendu igorleak JEK galduko du.

## **28. artikulua. Zirkulazio-agirien baliozkotasuna.**

1. Zirkulazioko dokumentuen funtsezko datutzat jotzen dira honako hauek:
  - 1.a. Bidaltzailea, hartzailea, produktua eta kopurua behar bezala identifikatzeko datuak, baita zirkulazio-dokumentuaren zenbakia ere.
  - 2.a. Zirkulazio-zigiluak direnean, horien zenbakikuntza edo edukiera izango dira, baita jarri dauden ontziekin bat datozen ala ez ere.
  - 3.a. Bidaltzearen hasierako datari buruzko datuak.
2. Hurrengo 3., 4. eta 5. ataletan xedatutakoa Legeak 19. artikuluko 2.b) atalean azaltzen duen aipatu administrazio kodea ez izatearekiko ez da aplikagarria. Hala, ez da zuzendu behar izango.
3. Produktua xedera iristerakoan ikusten bada edozein arrazoi dela medio funtsezko datuetakoren bat ahaztu dela edo ez datorrela errealitatearekin bat, hartzaileak zuzendu egin beharko du horretarako ezarritako prozedurari jarraiki. Halako prozedurarik ez badago, argi adierazi beharko dira bai zuzendutako datua, baita zergatik zuzendu den ere. Jakinarazpen hori oharra bidali dela jasota uzteko moduko edozein bitarteko erabilita egingo da. Jakinarazpena hartzaileari dagokion bulego kudeatzaileari helaraziko zaio.
4. Edozein arrazoi dela medio zirkulazioko dokumentuan jaso beharreko daturen bat ahaztu egiten bada edo ez badator errealitatearekin bat, baldin eta funtsezkoa ez bada, zuzendu eta eskudun agintariei jakinarazi beharko die bidaltzaileak edo, produktuak xedera iritsi baldin badira, hartzaileak.

Araudiak zuzenketa edo jakinarazpen hori egiteko berariazko prozedura bat ezartzen badu, prozedura horri jarraiki egindako zuzenketak eta jakinarazpenak bakarrik hartuko dira baliozkotzat. Halako prozedurarik ez badago, argi adierazi beharko dira bai zuzendutako datua, baita zergatik zuzendu den ere. Jakinarazpen hori oharra bidali dela jasota uzteko moduko edozein bitarteko erabilita egingo da. Hartzaileari dagokion bulego kudeatzailea jarriko da jakinaren gainean produktuak xedera iritsi badira, eta bestela, igorleari dagokion bulego kudeatzailea izango da jakinaren gainean jarri beharrekoa.

5.

- a) 3. atalean xedatutakoarekin bat zuzentzen ez bada, legeak 19.5. artikuluan azaltzen duen zigorra aplikatu daiteke
- b) 4. atalean xedatutakoaren arabera zuzentzeko egin ezean, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 201.4 artikulua aipatzen duen zehapena ezarri ahal izango da interesdunari.

**29. artikulua. Administrazioko dokumentu elektroniko baten babespean zirkulatzen duten produktuen bidalketa.**

**A) Komunitate barruko zirkulazioa, eteteko erregimenean.**

1. Fabrikatzaile edo gordailu fiskalen titular diren heinean dituzten obligazioez gain, baimendutako gordailuzainek eta erregistratutako igorleek honako betebeharrak ere izango dituzte:
  - a) Bermea ematea 43. artikuluko 10 eta 11. atalean xedatutako baldintzetan. Berme horrek komunitateko lurralde-eremu osoan izan behar du balioa eta bidaltzen diren produktuen komunitate barruko zirkulazioaren ondorioz sor litezkeen obligazioei erantzun behar du.
  - b) Bidalketa bakoitzeko administrazioko dokumentu elektroniko zirriborro bat egitea 684/2009 (EE) Araudian eta ezartzen diren arau osagarrietan jasotako argibideei jarraiki. Zirriborroa honela bideratu behar da:
    - 1.a. Igorleak administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborro bat aurkeztuko dio Zerga Administrazioko Estatu Agentziari EMCSaren bidez, gehienez ere dokumentuan bidalketa-data gisa adierazitako data baino zazpi egun lehenago.
    - 2.a. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak elektronikoki egiaztatuko ditu administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborroko datuak. Datuak baliozkoak ez badira, lehenbailehen jakinaraziko dio igorleari. Datuak zuzenak badira, aldiz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ARC bat esleituko dio dokumentuari eta igorleari jakinaraziko dio.
    - 3.a. Legearen 16. artikuluko 3. ataleko a), b), c), d) eta f) letrek aipatzen dituzten kasuetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak lehenbailehen igorriko die administrazioko dokumentu elektronikoa bidalketaren xede den Estatu kideko agintari eskudunei.
    - 4.a. Legearen 16. artikuluko 3. ataleko c) letrek jasotzen duen kasuan, esportazio-aitorpena beste Estatu kide batean aurkeztuz gero, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak administrazioko dokumentu elektronikoa bidaliko die esportazio-aitorpen hori aurkeztu behar den Estatu kideko agintari eskudunei.
    - 5.a. Igorleak administrazioko dokumentu elektronikoaren kopia inprimatu bat edo ARC argi erakusten duen beste edozein merkataritza-agiri emango dio zerga berezien mendeko produktuak eramango dituen pertsonari. Agiri hori zerga berezien eteteko erregimeneko zirkulazio osoan zehar eskudun agintarietara hala eskatzen dutenean erakutsi behar du.
    - 6.a. Igorleak administrazioko dokumentazio elektronikoa baliogabetu ahal izango du zirkulazioa oraindik hasi ez bada. Legearen 16. artikuluko 3. ataleko a), b), c), d) eta f) letren kasuan, zirkulazioa produktuak igorpen-establezimendutik irteten diren unean hasten dela ulertuko da, eta e) letren kasuan, aldiz, aduanatik bidaltzen diren unean.
    - 7.a. Eteteko erregimenean egiten den zirkulazioak dirauen bitartean, igorleak xedea aldatu eta berria adierazi ahal izango du EMCSaren bidez, beti ere xede berri hori Legearen 16. artikuluko 3. ataleko a), b), c) eta f) letretan jasotakoetako bat

bada. Aldaketa-prozedura 684/2009 (EE) Araudiari eta ezartzen diren xedapen gehigarriei jarraiki egingo da.

- 8.a. Hidrokarburoen gaineko Zergaren mendeko produktuek itsasoz edo barneko nabigazio-bideetan barna zirkulatu behar duten kasuetan, administrazioko dokumentu elektronikoa ematerako unean ez bada hartzailea zehatz-mehatz ezagutzen, bulego kudeatzaileak hartzaileari buruzko datuak adierazi gabe bidaltzeko baimena eman ahalko dio igorleari, eta baimen hori behin bakarrik erabiltzeko edo epe jakin baten barruan egiten diren jarduera guztietan erabiltzeko izan daiteke. Igorleak hartzaileari buruzko datuok al bait azkarren jakinaraziko dizkio bulego kudeatzaileari, gehienez ere zirkulazioa amaitzen denean, hala xedatzen baitu aurreko 7. atalak.
  - c) Aldizkako hartzaile erregistratuen kasuan, fabrikazio-zerga bereziak xede Estatu kidean ordaindu diren egiaztagiria edo zerga horiek jasoko direla bermatzen duen beste edozein obligazio betetzea eskatuko zaio hartzaileari, beti ere kasuan kasuko Estatuko agintari eskudunek finkatutako baldintzei jarraiki. Agiri horretan honakoa adierazi beharko da:
    - 1.a. Xede-herrialdeko zerga-agintarien eskudun bulegoaren helbidea.
    - 2.a. Data eta ordainketaren edo bulegoak bermea onartu izanaren erreferentzia.
  2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak igorlearen esku jarriko du barneko lurralde-eremuan hasitako bidalketen inguruan xede Estatu kideko agintari eskudunek helarazten dioten harrera-jakinarazpena.
- B) Eteteko erregimenean edo salbuespen bat zein zerga-tasa murriztua aplikatuta barneko lurralde-eremuan jatorria edo xedea duen zirkulazioa.
1. Eteteko erregimenean egindako zirkulazio-kasuetan, gordailuzain baimenduek eta igorle erregistratuek administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborro bat egin beharko dute bidalketa bakoitzeko, Araudi honetan eta xedatzen diren arau osagarrietan ezarritako jarraibideen arabera egin ere. Zirriborro hori honela bideratu beharko da:
    - a) Igorleak administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborro bat aurkeztuko dio Zerga Administrazioko Estatu Agentziari EMCSaren bidez, gehienez ere dokumentuan bidalketa-data gisa adierazitako data baino zazpi egun lehenago.
    - b) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak elektronikoki egiaztatuko ditu administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborroko datuak. Datuok baliozkoak ez badira, lehenbailehen jakinaraziko dio igorleari. Datuak zuzenak badira, aldiz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ARC bat esleituko dio dokumentuari eta igorleari jakinaraziko dio.
    - c) Produktuak zerga berezien arabera direnean, igorleak horien laguntzailearen esku administrazio dokumentu elektronikoaren edo bestelako merkataritza dokumentuaren kopia jarriko du, garraioa identifikatu eta argi eta garbi identifikatzen duen moduan ARC aipatzeko. Dokumentu hori agintari eskudunek eskatzen duten bakoitzean aurkeztu ahal izango da zerga berezien eten araubidean zirkulazio guztian zehar.
    - d) Igorleak administrazioko dokumentazio elektronikoa baliogabetu ahalko du zirkulazioa oraindik hasi ez bada. Legearen 16. artikuluko 3. ataleko a) eta c) letren kasuan, zirkulazioa produktuak igorpen-establezimendutik irteten diren unean hasten dela ulertuko da, eta e) letraren kasuan, aldiz, aduanatik bidaltzen diren unean.



- e) Eteteko erregimenean egiten den zirkulazioan zehar, igorleak xedea aldatu eta berria adierazi ahal izango du EMCSren bitartez, baldin eta xede berria baimendutakoen artean badago. Aldaketa-prozedura hori ezartzen diren xedapen gehigarriei jarraiki egingo da.
  - f) Hidrokarburoen gaineko Zergaren mendeko produktuek itsasoz edo barneko nabigazio-bideetan barna zirkulatu behar duten kasuetan, administrazioko dokumentu elektronikoa ematerako unean ez bada hartzailea zehatz-mehatz ezagutzen, bulego kudeatzaileak hartzaileari buruzko datuak adierazi gabe bidaltzeko baimena eman ahalko dio igorleari, eta baimen hori behin bakarrik erabiltzeko edo epe jakin baten barruan egiten diren jarduera guztietan erabiltzeko izan daiteke. Igorleak hartzaileari buruzko datuok al bait azkarren jakinaraziko dizkio bulego kudeatzaileari, gehienez ere zirkulazioa amaitzen denean, hala xedatzen baitu aurreko e) atalak.
2. Salbuespenen bat edo zerga-tasa murrizturen bat aplikatuta sortzen den zerga duten fabrikazio-zerga berezidun produktuen zirkulazioari dagokionean, igorleak 29. B) 1 artikuluan xedatutakoari jarraiki bideratu beharko du administrazioko dokumentu elektronikoa.

Hala ere, hartzailea bulego kudeatzaileko lurralde-erregistroan izena ematera behartuta ez dagoen kasuetan, zirkulazioa honako prozedurari jarraiki egingo da:

- a) Igorleak administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborroa beteko du 29.B.) 1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Zerga Administrazioko Estatu Agentziara bidaliko du sistema informatiko bidez eta administrazioko dokumentu elektronikoaren hiru ale inprimatuko ditu Agentziak zirriborroa baliozkotzat jo ondoren.
- b) Aleetako bat igorlearen esku geratu behar da eta beste biek produktuekin batera joan beharko dute xede-helbidera iritsi arte.
- c) Zirkulazioan zehar produktuekin batera joan beharko duten ale bietako bat hartzaileak bideratuko du produktuak araudi honek 31.B) 3 artikuluan adierazitako modu eta epean jasotzen dituenean, eta ondoren igorleari itzuli beharko dio produktuak hartzen dituenetik gehienez bost eguneko epean. Produktua bidaltzen denetik gehienez hilabeteko epean, igorleak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari jakinaraziko dio alea araudi honen garapen-xedapenetan zehaztutako argibideak betez sistema informatikoaren bidez ez duela hartu.

Hirugarren alea ere bideratu egin beharko da eta hartzailearen esku geratuko da.

- d) Garapen-araudiak arautuko du zirkulazioan zehar edo produktuak hartzerakoan sortu litekeen edozein gorabehera nola tratatu behar den.

**30. artikulua. Administrazioko dokumentu elektroniko baten babespean egin beharreko zirkulazioaren hasieran jarraitu beharreko prozedura baldin eta EMCS erabilgarri ez badago.**

- 1. 29. artikuluan xedatutakoa gorabehera, EMCS erabilgarri ez dagoen kasuetan igorleak zerga berezien mendeko produktuen zirkulazioa hasi ahal izango du honako baldintzak betetzen baditu:
  - a) 29. artikuluan xedatutako administrazioko dokumentu elektronikoaren zirriborroko datu berberak jasotzen dituen larrialdiko administrazio dokumentua bota beharko da produktuekin batera.
  - b) Bidaltzaileari dagokion bulego kudeatzaileari jakinarazi behar zaio eskuratzeko modurik ez dagoela, zirkulazioa hasi baino lehen, jakinarazpena jaso izana agerrarazitako edozein bide erabilita, eta eskuragarri ez izate horren zioen eta aurreikusitako iraupenaren berri eman behar da (horiek jakinez gero). Alabaina, ondorio horietarako,

lurraldeko barne eremuko jatorria eta helmuga dituen zirkulazioan eta aurretik bulego kudeatzaileak baimena emanda, baliokidetzat hartu ahal izango dira jakinarazpena batetik eta bidaltzaileak erregistro automatizatuak eta auditoria egiteko modukoak diren erregistroak izatea bestetik, betiere administrazio dokumentu elektronikoaren zirriborroa jakinarazteko modua izan ez dela frogatzen badute.

2. Sistema berriro abian jartzen denean (gehienez konexioa berrezarri eta hurrengo lanegunean) igorleak administrazio dokumentu elektronikoaren zirriborro bat aurkeztu beharko du 29. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Bertan agiria gerora egindakoa dela adierazi beharko du 684/2009 (EE) Araudiaren 2. eranskinean eta ezartzen diren xedapen osagarrietan zein garapen-xedapenetan jasotzen denari jarraiki.
3. Administrazio dokumentu elektronikoaren zirriborro horrek larrialdiko laguntzako dokumentuari emandako zenbakia izan beharko luke tokiko erreferentzia-zenbaki gisa, horrela paper-euskarriko dokumentuaren eta administrazio dokumentu elektronikoaren arteko korrelazioa argia izan dadin.
4. Igorleak lau urtez gorde beharko du administrazio larrialdiko dokumentua, dela paperean, dela euskarri informatikoan.
5. Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak larrialdiko laguntza-dokumentuentzako eredu bat ezarri ahalko du EMCS ez dabilen kasuetarako.

### **30 bis artikulua. EMCSaren baliaezintasunaren kasuan eteteko erregimeneko komunitate barneko zirkulazioaren hasieran jarraitu beharreko prozedura.**

...

### **31. artikulua. Administrazio dokumentu elektroniko baten babespean zirkulatzen duten produktuen harrera.**

- A) Komunitate barruko zirkulazioa, eteteko erregimenean.
1. Legearen 16. artikuluko 3. ataleko a), b), d), e) eta f) letretan jasotzen diren kasuetan, jatorria komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan izanda eteteko erregimenean zirkulatu duten fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen hartzaileek honako baldintzak betetzen dituen harrera-jakinazpena aurkeztu beharko diote Zerga Administrazio Estatu Agentziari:
    - a) Produktuak jaso bezain laster aurkeztu beharko du, asko jota zirkulazioa amaitu osteko bost lanegunen barruan. Epe hori luzatu egin ahalko da baldin eta horretarako zioak azaldu ondoren bulego kudeatzaileak horretarako baimena ematen badu, baina kasu horretan bakarrik.
    - b) 684/2009 (EE) Araudian eta ezartzen diren xedapen osagarrietan jasotako arauak betetzen dituen sistema informatizatu baten bidez aurkeztu beharko da.
  2. Trazatzaileak, markagailuak edo desnaturalizatzaileak behar dituzten produktuak badira hartzaile erregistratuak jaso behar dituenak, produktu horiek harrera-lekuan geratu beharko dute gutxienez egun batez (harrera elektronikoaren jakinarazpena bideratu eta hurrengo lanegunean edo bulego kudeatzailean agiria paper-euskarrian aurkeztu eta hurrengo lanegunean).
  3. Komunitate barruko zirkulazioan bidalketaren hartzaileari dagokion bulego kudeatzaileak produktuak lantegia, gordailu fiskala edo harrera-gordailua ez den beste toki batean zuzenean ematea baimendu ahal izango du. Baimen hori eman ahal izateko, baina, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Bidalketaren hartzaileak bidalketa hasi aurretik eskatu beharko dio bere establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileari, eta honako datuak eman beharko ditu:
    - 1.a. Bere izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskalerako zenbakia eta, hala badagokio, baita bere ordezkariaren eta entrega zuzenean egiteko tokiaren titularraren izen-abizenak eta identifikazio fiskalerako zenbakia ere.
    - 2.a. Entrega zuzena egin beharreko tokiaren helbidea, udalerrria eta posta-kodea.
  - b) Administrazioako dokumentu elektronikoak entrega zuzenerako toki bakarra babestu ahalko du.
  - c) Hartzaileak bere kontabilitatean adierazi beharko du produktuak jaso dituela.
  - d) Hartzaileak harrera-jakinarazpen elektronikoa bete beharko du.
  - e) Entrega zuzena baimentzeko eskumena duen bulego kudeatzailea eta entrega zuzenerako tokiari bere kokalekuagatik dagokion bulego kudeatzailea ezberdinak badira, lehenengoak baimenaren berri eman beharko dio bigarrenari.
  - f) Produktuek entrega zuzena egin den tokian bertan geratu beharko dute gutxienez harrera-jakinarazpen elektronikoa legezatu edo dokumentua paper-euskarrian bulego kudeatzailean aurkeztu eta hurrengo lanegunean, zerga-administrazioaren esku, azken horrek beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izan ditzan.
4. Aurreko 1. atalean ikusitako kasuetan, hartzaileak harrera-jakinarazpena aurkeztu beharko dio Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, eta horrek elektronikoki egiaztatuko ditu bertan jasotako datuak; datu horiek ez badira zuzenak, lehenbailehen emango dio horren berri hartzaileari. Aitzitik, datuak ongi badaude, aurkeztutako harrera-jakinarazpena erregistratu dela berretsiko dio hartzaileari, eta kasuan kasuko Estatu kideko agintari eskudunei helaraziko die dokumentua.
  5. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, hartzaileek (guztiak zein horietako batzuek bakarrik) Legearen 9. artikuluko a), b), c) eta d) letretan jasotako harrera-jakinarazpenak jakinarazpen elektronikoa ez den beste prozedura batzuk erabilia egin behar dituztela erabaki dezake bulego kudeatzaileak.
  6. Aldizkako hartzaile erregistratuek harrera-baimena lortu beharko dute komunitatetik kanpoko lurralde-eremuetatik eteteko erregimenean datozen produktuak jaso ahal izateko, eta horretarako honako jarraibideak bete beharko dituzte:
    - a) Produktuak hartzeko tokiari dagokion bulego kudeatzailean eskabide bat aurkeztu beharko dute eragiketa bakoitzeko, eta Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroak xedatutako ereduari jarraiki egindako eskaera horretan honako datuak adierazi beharko dituzte: jaso nahi dituzten produktuen mota eta kopurua, horiek hartzeko lekua eta BEZaren edo, hala badagokio, zerga berezien ondoretarako, igorlearen eta hartzailearen izena, helbidea eta identifikazio fiskalerako zenbakiak. Eskabidearekin batera enpresaren benetakotasuna frogatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta, hala badagokio, berariazko xedapenek ezartzen dituzten obligazioak bete izanaren egiaztapenak aurkeztu beharko dira. Eskabide bakoitzean hornitzaile bakarrak bidalitako produktuak baino ezingo dira jarri, eta produktu horiek Hidrokarburoei buruzko Zergaren, Tabakoaren Lanei buruzko Zergaren edo alkoholaren eta edari alkoholunen gaineko zerga berezien xede-esparrukoak izan beharko dute.

- b) Aurreko atalean adierazitako eskabideaz gain, jaso nahi diren produktuei dagozkien kuoten baliokidea den zenbatekoaren adinako bermea ere eman beharko da. Berme hori sortutako zergen ordainketari dagokio.

Hala ere, ez da bermerik eman beharko Araudi honetako 3. artikuluko 2. atalak aipagai duen bermea jarri baldin bada.

- c) Emandako bermeak aurreko atalean aipatutako zenbatekoa berdintzen duela egiaztatu ondoren, bulego kudeatzaileak harrera-baimena emango du Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak onartutako ereduari jarraiki, eta eskatzaileari helaraziko dio.
- d) Harrera-baimenak agiria eman duen bulego kudeatzailearen erreferentzia osoa, emandako bermeak babesten dituen produktuen mota eta kopurua, bermearen zenbatekoa eta haren onarpen-data jaso beharko ditu. Baimen horrek sei hileko balioa izango du ematen den egunetik aurrera, eta interesdunak hala eskatuz gero, gehienez hiru hilez luzatu ahalko da. Balio-epea eta, egon bada, luzapena amaitu ondoren bermea ez bada oraindik artikuluko honetan xedatutako prozeduretakoren baten bidez bertan behera utzi, berme hori betearazi egingo da.
- e) Harrera-jakinazpena aurkeztu ondorengo lanegunean, gutxienez, administrazioko dokumentu elektronikoan edo larrialdiko laguntzako dokumentuan jasota dagoen entrega-lekuan mantenduko ditu hartzaileak jasotako produktuak, eta hala egingo du Zerga-administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko aukera izan dezan, izan ere, administrazioak hala eskatuz gero, produktuak erakusteko betebeharra izango du.
- f) Sortutako kuotak autolikidazio bidez sartu beharko dira Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak ezarritako tokia, modua, epeak eta inprimakiak errespetatuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jasotako produktuak fabrikazio-zerga berezietatik salbuesteko eskubidea sortzen duten xedeetako batera bideratu ahalko dira entrega-lekuan bertan, beti ere Araudi honek zerga-salbuespenen produktuen harrerari buruz xedatzen dituen baldintzak betetzen badira.

- g) Emandako bermea bertan behera geratuko da zerga ordaindu izana frogatzen duen dokumentazioa aurkezterakoan.
- h) Bermea baliogabetu egingo da, baita ere, bulego kudeatzaileari egin asmo zen eragiketa bertan behera geratu dela jakinaraztean. Horretarako 6. atal honetako c) letrak aipagai duen harrera-baimenaren alea itzuli beharko da, eta baimenean jasotako produktuak hartu ez direla adierazi beharko du bertan interesdunak. Harrera-baimena bitarteko telematikoen bidez eman bada nahikoa izango da bulego kudeatzaileari atzera egitearen berri ematea. Jakinarazpenean interesdunak beren-beregi adierazi beharko du baimenean jasotako produktuak ez dituela hartu.
- i) Aurreko f) letrako bigarren paragrafoak aipagai dituen kasuetan, zergaren ordainagiria beharrez jasotako produktuen zordunketa jasotzen duen kontabilitate-dokumentuaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da bermea bertan behera utzi ahal izateko.

- B) Eteteko erregimenean edo salbuespen bat zein zerga-tasa murriztua aplikatuta barneko lurralde-eremuan jatorria edo xedea duen zirkulazioa.

1. Jatorria eta xedea barneko lurralde-eremuan izanda administrazioko dokumentu elektroniko baten babesean zirkulatu duten fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen hartzaileek harrera-jakinazpen elektronikoa aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, honako betekizunak errespetatuta egin ere:

- a) Produktuak jaso bezain laster aurkeztu beharko du, asko jota zirkulazioa amaitu osteko bost lanegunen barruan. Epe hori luzatu egin ahalko da baldin eta horretarako zioak azaldu ondoren bulego kudeatzaileak horretarako baimena ematen badu, baina kasu horretan bakarrik.
  - b) Araudi honen xedapen osagarrietan eta garapen-xedapenetan jasotako arauak betetzen dituen sistema informatizatu baten bidez aurkeztu beharko da.
2. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak elektronikoki egiaztatuko ditu agirian jasotako datuak, eta okerrak badira, lehenbailehen emango dio horren berri hartzaileari. Datuak zuzenak badira, aldiz, aurkeztutako harrera-jakinazpena erregistratu dela berretsiko dio hartzaileari eta igorleari helaraziko dio dokumentua.
  3. Aurreko 1 eta 2 ataletan xedatutakoa mantenduta, bulego kudeatzaileko lurralde-erregistroan izen eman gabeko hartzaileei salbuespendun edo zerga-tasa murriztadun produktuak igortzen zaizkien kasuetan, hartzaileak 29.B).2.b. artikuluan jasotako administrazioko dokumentu elektronikoaren ale inprimatuetakoa bat itzuli beharko dio igorleari, produktuen zirkulazioan zehar gertatu ahal izan diren gorabeherak eta harreraren emaitza adierazita. Modu horretan betetako kopia hori bost eguneko epean itzuli beharko zaio igorleari, produktuak jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.

### **32. artikulua. Administrazioko dokumentu elektroniko baten babespean zirkulatzen duten produktuak hartzeko prozedura baldin eta EMCS erabilgarri ez badago.**

Harrera-jakinazpena aurkezteko bost laneguneko epea amaitu ondoren EMCS erabilgarri ez badago 30. artikuluan 2. atalean xedatutakoaren arabera, edo zirkulazioa larrialdiko laguntzako dokumentu baten babespean egin bada eta larrialdiko laguntzako dokumentu horri dagokion administrazioko dokumentu elektronikoa oraindik ez badago EMCSn sartuta, hartzaileak honako prozedura bete beharko du:

1. Gehienez ere Araudi honen 31 A) 1.a) eta B) 1.a) artikuluetan xedatutako epea amaitu eta hurrengo lanegunean sistema ez dabilela, zergatik ez dabilen eta, jakinez gero, arazoak zenbat iraungo duen jakinaraziko dio bulego kudeatzaileari (dela establezimendua dagoen tokiari dagokion bulegoari, dela aldizka erregistratutako hartzaileak produktuak jasoko dituen tokiari dagokion bulegoari); jakinarazpena jaso dutela egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitarteko erabili ahalko da horretarako.
2. Hartzaileak emandako informazioa aztertu ondoren, bulego kudeatzaileak erabaki bat hartuko du: hartzaileak paperean aurkeztu beharko du harrera-jakinazpena edo, aitzitik, behar bezala justifikatutako kasuetan bulego kudeatzaileak egokitzen jotzen badu, luzatu egingo da hartzaileak harrera-jakinazpen elektronikoa aurkezteko epea.
3. 1) ataleko jakinarazpena jaso ondoren hiru laneguneko epean bulego kudeatzailearen erantzunik jasotzen ez bada, harrera-jakinazpen elektronikoa aurkezteko bost laneguneko luzapena ematen dela ulertuko da.
4. Bulego kudeatzailean harrera-jakinazpena paper euskarran jaso ondoren, kasuan kasuko Estatu kideko agintari eskudunak jakinaren gainean jarriko dira gaztigua jasota utziko duen edozein bitarteko erabilita, beti ere komunitate barneko zirkulazio-kasuak badira.
5. Sistema berriro abian jartzen denean (gehienez konexioa berrezarri eta hurrengo lanegunean) hartzaileak harrera-jakinazpena aurkeztu beharko du 31. A) edo B) artikuluan (egokiena denean) xedatutakoari jarraiki eta 684/2009 (EE) Araudiaren 2. eranskinean eta ezartzen diren xedapen osagarrietan zein garapen-xedapenetan jasotzen dena betez.
6. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak baliozkotze elektronikoa orokorra aplikatuko dio harrera-jakinazpenari.

7. Harrera-jakinarazpenaren baliozkotzeak paper euskarrian aurkeztutako harrera-jakinarazpena ordezkaturiko du ondore guztietan.
8. 7. atalean xedatutakoa gorabehera, igorleak lau urtez gorde beharko du paper euskarrian edo euskarri informatikoan duen harrera-jakinarazpena.
9. Salbuespenen bat edo tasa murrizturen bat aplikatu zaien produktuak larrialdiko laguntzako dokumentu batekin egiten den barne-zirkulazioaren kasuan, hartzailea bulego kudeatzaileko erregistroan izen eman gabe dagoenean, hartzaileak produktuak hartu izana larrialdiko dokumentuan bertan jasoko da. Hartzaileak agiri horren kopia bat bidaliko dio igorleari bost eguneko epean, produktuak hartzen direnetik zenbatuta. Ale hori ez badu produktuak igorri ziren datatik hilabeteko epean (gehienez) jasotzen, igorleak horren berri eman beharko dio bulego kudeatzaileari.

**32 bis artikulua. Komunitate barneko zirkulazioan hartzeko prozedura sistema informatikoa erabilgaitz egonez gero.**

...

**33. artikulua. Komunitate barneko zirkulazioa eteteko erregimenetik kanpo.**

1. Enpresariak fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuak bidali nahi badizkiete, horiengatik zorra barneko lurralde-eremuan ordaindu ondoren, bidalketa bermatuen edo urrutiko salmenten sistema erabilita, egoitza komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan duten pertsoneri, Araudi honetako 9 eta 10. artikuluetan xedatutako prozedurak jarraitu beharko dituzte.
2. Fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuek komunitate barnean zirkulatzen dutenean eteteko erregimenetik kanpo eta barneko lurralde-eremua xede dutela, produktuak bidalketa bermatuen edo urrutiko salmenten prozeduren bidez jasoko dira. Horretarako hartzaile baimenduak edo haren ordezkari fiskalak baimena lortu beharko dute aldezturik artikuluko honetako 3, 4 eta 5. ataletan xedatutakoari jarraiki.
3. Komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik eteteko erregimenetik kanpo bidalitako eta xede barneko lurralde-eremua duten fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuak jasotzeko baimeneri aplikatu beharreko arau orokorrak:
  - a) Bidalketa bermatuen hartzaile baimenduen eta urruneko saltzaileen zerga ordezkariak kudeaketa bulegoan eskabidea aurkeztuko dute, Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak xedatutako ereduaren arabera eta jaso nahi dituzten produktuen mota eta kopurua idatziz utziak geldituko dira. Eskabide batean, hornitzaile bakar batekin emandako produktuak baizik ezin sar daitezke, Hidrokarburoen gaineko Zergaren, Tabakoaren Lanen gaineko Zergaren edo Alkoholaren eta Alkoholdun Edarien gaineko Zergaren xedeko eremuen barrukoak betiere. Nolanahi ere, hala badaude, banaketaren arloan sektoreko araudian aurrez ikusitako baldintzak errespetatuko dira.

Hartzaile baimenduen kasuan, eragiketa bakoitzeko eskabide bana aurkeztuko da eta zerga ordezkarien kasuan, likidazioaldi bakoitzeko eskabide bat edo batzuk.

- b) Hartzaileak hurrengo 4 ataleko a) letran xedatutakoari jarraiki eta ordezkari fiskalak 43. artikuluko 8. atalean xedatutakoari jarraiki ezarritako bermeak jaso nahi diren produktuei dagozkien kuoten zenbatekoak ordaintzeko adina direla egiaztatu ondoren, bulego kudeatzaileak Ogasun eta Administrazio Publikoen ministerioak onetsitako ereduaren araberrako harrera-baimena emango du eta eskatzaileari helaraziko dio.
- c) Harrera-baimenak agiria eman duen bulego kudeatzailearen erreferentzia osoa, emandako bermeak babesten dituen produktuen mota eta kopurua, bermearen zenbatekoa eta haren onarpen-data jaso beharko ditu. Baimen horrek sei hileko balioa izango du ematen den egunetik aurrera, eta interesdunak hala eskatuz gero, hiru hilez luzatu ahalko da. Balio-epea eta, egon badago, luzapena amaitu ondoren bermea ez

bada oraindik artikulu honetan xedatutako prozeduretakoren baten bidez bertan behera utzi, berme hori betearazi egingo da.

- d) Hartzaile baimendunek edo urrutiko saltzaileen ordezkari fiskalek autolikidazio bidez ordaindu beharko dituzte sortutako kuotak, Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak xedatutako tokian, moduan, epeetan eta inprimaketan egin ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, baimendutako hartzaileak jasotako produktuak fabrikazio-zerga berezietatik salbuesteko eskubidea sortzen duten xedeetako batera bideratu ahalko dira entrega-lekuan bertan, beti ere Araudi honek zerga-salbuespendun produktuen harrerari buruz xedatzen dituen baldintzak betetzen badira.

#### 4. Bidalketa bermatuen prozeduraren inguruko arau bereziak:

- a) Harrera baimentzeko eskabidea produktuak jaso nahi diren tokian dagokion bulego kudeatzailean aurkeztu beharko dira, eta bertan honako datuak jaso beharko dira: igorlearen eta hartzailearen izena eta identifikazio fiskalerako zenbakia (BEZaren ondoreetarako) eta igorlearen identifikazio fiskalerako zenbakia (zerga berezien ondoreetarako). Eskabidearekin batera, jaso nahi diren produktuei dagozkien fabrikazio-zerga berezien kuoten adinakoa den bermea aurkeztu beharko du eskatzaileak. Kuota horiek produktuei aplika dakizkieken salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatu gabe kalkulatu beharko dira. Berme hori barneko lurralde-eremuan sortzen diren zerga berezien ordainketari aurre egiteko izango da.
- b) Produktuak jaso eta astebeteko epean, hartzaileak zirkulazioa babestu zuen laguntzako dokumentu sinplifikatuaren 2 eta 3 aleak eta dokumentu horren fotokopia bat aurkeztu beharko ditu harrera-lekuari dagokion bulego kudeatzailean. Bulegoan entregatu aurretik, harreraren data eta tokia jarri beharko dira dokumentuan eta harrera-ziurtagiria sinatu beharko da, hartzailea jasotakorekin ados dagoen edo, hala badagokio, dokumentuak biltzen dituen produktuen eta benetan jasotakoen artean dauden ezberdintasunak zeintzuk diren berriaz adierazita. Bulego kudeatzaileak 2 eta 3 aleak itzuliko ditu oniritzia eman ondoren (aurkeztu direla egiaztatzea da urrats horren helburu bakarra), eta aurkeztutako fotokopia gordeko du.

Aurreko paragrafoan adierazitako bulego kudeatzailearen ikus-onespena jaso ondoren, hartzaileak igorleari itzuliko dio laguntzako dokumentu sinplifikatuaren 3. alea; produktuak jasotzen dituenetik 15 eguneko epea izango du horretarako.

- c) Agiria bulego kudeatzailean aurkeztu ondorengo lanegunean, gutxienez, laguntzako dokumentu sinplifikatua jasota dagoen entrega-lekuan mantenduko ditu hartzaileak jasotako produktuak, eta hala egingo du Zerga-administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko aukera izan dezan, izan ere, administrazioak hala eskatuz gero, produktuak erakusteko betebeharra izango du.

Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, laguntzako dokumentu sinplifikatua prozedura telematiko bidez helaraztea (ondoren fisikoki helarazteko) onartu ahalko du bulego kudeatzaileak. Halaber, produktuak ezarritako epea iraungi aurretik irtetea ere onartu ahalko du, eta hori eginbide bidez egingo du jasota gera dadin.

- d) Emandako bermea bertan behera uzteko, interesdunak 3. ataleko b) letrak aipatzen duen harrera-baimenaren 2. alea, laguntzako dokumentu sinplifikatuaren 2. alea eta zergaren ordainagiria aurkeztu beharko ditu.
- e) Bermea baliogabetu egingo da, baita ere, bulego kudeatzaileari egin asmo zen eragiketa bertan behera geratu dela jakinaraztean. Horretarako 3. atal honetako b) letrak aipagai duen harrera-baimenaren bi aleak itzuli beharko dira, eta baimenean jasotako produktuak hartu ez direla adierazi beharko du bertan interesdunak. Harrera-baimena bitarteko telematikoen bidez eman bada nahikoa izango da bulego kudeatzaileari atzera egitearen berri ematea. Jakinarazpenean interesdunak beren-beregi adierazi beharko du baimenean jasotako produktuak ez dituela hartu.

5. Urrituko salmenten prozeduraren inguruko arau bereziak:

- a) Harrera baimentzeko eskabidea urruneko saltzailearen zerga ordezkaria inskribatua dagoen lurralde erregistroko kudeaketa bulegoan aurkeztuko da. Artikulu honetako 3. atalaren a) hizkian xedatutakoaz gain, urruneko salmenten harrera baimentzeko eskabidea eragiketa bati edo eragiketa multzoari buruzkoa izan daiteke eta eskabide bakoitzean jaso nahi diren produktuen mota eta kopurua ageriko dira. Produktuak hornitzaile bakarrak bidaliko ditu eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren, Tabakoaren Lanen gaineko Zergaren edo Alkoholaren eta Alkoholdun Edarien gaineko Zergaren xedeko eremuen barrukoak izango dira.

Harrera baimentzeko eskabidea eragiketa bakarrerako bada, bai Balio Erantsiaren gaineko Zergarako, bai zerga berezietarako urruneko saltzailearen eta zerga ordezkariaren izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia azalduko dira, baita eroslearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere.

Harrera baimentzeko eskabidea zenbait eragiketarako bada, bai Balio Erantsiaren gaineko Zergarako, bai zerga berezietarako urruneko saltzailearen eta zerga ordezkariaren izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia azalduko dira. Modu osagarrian, zerga ordezkariak produktuak erosi dituen bakoitzaren izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko ditu likidazio aldia bukatu baino lehen; bertan adieraziko dira bakoitzari emandako produktuen kopurua eta mota.

Baimentzeko eskabideak Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak onartutako ereduak beteko du.

- b) Hartzeko baimenaren eskabideak jasotzen dituen produktuek xingola fiskaldun ontzietan joan behar badute 26. artikuluko 1. atalak hala xedatzen duelako, xingola horiek jatorrian jarri beharko dira aipatutako artikuluko 6.b) atalean adierazitako moduan.
- c) 43. artikulua 8. atalean xedatutakoaren arabera, ordezkari fiskalak jarritako bermeak hark ordezkatzeko duen urrutiko saltzaileak bidalitako produktuen inguruan barneko lurralde-eremuan sortzen diren zerga bereziak ordaintzeko izango da.
- d) Ez da urrutiko salmentaren prozedura bidez produktuak jasotzeko baimenik emango baldin eta produktuei salbuespenen bat edo tasa murrizturen bat aplikatu ahal bazaie.

### **34. artikulua. Errepidezko zirkulazioa.**

Barneko lurralde-eremuan jatorria eta xedea dituen zirkulazioan hurrengo arau hauek beteko dira

1. Errepidezko zirkulazioaren barruan herrien barrualdetik egindakoa ere sartuko da.
2. Bidalketekin batera zirkulazio-dokumentuak ere joan beharko dira. Administrazioko dokumentu elektroniko baten babespean eginiko zirkulazioetan nahikoa izango da agiri elektroniko horren kopia inprimatu bat edo ARC argi eta garbi identifikatzeko moduan aipatzen duen beste edozein dokumentu aurkeztea.
3. Unitate edo garraibide bakoitzak (edukiontzia ere barne) jasotzaile bakoitzeko zirkulazio agiri baten babespean zirkulatuko du, gutxienez.
4. Administrazioko dokumentu elektroniko baten babespean eginiko zirkulazioan produktuak banaketa-zentro fisiko batean deskargatu eta ondoren berriro kargatzen badira, operazioaren berri eman beharko zaie bai xedeko bulego kudeatzaileari, bai banaketa-zentroaren helbideari dagokion bulego kudeatzaileari, horretarako jakinarazpena jasota utziko duen edozein bitarteko erabilita.



5. Errepidetik egindako garraio erregularrak, kargamentu osoa osatzen ez dutenean, hurrengo artikuluan aipatutako trenbidearen bidezko garraioari atxikita geldituko dira.
6. Arautegi honetan ezarritako dokumentuaren babesak ez duen zirkulazioa denean, edo bidalketak zirkulazio-agiriaren babesik ez duela irizten zaionean, produktuak ibilgetuko dira eta, karga osoa denean, ibilgailua ere bai. Produktuak eta, hala denean, ibilgailua, gordeta utziko dira bidaltzailearen edo garraiolariaren pentzura, kasuan kasuko bulego kudeatzailearen eskura. Bulego horretara igorriko da gauzaturiko eginbidea. Ibilgetzea bukatuko da espedientearen ondorioz izan litekeen zerga-zorraren zenbatekoa estaliko duen bermea jartzen denean.

Ondorio hauetarako, bulego kudeatzaileak, berrogeita zortzi orduko epe baten barruan, jaiegunak zenbatu gabe, aipatutako eginbidea jasotzen denetik aurrera zenbatuta, espedientetik atera litekeen zerga-zorraren zenbatekoa zehaztuko du eta igortzaileari edo garraiolariari jakinaraziko dio hauek aipatutako berme hori aurkeztu ahal izateko.

7. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailaren mendeko zerbitzuei dagokie kontrolatzera eta xedapen honetan jasotako neurriak hartzea bideratutako zerbitzuak eta jarduerak euren lurralde-eremuan garatzea. Jarduera horiek Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteek ere egin ahal izango dituzte.

### **35. artikulua. Trenbidezko zirkulazioa.**

Barneko lurralde-eremuan jatorria eta xedea dituen zirkulazioan hurrengo arau hauek beteko dira

1. Trenbidezko garraioa, bide horretatik egindakoa ez ezik, errepidetik egindako garraio osagarria ere izango da, baldin eta irteerako establezimendutik trenbide geltokirainoko ibilbidea egiten badu; baita deskargako geltokitik helmugaraino errepidetik egiten den ibilbidea ere.
2. Trenbidearen bidezko bidalketa baten jatorria edo helmuga den herrian geltokirik egon ez baina fakturazioak egiteko nahiz espedienteak jasotzeko bulegoa dagoenean, bulego horiek tren geltokizat hartuko dira, artikulua honen ondoretarako.
3. Trenbidearen bidezko garraibideetan, zirkulazioko agiria ez da merkantziarekin batera joango, trenbideko ibilbidean zehar; hala eta guztiz ere, agiri horretan, bidalketa egin duenak baliozkotasun epea eta irteera ordua finkatu beharko du ibilbide osorako, irteerako establezimendutik geltokiraino.
4. Fakturazioa egitean, bidalketa egiten dutenek zirkulazioko agiriak aurkeztuko dizkiote zerbitzuko arduradunari; horrek agiriok bidalketa zenbakiarekin eta dataekin bideratuko ditu, eta, aldi berean, zirkulazioko agiriaren zenbakia idatziko du, liburuak idazpen egokian eta fakturazioko taloian.

Zirkulazioa administrazioiko dokumentu elektroniko baten babespean eginez gero, zerbitzuaren arduradunak ARC idatzi beharko du bertan.

5. Agiria bideratu ondoren, bidali duenari itzuliko zaio; horrek jasotzaileari bidali beharko dio, azken horrek helmugan aurkezteko, bestela ez baitaio bidalketa emango. Trenbide konpainiaren enplegatuek, zirkulazioko agirian, honako hauxe jasoko du: merkantzia emateko eguna nahiz ordua, ibilbide osagarria egiteko ibilgailuari buruzko datuak eta azken helmugarainoko baliozkotasun epea.
6. Zirkulazio-dokumentuaren fotokopia bat, administrazioiko dokumentu elektronikoaren kopia inprimatu bat edo ARC argi eta garbi adierazten duen beste edozein merkataritza-dokumentu beharko da zirkulazioa babesteko. Bestelako merkataritza-agiri hori trenbide konpainiako enplegatu batek emandakoa izan beharko da eta bertan hainbat datu jaso beharko dira ARCz gain: garraiatutako produktuaren mota eta kopurua, produktua tren-geltokitik irten den eguna eta ordua, eta garraioa gauzatzeko emandako epea.

7. Aurreko atalean xedatutakoa beste kasu honetan ere aplikatuko da: administrazioko dokumentu elektroniko bakarrak babesten dituen produktuek xede-helmugara irisetko ibilbide osagarria egin behar badute garraibide ezberdinak erabilia.

### **36. artikulua. Itsaso eta aire bidezko zirkulazioa.**

Itsasoz eta airez egiten den eta jatorria eta xedea barneko lurralde-eremuan duen zirkulazioaren kasuan ere tren bidezko zirkulazioaren inguruan xedatutakoa hartuko da kontuan, aplikagarri diren puntuetan, behintzat.

### **37. artikulua. Ustezko berezi zehatzetan zirkulatzeari.**

1. Araudi honetako 22. artikuluan 3. atalean xedatutakoa mantenduta, hodi finkoen bidez hartzaile berari egindako bidalketen kasuan, baldin eta administrazioko dokumentu elektroniko bakarraren babespean egiten badira, igorleak hiru egun balioduneko epea izango du, bidalketa egin ondoren, agiri horren zirriborroa igartzeko, 29.B artikuluan ezarritako prozedurak hala xedatzen baitu.
2. Aireontziak erregaiez hornitzen direnean, hidrokarburoen zerga biltegien titularrek esku hartuta zerga bereziaz salbuetsiak badaude, zerga gordetegiaren titularrak erregaia zerga biltegian entregatu eta hurrengo egunean administrazio-dokumentu elektronikoa egingo du eta aurreko egunean zerga-biltegi bakoitzari entregatutako produktuaren kopuru guztia adieraziko du, hori salbuetsita badago. Nolanahi ere, biltegien titular horiek nazioko aireportuetan jarduteko organo eskudunen baimenak izan beharko dituzte. Erregaien hornidura zerga-tasa osoa aplikatua egiten denean, zerga gordetegiaren titularrak hurrengo egunean dokumentatu beharko du eragiketa zirkulazio-albaranaren bidez. Bertan zerga biltegi bakoitzari aurreko egunean hornitutako erregaiaren guztizko kopurua azalduko da.

### **38. artikulua. Jatorriko establezimenduan berriro sartzea eta xedearen aldaketa.**

1. Eten araubidearen azkentzearekin zerga gordetegi edo fabrikatik irtendako produktuak gorde dituen igorle baimenduari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik hartzaileari oso-osorik edo zati batean entregatzea ezinezkoa izan denean, produktuak irteerako establezimenduetan gorde ahal izango dira, betiere autolikidazioa aurkezteko epea igaro ez bada eta artikulua honetan xedatutako baldintzak betetzen badira. Hala, irteeraren ondorioz zerga ez dela sortu ulertuko da.

Entregatu gabeko produktuak jatorrizko establezimenduan berriz sartzen direnean, establezimendutik zirkulazioa babestu zuen dokumentua erabiliko da.

Zati batean entregatu denean, hartzaileak zirkulazioaren dokumentua izapidetu beharko du eta egiaz jasotako kopurua ziurtatuko du. Ondoren, igorlearen ordezkariak edo garraiolariak dokumentua izapidetuko du eta jatorrizko establezimendura itzultzen dela azalduko du, itzultzen hasten den orduarekin batera. Izapidetutako dokumentu horrek itzultze bidaian produktuen zirkulazioa babestuko du.

Produktuek administrazio dokumentu elektronikoaren bidez babestuta zirkulatu badute, harrera jakinarazpena formalizatzeke egiaz jasotako kopurua adieraziko da eta, gainera, harrerari buruzko informazio osagarri guztia azalduko da. Entregatu gabeko produktuak jatorrizko establezimenduan berriz sartzeko, jomuga aldatu dela adierazten duen mezu elektronikoa formalizatuko du hasierako igorleak.

2. Barneko zirkulazioan karga guztiari edo zati bati dagokionez alda daitezke hartzailea eta, bidezkoa denean, emate tokia, honako prozedurari jarraiki:
  - a) Zerga orokorra aplikagarria den eragiketen kasuan, nahikoa izango da igorleak edo bere ordezkariak zirkulazio dokumentua betetzea eta hartzaile edo jomuga toki berria adieraztea.

- b) Administrazio dokumentu elektronikoan oinarrituta mota murriztua aplikatu zaien eragiketen kasuan, igorleak edo bere ordezkariak jomuga aldatzen duen mezua gauzatuko du, barneko EMCS sisteman aurrez ikusitako baldintzetan. Baldin eta jomuga-aldaketaren mezu elektronikoa ezin gauzatu badaiteke bidaltzaileari ezin egotz dakizkiokeen kausengatik eta ondorengo mezu elektronikoari kalterik egin gabe, zirkulazioak babesa izan dezake igortzailea mezua gauzatzeko moduan egon arte. Zirkulazio-agiriaren eginbidea gauzatu beharko du igortzaileak edo horren ordezkariak ala garraiolariak, non argi eta garbi aipatuko den ARC, baita hartzaile edo helmuga berriak eta identifikazio fiskaleko zenbakia eta CAE ere, hala denean. Tasa murriztua aplikatuta duen produktua hartzaile berriari edo emateko toki berrian eman dakiokela ziurtatu beharko du igortzaileak, Arautegi honetan ezarritakoarekin bat etorritik betiere.
  - c) Eten araubidea aplikatzen zaien eragiketak badira edo administrazio-agiri elektronikoaren babesa izanik salbuespen kasuren bat aplikatzen diren eragiketak badira, igorleak edo bere ordezkariak jomuga-aldaketari dagokion mezu elektronikoa gauzatuko du. Baldin eta helmuga-aldaketari buruzko mezu elektronikoa ezin gauzatu badaiteke igortzaileari ezin egotz dakizkiokeen kausengatik eta ondorengo mezu elektronikoari kalterik egin gabe, aldaketa erabakitzen denean igorlearen kudeaketa bulego aginpidedunaren edo produktuak dauden kudeaketa bulego eskudunaren baimenaren bidez zirkulazioak babesa izan dezake igortzailea mezua gauzatzeko moduan egon arte. Bestela, zerga berezien xede diren produktuak hasieran joan behar zuten establezimenduaren esku-hartze zerbitzuak baimenduko du. Zirkulazio-agirian agerrarazi beharko dira baimenaren identifikazioa eta data, eta agiri horretan argi eta garbi aipatu beharko da ARC.
3. Gordetegi baimendu igorleari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik gas egoeran hidrokarburoen gaineko zergaren xede diren produktuak hartzaileari entregatu gabetzat joko dira, ontziaren eta produktuaren ezaugarri bereziekin zerikusia duten arrazoi fisiko-kimikoengatik horiek ontzietatik oso-osorik ateratzea ezinezkoa denean, baina betiere behar bezala justifikatuko da. Ustezko horretan establezimenduan berriz sartutako produktuak kontabilizatuko dira, araudiak 51. eta 52. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

### **39. artikulua. Zirkulazio eta edukitzaren justifikazioa.**

- 1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazio eta edukitzaren kasuetan, merkataritzako xedeak daudenean, egiaztatu beharko da aipatutako produktu horiek hurrengo egoeretako batean daudela:
  - a) Eteteko erregimenean.
  - b) Eteteko erregimenean kanpo komunitate barneko zirkulazioko prozedura baten babespean.
  - c) Eteteko erregimenean kanpo, zerga barneko lurralde-eremuan ordainduta egonik.
  - d) Eteteko erregimenean kanpo, salbuespen bat aplikagarria izanik.
- 2. Artikulu honen 1. atalak aipatzen dituen produktuak merkataritzako xedeetara zuzenduta daudela zehazteko helburuz, Legearen 15. artikulua 8., 9. eta 10. atalean ezartzen diren elementuak, besteak beste, kontuan hartuko dira.
- 3. Aurreko ataleko a) letran jasotako ondoretarako, fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuek eteteko erregimenarekiko duten lotura egiaztatzeke produktu horiek dauden lantegietako edo gordailu fiskaletako kontabilitate-idazpena erabili beharko da. Eteteko erregimenean egindako zirkulazioa kasuan kasuko ARC bidez frogatuko da.
- 4. Aurreko 1. atalaren b) letraren ondorioetarako, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak eteteko erregimenean kanpoko komunitate barneko zirkulazioko prozedura baten babespean daudela, berriz, laguntzako dokumentu sinplifikatu egokiaren bidez egiaztatuko da. Urrutiko salmenten prozedura bidezko zirkulazioari dagokionez,

fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen egoera egiaztatuko da Araudi honen 33. artikuluan aipatzen duen harrerako baimenaren ale baten bidez. Bertan zergaren ordainketaren erreferentzia eta eragiketan esku hartu duen ordezkari fiskalaren eginbidea jasota egongo dira.

5. Aurreko 1. atalaren c) letraren ondorioetarako, eta produktuen zirkulazioa babestu behar duen dokumentua zein den alde batera utzita, barneko lurralde-eremuaren barruan zergaren ordainketa honela egiaztatuko da:
  - a) Subjektu pasibo bati eskuratutako produktuak direnean, zergaren jasanarazpena jasotzen duen fakturaren edo dokumentuaren bidez, Araudi honen 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
  - b) Inportazio-kasuetan, erregistratutako igorleak emandako administrazioko dokumentu elektronikoaren bidez, eta inportazio-tokian kontsumitzeko bidalketen kasuan, aldiz, kasuan kasuko aduana-dokumentuaren bidez.
  - c) Eteteko erregimena bukatutakoan subjektu pasiboak edukitzearen kasuetan, zergaren ordainketaren egiaztagirien bidez.
  - d) Aurreko a) eta b) letretan aipatzen direnen bestelako eskuraketak direnean, luzatzea bidezkoa izan den zirkulazioko dokumentuaren bidez.
6. Salbuespena aplikagarri zaien produktuen zirkulazioa eta edukitza hartzailearen edo edukitzailearen estatuarekin lotuta ematea bidezkoa izan den zirkulazioko dokumentuaren bidez egiaztatuko da.
7. Aurreko 5 atalean ezarritakoa alde batera utzita, zergaren ordainketa, zigarreta, biltzeko tabako xehea eta edari eratorriei dagokienez, honela egiaztatuko da:
  - a) 26. artikuluan ezarritako marka fiskalen bidez, edukitako edo zirkulazioan dagoen kantitatea 800 zigarreta, kilogramo 1 biltzeko tabako xehea edo edari eratorriko 10 litro baino handiagoa ez denean edo, nolana ere, zigarretak, biltzeko tabako xehea edo edari eratorriak barneko lurralde-eremuan bere kontsumorako eskuratu dituzten partikularren esku daudenean. Lerrokada honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango 26.6.d) artikuluan araupetutako kasuetan. Azkeneko kasu hauetan zergaren ordainketa hitzezko deklarazioaren bidezko zordunketako taloiaren bidez egiaztatuko da.
  - b) a) lerrokadak aipatzen dituen marken eta produktuak artikuluko honen 1. atalean aipatutako egoeretako batean daudela egiaztatzen duten dokumentuen bidez gainerako kasuetan.
8. Salbuespen baten babespean edo tasa murriztua izanik biltegi fisikaletan jasotako produktuekin alderatuta produkturen bat galtzen denean, ez da justifikaziorik egin behar izango kasuan kasuko produktua biltzeko ezarritako arauko portzentajeak gainditzen ez badira eta behar bezala kontabilizatu badira.
9. Legearen 50. artikuluen bigarren tarifa jasotako produktuen xedea, Zuzenbidean onargarri diren frogen bitartez, justifikatzen ez denean, produktu hauek erregai gisa erabiltzera zuzenduta daudela joko da.
10. Legearen 8. artikuluen 8. atalean aurreikusitakoa baztertu gabe, produktuak aurreko 1. atalean aurreikusitako egoeretako batean daudela egiaztatzen ez denean, produktuak geldiaraziko dira. Ondorio hauetarako arauko dokumentuak babestu gabeko zirkulazioaren geldiarazpenaren kasuetarako Araudi honen 34. artikuluen 6. atalaren prozedura jarraituko da.

## 9. ATALA KUDEAKETAKO ARAU OROKORRAK

### 40. artikulua. Inskripzioa lurralde-erregistroan.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuei dagokienez, establezimendua dagoen barrutiko bulego kudeatzailean edo, hala denean, zerga helbidea dagoen lurralde erregistroan inskribatu beharko dute nahitaez honako hauek: fabriken, depositu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrek; erregistraturiko hartzaileek, jasotzeko deposituei dagokienez (zergadunaren ordezkioak izango dira, Legearen 8.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik); bidalketa berriz igortzen dutenek; Arautegi honetan ezarritako txikizkariak, erabiltzaileak eta azken kontsumitzaileak eta urrutiko salmentak egiten dituzten enpresek. Baldin eta bulego kudeatzaile baten baino gehiagoren lurralde eremuan hedatzen bada establezimendua, berau kudeatzeko eta kontrolatzeko zentroa dagoen lurralde eremuko bulego kudeatzailean inskribatu beharko da.
2. Oro har, lurralde-erregistroan inskribatzera behartutako pertsonak eta erakundeak alta emanda agertu beharko lirateke Enpresaburuaren, Profesionalen eta Atxikitzaileen Erroldan, dagokien jardueraren idazpuruan, eta bai eurek bai euren administratzaileek (egitatezkoak barne) egunean egon beharko dute zerga-obligazioen ordainketan. Gainera, eskabide bat aurkeztu beharko dute dagokien bulego kudeatzailean, eta honako dokumentazioa atxiki beharko diote eskabideari:
  - a) Eskatzailearen, bai eta, egonez gero, ordezkariaren, izen-abizenak edo sozietatearen izena, helbide fiskala eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Bigarrenak bere ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
  - b) Establezimendu mota eta horren kokalekua (helbidea eta herria adierazi beharko dira) edo, hala denean, erregistraturiko igortzailea, ordezkari fiskala edo gas naturalaren hornitzailea dela, Legearen 8. artikuluko 3 idatz-zatiaren arabera subjektu pasiboa dena).
  - c) Eskatzen den inskripzioarekin lotuta garatu nahi den jardueraren deskribapen-memoria laburra.
  - d) Establezimenduaren esparruari dagokion plano eskalan. Dauden biltegiatze elementuak eta, bidezkoa bada, fabrikazio elementuak eta aparatuek azalduko dira. Kudeaketa bulegoak lokalaren zona mugatu bat, fabrika duena, bertatik kanpokotzat jotzea baimen dezake; nolana ere, hori bakarrik etenaldiaren araubidea azkentzearen ondorioz zerga sortu zutenak eta, ondoren, titularrari itzuli zitzaizkionak gordetzeko eta, gero, produktuak bidaltzeko izango da.
  - e) Instalazioak erabiltzeko eskubidearen egiaztatzea, edozein tituluaren bidez.
  - f) Hidrokarburoen gaineko zergaren xede-eremuan dauden produktuei buruzko jardueren kasuan, baimenak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, horiek 34/1998 Legeak, urriaren 7koak, Hidrokarburoen sektoreari buruzkoak, eta bere garapen-araudiak xedatutakoa aplikatuz eman beharko dira. Tabako-lanen gaineko zergaren xede-eremuan dauden produktuei buruzko jardueren kasuan, Tabakoaren Merkaturako Mandatarien Operadore Erregistroan inskribatua egon beharko du, 13/1998 Legeak, maiatzaren 4koak, tabakoaren merkaturak eta zerga-araudia antolatzen duenak, xedatutakoaren arabera.
  - g) Eskatu ahal daitekeen bermea aurkeztearen egiaztatzea.
  - h) Lantegiak baldin badira, memoria teknikoak aurkeztu beharko da. Honek fabrikazioko aparailu eta elementuen funtzionamendua zein eskuratu nahi diren produktuak egiteko prozesuak deskribatu behar ditu.

3. Bulego kudeatzaileak, dokumentazioa ados dagoela egiaztatutakoan, lurraldeko erregistroan inskribatzea baimenduko du. Baimentzeko erabakian funtzionamenduaren mugak eta baldintza bereziak ezarri ahal izango dira. Erabakia jakinarazitakoan, inskripzioa egingo da. Inskripzioaren baimena jakinarazten denetik aurrera hasiko da izen-emate horren eraginkortasuna, beti ere Araudiak kontrakorik xedatzen ez badu.
4. Erregistratutako bidaltzaileek bere helbide fiskalari dagokion bulego kudeatzailearen lurraldeko erregistroan inskribatu beharko dute, eta aurreko 2. atalaren a), c) eta g) lerrokadek aipatzen duten dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Zerga helbidea dagoen bulego kudeatzaileari dagokion lurralde erregistroan inskribatu beharko dute gas naturalaren hornitzaileek eta Legearen 8. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera subjektu pasiboak direnek, eta aurreko 2. idatz-zatiko a), c) eta f) paragrafoetan aipaturiko dokumentazioa aurkeztu behar dute.

5. Ordezkeri fiskalek bere helbide fiskalari dagokion bulego kudeatzailearen lurraldeko erregistroan inskribatu beharko dute. Aipatutako inskripzioa egiteko hurrengo hauek aurkeztu beharko dituzte:
  - a) Aurreko 2. atalaren a), c) eta g) lerrokadek aipatzen duten dokumentazioa.
  - b) Komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan dagoen urrutiko saltzaileak bere zerga-ordezkeri izendatzeko erabiltzen duen agiria. Dokumentu horretan ordezkatu nahi den enpresaburuaren edo sozietatearen izena, haren helbidea eta Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren zein Zerga Berezien ondoretarako jatorrizko estatu kideetako zerga-administrazioak esleitu dizkion identifikazio-zenbakiak jaso beharko dira.
  - c) Esku hartzen duen eragiketen xehetasuna behar bezala islatzen duen kontabilitateko sistema.
6. Dokumentazioa jaso ondoren, instalazioak eta gailuak aitortutakoekin bat datozela eta Araudi honek eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztela egiaztatze aldera egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko eskatu ahalko dio bulego kudeatzaileak ikuskaritza-zerbitzuari. Txosten hori eskatu ezean, bulego kudeatzaileak baimen-akordioa bideratuko du eta inskripzioa egingo du aurkeztutako dokumentazioan jasotakoari jarraiki.
7. Bulego kudeatzaileak Ikuskaritzaren txostena eskatu badu eta azken horrek ez badu kontrako arrazoirik aurkezten hamabost eguneko epean, bulego kudeatzaile horrek inskripzioa onartzea eta aurkeztutako informazioaren arabera establezimendua behin-behinean inskribatzea erabaki ahal izango du, baina izen-emate hori Ikuskaritzaren txostenak emango dituen emaitzek baldintzatuko dute.
8. Legeak eta Araudi honek xedatutako arauak, mugak nahiz baldintzak eta, hala badagokio, baimen-hitzarmenean zehaztutakoak eta, bereziki, berme-urritasuna betetzen ez badira, emandako baimena baliogabetuko da. Baliogabetze-espedientea baimentzeko bulego kudeatzaile eskudunak izapidetuko du.

Baliogabetze-espedientea hasitakoan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako ordezkeriak bulego kudeatzailearen lurralde-erregistroan behin-behinean baja ematea erabaki ahalko du organo proposatzailearen txostena jaso ondoren.

Behin-behineko bajak fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak jaso eta bidaltzea eragotziko du eta altxatuko da berau hartzea eragin zuten gorabeherak desagertzen direnean, betiere baimena ezeztatzea edo Legean, Araudi honetan edo kasuari aplikatu beharreko beste araudi batean aurreikusitako beste edozein neurri bidezkoa ez bada.

Funtzionamendu-baimena kentzeak biltegitratutako produktuen izakinak erregulatzea ekarriko du. Aurreko guztia gorabehera, atal honetan jasotako aurreikuspenak berdin-berdin hartu ahal izango dira.

9. Hasiara bateko deklarazioan kontsignatutako datuetan edo aurkeztutako dokumentazioan ageri diren datuetan ondoren egindako edozein aldaketa bulego kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio.
10. Administrazioko beste organo batzuei eman beharreko baimenak baztertu gabe, inskripzioa egindakoan bulego kudeatzaileari interesdunari erregistroko inskripzioa egiaztatzen duen txartela emango dio, bulego kudeatzaileak onartutako ereduari lotuta egongo dena. Bertan titularrak Araudi honetan, fabrikazioko zerga bereziei dagokienez, eskatutako dokumentu guztietan jaso beharko duen CAE jasota egongo da.

#### **41. artikulua. Jardueraren eta establezimenduaren kodea.**

1. ezarritakoaren arabera egituraturiko kodea da; kode horrek jarduera bat eta berori garatzeko establezimendua identifikatzen ditu. Establezimendu batean jarduera desberdinak egiten direnean, establezimendu horrek beste horrenbeste kode edukiko ditu esleituta, zenbait jarduera batera egiteak kode bakarra esleiturik duen jardueratzat hartzearen kalterik gabe. Halaber, pertsona batek zenbait establezimendutan jarduera berbera egiten duenean, establezimenduen besteko kode kopurua edukiko du esleituta.
2. Kodigoak 13 karaktere izango ditu, eta horrela banatuta egongo dira:
  - a) ES letrak izango dira lehenengo karaktereak.
  - b) Ekonomia eta Ogasun ministroak beste karaktere batzuegatik ordezkatzeko agintzen ez duen bitartean, hirugarren eta laugarren karaktereak zeroak izango dira.
  - c) Sei eta zazpigarren karaktereek izen-ematea egin den lurralde-eremuko bulego kudeatzailea identifikatzen dute.
  - d) Zortzi eta bederatzigarren karaktereek burutzen den jarduera identifikatzen dute.
  - e) Hamar, hamaika eta hamabigarren karaktereek c) letran aipatzen den jarduera bakoitzaren barnean, bulego kudeatzailearen lurralde-eremuan izen-ematearen zenbaki sekuentziala adieraziko dute.
  - f) Hamahirugarren karakterea kontrol-letra izango da.
3. Ekonomia eta Ogasun ministroak 1. atalean aipatutako jardueren zerrenda ezarri eta, gainera, 2. atalean aipatutako identifikazio digituak zein karaktereak zehaztuko ditu.

#### **42. artikulua. Establezimenduen titular-aldaketa eta bere jarduera uztea.**

1. Oro har eta Zergei buruzko Lege Orokorraren 39., 40. eta 177. artikuluetan xedatutakoa baztertu gabe, inskribatutako establezimenduen titularitatearen aldaketek ondorioz izango dute titular berria bulego kudeatzailearen lurraldeko erregistroan horrelakotzat inskribatzen denean bakarrik, hori guztia Araudi honen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hori gertatzen ez den bitartean, Araudi honen xedeetarako, establezimenduaren titulartzat hartuko da lurraldeko erregistroan horrelakotzat inskribatuta ageri den pertsona edo erakundea, eta hau izango da establezimenduan biltegitatu, sartu edo bertatik bidalitako produktuen erantzulea baja edo titularitatearen aldaketa egiten den arte.

2. Establezimenduaren jarduerari behin betiko uztea gertatzen denean, hurrengo arau hauek kontuan hartuko dira:
  - a) Titularrak bulego kudeatzaileari jakinarazi beharko dio. Kontu-hartzailera eta ikuskaritza zerbitzuek arauzko liburuak, egonez gero, kenduko dituzte eta ondorioz gabe utzi beharreko arauzko kontroleko gainerakoak, era berean lehenengo gaien eta aparailuen izakinak behin-behineko zigilatuko dituzte. Azken hauek Administrazioaren interbentzioaren mende geldituko dira, bere kontrolpean suntsitu edo ezgaitzen

badituzte izan ezik. Horren guztiaren gainean eginbide egokia egingo da bulego kudeatzaileari igorriko zaiona, zergaren xede diren produktu fabrikatuen eta Diruzaintzan sartu edo likidatu gabe dauden zorren gaineko txosten batekin batera, aurkeztutako bermea aurkeztu edo itzultzeko xedeetarako.

- b) Erregistroko baja ez da formalizatuko establezimenduan zergaren xede diren produktuen izakinak dauden bitartean.
- 3. Bere likidazioaren aurretik lehenago ezarritakoa betetzen ez duten desegindako sozietateei dagokienez, Zergei buruzko Lege Orokorraren 177. artikuluan 2. atalean aurreikusitakoa beteko da.
- 4. Enpresari, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan baja egiteko eskabidea, zerga berezien arloko jarduera eta establezimenduari buruzkoa, aurkezteak Araudi honen 40. artikuluan aipatzen duen fabrikazioko zerga berezien lurralde-erregistroko bajaren eskabidearen berezko ondorioak izango ditu.

Araudi honen 40. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe, fabrikazioko zerga berezien berezko jarduera aldi baterako uzten bada Enpresari, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan baja egin gabe, bulego kudeatzaileak bajaren prozedura ofizioz hasiko du jarduera uzteko egunetik aurrera 12 hilabeteko epea igarotzen denean.

#### **43. artikulua. Bermeak.**

- 1. Lurraldeko erregistroan establezimendu egokiak inskribatu baino lehenago, fabrikatzaileei, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek, erregistratutako hartzaileek, erregistratutako bidaltzaileek eta ordezkari fiskalek bermea aurkeztu beharko dute. Berme honek hurrengo ataletan adierazitako zenbatekoak izango ditu eta establezimendu bakoitzak duen zerga-zorrari erantzuteko balio izango du.

Jarduera hasten den kasuetan zenbatekoak estimatutako urteko kuoten arabera finkatuko dira.

#### **2. Fabrikatzaileak:**

- a) Bermearen oinarria: Indarreko zerga-tasa aurreko hiru urte naturalen barruan lantegitik egindako irteeren, edozein xede dutela, urteko batez bestekoa den produktuen kantitateari aplikatzean aterako lirakeen kuoten zenbatekoa. Aipatutako irteera horien barruan lantegian eraldatu gabe merkaturatzeko jasotako produktuei dagozkienak zenbatuko dira. Araudi honen 45. artikuluan 1. atalean xedatutakoarekin bat etorriz, bidaltzaile erregistratuak, fabrikatzaile den heinean, bere titularitateko lantegian duen bermearen kargura beste lantegi edo gordailu fiskal batera igorritako bidalketak.

Aipatutako irteera horien barruan ez dira zenbatuko titular beraren beste lantegi batera, jasotzeko baimenduta dagoen batera, bidaltzen diren produktuei dagozkienak, betiere aipatutako titular horrek aurkeztutako bermeek berdin estaltzen badituzte bere lantegietako edozeinen jardueratik ateratako erantzukizunak.

#### **b) Bermearen zenbatekoa:**

**1.a.** Alkohola: 100eko 2,5. Hala eta guztiz ere, oso-osorik edo zati batean desnaturalizatutako alkohol-irteeren oinarritzko zatia aplikatuko zaion bermearen zenbatekoa 100eko 1,5ekoa da. Bermearen zenbatekoak ezin dezake 20.000.000 eurotik gorakoa izan.

**2.a.** Edari eratorriak: 100eko 6a

**3.a.** Bitarteko produktuak: 100eko 2a.

**4.a.** Garagardoa, ardoa eta edari irakinak: 100eko 1a.



- 5.a. Edari eratorriak bestelako edari alkoholdunekin batera: 100eko 6a.
  - 6.a. Bitarteko produktuak bestelako edari alkoholdunekin (edari eratorriak izan ezik) batera: 100eko 2a.
  - 7.a. Alkoholdun estraktuak eta kontzentratuak bakarrik: 100eko 5a.
  - 8.a. Hidrokarburoak eta tabakoko lanak: 1.000ko 1. Hala ere, bioetanol edo biometanol irteerei dagokien oinarritzko atalari aplikatu dakiokkeen bermearen zenbatekoa 100eko 2,5a izango da.
- c) 45. artikulua 1. atalean xedatutakoarekin bat etorriz, lantegi batean, eteteko erregimenean, bere jardueraren xede diren produktuak jaso edo biltegitatik direnean, hauen gainean eraldatzeko eragiketak egin beharrik gabe, b) letran jasotako bermeak, beharrezkoa bada, artikulua honen 3. atalean gordailu fiskalen titularrentzat aurreikusitako gutxieneko zenbatekoetara doitu dira.
3. Gordailu fiskalen titularrak:
- a) Bermearen oinarria: Aurreko hiru urte naturaletan zehar establezimenduan sartutako produktuen urteko batez bestekoa den produktuen kantitateari indarreko zerga-tasa aplikatzean aterako liratekeen kuoten zenbatekoa, eta igorle erregistratu batek bere titularitateko gordailu fiskalean duen bermearen kargura lantegi batera edo beste gordailu fiskal batera bidaltzen dituen produktuei dagozkien kuotak.
  - b) Bermearen zenbatekoa:
    - 1.a. Alkohola: 100eko 2,5. Hala eta guztiz ere, denboraldian gordetegitik ateratako guztizkoarekiko oso-osorik edo zati batean desnaturalizatutako alkohol-irteeren proportzio berean oinarritzko zatiari aplikatutako zaion bermearen zenbatekoa 100eko 1,5ekoa da. Bermearen zenbatekoak ezin dezake 20.000.000 eurotik gorakoa izan.
    - 2.a. Edari deribatuak: 100eko 6a.
    - 3.a. Bitarteko produktuak: 100eko 2a.
    - 4.a. Edari eratorriak bestelako edari alkoholdunekin batera: 100eko 6a.
    - 5.a. Bitarteko produktuak bestelako edari alkoholdunekin (edari eratorriak izan ezik) batera: 100eko 2a.
    - 6.a. Garagardoa, ardoa eta edari irakinak: 100eko 1a.
    - 7.a. Aterakin eta kontzentratu alkoholikoak bakarrik: 100eko 5a.
    - 8.a. Hidrokarburoak eta tabakoko lanak: 1.000ko 1a.
  - c) Gutxieneko zenbatekoa gordailu fiskal bakoitzeko:
    - 1.a. Hidrokarburoen depositu fiskalak, salbu eta petrolioaren gas likidotuarenak (GLP), gas naturalarenak, soilik bioerregaien banaketarako direnak eta soilik Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifako produktuen banaketan dihardutenak: 450.000 euro.
    - 2.a. Aterakin eta kontzentratu alkoholdunak bakarrik jasotzen dituzten gordailu fiskalak eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifa jasotako produktuak, gehienez 25 litroko edukierako ontzietan txikizkako salmentarako prestatutakoak, banatzen bakarrik aritzen diren gordailu fiskalak: 6.000 euro.
    - 3.a. Garagardo-gordailu fiskalak: 10.000 euro.

- 4.a. Bitarteko produktuen gordailu fiskalak: 15.000 euro.
  - 5.a. Garagardo-gordailu fiskalak, ardoaren eta bestelako edari hartzituen gordailu fiskalekin batera: 10.000 euro.
  - 6.a. Bitarteko produktuen gordailu fiskalak bestelako edari alkoholdunekin (edari eratorriak izan ezik) batera: 15.000 euro.
  - 7.a. PGL gordailu fiskalak: 15.000 euro.
  - 8.a. Gainerako gordailu fiskalak: 60.000 euro.
  - 9.a. Adierazitako gutxieneko zenbatekoak ez dira eskatuko gordailua ardoa eta edari irakinak.
- d) Araudi honen 11. artikulua 6. atalak aipatzen dituen kasuetan, establezimenduan garatutako jardueren ondoriozko aduana eta zergako zorreatatik erantzuteko aurkez daitezkeen berme bakarrak ez du atal honetan jasotako arauak aplikatuz ateratzen den zenbatekoa baino zenbateko txikiagorik edukiko, hurrengo 5. eta 6. atalean xedatutakoa baztertu gabe.
  - e) Gordailu fiskaletarako ezarritako bermeak ez dira eskatuko bere titularra Administrazio publikoa denean. Kasu hauetan, bermea administrazio organoaren titularren jakinarazpen batez ordezkatu da. Jakinarazpen honetan titularra den gordailuaren jardueraren ondorioz sor litekeen zorreatatik erantzuteko konpromisoa hartuko du.
4. Biltegi fiskalen titularrak:
- a) Bermearen oinarria: Aurreko hiru urteetan zehar biltegian sartutako produktuen urteko batez bestekoa den produktuen kantitateari indarreko zerga-tasa aplikatzean aterako liratekeen kuoten zenbatekoa, ondorio honetarako tasa arruntak aplikatuta salbuespen baten babespean sartutako produktuei dagokienez eta tasa murriztuak, berriz, hauen aplikazioa dutela sartutako produktuei dagokienez.
- Xede exentu batera zuzendutako hidrokarbuoak direnean, eta hauek tasa murriztua aplikatzeko trazatzaileak eta markatzaileak erantsita baldin badituzte, bermea finkatzeko oinarritzat balio behar duen kuota kalkulatzeko, dagozkien tasa murriztuak aplikatuko dira.
- b) Bermearen zenbatekoa:
    - 1.a. Desnaturalizatu gabeko alkohola: 100eko 2,5a.
    - 2.a. Guztiz edo zati batez desnaturalizatutako alkohola: 100eko 1,5a.
    - 3.a. Edari deribatuak: 100eko 6a.
    - 4.a. Bitarteko produktuak: 100eko 2a.
    - 5.a. Garagardoa, ardoa eta edari irakinak: 100eko 1a.
    - 6.a. Hidrokarbuoak eta tabakoko lanak: 1.000ko 1a.
  - c) Gutxieneko zenbatekoa:
    - 1.a. PGLaren zerga-biltegiak: 10.000 euro.
    - 2.a. Gainerako zerga-biltegiak: 30.000 euro. Gutxieneko zenbatekoa ez da eskatuko, biltegia eskusiboki ardoa eta edari irakinak gordetzeko denean.

- d) Araudi honen 13. artikulua 2. atalak aipatzen dituen kasuetan, establezimenduan garatutako jardueren ondoriozko aduana eta zergako zorreatik erantzuteko aurkez daitezkeen berme bakarrak ez du atal honetan jasotako arauak aplikatetik ateratzen den zenbatekoa baino zenbateko txikiagorik edukiko, hurrengo 5. eta 6. ataletan xedatutakoa baztertu gabe.
- 5. Aurreko 3. eta 4. ataletan xedatutakoa alde batera utzita, gordailu fiskalaren titularra sartutako produktuen fabrikatzailea ere denean, edo biltegi fiskalaren titularra sartutako produktuen fabrikatzailea edo produktu horiek jasotzen diren biltegi fiskalaren titularra denean, berme egokiak zehazteko oinarritzat hartutako zenbatekotik hurrengo kantitate hauek kenduko dira:
  - a) Gordailu fiskala baldin bada, bertan sartzen diren gordailu fiskalaren titularrak fabrikatutako produktuei dagozkien kuotak deduzituko dira.
  - b) Biltegi fiskala baldin bada, berriz, bertan sartzen diren gordailu fiskalaren titularrak fabrikatutako produktuei dagozkien kuotak zein kontsideratutako biltegi fiskalaren titularra, era berean, produktuak biltegiatuta dauden gordailu fiskalaren titularra denean, bertan sartutako produktuei dagozkien kuotak deduzituko dira.

Aurreko murrizketak aplikagarriak izango dira, betiere baimendutako gordailuzainak egiaztatzen badu aurkeztutako bermeak gordailu fiskal edo biltegi fiskal baten titular gisa duen jarduera burutzean egon litezkeen erantzukizunak estaltzen dituela.

- 6. Sartzen diren gordailu fiskal edo biltegi fiskalaren titularrak ez diren baimendutako gordailuzainek fabrikatu edo biltegiatutako produktuak direnean, azken hauen titularrek aurkeztu beharreko bermearen zenbatekotik eta aurreko atalekin bat etorritik erabakita, zentro kudeatzaileak baimena eman ondoren, produktu horiei legozkiekeen kuoten 100eko 80a arte deduzitu ahal izango da. Murrizketa hau aplikatzeko, beharrezkoa izango da aipatutako gordailuzain baimenduek aurkeztutako bermeek gordailu fiskal edo biltegi fiskalaren titularrari, haiek sartutako produktuei dagokienez, exijitu ahal zaizkion erantzukizunei erantzutea. Aipatutako erantzukizun horiek zein produkturi exijitu ahal izango zitzaizkien zehazterik ez dagoenean, beharrezkoa izango da aipatutako gordailuzain baimenduek aurkeztutako bermeek gordailu fiskal edo biltegi fiskalaren titularrari, aipatutako gordailuzain baimenduek gordailu edo biltegi fiskalean azkeneko hiruhileko naturalean sartutako produktuena bezalako biltegiatutako produktuen ehuneko batekin lotuta, gordailu edo biltegi fiskalean aipatutako aldiaren barruan sartutako produktu guztien aldean, exijitu ahal izango litzaizkiekeen erantzukizunak estaltzea.
- 7. Erregistratutako hartzaileak:
  - a) Bermearen oinarria: Aurreko urtean zehar sorrarazi eta erregistratutako hartzaileak zergadun gisa ordaindutako kuoten zenbatekoa. Horiek ezean, urte baten barruan sorraraz daitezkeela estimatutakoak.
  - b) Bermearen zenbatekoa:
    - 1.a. Alkoholaren aterakinak eta kontzentratuak kanpo, alkohol eta edari alkoholikoen hartzaile modura erregistratutakoak: 100eko 2. Bermearen zenbatekoak ezingo ditu 20.000.000 euro gainditu.
    - 2.a. Hidrokarburo edo tabakoko lanen hartzaile erregistratuak: 1.000ko 0,5.
  - c) Gutxieneko zenbatekoa: 30.000 euro, garagardoa, bitarteko produktuak eta aterakin eta kontzentratu alkoholikoak bakarrik jasotzen dituzten hartzaile erregistratuei dagokienez izan ezik, hauetan 3.000 eurotara murriztuko baita. Gutxieneko zenbatekoa ez da exijituko harrerako gordailua ardo eta edari irakinak.
  - d) Hala eta guztiz ere, atal honetan jasotako bermea ez da galdagarria izango, betiere horietako bakoitzean aurkeztutako bermeak atal hau aplikatzean exijitu beharko

litzatekeen zenbateko bera edo handiagoa baldin badu eta betiere bertan interesdunari hartzaile erregistratu gisa dagozkion erantzukizunei ere erantzungo diela esplizituki adierazten bada:

- 1.a. Araudi honen 3. artikularen 2. atalean aurreikusitako bermea aurkeztuta dagoenean.
  - 2.a. Biltegi fiskal baten titularrak berau lurraldeko erregistroan harrerako gordailu gisa inskribatzen duenean hartzaile erregistratuaren izaera eskuratzearen ondorioetarako.
- e) Noizbehinkako hartzaile erregistratuek Araudi honen 31.A.6.b. artikuluan aurreikusitako bermea bakarrik aurkeztuko dute.
8. Ordezkeri fiskalak:
- a) Bermearen oinarria: Ordezkeri fiskalak zergadunaren ordezkotako gisa aurreko urtean zehar ordaindutako kuoten zenbatekoa.
  - b) Bermearen zenbatekoa: 100eko 2,5a.
9. Barneko lurralde-eremura zuzenduta dauden produktuen bidaltzaile erregistratuak: Eteteko erregimeneko zerga berezien xede diren produktuen edo salbuespenaren kasu bat eta zerga-tasa murriztua aplikatuta duten produktuen inportazioaren kasuetan, bidaltzaile erregistratua behartuta egongo da inportatutako produktuei, zerga-hobaririk aplikagarria izango ez balitz, legezkiekeen produktuen zenbatekoa estaltzen duen bermea aurkeztera, zuzenduta dauden establezimenduak produktuen harrera gertatzen den arte.

Bermea zehazteko orduan, espedizioaren momentuan barneko lurralde-eremuan indarrean dauden zerga-tasak kontuan hartuko dira.

Bidaltzaile erregistratuak hurrengo bermeetako bat aurkeztea aukeratu ahal izango du:

a) Banakoa

Inportazioko aduanan emango da, eta igorritako produktuari dagokion zerga berezien gaineko zergaren kuotaren %100aren baliokidea izango da zenbatekoa, etendako inportazioak edo salbuespen kasuren bat aplikatuta duten inportazioak direnean, edota zerga-tasen diferentzia aplikatuz kalkulaturiko zerga berezien kuotarena, zerga-tasa murriztua aplikatuta dituzten produktu inportatuak direnean.

b) Globala.

Bulego kudeatzailean aurkeztuko da, erregistraturiko bidaltzailea inskribatuta dagoen lurralde erregistroko bulegoan hain zuzen. Jarri beharreko zenbatekoa, gutxienez, 60.000 euro izango da, aurreko urteko igorpenei dagozkien zerga berezien kuoten %2,5aren zenbateko baliokidea, baina salbuespen hauek izango dira:

1.a. Gas naturala eta petrolioaren gas likidotua: 30.000 euro.

2.a. Alkoholaren aterakin eta kontzentratuak: 6.000 euro.

3.a. Bitarteko produktuak eta garagardoa. 6.000 euro, salbu eta bidalketetan urteko 100.000 litro gainditzen badituzte bitarteko produktuak direnean, eta 200.000 litro garagardoa denean. Halakoetan, gutxienezko zenbatekoa 1.500 euro izango da. Globala. Bulego kudeatzailean aurkeztuko da, erregistraturiko igortzailea inskribatuta dagoen lurralde erregistroko bulegoan hain zuzen. Jarri beharreko zenbatekoa, gutxienez, 60.000 euro izango da, aurreko urteko igorpenei dagozkien zerga berezien kuoten %2,5aren zenbateko baliokidea, baina gas naturala eta petrolioaren gas likidotua salbuetsita: 30.000 eurokoa izango da.

Berme globalei dagokienean, espedizio bakarrari dagokion zerga berezien kuota, a) letran adierazitako moduan kalkulaturik, ezarritako bermea baino handiagoa bada, igorle erregistratuak bien arteko aldearen zenbatekoa adinako berme osagarria jarri beharko du. Produktuak xede-establezimenduan behar bezala jaso direla egiaztatu ondoren berme hori bertan behera geratuko da.

Ez da inolako bermerik eskatuko ardoa eta edari hartzituen bakarrik hornitzen dituzten igorle erregistratuen kasuan.

Inportazioa ondasunak Araudi honetan xedatutakoarekin bat etorritik bermea aurkezten duen titularra duen establezimendu batean sartzeko egiten bada, aipaturiko berme horrek 9. artikulon honen lehenengo lerrokadan jasotakoaren ondorioak sortu ahal izango ditu, betiere bertan espresuki jasotzen bada bermeak, inportazioko aduanatik aipaturiko establezimendu horretaraino, ondasunen zirkulazioan gerta litezkeen gorabeherak estaltzen dituela.

Erregistratutako bidaltzailea lantegi edo gordailu fiskal edo biltegi fiskal baten titularra izanez gero, artikulon honen 2., 3. edo 4. atalean xedatutakoaren arabera aurkeztuta duen bermeak 9. artikulon honen lehenengo lerrokadan jasotakoaren ondorioak sortu ahal izango ditu, aurreko lerrokadan adierazitako baldintza berberetan.

10. Komunitatetik kanpoko lurralde-eremura zuzenduta dauden produktuen bidaltzaile erregistratuak: Eteteko erregimeneko zerga berezien xede diren produktuak komunitatetik kanpoko lurralde-eremuan baimendutako xede batera inportatzearen kasuetan, bidaltzaile erregistratua inportatutako produktuei, zuzenduta dauden establezimenduan produktuak jaso arte edo produktuek Komunitatearen lurraldea utzi dutela ziurtatzen den arte, legezkiekeen kuoten zenbatekoa estaltzen duen bermea aurkeztera behartuta egongo da.

Bermea zehazteko espedizioaren momentuan barneko lurralde-eremuan indarrean dauden zerga-tasak kontuan hartuko dira.

Halako kasuetan igorle erregistratuak eman behar duen bermea aurreko atalean xedatutako kalkularen ondorioz lortutako zenbatekoen berbera izango da, hau da, barneko lurralde-eremuko tokiren batera egin beharreko inportaziorako bidalketen kasurako kalkulaturikoaren berbera. Dena den, hurrengo paragrafoan aipatzen den kasua salbuespena izango da.

Soilik ardoaren eta edari hartzituen eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifako produktuen bidaltzaile erregistratuek 3.000 euroko bermea jarri beharko dute.

Bidaltzaile erregistratu bat lantegi edo gordailu fiskal baten titularra izanez gero, artikulon honen 11. atalean xedatutakoaren arabera aurkeztuta duen bermeak 10. artikulon honen lehenengo lerrokadan jasotakoaren ondorio berberak eduki ahal izango ditu, betiere bertan espresuki jasotzen bada bermeak, inportazioko aduanatik aipaturiko establezimendu horretaraino, ondasunen zirkulazioan gerta litezkeen gorabeherak estaltzen dituela.

11. Komunitatetik kanpoko lurralde-eremura zuzenduta dauden eteteko erregimeneko produktuen bidaltzaileak diren gordailu baimenduak:

- a) Baimendutako gordailuzainek berme globala aurkeztu beharko dute, eta bere oinarri eta zenbatekoa honako hauek izango dira:

- 1.a. Bermearen oinarria: aurreko urteko Erkidego barrukoak diren eta barne lurralde eremuan indarren diren zerga-tasak aplikaturik kalkulatu diren bidalketei dagozkien kuoten zenbatekoa, ardoaren eta edari hartzituen eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifako produktuen igortzaile erregistratuen kasuan izan ezik: aurreko urteko bidalketen balioa izango da bermearen oinarria.

- 2.a. Bermearen zenbatekoa: Aurreko hizkian aipaturiko kuoten %2,5, hidrokarburoen baimendutako gordailuzainak direnean izan ezik, baldin eta itsasotik, ibaitik edo hoditeri finkotik bidaltzen badituzte produktuak eta ardoaren eta edari hartzituen

igortzaileak badira, jarri beharreko bermea %1ekoa izango da, baita gas naturala eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifako produktuak direnean ere: aurreko urtean igorritako bidalketen %1ekoa izango da jarri beharreko bermearen zenbatekoa.

**3.a.** Gutxieneko zenbatekoa: 60.000 euro, salbuespen hauekin:

- Gas naturala eta petrolioaren gas likidotua: 30.000 euro.
  - Alkoholdun aterakinak eta kontzentratuak: 6.000 euro.
  - Bitarteko produktuak eta garagardoa: 6.000 euro, salbu eta bidalketetan urteko 100.000 litro gainditzen ez badituzte bitarteko produktuak direnean, eta 200.000 litro garagardoa denean; gutxieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da.
  - Ardoa eta edari hartituak eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2. tarifako produktu ez sentikorak: 1.000 euro.
  - Edari deribatuak, alkohol purua kontuan hartuta, urteko bidalketek 25.000 litro gainditzen ez dituztenean: litro alkohol puru bakoitzeko euro bat; gutxienez 3.000 euro.
- b) 11. atal honek aipatzen duen berme globala artikuluko honen 2. eta 3. ataletan, hurrenez hurren, aurreikusitakoarekin bat etorritik aurkeztu dituztenen bidez fabrikatzaile eta gordailuen titularrek aurkeztu dutela joko da, betiere berme horiek:
- a') Atal honen arauak aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoa baino handiagoak baldin badira
  - b') 'Esplicituki adierazten bada komunitatearen lurralde-eremu osoan baliagarria dela horiek bidalitako produktuen komunitate barneko zirkulazioaren ondorioz ateratako obligazio guztien aurrean erantzuteko.
- c) Hidrokarburoei buruzko Zergaren mendeko produktuak itsasoz edo gidaritza finko bidez komunitatetik kanpoko lurralde-eremuetara bidaliz gero, berme hori eman beharraz salbuetsi daiteke salbuespen-espeditante baten bidez. Espeditante hori hasteko interesdunak eskaria egin behar du bulego kudeatzailean, eta azken horrek erabakiko du salbuetsi edo ez, igaro beharreko eta xede-helmuga izango den Estatu kideekin akordio batera iritsiz gero. Artikulu honetako 2.a eta 3.a ataletan xedatutakoaren arabera, lantegitik edo gordailu fiskaletik berme horren babesean egiten diren irteerak ez dira kontuan hartuko establezimendu gisa eman behar dituzten ondoretarako.
12. Araudi honetan ezarritakoaren arabera, establezimendua dagoen tokiaren arazoarengatik eskuduna den Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eskatu bezala, berau aurkeztu ahal izango da ordainketa geroratu edo zatikatzeko kasuetarako Zerga Bilketaren Araudi Orokorren onartutako bideetakoaren bat edo batzuk erabiliz.
13. Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren ordezkariak erabaki ahal izango du aurkeztutako bermeen zenbatekoak eguneratzea zerga-tasak aldatzen direnean edo aipatutako zenbateko horiek kalkulatzeko erabilitako magnitudeetan aldaketa hautemangarriak gertatzen direnean.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa baztertu gabe, zerga-aldi jakin baten barruan, indarreko zerga-tasa establezimenduan uneko urtean zehar sartutako produktuen kantitateari aplikatzearen ondorioz aterako liratekeen kuoten zenbatekoaren hazkunde anormala gertatzen denean eta horrek, era berean, aurkeztutako bermearen zenbatekoa gainditzen duenean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren ordezkariak, arazoitutako ebazpenaren bidez, berme berezia, eskudirutan edo bankuko abalean, aurkeztea erabaki ahal izango du sorrarazi eta ordaindu gabe dauden kuota guztien zenbatekoaren eta

aurkeztutako bermearen arteko aldeagatik. Berme berezia aurkeztu bitartean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren ordezkariak establezimenduak fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak jaso eta bidaltzeko duen baimena bertan behera utziko du.

14. Betearazpen-aldian establezimenduko titularrak zerga bereziengatik zorrak baditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako ordezkariak bere titulartasuneko establezimendu bakoitzagatik bermea eguneratzeko eskatu ahal izango dio, horretarako azken 12 hilabeteetan establezimendu horietako bakoitzean sartu den produktu-kopuruari indarrean den tasa aplikatuta. Halakorik egin ahal izateko ezinbestekoa izango da egungo bermea arau hori aplikatu ondoren lortutakoa baino txikiagoa izatea edo emandako bermea betearazi ondoren geratzen den bermea aipatutako zenbateko hori baino txikiagoa izatea.

Araudi honetako 45.2 artikulua aipatzen dituen berme globalen kasuan, bulego kudeatzaileak izango du hori egiteko eskumena.

Bermeak eguneratzeko hamabost egun naturaleko epea emango zaie interesdunei. Epe hori igaro ondoren oraindik aurkeztu ez badu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako ordezkariak balio gabe utziko du establezimenduak fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuak jaso eta bidaltzeko duen baimena.

Berme berezia ezeztatuko da Zerga Bilketako Araudi Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritik emandako ordainketa geroratu edo zatikatzeko erabakietan jasota ez dauden kuota egokiak ordaintzen diren momentuan.

15. Araudi honetan xedatutakoaren arabera 1.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duen bermea aurkeztu behar denean, interesduna berau aurkeztetik salbuetsita geldituko da, komunitate barneko zirkulazioaren prozedurekin lotuta eskatu beharreko bermeak direnean izan ezik.

#### **44. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.**

1. Inportazioaren kasuetan izan ezik, subjektu pasiboek eta gainerako zerga-obligaziodunek fabrikazioaren zerga bereziak ordaindu behar badituzte, dagozkien autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte eta, aldi berean, zerga-zorra ordainduko dute.

Gordetzaile baimenduek autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte, baita ordaindu beharreko zerga-kuota zero den denboraldietan ere. Gas naturalaren kasuan, betekizuna subjektu pasiboek dagokie, Legeak aurrez ikusitako baldintzetan zergapekodunaren ordezkioak diren heinean.

Alabaina, zerga-tasak aldatu direla-eta beste zerga-tasa batzuk aplikatu behar direnean likidazio-aldian, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute nahitaez, eta kuota ordainduko dira zerga-tasa bakoitza aplikatu deneko epealdi bakoitzean.

2. Autolikidazioaren aurkezpena eta, hala badagokio, aldi bereko zerga-zorraren ordainketa, oro har, harrera-establezimendu edo -toki bakoitzeko egingo da, organo eskudunen kutxetan, diru-bilketarako bulegoetan edo onartzeko baimenduak dauden erakundeetan.

Bulego kudeatzaileak fabrikazioaren zerga bereziak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek edo gainerako obligaziodunei autolikidazioen aurkezpena eta aldi bereko zerga-zorraren ordainketa zentralizatzen baimen diezaieke. Horretarako, autolikidazio bakarria aurkeztuko dute baimendutako erakunde kolaboratzailean.

3. Hauexek izango dira autolikidazioak aurkezteko epeak eta likidazio-aldiak eta, hala denean, zerga-zorra aldi berean ordaintzekoak:

- a) Hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zergak.

Likidazio-aldia: hilabete natural bat.

Epea: Sortzapenak izan diren hilabetea amaitu eta hurrengo 20 egun naturalak.

b) Alkoholaren eta alkoholdun edarien gaineko zergak.

Likidazio aldia: egutegiko hiruhileko bat, honako kasu honetan izan ezik: euren eragiketa bolumena edo zerga horri buruzko araudian ezarritako beste gorabehera batzuk kontuan hartuz, likidaziorako (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan) hilabeteko aldia duten pertsonak direnean, halakoetan, zerga horiek likidatzeko epea ere hilabetekoa izango baita.

Epea: likidazio epea hiruhilekoa izanez gero, sortzapenak egin diren hiruhilekoa amaitu eta handik bi hilabetera, bigarren hilabete horretako lehenengo hogeitun egunak. Likidazio aldia hilerokoa izanez gero, sortzapenak egin diren hilabetea amaitu eta handik hiru hilabetera, hirugarren hilabete horretako lehenengo hogeitun egunak.

4. Autolikidazioen ereduak edo, hala badagokio, zerga-zorra zehaztu eta ordaintzeko ordezkari ditzaketen bitarteko eta prozedura elektronikokoak, informatikoak edo telematikokoak Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak onartuko ditu.
5. Subjektu pasiboek nahitaez titularrak diren establezimendu bakoitzeko aitortza aurkeztu beharko dute eta, kasuak kasu, hilabete edo hiruhileko natural bakoitzean egindako eragiketak izango ditu, baita bakarrik izakinak dituen ere. Dena delakoa, Ogasunaren ministroak zehaztutako prozedurei eta ereduari erreparatuko zaie, berak xedatutako kasuetan. Beren kontabilitate liburuak araubidez Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziako egoitza elektronikoen bidez eramaten dituzten establezimenduetako titularrak eragiketen aitortzen ez zaie eskatuko.

#### **45. artikulua. Kudeatzeko bestelako arau orokorrak.**

1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen lantegietan, eteteko erregimenean, bere jardueraren xede diren produktuak jaso eta biltegitatu ahal izango dira, hauen gainean eraldatzeko eragiketak egiteko beharrik gabe.

Eteteko erregimenean jaso eta biltegitatzen dituen baina eraldatzeko eragiketarik egiten ez dien produktuen inguruan lantegiak egiten dituen jarduerak fabrikazio- edo transformazio-jarduerengandik bereiz kontabilizatu behar dira.

Lehenengo paragrafoan xedatutakoa aplikatu dakieke fabrikazio jarduera gutxienez establezimenduaren urteko irteeren bolumen guztiaren 100eko 50 bada.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen obligazioa ez betetzeak atal honetako lehenengo paragrafoan jasotako aukerari heltzeko gaitasunik gabe utziko du lantegiko titularrak, Araudi honetako 43.2.c) artikulua, gordailu fiskalei buruzkoak, aipatzen duen bermea jarri ezean. Gaitasungabetze hori, ematekotan, bulego kudeatzailearen ebazpen arrazoitu bidez eman beharko da lantegiko titularrari entzunaldia eman ondoren.

2. Bermea bulego kudeatzaile ezberdinen aurrean aurkeztu behar duten enpresei berme globala bulego kudeatzaile horietako batean aurkezteko baimena eman dakioke, beti ere berme horrek enpresaren establezimendu guztietan garatzen diren jarduerengatik eska daitezkeen zerga-zorrei erantzuten badie.
3. Fabrikazioaren gaineko zerga berezietan loturiko produktuen lantegietan, gordailu fiskaletan, jasotze-gordailuetan eta biltegi fiskaletan, produktu horiek eta horiek lortzeko lehenengo gaiak bildutako kantitateak zehazteko neurketa sistemak dituzten ontzietan bilduko dira, baldin eta txikizkako salmentarako egokiturik ez badaude.
4. Zerga-bilketarako Araudi Orokorra onetsi zuen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako ondasunak besterentzeko prozedura eta enkante publiko bidez fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen esleipendunek lurralde-erregistroan eman beharko



dute izena baldin eta produktu horien inguruan egiten duten jarduerak hala eskatzen badu Araudi honetako arauen arabera.

Fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen esleipena egin ondoren horiek jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da bulego kudeatzailearen baimena lortu ondoren esleipendunak emandako zirkulazio-dokumentua aurkeztea. Edari eratorrien, zigarreten edo biltzeko tabako xehearen kasuan zirkulazio-xingolak jarri beharko zaizkie jaso aurretik.

Fabrikazio-zerga berezien mendeko produktuen besterentzeko prozedurak, kontrabandotik ateratako salgaien kasuan izan ezik, bulego kudeatzaileari jakinaraziko zaizkie egin aurretik, bidezkoa bada besterendu nahi diren ondasunei dagozkien likidazioak egin ahal izan ditzan.

5. Ogasun eta Administrazio Publikoa ministroak kasuak eta baldintzak ezarri ahal izango ditu, aitorpenak eta agiriak kasuan kasuko organoari (Araudian ezarritakoaren arabera bidezkoa den organoa) aurkeztearen ordeztatu egokiak aurkezteko, berak ezarritako baliabide nahiz prozedura elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiliz.
6. Legearen 14. artikuluko 2. atalean jasotako kasuetan, eteteko erregimenean egiten dituzten fabrikazio-, eraldaketa- edo biltegiatze-lanak agintzen dizkieten pertsonari edo erakundeei buruzko aldizkako informazio-aitorpenak aurkeztu beharko dituzte gordailuzain baimenduek. Aitorpen horretan honako datuak jaso beharko dira:
  - a) Eragiketa agintzen duen pertsonaren edo erakundearen identifikazioa eta identifikazio fiskalerako zenbakia.
  - b) Zerga Berezien menpeko produktuen mota.
  - c) Jasanarazitako kuotak edo salbuespen-kasuren bat aplikatzen zaien kuotak zenbatesteko elementuak.

Informazio-aitorpen horretan, Legearen 14. artikuluko 1. atalean xedatutakoaren arabera zerga-jasanarazpena izan duten operazioen inguruan b) eta c) letrek aipatzen dituzten datuak ere jasoko dituzte gordailuzain baimenduek.

Aldizkako informazio-aitorpena Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministerioak xedatutako tokia, modua, epeak eta eredia errespetatuta egin beharko da.

## **10. ATALA**

### **JARDUEREN ETA LOKALEN KONTROLA**

#### **46. artikulua. Jarduera eta lokalen kontrola.**

1. Fabrikazio-zerga berezien esparruko zergak egiaztatu eta ikertzeko jarduerak Zerga Administrazioak egingo ditu Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen eta horiek garatzeko araudien arabera.
2. Gainera, aurreko atalean xedatutakoa alde batera utzita, fabriken, zerga-gordailuen eta zerga-biltegien jarduera eta lokalei Fabrikazioaren Zerga Bereziako Kontu-hartzaitzak kontrol berezia egingo die. Esklusiboki gas naturalari lotuak dauden establezimenduetan hidrokarburoen zerga baztertutako geldituko da.
3. Aurreko atalean aipaturiko kontrola iraunkorra izango da, petrolio birfindegiei eta alkohol lantegien jarduerari eta lokalei dagokienez, baldin eta azken horien eguneroko produkzioa 1.000 litro alkohol hutsetik gorakoa bada.
4. Ikuskapen eta Kontu-hartze funtzioak Zergen Administrazioaren Estatuko Agentziako Aduana eta Zerga Berezien Sailaren menpeko zerbitzuek egingo dituzte.

#### **47. artikulua. Ikuskapen araubidea.**

...

#### **48. artikulua. Kontu-hartzailtzako erregimena.**

1. Fabrikazioko Zerga Berezien Kontu-hartzaileari dagokio hurrengo eginkizun hauen garapen jarraitua:
  - a) Fabrikazioko zerga bereziengatik zerga-obligaziodunei ezarritako betebeharrak, dagokion bulego kudeatzailearen lurraldeko erregistroan egin beharreko inskripzioarekin eta aipatutako zerga horien xede diren produktuak sartu, eraldatu, manipulatu, biltegitatu, merkaturatu, suntsitu, desnaturalizatu, markatu edo bidaltzen dituzten establezimenduen eta jardueraren baimenarekin lotutakoak, betetzen direla kontrolatzea.
  - b) Erregimen honen mende dauden establezimenduetan sartu, biltegitatu edo hauetatik ateratzen diren produktuak eta lehengaiak kontrolatzea, horietatik laginak ateratzea barne.
  - c) Fabrikazio edo eraldaketako eragiketarako kontrolatzea, baita produktuak deklaraturako xede eta prozesuetan benetan aplikatzea ere, lan-adierazpen egokiak, emaitzen parteak eta gorabeheren parteak, produktuen desnaturalizazioa, suntsiketa eta markatzea barne hartuta.
  - d) Araudi honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, araudian arazteak exijitzen den kontabilitateko sistemari dagokienez.
  - e) Erregimen honen mende dauden establezimenduetan aurkitzen diren lehengai, produktu eta marka fiskalen izakinen kontaketa egitea.
  - f) Baldintza aplikagarrietan, kontu-hartzailtza izango duen establezimendu edo jardueraren titularrak zerga bereziengatik eragiketa-aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztu dituela eta, bidezkoa bada, zerga-zorra ordaindu duela egiaztatzea.
  - g) Kontu-hartzailtzak atal honek aipatzen dituen eginkizunen Fabrikazioko Zerga Berezien ariketa ez da izaera partzialeko egiaztapentzat hartuko Zergei buruzko Lege Orokorraren 149. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.
2. Kontu-hartzailtzaren jarduketak hasi, garatu eta amaitzea, bai eta establezimendu eta jardueren titularrek honen aurrean dituzten eskubideak eta betebeharrak ere, oro har, Zergak kudeatu eta ikuskatzeko prozedura eta jardueren eta zergak aplikatzeko prozeduren arau arruntak garatzeko Araudi Orokorraren (uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartuta) V. Tituluan xedatutakoaren arabera zuzenduko dira, hurrengo berezitasun hauek daudelarik:
  - a) Kontu-hartzailtzako erregimenaren izaera jarraituari kasu eginez, erregimen honen mende dauden establezimendu eta jardueren titularrek, uneoro eta aldez aurretiko jakinarazpenaren beharrik gabe, Kontu-hartzailtzako funtzionario eta agenteei establezimendua sartzeko baimendu beharko die, jarduketak egokiak hasi eta egitearen xedeetarako.
  - b) Kontrola iraunkorra den kasuak baztertu gabe, Kontu-hartzailtzako funtzionario eta agenteek aipatutako establezimendu horietan egon ahal izango dute bere eginkizunak burutzeko beharrezkoa den denboraz.
  - c) Bertan egon ezean, erregimen honen mende dauden establezimendu eta jardueren titularrek pertsona bat izendatu beharko dute instalazioetan sartzeko ahalbidetzen duena. Honek, era berean, horien aurrean ordezkaturako du, botere nahikoaz, horretarako eskaera egiten diotenean.

- d) Kontu-hartzaitzak egindako kontrolen mota kontuan hartuta, erregimen horren mendeko establezimenduak eta jarduerak dituzten titularrek kontu-hartzaitzaren esku jarri beharko dituzte establezimenduan dauden egiaztatzeko eta neurtzeko elementuak, establezimenduko jarduera nagusiari dagozkion produktuen laginak ateratzeko bitarteko egokiak barne, eta horiek erabiltzeko langile egokiak.
  - e) 46. artikulua 3. atalean ezarritakoarekin bat etorritik kontrol espezifiko iraunkorra denean, establezimendu eta jarduera egokien titularrek Kontu-hartzaitzako funtzionario eta agenteei bere eginkizunak izaera iraunkorraz burutzeko beharrezko diren lokala, langile osagarriak eta materialak eman beharko dizkiete.
  - f) Erregimen honen mende dauden establezimendu eta jardueren titularrek kontu-hartzaitzako zerbitzuek egokitzat jotzen dituzten kontrol-neurriak hartu beharko dituzte aurreko atalaren xedeetarako eta ondore horretarako beharrezko diren informazio-elementu guztiak eman beharko dituzte.
3. Erregimen honen mende dauden jarduera edo establezimenduak kontrolatzeko garrantzitsuak diren gertaera edo gorabehera guztiak jasota uzteko helburuz, Fabrikazioko Zerga Berezien Kontu-hartzaitzaren jarduketak eginbide, jakinarazpen, txosten eta aktetan dokumentuko dira.
  4. Kontu-hartzaitzako zerbitzuek bere jarduketan barruan formalizatutako aktak, interesdunak hauetan jasotako likidazioaren proposamena osoki edo ez onartu izanaren arabera ados edo ez egongo direnak, erregimen honen mende kontrolatu beharreko eragiketa zehatzen zerga-tratamendua erregularizatzea bidezkoa denean luzatuko dira. Akta hauetatik ateratako likidazioek behin-behineko izaera edukiko dute.

#### **49. artikulua. Kontu-hartze iraunkorraren araubidea.**

Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrak ez ezik, kontroleko araubide honen menpeko jardueren eta lokalen titularrek betebeharrak ere izango dituzte:

1. Honako honen kontrol etengabea ahalbidetzea (materialari eta agiriei dagokienez), kudeaketa zentroak ezarritako modalitateen arabera: oinarrizko materialen eta gainerako produktuen sarreren, autokontsumoen eta irteeren kontrol etengabea, eta oro har, establezimenduan fabrikazioaren gaineko zerga berezietan buruzko araudiari lotuta garatzen diren jarduera guztien kontrol etengabea. Betebeharrak horren barruan, titularrak ez ezik beste pertsona batzuek establezimendu horretan egin ditzaketen jarduerak ere sartzen dira.
2. Kontu-hartze zerbitzuei, modu iraunkorrean, kontu-hartzea egiteko behar diren lokalak, instalazioak eta materialak eskaintzea eta gastuak ordaintzea.

#### **50. artikulua. Kontabilitateko kontrolak.**

1. Merkataritza arauak eta beste zerga arau batzuek ezarritako kontabilitate betebeharrak alde batera utzita, zerga berezien xedeko produktuen kontabilitatea eraman beharko dute zerga berezietan buruzko araudiak ukituriko establezimenduetako titularrek eta, hala denean, produktu horiei lortzeko beharrezko lehengaiena, baita marka fiskalena ere, Arautegi honetan xedatu denarekin bat etorritik. Kontabilitate horretan, produktu eta lehengai horiei eragiten dieten prozesuak, mugimenduak eta izakinak jaso beharko dira, eginiko zenbaketetan nahiz produktu horien zirkulazioan agertzen diren diferentziak barne. Arau hauen arabera gauzatuko da kontabilitate hori:
  - a) 66 artikuluan xedatu denari kalterik egin gabe, fabrikak, depositu fiskalak, harrera deposituak, biltegi fiskalak eta ozpin fabrikak direnean, euskarri informatikoko kontabilitate sistemarekin beteko da aurreko betebeharrak. Sistema horrek arauzko eskakizunak eta beharrak bete beharko ditu. Aurrekoa gorabehera, interesatuek hala eskaturik, ardoak eta edari hartzituak fabrikatzeko baimena eman dezake bulego kudeatzaileak. Edari horien urteko ekoizpenaren bolumena, titularrak direneko establezimendu guztiena zenbatuta, gehienez 100.000 litrokoa izango da eta

eskulangintzako destilatzaileek paperean egindako eta orrika ordenatutako liburuak erabiliz bete dezakete betebeharra.

- b) Aurreko hizkian xedatu denaren arabera euskarri informatikoko kontabilitate sistema eraman behar ez dutenek euskarri informatikoaren edo paperezko liburuen bidez eraman dezakete kontabilitatea.
  - c) Bulego kudeatzaileak, aurretik kontu-hartzailletza zerbitzuen txostena izanik hala denean, baimena eman dezake establezimenduaren kontabilitate sistema informatikoa ezartzeko, baita, hala denean, paperezko euskarriko kontabilitate-liburuak ere. Baldin eta pertsona edo erakunde bera titularra bada hainbat establezimendutan eta horien kontabilitate sistema bada, baliozko kontabilitate bakarra izateko baimena eska diezaioke bulego kudeatzaileari haren titulartasunpeko establezimendu guztientzat.
2. Izakinen kontabilitatea, paperezko euskarrikoa, orrika ordenaturiko liburuen bidez bete beharko da, eta edozein idazpen egin baino lehen, establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean aurkeztu beharko da.

Artikulu honetako 1. a) idatz-zatian aipaturiko euskarri informatikoaren bidezko kontabilitate liburuak bulego kudeatzailean aurkeztu beharko dira, telematika bidez, ondoreko kasu eta epe hauetan:

- a) Fabrikak, depositu fiskalak eta harrera-deposituak badira, likidazio epealdi bakoitza amaitu ondorengo hilearen barruan.
- b) Gainerakoetan, hiruhileko bakoitza amaitu ondorengo hilearen barruan. Izakinen kontabilitate-liburuetak idazpenak halako moldez egingo dira non liburuei aplikatu beharreko araubideak, epigrafeak eta produktuak bereiziko diren. Kontabilizaturiko produktuen kantitateak zerga bereziaren zerga oinarrian zehazturiko unitate eta tenperatura beretan erregistratuko dira.

Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak ezarritako formatuaren betekizunak bete beharko dituzte telematika bidez aurkezturiko liburuek.

- 3. Izakinen kontabilitate-liburuetak idazpenak egiterakoan bereizi egin beharko dira produktu, idazpuru eta horiei aplikatu beharreko zerga-erregimen ezberdinak. Kontabilizaturiko produktuen kopuruak kasuan kasuko zerga bereziaren zerga-oinarria zehazteko erabiltzen diren unitate eta tenperatura beretan erregistratuko dira.
- 4. Idazpenak kontabilitateko sisteman egin beharko dira erregistratzen den mugimendua edo prozesua gertatzeko momentuaren ondoko hogeita lau orduen barruan. Industriak jarraian lan egiten duenean, kontabilitateko oharpe hauetarako datuen hartzeak hogeita lau orduko aldiei erreferentzia egingo die, eta onartuko da aldi bakoitzaren hasiera lan-txandaren aldaketarekin bat etortzea.

Hala eta guztiz ere, errepide bidez zirkulatzen diren produktuak direnean, eteteko erregimenean edo salbuespen edo tasa murriztu bat aplikatuta biltegitatzeko prestatutako establezimenduetan jasotako karguko idazpenak eta establezimenduetatik beraietatik bidalitakoei buruzko datako idazpenak eragiten dituen sarrera edo irteera gertatzeko momentuan egin beharko dira.

Egun jakin batean idazpenik ez egotea, ondorengo egunetan daudenean, egun horretan ez dela mugimendurik egon ulertuko da.

- 5. Zirkulazio-agirien bidaltzaileek igorritako agirien erregistroa eramango dute, eta bertan agerraraziko dira agiriaren zenbakia eta mota, bidaltze-data, hartzailea eta establezimendutik irtendako produktu mota eta kantitatea. Izakinen kontabilitatean txerta daiteke erregistro hori. Administrazio dokumentu elektronikoak direnean, erregistro horretan idatziko da erreferentzia hartzaileak jasotakoan, eta zehaztu egingo da jasotzearekin bat etorri den edo gorabeherak izan diren, jaso izana berretsi eta hurrengo 24 orduko epean.

Aurreko idatz-zatian aipaturiko erregistroa ez bada txertatzen izakinen kontabilitatean, gainerako kontabilitate-liburu guztien arau eta eskakizun berak bete beharko dira hura eramatean.

6. Araudi honen 40. artikulua 2. atalaren d) letrak aipatzen duen lantegi batetik kanpo mugatutako eremuetan, produktuen mugimendua horretarako prestatutako liburu batean erregistratu beharko da, karguko idazpenak itzulketa egiten duen pertsona edo erakundeak emandako albaranaren bidez justifikatuta; datako idazpenak, berriz, berriro bidalitako produktuen zirkulazioa babesteko ematen den albaranaren bidez justifikatuko dira.
7. Hala liburu eta fitxategiak nola, egonez gero, hauek ordezkatzeko dituzten zerrendak, baita bere idazpenen frogagiriak ere –jatorrizkoak edo fotokopiak-, beti dagozkion establezimenduan egon beharko dira, enpresaren helbide fiskala aipatutako establezimenduaren bestelako toki edo herrian badago ere.

Hala eta guztiz ere, segurtasun-arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako bestelako batzuegatik, bulego kudeatzaileak baimendu ahal izango du aipatutako agiriak herri bereko bestelako toki batean gordetzea, betiere ikuskatu edo kontu-hartzaitzako zerbitzuen eskuragarri baldin badago establezimendua lotuta dagoen kontrol-erregimenarekin bat etorritik.

Edozelan ere, eskatu beharreko dokumentazioa euskarri informatikoan egon ahal izango da, paperean kontserbatzeko beharrik gabe, baina posible izan beharko da dokumentazioa inolako atzerapenik gabe establezimenduan bertan kontsultatzea. Berehalak kontsultatzeko modurik egon ezean, dokumentazioa paperean gorde beharko da.

8. Zerga hauekin lotutako arauzko eta merkataritzako dokumentazio guztia interesdunek bere establezimenduetan gorde behar dute zergaren preskripzioko aldiaren zehar. Bulego kudeatzaile bat baino gehiagoren lurralde-eremuan zehar zabaltzen diren establezimenduei dagokienez, adierazitako agiri horiek aipatutako establezimendua kudeatu edo kontrolatzeko zentroa dagoen tokian kontserbatuko dituzte.
9. Olibide edo gasbideen sareek edo elkarri lotuta ez dauden gas naturala garraiatu eta banatzeko instalazioek osatutako gordailu fiskal edo biltegi fiskaletan sartutako produktuen kontrola titullarrak hartu eta zentro kudeatzaileak balidatutako sistema informatikoaren bitartez egingo da.

## **51. artikulua. Izakinen zenbaketak.**

1. Araudi honen arauak lotuta dauden eta bere izakinen kontabilitateko kontrola egiteko kontu korranteak eramatera behartuta dauden establezimenduen titullarrek, gutxienez, hauen kontaketa egingo dute hiru hileko natural bakoitza amaitzean eta, beharrezkoa bada, kontu horien saldoak erregularizatuko dituzte hiru hileko bakoitzaren azkeneko egunean.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa alde batera utzita, oliobideen sare batek osatutako gordailu fiskalak direnean, hauen titullarrek, gutxienez, kontaketa egingo dute urte bakoitzaren ekainaren 30ean eta abenduaren 31n, egun hauetan bukatzen den seihilekoari dagokionez.

Aipatutako kontaketa hauetan ateratzen diren aldeak, egotekotan, kontaketa egin den egunari dagokion likidazio-aldian erregularizatuko dira.

2. Kontu-hartze eta ikuskapen zerbitzuek izakinen zenbaketak egin ahal izango dituzte, bidezko deritzotenean, eta horren emaitzaren eginbidea formalizatuko dute.
3. Zenbaketak errazago egiteko, ontziraturiko produktuak (kontsumitzaileari saltzeko egokituta) produktu moten, ontzi moten eta edukieren arabera sailkatu beharko dira.
4. Hiru hileko batez besteko izakinak, galeren arauzko ehuneko bat aplikatzeko oinarria direnean, aztergai den hiru hileko naturala osatzen duen egun bakoitzaren amaieran biltegiratutako izakinen batez bestekoa izango da. Hala eta guztiz ere, bulego

kudeatzaileak, interesdunek eskatuta, baimendu ahal izango du aipatutako hiru hilabeteko batez besteko izakin horiek hiru hileko natural bakoitza osatzen duten hiru hilabeteen 1, 8, 15 eta 23 egunetan biltegiratutako izakinen batez bestekoaren bidez zehaztea.

Hilabeteko likidazio-aldiei dagokienez, eta kontabilitateko ondorioetarako bakarrik, subjektu pasiboek biltegiratutako izakinen hilabeteko batez bestekoei, aurreko lerrokadan adierazitako moduan zehaztuta, Araudi honen 67. 1. b); 72. A) 1. c), d) eta e); 90. 1. e) eta f) eta 116. 2. ñ) artikuluetan adierazitako galeren arauzko ehunekoen herena aplikatzean ateratzen diren kantitateak lotu gabe daudela behin-behineko estimatu ahal izango dute, hiru hilabeteko bakoitzaren amaieran lotu gabeko galeren ehuneko onargarria zehazki zehaztu ahal daitekeen arte.

Atal honen lehenengo lerrokadan ezarritakoa aplikagarria ere izango da Araudi honen 90.2.d) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

## **52. artikulua. Administrazioak egindako zenbaketetan edo kontroletan egon diren diferentzien tratamendu fiskala.**

1. Kasuan kasuko portzentajeak behetik gainditzen dituzten diferentziak direnean (bai lantegien nahiz gordailu fiskalen barruan eta bai araubide etengarriko zirkulazioan adierazitako diferentziak), kasu bakoitzean bidezkoa denaren arabera, Araudi honetako 15, 16 eta 27. artikulua aplikatuko dira.
2. Kasuan kasuko portzentajeak behetik gainditzen dituzten diferentziak direnean (zerga tasa murriztuan sortuta duten edo salbuespena aplikaturik duten produktuei dagokienez adierazitako diferentziak), Legeko 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, produktu horiek hobariak jasotzeko eskubiderik ez duten beste helburu batzuetarako erabili direla joko da; beraz, kasuan kasuko likidazioa egin eta zerga urratze larria egin dela joko da.
3. Portzentajeak goitik gainditzen dituzten diferentziak direnean (lantegietan edo gordailu fiskaletan adierazitakoak), kasuan kasuko karguko idazpena egingo da izakinen kontabilitatean, eta zerga urratzetzat zehatuko da (kontabilitate edo erregistro mailako urratzea), zehapen bereziren bat aplikatu ahal denean izan ezik.
4. Kontabilitateko sistemetan, zirkulazioko agirietan edo beste agiri batzuetan jasotakoa goitik gainditzen dituzten diferentziak direnean (lantegietatik edo gordailu fiskaletatik kanpo adierazitakoak), diferentzia hori adierazten duten produktuak erabiltzen, merkaturatzen edo garraiatzen dituztenek diferentziari dagokion zerga zorra ordaindu beharko dute, Legeko 8. artikuluko 8. atalean ezarritakoaren arabera.
5. Aurreko 3. eta 4. ataletan ezarritakoa gorabehera, goitik dauden diferentziak ez dira aintzat hartuko, baldin eta honako hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino handiagoak ez badira: kasuan kasuko agirian jasotako kontabilitateko saldoaren edo kantitatearen gainean, 100eko 1eko portzentajea.

## **II. KAPITULUA**

### **ALKOHOLAREN ETA ALKOHOLDUN EDARIEN GAINKO ZERGEI BURUZKO XEDAPEN KOMUNAK**

#### **53. artikulua. Ozpina ekoiztearen ziozko salbuespena.**

1. Alkoholetik edo alkoholdun edarrietatik ospina ekoizten diharduten establezimenduak prozesu hori egiteko establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribatu beharko dira. Eskaera-idazkian adierazi beharko dute zergapeko zein produktu mota jaso nahi duten.
2. Hala badagokio, bulego kudeatzaileak kasuan kasuko inskripzio-txartelak emango ditu. Legearen 21.1 artikuluan xedatutako salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da txartel hori alkohol edo alkoholdun edari hornitzaileen edo, bidezkoa bada, inportazio-aduanaren aurrean erakustea.

3. Aurreko idatz-zatian aipaturiko txartela emateko, beharrezkoa izango da bermea aurkeztea, eta horren zenbatekoa izango da aurreko urtean jasotako alkoholari eta alkoholdun edariei dagozkien kuoten ehuneko 1,5; edo bestela, urtebetean ustez jasoko diren kantitateen ehuneko 1,5.
4. Alkoholetik edo alkoholdun edarietatik abiatuta ozpina ekoizten duten establezimenduak 48. artikuluan ezarritako kontu-hartze araubideari loturik egongo dira.
5. Legeak 21.1. artikuluan aurrez ikusten duen salbuespena aplikatzeko, nekazaritza jatorriko alkohol destilatua proportzio nahikoan alkohol ozpina izan beharko du 20 °C-n edukia gutxienez ehun litro alkohol puru bakoitzeko sei kilo azido azetiko suerta dadin. Xede horietarako, alkohol ozpintzat jotzen da nekazaritzako alkohol destilatuaren hartzidura azetikoaren ondorioz lortutako produktua.
6. Alkohola zuzenean joango da establezimendu hornitzailetik xede establezimendura, eta xedean markatu beharreko alkohola dela adierazi beharko da dagokion administrazioko dokumentu elektronikokoan.
7. Ozpina egiten duen establezimenduko salbuespena aplikatuko zaion alkohola jasotzea espero den unea baino lehen titularrak idazki bat aurkeztu beharko du bulego kudeatzailean, eta agiri horretan honako datuak bildu beharko ditu: establezimendu hornitzailearen sozietate-izena eta JEK, jasoko den alkoholaren kopurua eta graduazioa, alkohola noiz hartzea espero den, gehitu nahi zaion ozpin kopurua, markatze-eragiketa hasiko den ordua eta prozesu horren gutxi gorabeherako iraupena. Idazki hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago aurkeztu beharko da.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatutako idazkian Erkidegoaren markaketa egiteko ezarritako unea iritsita, kontu-hartze talde eskudunak agertu ez badira, ozpina egiten diharduen establezimenduaren titularrak egingo du eragiketa hori, idazkian azaltzen diren baldintzak betez.

Ozpina egiten duten establezimenduetan salbuespenaren babespean jasotako alkohola badago eta alkohol hori ez badago artikuluko honetan xedatutako moduan markatuta, salbuespena aplikatzeko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen ez direla ulertuko da.

8. Ozpina egiten duten establezimendu guztietan kontu edo erregistro bat eduki behar da, jasotzen diren alkoholaren eta edari alkoholdunen eta lortutako ozpinaren mugimendua eta erabilera agerrarazteko.

### **53 bis artikulua. Zergarik gabeko dendetarako salbuespena.**

Legearen 21. artikulua 3. atalak aipatzen duen salbuespenaren aplikazioa hurrengo arau hauekin bat etorritik egingo da:

1. Zergarik gabeko dendek, bulego kudeatzaileen lurraldeko erregistroetan 11.2.a)10.2' artikuluan aurreikusitakoetako gordailu fiskal gisa inskribatuta egon beharko direnek, edari alkoholdunak eskuratzen dituztenei eskatuko diete azken xedetzat hirugarren herri batean edo Kanariar Uharteren bestelako hirugarren lurralde batean kokaturiko aireportu edo portu bat ageri den garraioko titulua (aire edo itsaso bidez) erakusteko.
2. Aipatutako denda horiek salbuespena aplikatu zaien edari alkoholdunen salmenten frogagiriak kontserbatu beharko dituzte. Hauetan saltzeko eguna, egin beharreko hegalde edo itsas zeharkaldiaren zenbakia, azken xedeko portua edo aireportua eta saldutako edari alkoholdunen kopurua jasota egongo dira.
3. Saldutako edari alkoholikoen artean edari deribatutakoak egongo balira, ontziek ez dituzte eraman beharko Araudi honen 26. artikulua aipatzen dituen marka fiskalak edo, eramatekotan, ontzi horietatik kendu beharko dituzte ondoren suntsitzeko, zerga administrazioaren kontrolpean.

#### **54. artikulua. Itzulketa prestaketan elikagaiak eta elikagaien lurrintzaileak eta edari alkoholodunak erabiltzeagatik.**

1. Legearen 22. artikuluan a) eta b) letretan xedatutako itzultzeko eskubidea aplikatu nahi izanez gero, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak edo elikagai barrubeteak zein bestelakoak egiteko aromatizatzaileak lortzeko prozesuetan alkohola edo edari alkoholodunak erabiltzen dituen ustiapeneko titularrak alde aurretik eskatu beharko dio bulego kudeatzaileari.
2. Aurreko atalak aipatzen duen eskaera txosten teknikoarekin batera aurkeztuko da eta 57 bis artikuluan xedatutako informazioa izango du.
3. Kudeaketa zentroak, bestalde, aurkezturiko eskabidea ebatziko du; horretarako, bidezkoa izanez gero, bost urteko gehieneko baimena emango du. Memorian azaldutako industri prozesuaren aldaketa, baita bertan esku hartzen duten nahiz lortzen diren produktuak ere, kudeaketa zentroari jakinarazi beharko zaizkio, eta horrek, bidezkoa izanez gero, jakinarazitako aldaketak egiteko baimena emango du.
4. Aurreko atalean aipaturiko baimena eman ondoren, industriaren titularrak kasuan kasuko kudeaketa bulegoan egin beharko du inskripzioa, memorian azaldutako prozesua egiteko erabiliko den establezimenduari dagokionez.
5. Hiruhileko natural bakoitza amaitu ondorengo lehenengo hogeitun egun naturaletan, aurreko 3. atalean aipatutako baimena duten industria-ustiapenen titularrak hiruhilekoan zehar kontsumitutako produktuei dagozkien ordaindutako kuotak itzultzeko eskabidea aurkeztuko dute zergak eragin dituzten produktuen kontsumoa egin den establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean. Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak xedatutako ereduaren arabera izango den eskabide horretan aurreko 3. atalak hizpide duen baimenaren zenbakia adierazi beharko da.
6. Kudeaketa bulegoak aurkeztu diren eskabideak tramitatu eta, bidezkoa izanez gero, itzuli beharreko kuoten ordainketa erabakiko du.
7. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatuko Araudi honetako 88. artikuluko 4. atalean ezarritako kasuetan.

#### **55. artikulua. Itzulketa giza kontsumorako egokia ez izateagatik.**

Legearen 22. artikuluan c) letrak aipatzen duen itzultzeko eskubidearen aplikazioa, giza kontsumorako egokiak izateari utzi dioten edari alkoholodunei dagokienez, hurrengo prozedura honekin bat etorri egingo da:

1. Edarien jabeak horiek dauden establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileari hobariaren aplikazioa eskatuko dio. Idazkian honako hau jasoko da:
  - a) Eskatzailearen eta edariak dauden establezimenduaren identifikazioko datuak.
  - b) Itzulketa eskatzen den edarien kantitatea, bere bolumena litrotan eta hartutako bere gradu alkoholiko bolumetrikoa edo, bestela, hartutako bere Plato gradua adierazita.
  - c) Aipatutako edari horiek giza kontsumorako merkaturatzeko egokiak izateari utzi dioten kausa.
  - d) Edarien hornitzaileari buruzko datuak eta eskuratu zituzten eguna. Era berean, dagokien zirkulazio-agiriaren eta fakturaren fotokopiak ere erantsi behar dituzte.
  - e) Edariak itzultzen dizkieten baimendutako gordailuzainaren identifikazio-datuak, baita bidali nahi diren lantegi edo gordailu fiskalarenak. Halaber, baimendutako gordailuzaina edarien itzulketarekin ados dagoela egiaztatzen duen dokumentua ere gaineratu behar da.



- f) Beharrezkoa izanez gero, suntsitzeko proposatzen den prozedura, bai eta eragiketa hori egin behar duten lokala ere. Azken hau eskatzailearen jabetzako edozein lantegiren lantegitik kanpotzat hartutako zona mugatua izan ahalko da, 40.2.d) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
- 2. Bulego kudeatzaileak, egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ondoren, eskabidea ebatziko du eta, egokia baldin bada, edariak eskabidean adierazitako lantegi edo gordailu fiskalera itzultzea baimenduko du, itzuli beharreko kuota zehaztuta. Baimen honen berri emango zaio xedeko establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileari.
- 3. Bere itzulketa baimendutakoan, edo hobaria aplikatzeko eskabidea aurkeztu dutenetik hamar eguneko epea igarotzen bada bulego kudeatzailearen erantzunik jaso gabe, baimendutako gordailuzainak izakinen bere kontabilitatean sartutako edariak kargatuko ditu. Aipatutako gordailuzainak, itzultako edarien sarrera gertatu den zerga-aldiari dagokion kuotatik, itzultzea erabaki edo eskatu den kuotaren zenbatekoa deduzitu ahal izango du.
- 4. Baimendutako gordailuzainak itzulketaren zenbatekoa ordainduko dio honen eskatzaileari.
- 5. Edariak lantegi edo gordailu fiskaletik kanpo suntsitzea aukeratzen denean, aipatutako suntsiketa, bulego kudeatzaileak baimendutakoan, ikuskapeneko zerbitzuen aurrean edo, bestela, kontu-hartzailetzako zerbitzuen aurrean egingo da, eta hauek eginbide egokia izapidetuko dute. Bulego kudeatzaileak, bidezkoa bada, itzuli beharreko kuota zehaztuko du eta berau ordaintzea erabakiko du.
- 6. Aurreko 5. atalean xedatutakoa alde batera utzita, suntsiketa 1.f) atalak aipatzen duen lantegiaren zona mugatuaren barruan egiten denean, lantegiaren titularrak kontu-hartzailetzako zerbitzuei berau jakinaraziko die suntsiketa egiteko aurreikusita dagoen momentua baino hirurogeita hamabi ordu lehenago gutxienez, administrazioko bere kontrol egokiaren ondorioetarako. Kasu honetan itzulketa, bulego kudeatzaileak berau bidezkoa dela erabakitakoan, bere zenbatekoa aipatutako lantegian suntsiketa egiten den zerga-aldian sorrarazitako kuoten zenbatekotik deduzituz egin ahal izango da.
- 7. Aurreko 5. eta 6. ataletan xedatutakoa alde batera utzita, suntsiketa egiteko iragarritako data eta ordua iritsita kontu-hartzaileko zerbitzuak bertaraten ez baldin badira, establezimenduaren titularrak aipatutako suntsiketa egin ahal izango du. Era berean, suntsiketak jarraitua izango ez balitz, eskabidearen momentuan, establezimenduaren titularrak horren berri emango die, bai eta eragiketaren aurreikusitako iraupenaren berri ere, kontu-hartzailetzako zerbitzuei.

## **56. artikulua. Zergapeturiko produktuen fabrikazioa.**

- 1. Alkoholaren eta alkoholduen edarien gaineko zerga bereziei lotutako produktuen fabrikazioa, oro har, elkarrekiko independenteak diren lokaletan egin beharko da. Lokal bat independentea dela esango dugu, beste batekiko komunikaziorik ez duenean eta bide publikorako sarbide zuzena daukanean.
- 2. Hala eta guztiz ere, kudeaketa zentroak baimena eman dezake lokal berean alkoholaren eta alkoholduen edarien gaineko zergen eremuaren barruko produktu desberdinak fabrikatzeko, alkohola izan ezik, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:
  - a) Interesatuak establezimenduan lortzen diren produktu guztien mugimenduei eta izakinei buruzko kontabilitate produktua aurkeztu beharko du kudeaketa zentroan, zentro horrek proiektua onesteko; horrela, produktu bakoitzaren zerga egoera desberdina jakingo da. Kontabilitate sistema horren barruan, Araudi honetako 45. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren babesean merkaturatzeko jasotzen diren produktuen mugimendua eta izakinak jasoko dira, establezimenduan fabrikaturiko produktuekiko bereizketa egokia eginez.
  - b) Goiko letran aipatutako proiektuarekin batera, interesatuak beste proiektu bat ere aurkeztuko du, produkzioko instalazioak establezimenduaren barruan duten banaketari

eta zergapeturiko produktu bakoitza biltzeari buruz; horrela, izakinen zenbaketa egokiak egin eta horiek integraturiko kontabilitatearekin erkatuko dira.

3. Aurreko 1. eta 2. ataletan ezarritakoa gorabehera, kudeaketa zentroak zergapeturik dauden alholdun produktuak lortzeko lokalean desnaturalizatua ez den alkohola fabrikatzeko baimena eman dezake, fabrikatzen den alkohol guztia halako produktuak lortzeko erabiltzen denean, baldin eta aurreko 2. atalean ezarritako baldintzak betetzen badira. Kasu horretan, lokal osoa kontu-hartze araubide iraunkorraren menpe egongo da, alkoholaren eguneroko produkzioa 1000 litro alkohol hutsetik gorakoa denean.
4. Kudeaketa zentroak aurreko 2. eta 3. ataletan aipatutako fabrikazio bateratua baimentzeko erabakian, baldintza eta betekizun osagarriak ezar daitezke, zergapeturiko produktu bakoitzaren eta horien lehenengo gaien banakako kontrola egiteko.
5. Guztiz edo zati batez desnaturalizatutako alkoholaren ekoizpena alkohola fabrikatzera bakarrik zuzenduta dauden lantegietan edo, bestela, alkoholaren gordailu fiskaletan egin ahal izango da, Araudi honen 73. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe. Debeztatuta dago guztiz edo zati batez desnaturalizatutako alkohola sartzea alkoholaren eta alkohola ez diren edari alkoholikoen gaineko zergen xede diren produktuak lortzen dituzten lantegietan, araudi honen 88. artikuluan aterakin eta kontzentratu alkoholikoak fabrikatzeko xedatutakoa izan ezik eta desnaturalizatutako alkohola, kontu-hartzailtzako zerbitzuaren kontrolpean, aipatutako lantegi horietan erabiltzen dituzten makina edo aparailuen barruko funtzionamendura zuzentzen duten kasuetan.

#### **56. bis artikulua. Zergapeturiko produktuei zati batean alkohola kentzea.**

1. Garagardo, ardo edo bestelako edari hartzituen ala bitarteko produktuen fabriketan alkohola kentzeko egiten diren eragiketen ondorioz hondar modura alkohola lortzen denean, alde zuzenetik kudeaketa bulegoak baimendu beharko du, interesdunek eskatu ostean eta esku hartze zerbitzuek txostena burutu ondoren.

Interesdunak alkohola kentzeko prozesuak eta horretarako erabilitako instalazioak, elementuak eta gailuak deskribatzen dituen memoria aurkeztu beharko du eskariarekin batera bulego kudeatzailean. Memoria horretan lortzen den nahaste hidroalkolikoa osatzen duen produktu-kopurua, produktu horren alkohol-graduazioa eta ateratzen den alkoholaren xedea adierazi beharko dira.

Memorian adierazitako prozeduren inguruan egin beharreko edozein aldaketa bulego kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio egikaritu aurretik. 15 eguneko apearean barruan emandako berariazko erabaki bidez ezezkua eman ezean, bulego kudeatzaileak proposatutako aldaketa onartu egin duela ulertuko da.

Eskabide bati edo aldaketa-eskari bati ezezkua emanaz gero, erabakia beti arrazoitu beharko da.

Nahaste hidroalkolikoa lortzeko prozesuan eta haren xedean kontuan hartu beharko da artikulu honetan xedatutakoa.

2. Nahaste hidroalkolikoa lortzeari dagokionez, honako arauak hartu beharko dira kontuan:
  - a) Memoria teknikoan deskribatutako prozesuei eta alkohola kentzeko eragiketen ondorioz lortutako produktuei dagokienez, ateratako nahaste hidroalkolikokoaren kopurua, haren alkohol-bolumena eta horren xedea zein diren jakiteko kontrol-mekanismo egokiak proposatu ahalko dizkio kontu-hartzailtza zerbitzuak bulego kudeatzaileari.
  - b) Alkohola kentzeko prozesua garatzen den establezimenduetan ezingo da nahaste hidroalkolikotik alkohola ateratzeko prozesurik egin; eragiketa hori alkohol-lantegietan egin beharko da.

3. Prozesuaren ondoriozko nahaste hidroalkoholikoaren xedeari dagokionez, honako arauak hartu beharko dira kontuan:

a) Lortze-establezimenduan suntsitzea.

Establezimenduaren titularrak suntsiketaren berri emango die kontu-hartzailletza zerbitzuei, ekintza gauzatu baino gutxienez hirurogeita bi ordu lehenago egin ere. Suntsiketa egiteko unea iristerako kontu-hartzailletza zerbitzuak iritsi ez badira, establezimenduko titularrak prozesuari ekin ahal izango dio. Halaber, suntsiketa etengabea ez bada, eskabidea aurkezterakoan establezimenduko titularrak puntu horren berri eta eragiketaren gutxi gorabeherako iraupenaren berri eman beharko die kontu-hartzailletza zerbitzuei.

Suntsiketa automatikoki egiten bada, nahaste hidroalkoholkoa aldeztatik gorde gabe, hori memorian jaso beharko da, eta baita produktuaren eta haren alkohol-edia kuantifikatzeko modua ere. Kasu honetan ez dago zertan aldeztatik gorde kontu-hartzailletza jakinaren gainean jarri. Lortutako produktua kuantifikatzeko modua prozesuaren hasieran egiaztatze modukoa izan beharko da. Halaber, edozein unetan laginak atera ahal izateko aukera emango da, suntsitzen den produktuaren alkohol-kopurua zehaztu ahal izateko.

b) Lortze-establezimenduan berrerabiltzea:

- 1.a. Energia errekontza bidez berrerabiltzen edo aprobetxatzen bada edo establezimenduaren jarduera nagusiaren xede diren produktuak fabrikatzeko sistemen eta gailuen hozte-sisteman erabiltzen bada, interesdunak hala adierazi beharko du memoria teknikoan eta bulego kudeatzailea jakinaren gainean jarriko du nahaste hidroalkoholkoa alkohol desnaturalizatu moduan hartu eta onartu ahal izateko, bulego kudeatzaileak aldeztatik onartutako desnaturalizazio-prozeduraren arabera desnaturalizatu behar dela uste ezean. Horretara bideratzen den produktu-kopurua establezimenduaren kontabilitatean adierazi beharko da.
- 2.a. Nahaste hidroalkoholkoa lehenagotik gisa erabiltzen bada establezimenduan egiten diren fabrikazio-prozesuetan, interesdunak proposatutako sistemak berrerabiltzen den produktuaren alkohol-edia kuantifikatzea eta berrerabiltzeko produktuaren laginak ateratzea ahalbidetu behar du, azken produktuari dagokion NC kodean duen sailkapena edozein dela ere.

c) Produktuaren zirkulazioa eta biltegitratzea lortze-establezimenduan:

- 1.a. Nahaste hidroalkoholkoa sortzen eta lortzen duten gailuetatik hura berrerabili, bidali edo prozesu ez-automatiko baten bidez suntsitu arte biltegitratuko den tangetara iritsi arte produktuak izango duen zirkulazioa ibilbide osoan zehar ikus daitezkeen hodian bidez egingo da, aurreko a) ataleko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.
- 2.a. Biltegitratzeko tanga edo andelek kubikatuta egon beharko dute, kontagailu homologatuak eduki beharko dituzte eta zigilatze moduko giltzak edo hartuneak eduki beharko dituzte.
- 3.a. Nahastea edo alkoholdun likidoa biltegitratzean alkohol-fabriketan alkohola biltegitratzeko orduan onartzen diren galera-portzentajeak hartuko dira kontuan.

d) Lorpen-establezimendutik irtetea.

Produktuak establezimendutik irteten ahal izateko, Araudi honek xedatzen dituen Zerga berezien mendeko produktuen zirkulazio arloko baldintzak bete beharko dira.

Irteera hondakinen kudeatzailerantz egiten bada, araudiak 75 bis artikuluan ezarritako prozedura jarraituko da, artikuluko honetako 3.b atalean xedatzen den moduan nahaste hidroalkoholikoa desnaturalizatzea baztertu gabe.

4. 50. artikuluan xedatutakoa gorabehera, establezimenduko jarduera nagusiaren inguruko liburuez gain, alkohola kentzeko prozedurari buruzko liburu bat ere egin beharko da. Bertako karguan ekoizpenean jarritako kopurua jaso beharko da, eta produktu mota zehaztu beharko da produktuaren benetako bolumena, maila eta litro absolutuak adierazita; datari dagokionean, produktuaren benetako bolumenaren kopurua, maila eta lortutako nahaste hidroalkoholikoaren litro-kopurua.

Lortzen den nahaste hidroalkoholikoa prozesu propioetan erabiliz gero, informazioa alkohola kentzeari buruzko liburutik irteteen bada jarduera nagusiaren edo nahaste hori erabiliko duen prozesuaren lehengaien liburuan sartuko da.

Kontu-hartzailatza zerbitzuek alkohola kentzeko prozesuari buruzko liburu osagarriak eskatu ahal izango ditu, establezimendua behar bezala kontrolatzeko egokitzen jotzen badute.

5. Alkohola kentzeko prozesu horiek egiten dituzten establezimenduei Araudi honetako 43. artikuluko 2.b.1 atalean xedatutakoa aplikatu ahal izango zaie, aurreko 3.d) atalean xedatutako kasuetan horietatik irteten den alkoholaren inguruan.

Mota horretako irteerak egiten dituzten establezimenduak jarduera bereizi baten gakoarekin inskribatuko dira kasuan kasuko bulego kudeatzailearen erregistroan.

#### **57. artikulua. Kanariei buruzko xedapen bereziak.**

1. Penintsulan eta Balearretan Garagardoaren gaineko Zergari, Bitarteko Produktuen gaineko Zergari eta Alkoholaren eta Eratorritako Edarien gaineko Zergari lotutako produktuak sartzen direnean (horien gaineko zergak Kanarietan sortu badira), kontzeptu horien arabera likidatuko eta ordainduko dira lurralde horietako zerga tasen arteko diferentzia aplikatzearen ondoriozko kuotak. Kudeaketa, berriz, Penintsulan eta Balearretan sartzeko edo irteteko lekuari dagokion kudeaketa bulegoak egingo du, eta, oro har, inportazioaren aduana zorrerako ezarritako arauak aplikatuko dira.
2. Legeko 23. artikuluko 9. atalak a) paragrafoan ezarritako salbuespenen aplikazioa, beste alde batetik, Araudi honetako 4, 5, 53, 73, 74, 75, 76, 77 eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.
3. Legearen 23. artikuluko 9. ataleko b) letran xedatutako salbuespena ustiapenatarako ezarritako prozeduraren bidez justifikatuko da.
4. Legeko 23. artikuluko 10. ataleko a) eta b) paragrafoetan ezarritako itzulketa, berriz, irteera lekuari dagokion kudeaketa bulegoari eskatuko zaio, esportazio kasuetan zerga berezien itzulketa giteko ezarrita dagoen prozeduraren bitartez.
5. Garagardoari, Bitarteko Produktuei eta Alkoholari eta Edari Eratorriei buruzko Zergaren xede-eremuan sartzen diren Europar Batasuneko gainerako Estatu kideetatik datozen produktuak Kanariar Uharteetan sartuz gero, zergaren likidazioa eta ordainketa zein produktuen zirkulazioa inportazioetarako xedatutako prozedurei jarraiki egingo da.

#### **57 bis artikulua. Zerga-onura zehatzak izateko txosten teknikoaren edukia.**

Alkohola erabat edo zati batean desnaturalizatu nahiz desnaturalizatu gabea erabiltzen dutenek eta 54. eta 80. artikuluan aipatzen diren zerga-itzulereen onuradunek, lurralde-erregistroan inskribatu nahi dutenean, eskaeretan txostenak gutxienez honako informazioa izango du:

- a) Alkohol etilikoa erabiltzeko beharrak justifikatzea.

- b) Industria-prozesua azaldu eta alkohol etilikoa erabiltzen den fasea adieraztea.
- c) Alkohola erabiliz lortuko diren produktuak.
- d) Produktu-unitate bakoitza lortzeko beharrezkoa den alkohol-kopurua.
- e) Lortutako produktuek alkoholik ba al duten adieraztea.
- f) Alkoholaren jomuga, lortutako produktuei ez bazaie eransten eta horiek lortzeko prozesuan desagertzen ez bada.

### **III. KAPITULUA GARAGARDOAREN GAINEKO ZERGA**

#### **58. artikulua. Lantegien instalazioa eta eragiketen kontrola.**

1. Araudi honetako 56. artikuluko 2. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, garagardo lantegiak lehengaitzat alkohola erabiltzen duen beste edozein lantegitatik isolatuta egongo dira. Fabrikazioan erabiltzen diren sakarizazio upelak, egozteko galdarak, hartzidurako biltegiak, ontzeko biltegiak, tankeak eta gainerako elementu guztiak, beste alde batetik prezintatu egin daitezke eta zenbakiturik egon beharko dira, bakoitzaren edukiera erabilgarriak adieraziz; gainera, beharrezko neurketa elementu guztiak edukiko dituzte, euren bolumena edozein unetan jakiteko.
2. Araudi honetako 40. artikuluko 5. atalean ezarritako ikuskapenaren txostenaren arabera lantegiak legez eskaturiko baldintzak betetzen baditu, kudeaketa bulegoak (fabrikatzaileak edo kontu-hartze zerbitzuak eskatuta) baimena eman dezake probako funtzionamendurako, sei hilabeteko epean; horrela, produkzio gaitasuna eta errendimenduak zehaztu ahal izango dira, fabrikazio prozesuko fase guztiei dagokienez. Epe hori igarotakoan, kudeaketa bulegoari datu horien berri emango zaio, hori guztia espedientean jasota gelditzeko.
3. Lehenengo gaien erabileraren eta fabrikazioaren kontrola osatzeko, Araudi honetako 59, 60 eta 61. artikuluetan ezarritakoa "alkoholik gabeko garagardoa" deritzon edariari aplikatu ahal izango zaio, edari hori garagardo lantegietan egiten denean. Horretarako, "alkoholik gabeko garagardotzat" hartuko da alkoholdun gradu bolumetrikoko bat duen edaria, bolumenaren 100eko 0'5etik gorakoa ez dena, baldin eta maltako garagardoaren gainerako ezaugarriak eduki eta NC 2202 kodearen barruan sailkatzen bada.

#### **59. artikulua. Fabrikatzaileen betebeharrak.**

Garagardoa fabrikatzen dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Kontu-hartze zerbitzuari elementuak prezintatzeko baimena ematea, zerbitzu horren ustez hori fabrikazioa hobeto kontrolatzeko egokia denean, baldin eta produkzioaren ohiko prozesua ekiditen ez bada.
2. Egozteak egutegiko urteen arabera zenbakitzea, modu independentean diharduen egozte gela edo fabrikazio lerro bakoitzeko zenbakitze korrelatiboa jarraituz. Egozte horiek kontzentratuturiko muztioei buruzkoak direnean, edo garagardo mota desberdinetarako direnean, horien zenbakiari letra bat edo letra talde bat erantsiko zaio, ondo bereiztu ahal izateko.
3. Garagardo lantegian sartutako eta kasuan kasuko liburuan adierazitako lehenengo gaien helburu bakarra garagardoa egiteko erabiltzea izango da, kudeaketa bulegoak bestelako baimenik eman ezean.
4. Barne araubideko agiriak, garagardoa egiteko prozesua adierazten dutenak, ondo antolatuta eta artxibatuta egongo dira; gainera, kontu-hartze zerbitzuaren esku egongo dira, zergaren preskripzioaldian.

5. ...

#### 60. artikulua. Arauzko kontabilitatea.

1. Garagardo lantegietan jardueraren laburpen-liburua edukiko da. Hileroko edo hiru hilean behingo maiztasuna izango du, subjektu pasiboari aplikatu beharreko likidazio aldiaren arabera, eta atal hauek izango ditu, prozesuka:

- a) Lehengaiak
- b) Muztioak
- c) Egiten ari den garagardoa.
- d) Ontziratatu gabeko garagardoa.
- e) Ontziratutako garagardoa.
- f) Biltegiatutako garagardoa.

Garagardoaren gaineko Zergarako ez dira lehengaiak izango garagardoaren produkzio prozesuan eransten diren osagaiak, aterakinean edukirik ez badute.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako ataletariko bakoitzean, hileroko edo hiru hilean behingo informazioak ondoko kontzeptuak laburbilduko ditu:

- a) Hasierako izakinak.
- b) Sarrerak.
- c) Kargua guztira.
- d) Irteerak.
- e) Lermak.
- f) Data guztira.
- g) Amaierako izakinak.

3. Ondokoa kontuan hartuko da, 1. idatz-zatian aipatutako ataletan jarri beharreko datuei dagokienez:

- a) Lehenengo materialak. Karguan bereizita idatziko dira lehenengo materialak, motaren arabera, egiazko kilogramoetan, eta kilo-aterakin azalduko da. Datan lanean jarritako lehenengo materialak eta bestelako erabileretarako itendakoak idatziko dira.
- b) Muztioak. Karguan, egosten jarritako estraktu kiloak agerraraziko dira. Datan, hartidurara bideratutako muztio hotzaren guztizko bolumena, haren batez besteko dentsitatea eta Plato gradua eta estraktu kiloan edukia adieraziko dira.
- c) Egiten ari diren garagardoak. Karguan idaztohartuko da, zergaren epigrafeen arabera bereizita, hartiduran jarritako muztioaren bolumena. Beraren batez besteko Plato gradua adieraziko da, baita gehitutako ur bolumena ere, halakorik bada. Datan idaztohartuko da, era berean epigrafeen arabera bereizita, ontzen eduki den garagardo burutua, eta beraren batez besteko Plato gradua adieraziko da.
- d) Ontziratatu gabeko garagardoa. Karguan garagardo bolumenak idaztohartuko dira, zergaren epigrafeen arabera bereizita, eta batez besteko Plato gradua adieraziko da.

Lantegian bertan ekoizitako garagardoa eta beste establezimendu batzuetatik jasotakoa bereiziko dira. Datan, xehetasun berarekin, barruko lurralde eremutik kanpora bidalitako garagardo bolumena, ontziratze sailera bidalitakoa eta beste establezimendu batean ontziratze bidalitakoa idaztohartuko dira

- e) Ontziratutako garagardoa. Karguan idaztohartuko da ontziratze sailera igarotako garagardo bolumena, zergaren epigrafeen arabera bereizita. Datan idaztohartuko da lantegiko biltegi bidalitako garagardo bolumena. Epigrafe bakoitzaren barruan, upeletan ontziratutakoa eta beste ontzi mota batzuetan ontziratutakoa bereiziko dira.
- f) Biltegi bidalitako garagardoa. Karguan idaztohartuko da biltegi bidalitako garagardo bolumena. Lantegian bertan ekoizitakoa eta beste establezimendu batzuetatik jasotakoa bereiziko dira. Datan idaztohartuko da lantegitik ateratako garagardoa. Zerga sortuta ateratakoa, araubide etengarrian ateratakoa eta esportaziorako ateratakoa bereiziko dira.

Bai karguan bai datan, idaztoharriak zergaren epigrafeen arabera bereizita egingo dira, eta epigrafe bakoitzaren barruan, upeletan ontziratutako garagardoa eta bestelako ontzietan sartutakoa bereiziko dira.

- 4. Lehenengo idatz-zatian aipatutako laburpen-liburuan dauden datuen xehekapena establezimenduan dauden beste liburu edo erregistro batzuetan agertu beharko da. Liburu edo erregistro horietako idaztoharriak modu egokian egingo dira kontu-hartze zerbitzuek zenbaketak egin ahal ditzaten eta 50.4 artikuluan aurreikusitakoa bete dadin.
- 5. Laburpen-liburuko xehekapena barruan duten liburu edo erregistroek, 4. idatz-zatian aipatutako horiek, ondoko informazio hauek bilduko dituzte:
  - a) Lehenengo materiak. Informazioa lehenengo materien motak behar bezala bereizita hornituko da eta hurrengoak adieraziko dira: aterakin naturalean ehuneko nahiz kilo-aterakin. Azkeneko horiek batuko dira.
  - b) Muztioak. Egindako egosketen xehekapena. Egosten jarritako estraktu kiloak adieraziko dira, eta ondokoak ere bai: hartitzen jarritako muztio hotza, haren dentsitatea, Plato gradua, edukia estraktu kilotan, eta galerak estraktu kilotan.
  - c) Egiten ari diren garagardoak. Hartitzen jarritako muztioaren bolumena. Beraren Plato gradua eta, egonez gero, gehitutako ur bolumena adieraziko dira, bai eta ontzen eduki den garagardo burutuaren bolumena eta beraren Plato gradua ere. Garagardoa muztio kontzentratuekin egiten denean, hauek bereiz agertuko dira eta haien Plato gradua adieraziko da.

Muztio-garagardo kontzentratuei gehitutako ura lortu nahi den garagardo mota ekoizteko behar bestekoa izango da eta ez gehiago.

Plato gradu bera ez duten muztio edo garagardoak nahasten direnean edo ura gehitzen zaienean, beti ere horrek garagardo motaren aldaketa badakar, eragiketa hauek islatuko dituzten mugimendu egokiak egingo dira.

- d) Ontziratutako gabeko garagardoa. Ontzen edukitako garagardo iragazia, epigrafeen arabera bereizita eta Plato gradua adierazita, eta, era berean epigrafeka banatuta, barruko lurralde eremutik kanpora bidalitako garagardo bolumena, ontziratze sailera bidalitakoa eta beste establezimendu batean ontziratze bidalitakoa.
- e) Ontziratutako garagardoa. Garagardoaren mugimenduak, epigrafeka banatuta. Epigrafe bakoitzaren barruan, upeletan ontziratuta irten dena eta bestelako ontzietan irten dena bereiziko dira.
- f) Biltegi bidalitako garagardoa. Garagardoaren mugimenduak, epigrafeka banatuta. Epigrafe bakoitzaren barruan, ontzi motak bereiziko dira euren edukieraren arabera.

6. Aurreko ataletan xedatutakoaz gain, garagardoko lantegiek urtean inolaz ere 5.000 hektolitroko produkzioa gainditzen ez badute, kudeaketa bulegoak, interesdunak eskatu ostean, honakoak baimen ditzake: batetik, fabrikatzen duten garagardoarekiko lehenengo gaien, muztioen eta garagardo biltegitratuen prozesuen atalak burutzea eta, bestetik, araudiak 50. artikuluan xedatutako aldizkakotasun desberdinarekin kontabilitate sisteman idazpenak egitea. Halaber, araudiak 59. artikuluko 2. atalean aipatutakoari jarraiki, egosaldiak urte naturalen arabera zerrendatzeko eskakizunez salbuetsi diezaieke.

#### **61. artikulua. Galeren ehunekoak.**

1. Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, garagardoa ekoitzi, biltegitratu eta garraiatzeko prozesuetan zehar gertatzen diren galeren ehunekoak hurrengo hauek izango dira:
  - a) Lehenengo materietan: Hiruhilekoko kargu guztiaren gainean, kilo-aterakinaren 100eko 2.
  - b) Egosketan: hiru hilabete bakoitzean zehar egosketan sartutako lehenengo gaiak diren kilo-aterakin naturalaren eta irakidurara igarotako muztio hotzean jasotakoaren artean, kargu osoaren 100eko 5,9a.
  - c) Garagardoaren prestaketan:
    - 1.a. Irakidura eta heltzearen artean bereizteko sistema konbentzionalen: irakidura igarotako muztio hotzaren hiru hilabeteko bolumenaren eta heltzetik ateratako garagardo bukatuaren bolumenaren artean, hiru hilabeteko kargu osoaren 100eko 6,9a, 100eko 7,8ra igoko dena iragazketa bikoitzeko kasuetan.
    - 2.a. Irakidura eta heltzea tanga berean segidan egiten diren sisteman, hiru hilabeteko kargu osoaren 100eko 6a.Ehuneko hau 100eko 7ra igotzen da iragazketa bikoitzeko kasuetarako.
  - d) Solteko garagardoaren bilketan, hiru hilabete natural bakoitzean zehar biltegitratutako garagardoko bolumenaren 100eko 0,25a.
  - e) Garagardoaren ontziraketan, upeletan ontziratzen igarotako garagardo-bolumenaren 100eko 1,5a; 100eko 2,5a formatu handien betetzean eta 100eko 3,5a gainerako ontzi motetarako, hiru hilabete natural bakoitzean zehar. Formatu handizat hartzen da 60 litro baino gehiagoko edukiera duen garraiobidearen gaineko ontzi edo tanga.
  - f) Ontziratutako garagardoaren biltegitratzean, upeletan ontziratutako garagardo biltegitratuaren bolumenaren 100eko 0,05a eta hiru hileko natural bakoitzean zehar bestelako ontzi batzuetan ontziratutako garagardo biltegitratuaren bolumenaren 100eko 1a.
  - g) Eteteko erregimeneko solteko garagardoaren garraioan, garraiatzen den garagardo-bolumenaren 100eko 0,5a.
  - h) Aurreko ataletan egiten den erreferentzia hiru hilabeteko prozesuetan sartutako produktu osoari eginda dagoela joko da.
2. Aurreko atalean xedatutakoaz gain, legeak 6. artikuluan zehazten duenerako, garagardo-lantegietan urteko produkzioak inola ere 5.000 hektolitro gainditzen ez baditu, garagardoaren produkzio, biltegitratze eta garraioaren prozesuetan galera-ehunekoak honakoak dira:
  - a) Lehenengo materietan: Hiruhilekoko kargu guztiaren gainean, kilo-aterakinaren 100eko 2.



- b) Egosaldian: hiruhileroko bakoitzean egosaldian sartutako lehen materien kilo-aterakina naturalaren eta hartzitzaera pasatako muztio hotzetan edukien artean, hiruhilekoko kargu guztiaren 100eko 6.
  - c) Etenaldiaren araubidean dagoen garagardoa egin, ontziratatu, biltegitatu eta garraiatzean, batera hartuta: hartzitzaera pasatako muztio hotzaren hiruhilekoko bolumenaren gainean, 100eko 12.
3. Ogasunaren ministroari baimena ematen zaio artikulua honetan aipatzen ez diren fabrikazio-prozeduratan araubidez galera-ehunekoak zehatz ditza.

**62. artikulua. Malta hornitzaileen betebeharrak.**

...

**63. artikulua. Ontzien baldintzak.**

Garagardoa duten ontziek ontziratzeari, etiketatzeari, aurkezteari eta publizitateari buruzko araudi aplikagarrian ezarritakoa bete beharko dute.

**IV KAPITULUA  
ARDOAREN ETA HARTZITURIKO EDARIEN GAINKO ZERGA**

**64. artikulua. Hartzituriko edariak.**

Legeko 27. artikuluko 5. ataleko c) paragrafoan eta 4. ataleko d) paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, aromatizatzaileak, estraktuak edo esentziak eduki ditzakeen alkohola ez da kontuan hartuko, baldin eta horiek edarietan erabiltzearen helburua alkoholak lorturiko graduazio bolumetrikoa igotzea ez bada. Baldintza hori bete egin dela joko da, graduazio horrek 5,5 puntutik gorako gorakadarik ez duenean (aromatizatzaile, estraktu edo esentzia horiek sartzearen ondorioz) eta sortutako edariak hartutako alkohol gradu bolumetrikoa bolumenaren 100eko 14tik gorakoa ez denean.

**65. artikulua. Lantegien instalazioa.**

- 1. Ardoa eta hartzituriko edariak egiteko upeltegiak lantegizat hartuko dira, Araudi honetan ezarritakoaren ondoretarako.
- 2. Ardoa eta hartzituriko edariak egiteko upeltegi baten biltegi laguntzaileak, bestalde, upeltegiak osaturiko establezimendu bakarraren zatizat hartuko dira, lurralde erregistroan inskribatzearen ondoretarako, baldin eta probintzia berberaren barruan egon eta horietan fabrikazio eragiketarik egiten ez bada.
- 3. Aurreko atalean aipaturiko kasuetan, upeltegia erregistroan inskribatzeko eskabidea egiten denean, biltegi laguntzaileei buruzko agiri guztiak aurkeztu beharko dira.
- 4. Kudeaketa bulegoak, erregistroan inskribapena egitean, inskripzio txartelean argi adieraziko ditu zentsaturiko establezimenduaren barrukotzat hartzen diren biltegiak. Fabrikatzaileen betebeharrak.

**66. artikulua. Fabrikatzaileen betebeharrak.**

Ardoa eta gainerako edari hartituen egileek arau hauek bete beharko dituzte:

- 1. Lantegian sartutako lehenengo gaien helburua lurralde erregistroan inskribatzeari lotutako edariak egitea izan beharko da nahitaez, kudeaketa bulegoak bestelako baimenik eman ezean.
- 2. Ardoa eta hartzituriko gainerako edariak egiteko upeltegietan, honako honen kontabilitatea egingo da:

- a) Lehenengo gaiak: karguan lantegian sartutako lehenengo gaiak idatziko dira, horien jatorria adieraziz. Datan egiteko prozesuan egunero erabiltzen diren lehenengo gaiak adieraziko dira.
  - b) Egiteko prozesua. Karguan, prozesuan erabilitako lehenengo gaiak adieraziko dira, eta datan, lorturiko ardoa eta hartzituriko edariak.
  - c) Amaitutako produktua. Karguan, lantegian lorturiko ardoa eta hartzituriko edariak adieraziko dira, eta datan, lantegitik irteten direnak, horien helmuga eta zirkulazioko agiria adieraziz.
3. Kontabilitatearen barruan, lurralde erregistroan halakoetan inskribaturiko biltegi laguntzaileetan dauden produktuak jasoko dira.
  4. Bulego kudeatzaileak, fabrikatzaileak hala eskatuta, eta aurreko 2. atalean ezarritako ondoreetarako, mahastien erregistroari, derrigorrezko aitortpeni eta merkatuaren jarraipena egiteko informazioa biltzeari, produktuen garraioa laguntzen duten dokumentuei eta mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean egin beharreko erregistroei dagokienean Kontseiluaren 479/2008 (EE) Araudia aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen maiatzaren 26ko 436/2009 (EE) Araudian ezarritakoaren arabera egiten den kontabilitatea onartu ahal izango du.
  5. Zergaren tasa 0 denean, fabrikatzaileek eta gordailu fiskalen titularrek kudeaketa zentroak onetsitako ereduaren arabera laburpena aurkeztu ahal izango dute kudeaketa bulegoan, urtarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren lehenengo hogeit egunetan, aurreko hiruhilekoan establezimenduan egon den mugimenduari dagokionez.

6. ...

#### **67. artikulua. Galeren portzentajeak.**

1. Legeko 6. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, produktuaren benetako bolumenari dagokionez onartzeko moduko galeren arauzko portzentajeak honako hauek izango dira:
  - a) Muztioa zergari lotutako produktu bihurtzea, hartziduran jarritako muztioak duen bolumenaren 100ko 1,5.
  - b) Bukatutako edo prestatzeko bidean dauden produktuak biltegitratzea: hiru hilabeteko batez bestekoen 100eko 0,5a. Ehuneko hau 100eko 1,5era igoko da biltegitratzea kanpotik edo barrutik estalita ez dauden zurezko ontzietan egiten denean.
  - c) Botiletan sartzea: botiletan sartu beharreko kantitatearen 100eko 0,5.
  - d) Garraioa, karga hustea ere barne 200 litrotik gorako edukiera dagoenean, garraiaturiko kantitatearen 100eko 0,5.
2. Ekonomia eta Ogasuneko ministroak baimena edukiko du, galeren arauzko portzentajeak ezartzeko, goian aipaturikoak ez diren fabrikazio edo prestakuntza prozeduretan

#### **68. artikulua. Zirkulazioko arau bereziak.**

1. Araudi honen ondoreetarako, emate-agiri arrunt gisa ezarritakoez gain zirkulaziorako emate-agiritzat hartuko dira, baita ere, mahastien erregistroari, derrigorrezko aitortpeni eta merkatuaren jarraipena egiteko informazioa biltzeari, produktuen garraioa laguntzen duten dokumentuei eta mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean egin beharreko erregistroei dagokienean Kontseiluaren 479/2008 (EE) Araudia aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen maiatzaren 26ko 436/2009 (EE) Araudiaren 24. artikulua 1. ataleko b) letran aipatutako dokumentuak.

2. Ardoaren eta hartzituri edarien bidalketek (xehekariak zirkulazioan jarritakoak, gehienez jota 90 litroko kantitateetan) ez dute (zerga honen ondoreetarako) zirkulazio agiri baten babesik behar.
3. Lantegien eta horien biltegi laguntzaileen arteko zirkulazioa, enpresaren barruko agiri baten babesean egingo da, kudeaketa bulegoak horretarako ematen dituen aginduen arabera.

## **V. KAPITULUA**

### **TARTEKO PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA**

#### **69. artikulua. Lotuta ez egoteko kasuak.**

1. Lotuta ez egoteko kasua aplikatzeko (Legeko 32. artikuluan ezarritakoa), kasu horretan aipatutako bitarteko produktuak egiten dituenak prestakuntza programa azaltzen duen idazkia aurkeztuko du, prestakuntza egingo duen establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoan, eta idazki horretan, berriz, prestakuntzan erabiliko den ardoaren eta alkoholaren kantitatea eta graduazio bolumetrikoa adieraziko dira.
2. Aurreko atalean aipatutako idazkia beste hau baino hamabost egun lehenago aurkeztu beharko da gutxienez: oinarrizko ardoari alkohola gehitzeari buruzko idazkia. Gainera, prestakuntzan erabilitako ardoak bitarteko produkturako eskaturiko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen agiria ere eduki beharko du (Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato eta Terra Alta jatorri-izendapenak).
3. Aurreko 2. artikuluan aipaturiko hamabost eguneko epearen barruan, kontu-hartze zerbitzuek erabiliko den oinarrizko ardoaren laginak har ditzakete. Egin bidea, bestalde, egileak sinatuko du, kontu-hartze zerbitzuekin batera; bertan, ateratako laginaren adierazgarritasunarekiko adostasuna adierazi beharko da, erabiliko den ardo osoari dagokionez. Alkohola gehitzeko epea iritsi eta kontu-hartze zerbitzuak agertu ez badira, egileak gehitze hori bere kontura egin dezake.
4. Aurreko artikuluan aipatutako bitarteko produktuen prestakuntza, pilaketa eta irteera, beste alde batetik, establezimenduan egindako gainerako eragiketetik modu independentean zenbatuko da. Bitarteko produktu horiek ezin izango dute establezimendutik irten barruko lurralde eremurantz eta araubide etengarrian.

#### **70. artikulua. Lantegien instalazioak.**

1. Bitarteko produktuen lantegi baten biltegi laguntzaileak lantegiaren zatitzat har daitezke, lurralde erregistroan inskribatzearen ondoreetarako, baldin eta probintzia berberaren barruan badaude eta horietan fabrikazio eragiketarik egiten ez bada.
2. Aurreko atalean aipatutako kasuetan, biltegi laguntzaileei buruzko agiriak aurkeztu egin beharko dira, lantegia lurralde erregistroan inskribatzeko eskabidean egiten denean.
3. Lurralde erregistroan inskribatzearen ondorioz ematen den txartelean, kudeaketa bulegoak lantegiaren barrukotzat hartzen diren biltegi laguntzaileak jasoko ditu.
4. Lantegiaren eta horren biltegi laguntzaileen arteko zirkulazioa, bestalde, enpresaren barruko agiri baten babesean egingo da, kudeaketa bulegoak horretarako eman dituen aginduen arabera.

#### **71. artikulua. Arauzko kontabilitatea.**

1. Oro har, bitarteko produktuak egiten dituztenek honako liburu hauek edukiko dituzte:
  - a) Lehenengo gaia. Karguan, hauxe adieraziko da: egiten ari den alkohola, ardoa, muztioa, estraktuak nahiz produktuak (adierazitako datan sartutakoak edo lortutakoak), zirkulazioko agiriaren zenbakia, hornitzailea, benetako bolumena, lorturiko alkoholaren graduazio bolumetrikoa eta alkohol hutseko eduki osoa. Datari, egunero, egiteko

prozesura igaro diren lehenengo gaien kantitateak adieraziko dira, karguaren kasuan bezalako zehaztasunez.

- b) Prestatzeko prozesuan dauden produktuak. Kontu horren karguan, egunero eta motaka, erabilitako lehenengo gaietan oinarrituz lorturiko produktuak adieraziko dira, alkoholak lortutako graduazio bolumetrikoa ere aditzera emanez. Datari, egiten ari diren eta beste upeltegi batera eramango diren produktuak idatziko dira, jasotzailea eta zirkulazioko agiriaren zenbakia adieraziz, baita egindako produktuak adieraziz ere, eta kasu bietan karguko datu berberak adieraziko dira.
  - c) Egindako produktuak. Kargu honen barruan, egiteko prozesua amaitu duten bitarteko produktuak sartuko dira; motak bereizita, euren benetako bolumena eta alkoholak lorturiko graduazio bolumetrikoa adieraziko dira. Datari, bitarteko produktuek upeltegitik egindako irteerak adieraziko dira, moten arabera, eta karguan adierazitako xehetasuna erabiliko da horretarako, zutabe desberdinetan bereizita, euren helburuaren arabera aplikatzeko modukoa den zerga tratamendua kontuan hartuz.
2. Liburu horiek ez ezik, kontu-hartze zerbitzuek prestakuntza prozesua behar bezala kontrolatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten liburu laguntzaileak ere edukiko dira.

## **72. artikulua. Galeren portzentajeak.**

- A) Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, galera onargarrien arazko ehunekoak, produktuak 20 graduko tenperaturan duen bolumenaren gainean kalkulatu direnak, hurrengo hauek dira:
- 1. Bitarteko produktuak prestatu eta biltegitzeko prozesuetan:
    - a) Beratzea ez dakarren prestaketa, 100eko 1a.
    - b) Beratze bidezko prestaketa, 100eko 3a.
    - c) Kanpotik edo barrutik estali gabeko zurezko ontzietan jasotako bitarteko produktu eginak edo egiteko prozesuan daudenak: Hiru hilabeteko batez besteko izakinen 100eko 1,5a.
    - d) Bestelako ontzi batzuetan jasotako aipatutako produktu horiek: Hiru hilabeteko batez besteko izakinen 100eko 0,5a.
    - e) Lore-errezelpoko ontzeko sistemaren bidez egiten diren bitarteko produktuak: Hiru hilabeteko batez besteko izakinetan jasotako alkohol garbiaren bolumenaren gaineko 100eko 1,6a. Arazko ehuneko hau aplikagarria izango da aplikagarriak izan daitezkeen atal honetan aurreikusitako galeren gainerako ehunekoak kontuan hartu gabe.
  - 2. Botilaratzea, botilaratu beharreko kantitatearen 100eko 0,5a.
  - 3. Bitarteko produktuak 200 litroko edukiera baino handiagoko ontzietan garraiatzean, baita deskargan ere, 100eko 0,5a.
  - 4. Ekonomia eta Ogasun Ministroari baimena ematen zaio aurretik aipatutakoen bestelako fabrikatu edo prestatzeko prozeduretan galeren arazko ehunekoak ezartzeko.
- B) Hala eta guztiz ere, Legeko 32. artikuluan aipatutako bitarteko produktuak direnean, aurreko A atalean adierazitako portzentaien ordez, Araudi honetako 67 eta 90. artikuluetan ezarritakoen ondoriozko arazko portzentajeak aplikatuko dira, prestakuntzan erabiltzen diren ardo eta alkohol kantitateen proportzioan.

## **72 bis artikulua. Alkoholaren hondakinezko lorpena bitarteko produktuen lantegietan.**

...

### **VI. KAPITULUA ALKOHOLAREN ETA EDARI ERATORRIEN GAINEKO ZERGA**

#### **1. ATALA SALBUESPENAK**

### **73. artikulua. Alkohol desnaturalizatua. Arau orokorrak.**

1. Desnaturalizatzeko eragiketak lantegietan edo gordailu fisikaletan egingo dira, honako arau hauen arabera:
  - a) Lan aitortpenak Araudi honetako 82. artikuluaaren arabera izango dira; aitortpen horietan, desnaturalizatu beharreko alkoholaren bolumena eta graduazioa adieraziko da, baita erabiliko den desnaturalizagarri kantitatea eta mota ere.
  - b) Establezimenduak gordailu kopuru handia eduki beharko du, desnaturalizatuta daudenak gainontzekoetatik bereizita bildu ahal izateko; halaber, desnaturalizagarriak eta alkoholerako homologaturiko dosifikatzailea edukiko du, baita beste baliabide mekaniko batzuk ere (kudeaketa zentroak onetsitakoak), horren homologazioa ahalbidetzeko.
  - c) Oro har, desnaturalizatzeko eragiketa bakoitzak zortzi orduko gehieneko iraupena izango du, eta horren barruan, gutxienez 100.000 litro alkohol sartuko dira, kudeaketa bulegoak bestelako baimenik ematen ez badu; gainera, astegunetan egingo da, kontu-hartze zerbitzuak bertan egonik.

Hala eta guztiz ere, aurreko paragrafoan ezarritako arauak ez dira aplikagarriak izango, desnaturalizatzeko eragiketa egiteko dosifikatzaile homologatua erabiltzen denean edo prezintaturiko gordailuaren araubidea aplikatzen denean, Araudi honetako 81. artikuluko 8. atalean ezarritako arauen arabera.

  - d) Eragiketa guztietan, alkoholaren laginak atera beharko dira, desnaturalizatzea egin baino lehen eta egin ondoren, eta desnaturalizagarriaren laginak atera beharko dira, Aduanen eta Zerga Berezien Laborategiek horiek aztertu ahal izateko. Ateratzeak eta kasuan kasuko azterketak, berriz, Aduanen eta Zerga Berezien Laborategiek egindako azterketak eta emandako irizpenak arautzen dituen araudiaren arabera izango dira.
2. Aurreko 1. atalean ezarritakoa gorabehera, Araudi honetako 75. artikuluko 1 eta 2. ataletan ezarritakoaren arabera baimendutako desnaturalizagarriekin egindako desnaturalizatzeko partzialeko eragiketak erabiltzailearen establezimenduan bertan egin ahal izango dira, honako arau hauek beteta:
  - a) Desnaturalizatu gabeko alkohola zuzenean joango da establezimendu hornitzailetik erabiltzailearen establezimendura, eta xedean desnaturalizatu beharreko alkohola dela adierazi beharko da dagokion administrazioko dokumentu elektronikoan.
  - b) Desnaturalizatzeko operazioak ikuskaritza edo kontu-hartzailetza zerbitzuak bertan direla egingo dira, astegunetan eta gehienez ere zortzi orduko iraupena dutela egin ere. Horrenbestez, zerbitzuoi 48 ordu lehenago jakinaraziko zaie desnaturalizazioa egiteko aukeratutako data. Prozesu hori desnaturalizatu gabeko alkohola establezimenduan jaso ondoren 96 ordu igaro aurretik egin beharko da.

Aurreko paragrafoko jakinarazpenak hizpide duen desnaturalizazio-eragiketa egiteko aurreikusitako unea iristerakoan ez badira aipatutako zerbitzuak bertaratu, eragiketa aipatutako jakinarazpenean adierazitako baldintzetan egingo da.

- c) Desnaturalizazio-eragiketan artikuluko honetako 1. ataleko d) letran xedatutakoa aplikatuko da. Lagin horiek kontu-hartzailera zerbitzuaren aurrean hartu beharko dira beti.
3. Kudeaketa zentroak baimena eman dezake, orokorrean onetsitako desnaturalizagarriekin egindako desnaturalizazio partzialeko eragiketak erabiltzailearen establezimenduan bertan egiteko, aurreko 2. atalean ezarritako arauak kontuan hartuz.
  4. Elkarte barruko zirkulazio kasuetan, alkohola jatorrian guztiz desnaturalizatu ondoren jaso ahal izango da, baita jatorrian neurri batean desnaturalizatuta (onetsitako desnaturalizagarri orokorrekin edo bereziekin) edo desnaturalizatu gabe ere. Azken kasu horretan, aurreko 1, 2 eta 3. ataletan ezarritakoa aplikagarria ez denean, kudeaketa zentroak desnaturalizagarria establezimendu jasotzailean egiteko baimena eman dezake.
  5. Inportazio-kasuetan, salbuespena aplikatzeko eskubidea inskripzio-txartelaren bidez egiaztatuko da. Desnaturalizazioa jatorrian, aduanan zein azken horrek baimendutako establezimendu batean egin ahal izango da.
  6. Alkohola zaharberitzea debekatuta dago, alkoholaren fabrika fabrikazioaren eragiketarako xedatutakoaren kalterik gabe.

#### **74. artikulua. Guztiz desnaturalizaturiko alkoholaren erabilera.**

1. Euren establezimenduetan guztiz desnaturalizaturiko alkohola erabili behar duten pertsonak edo erakundeek eskabidea egingo dute, kasuan kasuko establezimendua establezimendu horri dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan erregistratzeko. Eskabidean, aukeraturiko hornitzailearen edo hornitzaileen izena edo egoitza soziala eta identifikazio fiskalaren zenbakia jasoko dute, baita hornidura egiten duen establezimenduari edo establezimenduen JEK ere. Modu osagarrian, 57 bis artikuluan xedatutako edukiarekin txosten teknikoa aurkeztuko da.
2. ...
3. Guztiz desnaturalizaturiko alkoholak zuzen-zuzen zirkulatuko du hornitzailearen establezimendutik jasotzailearen establezimenduraino.
4. Guztiz desnaturalizaturiko alkohola erabiltzen duen establezimenduan, liburu-erregistro bat edukiko da, eta bertan, egunero, jasotako alkohol kantitatea (karguan) eta erabilitako kantitatea (datan) adieraziko da.
5. Aurreko ataletan xedatutakoa ulertzen da Araudi honen 19. artikularen 3. atalean ezarritakoa baztertu gabe. Azken honen ondorioarako alkoholaren xehekariak baimenduta egongo dira guztiz desnaturalizatutako alkohola gehienez bost litroko kantitatean saltzeko.

Guztiz desnaturalizatutako alkohola bost litro baino gehiagoko kantitatean saltzen duten alkoholaren xehekariak bere mugapenari dagokion bulego kudeatzailean inskribatu beharko dute.

#### **75. artikulua. Neurri batean desnaturalizaturiko alkoholaren erabilera.**

1. Guztiz desnaturalizaturiko alkohola (osasun, teknika edo merkataritza mailako eskakizunen eraginez) edota neurri batean desnaturalizaturikoa (orokorrean onetsitako substantziekin) erabili ezin duten industrialariak eurek proposaturiko substantzia edo sustantziak desnaturalizagarritzat onesteko eskatuko diote kudeaketa zentroari. Idazkian, desnaturalizagarri berezia onetsi behar izateko arrazoiak jasoko dituzte, baita proposaturiko desnaturalizagarriaren oinarritzko osagaien deskribapena eta, euren erantzukizunpean, alkohola erabiliko duen produktuen gainerako osagaiak desnaturalizagarritzat proposaturiko substantziekin interferentziarik ez edukitzearen adierazpena ere.

2. Kudeaketa zentroak eskabidea ebatzi eta, bidezkoa izanez gero, desnaturalizagarritzat proposaturiko substantzien erabilera baimenduko du.
3. Orokorrean onetsitako desnaturalizagarriekin neurri batean desnaturalizaturiko alkohola erabili nahi duten industrialariak, baita desnaturalizagarri berezia erabiltzeko baimena dutenek ere, aurreko 1. eta 2. ataletan ezarritakoaren arabera, neurri batean desnaturalizaturiko alkohola erabiliko duen establezimendua berorri dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribatzeko eskabidea egingo dute.
4. Erregistro horretan inskribatzeko, beharrezkoa izango da 100eko 1eko zenbatekodun bermea aurkeztea, urtero kontsumituriko edo ustez kontsumituko den alkohol kantitatearen kuotei dagokionez, Legeko 39. artikuluan edo 23. artikuluko 6. atalean ezarritako tasa aplikatuz.
5. ...
6. Neurri batean desnaturalizaturiko alkohola erabiltzen duen establezimenduan, liburu-erregistroa egongo da, eta bertan, egunero, karguan jasotako alkohola idatziko da, eta datan, berriz, erabilitako alkohola.
7. Zati batean desnaturalizatutako alkohola bakarrik Araudi honetan xedatutako baldintzetan erabili ahal izango da hartu ondoren giza kontsumora bideratuta ez dagoen produktuak lortzeko industria-prozesu zehatzean. Salbuespena izango da alkohola eta desnaturalizatutako erabiltzen dena prozesuan lortutako azken produktuari eransten ez zaizkion kasuetan, betiere desnaturalizatutako erabiltzen den produktua osasun-agintariak produktuaren fabrikazioan kontsumorako baimentzen badute. Salbuespenaren aplikazioa 57 bis artikuluan xedatutako baldintzetan aurkezten den txosten teknikoak deskribatutako produktuen fabrikazio prozesuetara mugatuko da.

57 bis artikuluekin bat egindako txosten teknikoan dauden datuak aldatzen badira, kudeaketa bulegoari jakinaraziko zaizkio ezagutu bezain laster eta jakinarazpenetik izango dute ondorioa.

8. ...
9. ...
10. ...

#### **75 bis artikulua. Hondakin alkoholikoak suntsitzea.**

1. Bulego kudeatzaileak azpiproduktu edo hondakin alkoholikoak lortzen dituzten establezimenduetako titularrei suntsitzea baimen diezaieke, horiek 100eko 1,2tik gorako eduki alkoholikoa badute eta ezaugarri organoleptikoengatik edo alkoholarekin batera doazen beste produktuen izaerarengatik giza kontsumorako egokiak ez badira. Ildo horri jarraiki, erretzea eta energia aprobetxatzea sartua egongo da. Dena den, zehazten diren kontrol-neurriak bete beharko dira. Alkohola hondakina edo azpiproduktu alkoholikoa osatzen duten gainerako osagaiekin zati batean desnaturalizatutatzat joko da.
2. Alkohol eta edari deribatuen gaineko zergaren xede-eremuan sartuak dauden hondakin alkoholikoak suntsitzen direnean, gertatuko den establezimenduaren kudeaketa bulegoari jakinaraziko zaio, bidezkoak diren egiaztapenei buruz erabaki ahal izateko. Lortu den erabiltzailearen establezimendutik kanpo suntsitzen bada, honako prozedura jarraituko da:
  - a) Erabiltzaileak bulego kudeatzaileari produktuak fabrika, zerga-gordailu edo enpresa batean suntsitzeko bidaliko dituela jakinaraziko dio. Nolanahi ere, horiek araudi tekniko aplikagarriarekin bat hondakinak kudeatzeko behar bezala baimenduak egongo dira, baita suntsipena egingo den instalazioak bulego kudeatzailearen lurralde-erregistroan inskribatuak ere.

- b) Alkoholaren erabiltzaileek, fabriken eta zerga-gordailuen titularrek, orokorrean izan ditzaketan betekizunak baztertu gabe, eta hondakinen kudeatzaileek izakinen kontabilitatea izango dute zerga berezia duten produktu edo hondakinekin. Gainera, eduki alkoholikoa adierazi eta 50. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.
  - c) Bulego kudeatzaileak erabiltzaileari bere establezimendutik suntsituko deneraino hondakinen zirkulazioa babesteko dokumentua egin dezan baimenduko dio. Dokumentuan produktuaren kantitatea eta nahastean dagoen alkohol etilikoa adieraziko dira.
  - d) Hondakinaren fabrikak, zerga-gordailuak edo enpresa kudeatzaileak harrera legeztatuko du eta dokumentua erabiltzaileari itzuliko dio.
  - e) Hartzaileak bulego kudeatzaileari gutxienez lanegun bateko aurrerapenez suntsituko duela jakinaraziko dio, eragiketaren egiaztapenari buruz erabaki ahal izateko.
  - f) Suntsipen-ustezko guztietan, suntsitu duen enpresaren titularrak suntsipen-akta legeztatuko du eta erabiltzaileari jakinaraziko dio, eragiketa dagokion liburuan idazteko. Horrez gain, baimendu duen organo kudeatzaileari kopia bat bidaliko dio.
3. Suntsipenaren ondoriozko hondakinek edo azpiproduktuek zerga berezipeko produktuak badituzte eta energia aprobetxatzeko beste toki batera eramaten badira, interesdunak eskatu ostean, kudeaketa bulegoak eragiketa baimen dezake, horietan dagoen alkohola hondakina edo azpiproduktua osatzen duten gainerako osagaiekin zati batean desnaturalizatutzat jota. Gainera, zirkulazioa babestu behar duen dokumentua aipatuko da eta kudeaketa bulegoak emandako baimenak berak izaera hori izan dezake.

Eragiketa baimendutakoan, suntsipenaren ondoriozko hondakina edo azpiproduktua erabiliko den tokiari dagokion kudeaketa bulegoak bidezkoa den egiaztapenari buruz erabakiko du.

### **75 ter artikulua. Hondakin alkoholikoak leheneratzea.**

1. Kudeaketa bulegoak azpiproduktu edo hondakin alkoholikoak lortzen dituzten establezimenduetako titularrei alkohol fabriketara bidaltzea baimen diezaike, horietan dagoen alkohola lehengoratzeko. Xede horrez, azpiproduktu edo hondakin alkoholikoek 100eko 1,2tik gorako alkohola izango dute eta ezaugarri organoleptikoengatik edo alkoholarekin batera doazen bestelako produktuen izaerarengatik, giza kontsumorako desegokiak suertatuko dira. Bestela, modu berean lehengoratzeko alkohol fabriketara bidaltzen dituzten hondakinen kudeatzaileei igortzea baimen dezake. Dena den, zehazten diren kontrol neurriak beteko dituzte. Azkenik, alkohola zati batean hondakin edo azpiproduktu alkoholikoa osatzen duten gainerako osagaiekin desnaturalizatua egongo da.
2. Azpiproduktu edo hondakin alkoholikoak alkohol fabriketara bidaltzen badira, honako prozedura jarraituko da:
  - a) Erabiltzaileak kudeaketa bulegoari horietan dagoen alkohola lehengoratzeko azpiproduktuak edo hondakinak alkohol fabriketara bidaltzea eskatuko dio. Kudeaketa bulegoak eragiketa baimen dezake; hala bada, baimenean produktuaren kopurua, duen alkohola eta bidaltzeko orduan babestu behar duen zirkulazio dokumentua azalduko dira. Azkeneko kasuan, kudeaketa bulegoaren baimenak berak izaera hori izan dezake.
  - b) Alkoholaren erabiltzaileek eta alkohol fabriketako titularrek, orokorrean dagozkien betebeharren kalterik gabe, azpiproduktuei edo hondakinei buruz izakinen kontabilitatea izan beharko dute.
  - c) Alkohol fabrikaren titularrak, azpiproduktuak edo hondakinak jasotzen dituenean, harrera formalizatu eta dokumentua erabiltzaileari itzuliko dio.



3. Hondakinak edo azpiproduktuak hondakinen kudeatzaileari bidaltzen bazaizkio, ondoren, lehengoratzeko alkohol fabrian entrega ditzan, kudeaketa bulegoak eragiketa baimen dezake eta, bidezkoa bada, zer zirkulazio dokumentaziok babestu behar duen hori azalduko du. Ildo horri eutsiz, kudeaketa bulegoaren baimenak berak izaera hori izan dezake.

Eragiketa baimentzen denean, lehengoratuko duen alkohol fabrikari dagokion kudeaketa bulegoak bidezko egiaztapenari buruz erabakiko du.

#### **76. artikulua. Sendagaien fabrikazioa.**

Legeko 42. artikuluko 4. atalean aipaturiko salbuespena honako arau hauen arabera aplikatuko da:

1. Farmazia-laboretegietako titularrek kokapen-tokiari dagokion bulego kudeatzailean salbuespen-baimena eskatu beharko dute. Eskaera-idazkiari txosten teknikoa erantsi beharko zaio 57 bis artikuluan aurrez ikusitako edukiarekin eta farmazia-espezialitate bezala lortu diren sendagaiei dagokien erregistro-zenbakia adieraziko da.
2. Bulego kudeatzaileak espedientea izapidetuko du. Salbuespena aplikatzeko aukera aurkeztutako memorian deskribatutako medikamentuen fabrikazio-prozesura, bulego kudeatzaileak ikus-onetsitako prozesura, alegia, mugatuta dago. Salbuespena onartu ondoren, alkohola erabiliko duen laboretegia dagokion bulego kudeatzailearen erregistroan inskribatuko da. Txartela lortzeko aurreko urtean jasotako alkoholaren inguruko kuoten zenbatekoaren edo, bestela, urte betean jaso daitekeenaren ehuneko 1,5 adinako bermea ezarri beharko da baita ere.
3. Laboretegi farmazeutikoak bulego kudeatzaileak onartutako kontabilitate-sistema erabili beharko du eta jasotako alkohola eta medikamentuak lortzeko prozesuetan erabili eta kontsumitutakoa adierazi beharko du bertan. Salbuespena lortzeko ezinbestekoa izango da alkoholaren kontsumoa frogatzea eta espezialitate moduan banatzen den medikamentuak alkohola ez diren beste osagai batzuk ere edukitzea (osagai horiek 1 atalean adierazitako azalpen-memorian jaso beharko dira).
4. Legeko 44. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren ondoretarako, farmaziako espezialitatearen barruko osagaiek (alkoholdunak izan ez eta aurreko atalean aipatu direnak) neurri batean desnaturalizaturiko alkoholaren izaera emango diote espezialitate horren barruko alkoholari. Alkohola duten farmaziako espezialitateen zirkulazioa, atal honetan ezarritakoa betez gero, ez da formazko ezein baldintzari lotuta egongo.

#### **77. artikulua. Alkohola osasun laguntzako zentroetan erabiltzea.**

Legeko 42. artikuluko 5. atalean aipaturiko salbuespena honako arau hauen arabera aplikatuko da:

1. Osasun-xedeetan erabiltzeko alkohola behar duten osasun-arretako zentroetako zuzendariak bulego kudeatzaileari eskatu beharko diote salbuespena aplikatzeko. Izen-emateko idazkiarekin batera osasun-xededun zentroan egiten den alkohol-kontsumoaren premia eta aurreikuspenak azaltzen dituen memoria ere aurkeztu beharko dute.
2. Kudeaketa bulegoak, eskabidean adierazitako eta zentroan aurreko urtean izandako kontsumoa kontuan hartuz, zentro horrek salbuespena aplikatuta urtero jaso dezakeen alkohol kantitatea finkatuko du. Kantitate hori aldatu egin daiteke urteko aldi bakoitzean, baldin eta zentroaren beharrianak aldatzen badira. Salbuespena onartzen denean, osasun-arretarako zentroa bere helbideari dagokion bulego kudeatzailearen lurralde-erregistroan inskribatuko da.
3. Osasun zentroan liburu-erregistroa egongo da, eta bertan, karguan jasotako alkohola adieraziko da, eta datan, berriz, erabilitako alkohola.

4. Salbuespena aplikatuta jasotako alkohola osasun helburuetarako eta kasuan kasuko zentroaren barruan baino ezin izango da erabili, beti ere bertako zuzendariaren erantzukizunpean.
5. Kontrol-sistema egokia erabilita probintzia edo eskualde osoko osasun-sare publikoko zentroetako alkohol-hornidura alde zuzenetik horretarako izendatutako zentro bakarraren bitartez bideratze onartu ahalko du bulego kudeatzaileak.

#### **78. artikulua. Alkohola ikastetxeetan fabrikatzea.**

Legeko 42. artikuluko 7. atalean aipaturiko salbuespena honako arau hauen arabera aplikatuko da:

1. Halako zentroen zuzendariak bertan instalaturiko alanbikoen edo aparatuen ezaugarriak eta produkzio gaitasuna jakinaraziko dizkiote kasuan kasuko kudeaketa bulegoari.
2. Lortutako alkohola edo alkoholdun produktuak zentro horietako praktiketan nahiz esperimenduetan baino ez dira erabiliko.
3. Lorturiko alkohola zentro horietatik irtengo bada (edozein tokitara irten ere), zuzendariak kudeaketa bulegoari jakinarazi beharko dio, eta horrek kasuan kasuko zirkulazio agiria eman eta, bidezkoa izanez gero, zergaren likidazioa egingo du.

#### **79. artikulua. Alkohola erabiltzea zientziako ikerketan.**

Legearen 42. artikuluko 8. atalean xedatutako salbuespena aplikatu ahal izateko eskabidea aurkeztu beharko da bulego kudeatzailean, eta bertan honako datuak jaso beharko dira: zer nolako xedea izango duen, alkoholak prozesuan nola parte hartzen duen, beharrezkotzat jotzen den alkohol-kopurua eta hura zuzkitzeko aukeratutako hornitzailea edo hornitzaileak zeintzuk diren. Horniketa egingo duen establezimenduaren edo establezimenduen JEK ere adierazi beharko da eskaera egiterakoan.

Bidezkoa bada, alkohol kopuru jakin bat zergarik ordaindu gabe hornitzeko aukera onartuko du bulego kudeatzaileak, eta erabakiaren berri emango dio eskatzaileari lurralde-erregistroan inskriba dezan. Ikuskaritza-zerbitzuek hala eskatuz gero, jasotako salbuespendun alkohola zertarako erabili den justifikatu beharko da.

## **2. ATALA ITZULKETAK**

#### **80. artikulua. Azken produktura sartu barik erabiltzea.**

Legearen 43. artikuluan ezarritako itzulketarako eskubidearen aplikazioa, berriz, hurrengo prozedurarekin bat etorriko da:

- a) Aplikazioa alkohola erabiliko duen industria-ustiapenaren titularrak bulegoko kudeatzaileari alkohola erosi baino lehen eskatu beharko dio. Eskaerari txosten teknikoa batuko zaio, 57 bis artikuluan eskatutako informazioarekin.
- b) Bulego kudeatzaileak egindako eskaria ebatziko du eta, bidezkoa bada, baimena emango du gehienez ere bost urteko eperako. Memorian deskribatutako industria-prozesua zein prozesu horretan tartean diren edo bertatik lortzen diren produktuak aldatuz gero, aldaketa horren berri eman beharko zaio bulego kudeatzaileari, eta bidezkoa bada, azken horrek onartu egingo ditu jakinarazi zaizkion aldaketak.
- c) Aurreko letran aipaturiko baimena eman ondoren, industrialariak inskripzioa egin beharko du prozesua egiteko establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde-erregistroan.

- d) Hiruhileko natural bakoitza amaitu ondorengo lehenengo hogeiei egunetan, aurreko b) atalean aipatzen den baimena duten industria-ustiapenen titularrek memorian deskribatutako prozesuan hiruhilekoko azken egunera arte kontsumitutako alkoholagatik Alkoholaren eta Edari Eratorrien inguruko Zergaren inguruan ordaindutako kuotak itzultzeko eskabidea aurkeztuko dute alkohola erabili den establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean. Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak xedatutako ereduaren arabera izango den eskabide horretan aurreko b) letrak hizpide duen baimenaren zenbakia adierazi beharko da.
- e) Kudeaketa bulegoak aurkeztu diren eskabideak tramitatu eta, bidezkoa izanez gero, itzuli beharreko kuoten zenbatekoa ezarriko du.

### **3. ATALA** **ALKOHOLAREN FABRIKAZIOA**

#### **81. artikulua. Lantegien instalazioa.**

1. Ekoizpeneko aparailuen elementu guztiak kokapen finkoetan muntatu beharko dituzte, sarrera eta irteerako bere eroanbide guztiak egiaztatu ahal izateko moduan, eta zigilatu ahal izateko prestaturik egongo dira. Alkoholaren gordailuak ofizialki kubikatuta egon beharko dira, bere edukiera litrotan ondo ikusi eta ez ezabatzeko moduan markatuta. Era berean, maila eta eskalaren hodi graduatua edukiko dute.
2. Alkohola sortzeko aparatu guztiek kontadoreak eduki beharko dituzte, eta horien eredu kudeaketa zentroak aurretiaz onetsiko du; kontadore horiek prezintatzeko moduan eta euren ibilera askea ez eteteko moduan instalatuko dira (alkohola horietatik etengabe igarotzen denean). Husteko dituzten hodian diametroa egokia izango da, atxikipenik ez egoteko, eta behar bezala kokaturik egongo dira, giltzek edo eurenak baino presio handiagoek hustea ez oztopatzeko. Kontadore horien totalizadoreak gaitasun egokia eduki beharko du, hamar eguneko produkzioaren bolumena edo gutxienez 100.000 litro erregistratzeko. Lantegiek erabilera duten kontadoreak eta ordezeko kontadore bat edukiko dituzte. Hala eta guztiz ere, kontadorerik ez dagoenean edo horiek matxuraturuz gero, lantegiek artikulua honetako 8. atalean aipaturiko biltegi prezintatuaren araubidean egin beharko dute lan. Bolumenaren 100eko 90etik beherako graduazioko alkohola duten fabrikek araubide horretan lan egin beharko dute nahitaez.
3. Likido alkoholikoak askatasunez zirkulatuko dira zutabetik irteten direnetik alkoholen ekoizpenaren erregulazioko giltzara, eta honetatik kontagailu edo zigilatutako gordailu egokietaraino, soldadura, deribazio edo giltzarik gabeko hodi zurrusetatik, bere ibilbide osoan ikusiko direnetatik. Hodien junturak loturako briden bidez edo azkoinen bidez. Hauek, gainera, zigilatu ahal izateko prestaturik egongo dira eta zigilatu ere egin ahal daitekeen bilgarri zurrun batez estalita.
4. Dastatze giltzak kontadorearen atzean egongo dira kokatuta beti, eta euren diametroa ezin izango da diametro erditik gorakoa izan.
5. Lehenengo gaien biltegiak (horren gordailuak lurpekoak izan daitezke) gai horien kantitate nahikoa jasotzeko gaitasuna edukiko du (hain zuzen ere, Araudi honetako 82. artikuluko 4. atalean ezarritako lanaren aldirik laburrenari dagokion kantitatea), eta erabil daitekeen alkohol-graduazio txikienekoak izango dira. Biltegi horiek modu ofizialean kubikaturik eta prezintatzeko moduan egokituta egongo dira, kontu-hartze zerbitzuak hori bidezko hartzen duenean.
6. Lantegia lurralde erregistroan inskribatu ondoren, kontu-zerbitzuak aparatuak prezintatu eta kudeaketa bulegoak horien probak egiteko baimena emango du, sei hilabeterako epean (epe hori jarduera hartzen duen kanpainaren amaierara arte luzatu ahal izango da).
7. Proba horiek egiteko epea igaro ondoren (aurreko atalean aipatutako epea), fabrikatzaileak hogeita lau orduko lanean dagoen produkzio gaitasuna jakinaraziko dio kudeaketa bulegoari (erabilitako lehenengo gaiaren motak kontuan hartuz).

8. Goian aipatutako prezintaturiko gordailuaren araubidean, honako arau hauek hartuko dira aintzat:
- a) Biltegiek laneko zazpi egunetan sortutako alkohol bolumen osoa biltzeko moduko edukiera izango dute.
  - b) Biltegiraino edo biltegietaraino eramateko hodiak, loturako bridak, giltzak eta biltegien ahoak prezintaturik egongo dira; kontu-hartze zerbitzuek prezintatuko dituzte, araubide honetan fabrikaturiko alkohola horietatik atera ezin izateko, harik eta kontu-hartze zerbitzuak prezintatzea kendu eta eragiketa osoa ikuskatu arte, edo bestela baimena emango dio interesatuari prezintua berak kentzeko.»

## **82. artikulua. Lan aitorpena.**

1. Alkoholaren fabrikatzaile guztiek, bere industriako zuzendu edo destilatzeko aparailuak funtzionamenduan jarri baino lehenago, lanaren adierazpena sinatuko du. Adierazpen hau zentro kudeatzaileak onartutako ereduari lotuta egongo da eta, urte naturalen arabera, ezarrita duen aparailu bakoitzeko independenteki zenbakitu beharko du.

Adierazpen honetan prozesuan erabili beharreko lehengaiaren kantitatea eta klasea jasoko dira. Berau lantegian egon beharko da eta izakin gisa ageri beharko da adierazpena egiteko momentuan. Halaber, alkoholaren edukia, litro absolutuetan adierazita, aparailuak jardueran egon behar diren egun eta orduak ere jasoko dira, eragiketa hasi eta bukatzeko eguna eta ordua adierazita.

Aipatutako adierazpena lantegiaren kontu-hartzaitzako zerbitzuari telematika bidez igorri beharko zaio.

2. Adierazpenean adierazitako egunean eta orduan, kontu-hartze zerbitzua bertan egon ezean, fabrikatzailek aparatuen funtzionamendurako behar diren giltzetako prezintoa kendu eta eragiketak hasiko ditu, adierazpenean adierazitakoaren arabera.

Eragiketak adierazpenean jasotako egunean eta orduan hasi ezin direnean (ezinbestez edo ez ustekoren baten ondorioz), eta kontu-hartze zerbitzua beratan ez badago, hurrengo artikuluan adierazitakoaren arabera jokatu da, baldin eta atzeratzea bi orditik gorakoa bada.

3. Lantegiek, prezintaturiko gordailuaren araubidean lan egiten dutenek izan ezik, etengabeko funtzionamendua eduki beharko dute, eguneko hogeita lau orduetan.

Fabrikatzaileak, igandeetan edo jaiegunetan atsedena hartu nahi badu, adierazpenean berariaz jaso beharko du; gainera, eragiketak eteteko eta berriro hasteko egunak eta orduak adierazi beharko ditu.

4. Aitorpenean adierazitako epea ezin izango da laneko bi egunetik beherakoa izan, ezta alkohol hutseko 25.000 litro sortzeko behar den epea baino laburragoa ere, kanpainaren amaieran izan ezik.

5. Jardueraren aldia amaitzen den egunean, fabrikatzaileak laneko eragiketen emaitzari buruzko parte emango edo bidaliko dio posta zertifikatuz kontu-hartze zerbitzuari, eta parte hori, berriz, kudeaketa zentroak onetsitako ereduaren arabera izango da.

Partean, benetan erabilitako lehengaiak eta lorturiko alkohola adieraziko dira, eta kasu biotan aditzera emango da horiek alkoholari dagokionez duten aberastasuna, litro absolutuetan. Kontu-hartze zerbitzuak aparatuak prezintatu eta, fabrikatzailearekin, kasuan kasuko eginbidea sinatuko du.

6. Jarduera-aldia bukatzen den egunean, fabrikatzaileak telematika bidez kontu-hartzaitzako zerbitzuari lan-eragiketen emaitzaren parte igorriko dio, zentro kudeatzaileak onartutako eredura doituta dagoena.

Lan-eragiketen emaitzaren aipatutako parte horretan benetan erabilitako lehengaiak eta lortutako alkohola kontsignatuko dira, bi kasuetan bere aberastasun alkoholikoa, litro absolututan, adierazita. Kontu-hartzaitzako zerbitzuak aparailuak zigilatuko ditu, fabrikatzailearekin eginbide egokia sinatuta.

7. Fabrikatzaileak, aparatuak garbitzeko edo konpontzeko prezintoren bat altxatu behar badu, kontu-hartze zerbitzuari eskatuko dio, bikoizturiko idazkian, eta bertan, horien kopurua eta kokalekua adieraziko du. Kontu-hartze zerbitzuak, bidezko egiaztapen guztiak egin ondoren, horren altxamendurako baimena emango du, eta altxamendu hori eragin duen eragiketa amaitu ondoren, berriro prezintatuko da. Halaber, ezuzteko edozein arrazoiren eraginez, ipinitako prezintoren bat apurtuz gero, fabrikatzaileak berehala jakinaraziko dio kontu-hartze zerbitzuari; horrek egoera aztertu eta bidezkoa izanez gero, beste prezinto batzuk jartzeko baimena emango du.
8. Artisau-destilatzaileek agiria aurkeztu dela jasota utziko duen edozein bide erabilia igorriko dizkio lan aitortpena eta emaitzei buruzko parte bulego kudeatzaileari.

### **83. artikulua. Eragiketak etetea.**

1. Matxuragatik edo ezinbesteko kausagatik eragiketen hasiera edo martxa normala eteten denean, fabrikatzaileak berehala jakinaraziko dio kontu-hartzaitzako zerbitzuari telematika bidez.

Kontagailuak edo kontrolatzeko sistema matxuratuz gero, fabrikazioko eragiketak eten beharko dira, eta horren berri kontu-hartzaitzako zerbitzuari berehala eman beharko diote aurreko lerrokadaren terminoetan. Kontu-hartzaitzako zerbitzuak eragiketa bukatu arte jarraitzea xedatu ahal izango du 81. artikulua 8. atalak aipatzen duen zigilatutako gordailuaren erregimenean.

2. Matxura konponduta, eragiketei berrekin ahal izango diete, lan-deklarazioan jarduerarik ezaren denbora jasota eta kontu-hartzaitzako zerbitzuari, telematika bidez, eragiketei berrekin dietela jakinaraziko diote.

Hala eta guztiz ere, konponketak deklarazioan adierazitako aldia bukatzeko geratzen dena baino epe handiagoa eskatuko balu, eragiketa bukatutzat joko da, ixteko egun eta orduzat etetearenak hartuta. Eta izakinen kontaketen ondorioetarako, ez dira zenbatuko erabili gabeko lehenengo gaiak.

3. Artisau-destilatzaileek eragiketak eten egin direla eta, hala badagokio, berriro hasi direla jakinaraziko diote bulego kudeatzaileari horretarako agiria aurkeztu dela jasota utziko duen edozein bide erabilia.

### **84. artikulua. Alkoholaren fabrikazioko prebentzio nagusiak.**

1. Alkohola distilatzeko ezin izango da aparatu eramangarrikerik erabili.
2. Errektifikatu edo destilatutako alkoholak birpasatu eta, beharrezkoa bada, aldeztu aurretik nahasteko beharrezkoa izango da kontu-hartzaitzako zerbitzuaren baimen adieraziaz edukitzea.
3. Lantegian lehengaitzat sartu diren eta kasuan kasuko liburuan halakotzat jaso diren produktuak alkohola fabrikatzeko baino ezin izango dira erabili, kudeaketa bulegoak berriazko baimenik eman ezean.
4. Arauzko liburuetan eta araudi honetan aipaturiko gainerako agirietan adierazitako alkohol kantitateak alkohol hutseko litrotan emango dira, 20 gradu zentesimaleko tenperaturan.
5. Alkoholaren fabrikatzaileek produktu hauek lantegiaren beraren esparruaren barruan ontziratu ahal izango dituzte. Ontziek araudiak eskatutako adierazpenak eduki beharko dituzte janari-edarien biltegiratze, garraio, etiketatze, aurkezpen, publizitate eta aplikagarri

zaizkien beste edozeini dagokienez. Desnaturalizatu edo deshidratatutako alkohola denean, gainera, “.....(a)z (desnaturalizatzaile mota) desnaturalizatutako alkohola edo deshidratatua. Ez da egokia ahoan erabiltzeko.” esamoldea ere ageriko da.

6. Lehengaitzat hartuko dira, bai erremolatxaren edo kanaberaren melazak nahiz azukredun gainerako substantziak, bai zerealak zein horien maltak eta gainerako substantzia amilazeoak. Alkohola substantzia horiekin egiten duten lantegien lan adierazpenean, horiei dagokienez eta alkohol absolututan duten edukieraren ordeztan, almidoi kantitatea adieraziko da, substantzia amilazeoak direnean, edo azukre kantitatea (sakarosatan adierazita), azukredun substantziak direnean. Ekonomia eta Ogasuneko ministroak honako hau zehazteko metodoak ezarriko ditu: substantzia amilazioaren almidoi kantitatea eta melazen nahiz azukredun substantzien azukre kantitatea (sakarosatan adierazita).
7. Alkohola sintesiaren edo beste prozedura kimiko batzuen baten bitartez fabrikatzeko, kudeaketa zentroaren baimena beharko da; horrek, prozesua ikusi ondoren, kontabilitateko kontrolari dagokionez bete beharreko baldintza bereziak ezarriko ditu.

## **85. artikulua. Alkohol lantegien kontabilitatea.**

### **A) Liburu nagusiak.**

Alkohol fabriketan, orokorrean, honako liburu nagusi hauek edukiko dira:

#### **1. Lehengaien liburua.**

Aurreko 84. artikuluko 6. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, liburu honetan, lantegian jasotako alkoholaren produktuen eta bertan lortu diren hartzituriko ardoen zein muztioen mugimenduaren kontabilitatea eramango da.

Karguaren barruan, fabriketan sartutako edo lortutako lehengaien bidalketak jasoko dira, baldin eta horien idazpenak honako agiri hauen bitartez justifikatzen badira:

- a) Horien zirkulazioa babestu behar duen agiriaren bitartez, Araudi honetan ezarritakoaren arabera, baldin eta lehengaitzat jasotako produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezietan lotuta badago.
- b) Hornitzaileak emandako albaranaren bidez, gainerako kasu guztietan.
- c) Beste liburu baten kontuen bitartez, lantegian bertan lorturiko lehengaiak direnean.

Datuen barruan, fabrikazio prozesuan sartzen diren lehengaien irteerak jasoko dira.

#### **2. Fabrikazio liburua.**

Liburu honetan alkoholaren mugimendua jasoko da. Karguan, egunero, honako hau adieraziko da: data, lorturiko alkoholaren benetako bolumena, graduazioa, alkohol hutsaren bolumena eta kontadorearen irakurkera, alkohol motaren arabera banatuta. Hala eta guztiz ere, prezintaturiko gordailuaren araubidean lan egiten denean, karguko idazpena biltegiari prezintoa kendu eta sorturiko alkoholaren kantitatea neurtzen den egunean egingo da. Datuak, lantegitik irtendako alkohola eta horren zirkulazioa babesten duen erreferentzia jasoko dira, jasotzaileen araberrako banaketa eginez, zerga tratamenduaren arabera.

#### **3. Desnaturalizagarriaren liburua.**

Desnaturalizaturiko alkohola neurtzeko lantegietan eta gordailu fiskaletan, gainera, desnaturalizagarriaren liburua ere eramango da; bertan, jasotako desnaturalizagarri motak, jasotze data, hornitzailea eta irteerak ere adieraziko dira, eragiketa bakoitzari dagokionez.

## B) Liburu lagungarriak:

1. Alkohol lantegiek, zerealetan edo beste substantzia batzuetan oinarrituz (amilazeoak edo azukredunak), hartzituriko ardoak eta muztioak prestatzeko oinarritzat erabili diren produktuak ondo kontrolatzeko, honako liburu laguntzaile hauek eduki beharko dituzte:
  - a) Alkohola kanabera edo erremolatxa melazetan oinarrituz egiten duten lantegiek produktu horien liburu bat eta hartziduraren beste bat edukiko dute.
  - b) Alkohola zerealetan edo beste substantzia amilazio batzuetan oinarrituz egiten duten fabrikek produktu horien mugimendua adierazten duen liburua, maltaren liburua (bidezkoa izanez gero) eta hartziduraren liburua ere edukiko dute.

Atal honetan aipaturiko lantegietan, hartzidura liburuaren datan, besteak beste lorturiko muztioen edo ardoen bolumena, dentsitatea eta alkohol graduazioa adierazi beharko dira.
2. Melazen alkohola egiten duen lantegi bat azukre lantegi baten ondoan instalaturik dagoenean, bi horien titularrak pertsona berbera izanez gero, melazen liburuaren kargua justifikatzeko, melazen kontua azukre fabrikako biltegietatik alkohol fabrikako biltegiara igaroko da.
3. Kudeaketa bulegoak, kontu-hartze zerbitzuak proposatuta eta produkzio prozesuak ikusi ondoren, beste liburu laguntzaile batzuk eska ditzake, bitarteko eragiketak hobeto kontrolatzeko.

## 85 bis artikulua. Industria prozesuetan erabili den alkohola araztu eta lehengoratzea.

1. Hurrengo 2. atalean xedatutakoa baztertu gabe, hondakin alkoholikoetatik alkohola lortzeko, eragiketa egingo duen establezimenduak alkohol-fabrika bezala inskribatua egon beharko du eta halako establezimendu-motak arautzen dituzten arauak aplikatuko zaizkio.
2. Aurreko 1. atalak xedatutakoaz gain, bulego kudeatzaileak alkohol-erabiltzaileei jaso eta jada erabilitako alkohola araz edo berreskura dezaten baimen diezaieke, beren establezimenduetan alkohola ekoizteko aparatu egokiak erabiltzen badituzte Baimena interesdunek eskatu beharko dute eta honako baldintzak betetzearen arabera izango da:
  - a) Alkohola ekoizteko aparatuak eta alkohol-gordailuak establezimenduaren titularrak jardueraren deskribapen-txostenean eta txosten teknikoan, 40. artikuluko 2. atalak eta 57 bis artikuluko xedatutakoetan, hurrenez hurren, aitortuak izango ditu. Aipatu txostenetan establezimenduan garatzen diren industria-prozesuen arabera alkohola arazteari edo berreskuratzeari buruzko beharra edo bidezkotasuna berariaz justifikatuko dira.
  - b) Establezimenduetako titularrek 81. artikuluko lehenengo lau ataletan eta 85. artikuluko jasotzen dituzten eginkizunak beteko dituzte. Era berean, 82. artikuluan aipatzen den lan-aitorpenaren orde, urtero alkohol araztua edo berreskuratua lortu eta berrerabiltzeari buruzko aitorpena aurkeztuko dute. Interesdunak behar bezala justifikatua aitorpena egiten duenean, bulego kudeatzaileak 81. artikuluko ataletan jasotako eginkizunen bat betetzez salbuets diezaioke.
  - c) Zati batean edo oso-osorik desnaturalizatua dagoen alkohol-erabiltzaileek, abiapuntuko alkoholaren izaeraren arabera, alkohola erabat edo zati batean desnaturalizatu beharko dute, hori arazketa- eta berreskuratze-eragiketen ondorioz lortu bada, eta, horretarako, 73. artikuluko 2. eta 3. ataletan xedatutako desnaturalizazio-arauak bete beharko dituzte.
  - d) Atal honetan xedatutakoarekin bat araztu edo berreskuratu den alkohola ezingo da beste establezimendu batera bidali eta establezimenduan bertan, erregistro-

inskribapenean aitortu den industria-prozesuan, berrerabili beharko da. Desnaturalizatutako alkoholetik berreskuratutako den alkohola izanik, berreskuratua erabiltzeko, dagokionaren arabera, 74 edo 75. artikuluetan emandako aginduei erreparatuko zaie.

3. Garagardoari, ardoari eta edari irakinei alkohola kentzeko eragiketak eta bitarteko produktuak 56 bis artikulua xedatutakoaren arabera arautuko dira.

#### **4. ATALA**

### **ERATORRITAKO EDARIEN ERA ALKOHOLDUN ESTRAKTUEN NAHIZ KONTZENTRATUEN FABRIKAZIOA**

#### **86. artikulua. Eratorritako edarien prestakuntzarako prebentzio orokorrak.**

1. Kudeaketa bulegoak baimena eman dezake fabrikatzaile desberdinek edariak fabrika berean sortzeko, baldin eta horiek betebeharrak badute.
2. Distilazio zuzenaren bidezko eratorritako edarien fabrikek kapitulu honetako 3. atalean ezarritakoa bete beharko dute, aplikagarriak diren gauza guztietan.
3. Eratorritako edariak beste prozedura batzuen bitartez egiten dituzten fabrikek alkohola edo alkoholdun estraktuak nahiz kontzentratuak erabiliko dituzte lehengaitzat, eta prestakuntza, berriz, ondoren adierazitakoaren arabera egin ahal izango da:

- a) Berotan egindako prestakuntza: atal honen barruan, alkohola lehengaitzat (aromatizatzeke, distilazioaren edo infusioaren bidez) hartzen duten industriak sartzen dira.

Lehengaia aromatizatzeke distilazio aparatuek egonez gero, horien funtzionamendua kudeaketa bulegoari jakinarazi beharko zaio, bulego horrek ezarritakoaren arabera.

- b) Hotzetan egitea: Atal honetan sartuko dira disoluzio bidez, baimendutako esentziekin edo bestelako usain-substantziekin nahastuta edo landare-gaiekin beratuta lortzen diren edari eratorriak. Edari eratorriak disoluzio bidez lortzeko eragiketaren antzekoa da destilatu alkoholiko bat uretan diluitu eta andel ezberdinetara aldatzea. Azken horren ondoriozko produktua iragazi eta biltegitara egiten da botilaratu eta lantegitik atera aurretik.
  - c) Zahartzearen bidez egindako prestakuntza: atal honen barruan, alkoholdun produktuak zuzeko ontzietan zahartzearen bidez lortutako edariak sartzen dira; ontzi horien edukiera litrotan adierazita dago eta neurketa sistema egokia dute.
  - d) Prozedura mistoaren bidezko prestakuntza: halako lantegiek atal honetako a) eta c) bitarteko paragrafoetan ezarritako arauak bete beharko dituzte.
4. Edariak botiletan sartzeko planta independenteek (lurralde erregistroan erregistraturik egon beharko dira) zerga sortu ondoren eta salbuespenik aplikatu gabe jasoko dituzte eratorritako edariak, eta horietan egin daitekeen eragiketa bakarra edaria botiletan sartzea izango da; euren etiketetan, gainera, bidezko datu guztiak adierazi beharko dira, etiketen arloko araudi nazionalen adierazitakoaren arabera.

#### **87. artikulua. Edarien lantegietako eta edaria botiletan sartzeko planta independenteetako kontabilitatea.**

1. Eratorritako edariak egiten dituztenek, orokorrean, honako liburu hauek eduki beharko dituzte:
  - a) Lehengaien liburua. Karguan, lantegian sartutako alkoholak, eratorritako edariak eta alkoholdun gainerako produktuak adierazkiko dira, baita data, horien zirkulazioa babestu duen agiriaren erreferentzia, hornitzailea, benetako bolumena, graduazioa eta



alkohol hutsaren kantitatea. Datan, egunero, prestakuntza prozesura igarotako lehengai eta kantitateak adieraziko dira.

- b) Landutako produktuen liburua. Karguaren barruan, egunero egiten diren eratorritako edariak sartuko dira, motaren eta graduazioaren arabera banatuta, eta horietan dagoen alkohol garbiaren kantitatea neurtuko da. Datan, bestalde, fabrikatik egindako bidalketak jasoko dira, honako hau adieraziz: data, zirkulazioko agiriaren erreferentzia, edari mota, graduazioa, eta alkohol hutsaren kantitatea, eta zutabe desberdinetan banatuko dira, helburuaren arabera aplikagarria den zerga tratamendua kontuan hartuz.
- 2. Liburu horiek ez ezik, kasu bakoitzean, kontu hartze zerbitzuak beharrezkotzat jotzen dituen gainerako liburu laguntzaileak ere eduki beharko dira, prozesu horren ondoriozko produktuen mugimendua adierazteko.
- 3. Edaria botiletan sartzeko planta independenteek honako liburu hauek edukiko dituzte:
  - a) Jaso diren eratorritako edarien liburua.
  - b) Botiletan sartu diren eratorritako edarien mugimenduaren liburua.

#### **88. artikulua. Alkoholdun estraktuen eta kontzentratuen fabrikazioa.**

- 1. Araudi honen ondoreetarako, alkoholdun estraktu eta kontzentratutzat hartuko dira NC 21069020 kodean sailkaturiko produktuak. Era berean, alkoholdun estraktu eta kontzentratutzat hartuko dira NC 21069020 kodean sailkatuta egon ez baina alkohola eduki eta alkoholdun edariak egiteko erabiltzen diren estraktuak, kontzentratuak eta aromatizagarriak.
- 2. Alkoholdun estraktuen eta kontzentratuen fabrikatzaile jarduera independentea izango da, eratorritako edarien fabrikatzaile jarduerari dagokionez, Araudi honen ondoreetarako, baldin eta estraktu eta kontzentratu horiek eratorritako edarien lantegi batean lortzen badira, horiek lortzeko prozesu integratu baten barruan.
- 3. Alkoholdun estraktuen eta kontzentratuen fabriketan, alkohola (alkohol desnaturalizatu edo desnaturalizatu gabeko alkohola duten beste produktu batzuk ere fabrikatu ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, batzuk nahiz besteak egiteko atalen artean behar bezalako banaketa ezarri beharko da, kontu-hartze zerbitzuek kontrol egokia gauzatu ahal izateko.
- 4. Alkoholaren aterakinak eta kontzentratuak egiteko etenaldiaren araubidean jasotako alkohola edo edari alkoholikoak, baita hasieran aipatutakoak ere, aterakinaren lantegiaren barruan, aromatizatzaileak lortzeko erabil daitezke. Nolanahi ere, horien azken helburua elikadura-produktuak eta edari analkoholikoak egitea izango da. Lurralde-erregistroan inskribatua dagoen aterakinen lantegitik irtetea, sortutako kuotarekiko jardungo da. Datoren idazpenean automatikoki orekatuko da legeak 22. artikuluko a) idatz-zatian aurrez ikusitako itzultze-eskubidea.
- 5. Lantegi horietan lehengaien eta amaituriko produktuen kontua eramango da. Lehengaien kontuan, desnaturalizaturiko alkohola eta desnaturalizatu gabea modu independentean zenbatuko dira. Amaituriko produktuen kontuan, alkohol mota bat edo beste batu duten produktuak ere bereiz zenbatuko dira; desnaturalizatu gabeko alkohola duten produktuen kasuan, modu berezian idatziko dira araubide etengarriko irteerak (zerga salbuetsita dutenak edo konpentsazio automatikoaren bidezko itzulketa dutenak) eta hori aplikatuta egiten direnak, eta luzaturiko zirkulazio agiria adierazi beharko da.
- 6. Lantegian baimen egokia dela bide jasotako alkoholaren desnaturalizatzeko partziala egiten denean, kontabilitateko beharrezko idazpen guztiak egingo dira, lehengaien kontuan. Araudi honetako 75. artikuluan ezarritakoaren arabera onetsitako desnaturalizagarri bereziak gehitzeko, bertan egon beharko dira kontu-hartze zerbitzuak, eta horiek kasuan kasuko eginbidea luzatuko dute, kontabilitate idazpen hori justifikatzeko.

7. ...

8. Alkoholdun estraktuak nahiz kontzentratuak fabrikatzean, egitean, ontziratzean, biltzean eta garraiatzean, Araudi honetako 90. artikuluan eratorritako edarrietarako ezarritako galeren portzentaje berberak aplikatuko dira.

## **5. ATALA LANKIDETZA BETEBEHARRA**

### **89. artikulua. Lankidetzaren betebeharra.**

1. Alkoholak edo alkoholdun likidoak distilatzeko edo aldatzeko gai diren aparatuen edo horien zatien fabrikatzaileek, saltzaileek edo jabeek euren egoitza fiskalari dagokion kudeaketa bulegoari jakinarazi beharko dizkiote aparatu horiek jasoko dituzten pertsonen izenak, IFZ eta helbideak.
2. Alkoholak edo alkoholdun likidoak distilazioz edo aldaketaz egiteko aparatuen edozein tituluren bidez lortzen dituzten pertsona guztiek aparatuen instalatuko diren egoitzari dagokion kudeaketa bulegoan aitortu beharko dituzte, hilabeteko epean, horiek lortzen dituzten egunetik zenbatzen hasita.
3. Aurreko atalean ezarritakoaren arabera aitorturik ez dauden aparatuen debekaturiko aparatutzat hartuko dira, indarreko legerian kontrabandoari buruz ezarritakoaren ondoreetarako.
4. Ardo-alkohola fabrikatzeko lehengai diren produktuak biltegitik dituztenak, hiru hilabete natural bakoitza bukatu osteko hogeita egunen barruan, bulego kudeatzailearen aurrean, aurreko hiru hilekoan destilatu edo errektifikatzeko lantegietara zuzenduta bidalitako zerrenda bat, Ekonomia eta Ogasun Ministroak onartutako ereduari lotuta, aurkeztera behartuta egongo dira, data, hartzailea eta egiten duen industria, helbidea, xedeko herria, kantitatea eta graduazioa adierazita. Patsak, pikak eta ardogintzaren gainerako hondakinak direnean, aipatutako zerrenda horretan jasoko dira, bere xedea edozein dela ere.

Hala eta guztiz ere, aipatutako zerrenda aurkeztea ez da nahitaezkoa izango negatiboa denean.

5. Halaber, honako hauek ere aurreko atalean aipaturiko zerrenda aurkeztu beharko dute, goian adierazitako epean: mota edo jatorri guztietako azukre kristalizatuak fabrikatzaileak, isoglukosaren fabrikatzaileak eta melazen pilatzaileak, melaza edo isoglukosa euren lantegietatik edo biltegitatik irteteari dagokionez, horiek edozein tokitara eraman arren.
6. Aurreko 4 eta 5. ataletan aipaturiko produktuen Elkarte barruko eskuratzeko egiten dituztenek eta inportatzaileek, beste alde batetik, produktu horietarako adierazitako betebeharrak bete beharko dituzte.
7. Aurreko 4, 5 eta 6. artikuluetan aipaturiko pertsonak, ikuskapenak eskatuta, atal horietan aipaturiko produktuen salmenten ziurtagiriak kontserbatu eta aurkeztu beharko dituzte, lau urteko epean.

## **6. ATALA GALEREN PORTZENTAJEAK**

### **90. artikulua. Galeren ehunekoak.**

1. Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, fabrikatu, prestatu, ontziratatu, biltegitik edo garraiatzeko prozesuetan onargarriak diren galeren arauko ehunekoak hurrengo hauek dira:

- a) Melaza eta gainerako gai azukredunak hartitzeko prozesuan: Lanean jarritako horietan jasotako azukre hartigarrien –sakarosan adierazita- 100eko 100aren errendimendu kimiko teorikoa izango litzatekeen alkohol absolutuaren kantitatearen 100eko 10a.
  - b) Alkoholaren errektifikazio eta destilazioan: lanean jarritako alkohol garbiaren kantitateen 100eko 3a eta 100eko 1,5a, hurrenez hurren. Behe presioko aparailuetan patsak destilatzeari dagokionez, ehuneko hau 100eko 5era igoko da.
  - c) Edari deribatuen prestaketan:
    - 1.a. Zuzeneko destilazioagatiko fabrikazioa: Aurreko b) ataleko ehuneko berberak.
    - 2.a. Beratzea ez dakarren hotzeko prestaketa: Lanean jarritako alkohol garbiaren kantitateen 100eko 1a.
    - 3.a. Beratzea dakarren hotzeko prestaketa: Lanean jarritako alkohol garbiaren kantitateen 100eko 3a.
    - 4.a. Beroko prestaketa: Lanean jarritako alkohol garbiaren kantitateen 100eko 3a.
    - 5.a. Zahartze bidezko prestaketa: Hurrengo e) atalean ezarritakoak.
  - d) Txikizkako salmentarako prestatutako ontzietan ontziratze edo botilaratzean: Ontziratutako beharreko alkohol garbiaren kantitateen 100eko 0,5a.
  - e) Alkohol eta edari deribatuak botilak ez diren ontzietan biltegitratzean: Hiru hilabeteko batez besteko izakinen 100eko 0,50a. Kanpotik edo barrutik estali gabeko zurezko ontzietan egiten denean, ehuneko hau 100eko 1,5era igoko da.
  - f) Alkoholaren lantegietan lehengaiak biltegitratzeko orduan: hiru hilabeteko batez besteko izakinen 100eko 1a; aipatutako ehunekoa 100eko 5era arte igoko da melazak, patsak eta likidoak ez diren gainerako lehengaiak direnean.
  - g) Alkohol eta edari deribatuak, 200 litro baino gehiagoko edukiontzietan, garraiatzean, baita bere deskargan ere: zirkulazioko dokumentu egokian garraiatu gisa jasota ageritako den kantitatearen 100eko 0,5a.
2. 15. artikulua 11. atalean eta 45. artikulua 2. atalean –biak Legearen- eta Araudi honen 52. artikulua 2. atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, eta bertan aurreikusitako salbuespenetakoaren bat aplikatuta alkohola jasotzen duten erabiltzaileei dagokienez, baita guztiz edo zati batez desnaturalizatutako alkohola ere, hurrengo prozesu eta ehunekoetan gertatzen diren galerak justifikatuzat joko dira, frogaren beharrik gabe:
- a) Alkohola jasotzen duten produktuen hotzeko prestaketan, beratzea ekarri gabe: lanean jarritako alkohol puruaren kantitateen 100eko 1a.
  - b) Alkohola jasotzen duten produktuen prestaketan, hotzean beratzearekin eta beroan: lanean jarritako alkohol puruaren kantitateen 100eko 3a.
  - c) Txikizkako salmentarako prestatutako ontzietan alkohola jasotzen duten produktuen botilaratze edo ontziratzean: ontziratzen den alkoholaren kantitateen 100eko 0,5a.
  - d) Txikizkako salmentarako prestatutako ontzien bestelakoetan alkohola biltegitratzean: Hiru hilabeteko batez besteko izakinen 100eko 0,50a. Kanpotik edo barrutik estali gabeko zurezko ontzietan egiten denean, ehuneko hau 100eko 1,5era igoko da.
  - e) 200 litro baino gehiagoko edukiontzietan alkohola garraiatzean, baita bere deskargan ere: 100eko 0,5a.

3. Ekonomia eta Ogasun Ministroari baimena ematen zaio galeren arauzko ehunekoak ezartzeko aurretik aipatutakoen bestelako fabrikazio edo prestaketako prozeduretan.

## **7. ATALA**

### **ZIRKULAZIOKO ARAU BEREZIAK**

#### **91. artikulua. Ontzien eskakizunak.**

1. Eteteko erregimenetik kanpo botilaratzeko planta independente baten bestelako barneko lurralde-eremuaren barruko xede batekin, edari deribatuen zirkulazioa edozein edukierako ontzitan egingo da, ontziratutako produktueterako kantitateen gamei eta edukiera nominalei buruzko araudian ezarritakoa baztertu gabe.
2. Alkohola edo, bestela, edozein motatako edari deribatuak jasotzen dituzten zisternetan, bidaltzaileak bere giltza guztiak zigitatu beharko ditu. Zisterna edo bere konpartimendu bakoitzean, ez ezabatzeko moduan, bere edukiera ageri beharko da litrotan. Era berean, alkohola eta, egonez gero, edari deribatuak garraiatzera zuzendutako bidoiek eta zurezko bestelako ontziek garraio, ontziratze, etiketatze eta publizitatearen arloan aplikagarri zaien araudiak eskatutako adierazpenak eramango dituzte.
3. Ahoan erabiltzeko egokiak ez diren alkoholentzietan, ondo ikusten diren karaktereetan, gorabehera hori adieraziko dute

## **8. ATALA**

### **ARTISAUTZAKO DESTILAZIOEN ETA URTEKO ARDOEN ARAUBIDEAK**

#### **92. artikulua. Definizioak.**

Atal honen ondoretarako, hona hemen definizio batzuk:

1. Urteko ardoaren pattarra. Urteko ardoaren Araubidea mota murriztuan aplikatzearen ondoriozko pattarra.
2. Urteko ardoaren uxualak. Urteko ardoaren pattarra lortzeko erabiltzen diren mahats-uxualak.
3. Urteko ardoaren prezintoak. Eratorritako edarien zirkulazioko prezintoak, batez ere urteko ardoaren pattarraren zirkulazioa (hori egin duen lantegitik biltzailearen egoitzaraino) babesteko ezarritakoak.

#### **93. artikulua. Produkzio aparatuen instalazioa.**

1. Distilazio aparatuen instalatzeko lokala distilazio zuzenaren bidezko eratorritako edarien lantegitzat hartuko dira, eta Araudi honetako 48. artikuluan ezarritako kontu-hartzeko araubideari lotuta egongo dira, 2. ataleko d) eta e) ataletan ezarritakoan izan ezik.
2. Distilazio aparatuen prezintatuak izateko egokituta egongo dira, eta gainera, kokaleku finkoetan muntatuko dira, lokal independenteen barruan, bai helbide partikularretan, bai alkohola, eratorritako edariak edo alkoholaren beste produktu batzuk edukitzeko edo erabiltzeko jarduerak garatzen dituzten lokaletan. Lokal bat independentea dela esango da, beste batekiko komunikaziorik eduki ez eta bide publikorako sarbide zuzena duenean.
3. Lantegian ezin izango dira beste establezimendu batzuetako alkoholak edo eratorritako edariak sartu.

#### **94. artikulua. Lurralde erregistroan inskribatzea.**

1. Lurralde erregistroan inskribatzeko eskabide-idazkian, artisautzako distilazioa egiten duen eskulangileak distilazio aparatuko galdararen edukiera adieraziko du.

2. Kontu-hartze zerbitzuak distilazio aparatuak prezintatu eta kudeaketa bulegoak eskulangile hori lurralde erregistroan inskribatu eta kasuan kasuko arauzko liburuak doituko ditu.

#### **95. artikulua. Distilatzeko baimena.**

1. Distilazio aparatuak funtzionamenduan jarri baino lehen, distilazioa egiten duen eskulangileak distilatzeko baimen eskabide bat sinatuko du, Ekonomia eta Ogasuneko ministroak onetsitako ereduaren arabera, eta bertan, honako datu eta gauza hauek jasoko ditu:
  - a) Erabili beharreko lehengai kantitatea eta mota, horren alkohol graduazioa adieraziz; urteko ardoaren uxualak eta gainerako lehengaiak bereiz adierazi beharko dira.
  - b) Distilatzeko baimena zein alditarako eskatzen den. Aldi hori, nahitaez, egun osoekin osatuta egongo da eta horren iraupena ez da lau egunetik beherakoa izango, kanpainaren amaieran izan ezik.
2. Urteko ardoaren uxualak distilatzen direnean, ereduaren arabera zerrenda bat erantsi behar da, distilazio horren helburu diren urteko ardoei buruz.
3. Baimen eskabidean eskulangintzako distilazio araubideko lehenengo tarifaren kuota ordaindu izana jasoko da; eskabide hori, gainera, kudeaketa bulegoan aurkeztu beharko da, gutxienez eragiketa hasi baino hirurogeita hamabi ordu lehenago. Eskabidea aurkeztean, bertan jasotako lehengaiak lantegian egongo dira eta izakintzat jasota egon beharko dira, kasuan kasuko liburuan.
4. Distilazio epearen barruan, hiruhileko biko egutegiko egunak sartzen badira, bi eskabide aurkeztuko dira, eta bakoitzaren barruan, likidazioaldi bakoitzeko egutegiko egunak adieraziko dira.
5. Eskabidean distilazio eragiketak hasteko adierazitako egunean eta orduan, distilazioa egiten duen eskulangileak aparatuen prezintak kendu eta eragiketak hasi ahal izango ditu, baita kontu-hartze zerbitzua bertan ez badago ere.
6. Distilaziorako baimendutako epea amaiturikoan, kontu-hartze zerbitzuak aparatuak prezintatu ahal izango du eta dagokion eginbidearen bidez adieraziko du.

#### **96. artikulua. Arauzko kontabilitatea.**

Eskulangintzako distilazioa egiten dutenek honako liburu hauek eduki beharko dituzte:

1. Lehengaien liburua. Liburu horretan, karguaren barruan, lantegian jasotako lehengaiak adieraziko dira, eta datan, berriz, distilazio prozesuan egunero erabiltzen diren lehengaiak.
2. Pattarraren liburua. Horren karuan, egunero lorturikoak adieraziko dira, eta datan, ostera, lantegitik irtendako pattarrak, horiek euren zerga tratamenduaren arabera bereizita.

#### **97. artikulua. Zirkulazioa.**

1. Teknika-osasun arloan eta ontziratzearen nahiz etiketatzearen aldetik bete behar diren baldintzak ez ezik, lorturiko pattarren zirkulazioa Araudi honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, artikuluko honetako 3 eta 4. artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe.
2. Pattarrek dokumenturen baten babesa behar badute zirkulatzeko, agiri hori artisau-destilatzaileak emango du bulego kudeatzailearen baimena jaso ondoren.
3. Distilazioa egiten duten eskulangileek lorturiko pattarrei, Araudi honetako 26. artikuluko 1. atalean ezarritakoa aplikatuko zaie, artikuluko honetako hurrengo atalean aipaturikoei izan ezik.

4. Urteko ardoaren pattarrak litro bateko edukierako botiletan ontziratuko dira, eta horiek urteko ardoaren prezintoak edukiko dituzte; gainera, jatorrizko lantegitik baino ezin izango dute zirkulatu, biltzailearen helbideraino.

#### **98. artikulua. Prezintoak ematea.**

1. Kudeaketa bulegoak, araubideko 1. tarifari dagokion ordainketa egin dela egiaztatu ondoren, hauxe emango dio distilazioa egiten duenari:
  - a) Urteko ardoaren prezinto kopurua, izan ere, baimen eskabidean jasotako urteko ardoaren uxualei dagokien alkohol hutseko litro kopurua bider 2,2 egitearen bestekoa izango da.
  - b) Prezinto arrunten kopurua, bestalde, baimen eskabidean jasotako urteko ardoaren uxualei ez dagokien alkohol hutseko litro kopurua bider 2,2 egitearen bestekoa izango da.
2. Kudeaketa bulegoak beharrezko prezinto guztiak emango ditu, Araubideko 2. tarifako zerga oinarria osatzen duten eratorritako edarien zirkulazioa babesteko, pattarraren liburuan jasotakoaren arabera. Horretarako, beharrezkoa izango da distilazioa egiten duen eskulangileak berme bat aurkeztea eta horren zenbatekoa oinarri horiei dagozkien kuoten bestekoa izatea.

#### **99. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

1. Kudeaketa bulegoan Araudi honetako 95. artikuluan aipaturiko baimen eskabidea aurkeztu baino lehen, distilazioa egiten duen eskulangileak Araudiko 1. tarifari dagokion kuotaren ordainketa egin beharko du.
2. Eskulangintzako distilazioaren Araubideko 2. tarifari dagokion kuotaren likidazioa eta ordainketa, beste alde batetik, Alkoholaren eta Eratorritako Edarien gaineko Zergarako ezarritako arau orokorren arabera egingo da.

#### **100. artikulua. Zergaren itzulketa.**

1. Eurek sorturiko edariak (urteko ardoaren pattarra izan ezik) eratorritako edarien lantegira bidali nahi dituzten eskulangileek eskabidea egin beharko dute kudeaketa bulegoan; eskabide horretan, lantegi jasotzaileari buruzko datuak adieraziko dituzte, baita bidali beharreko edarien mota, kantitatea eta alkoholaren graduazio bolumetrikoa ere.
2. Bulego kudeatzaileak zirkulazio-dokumentua formalizatzeko baimena emango dio artisau-destilatzaileari. Bertan artisau-destilatzailea bera agertuko da igorle gisa eta hartzaile gisa, aldiz, berak aukeratutako edari eratorrien lantegia. Artisau-destilazio erregimenean lortutako edari eratorriak direla adierazi beharko da dokumentuan.
3. Edariek ontziratatu gabe zirkulatuko dute. Distilazioa egiten duenak, itzulketa eskabidearekin batera, bidalitako edari kantitatearen araberrako prezinto kopurua itzuli beharko dio kudeaketa bulegoari.
4. Artisau-destilatzaileak xede-lantegiaren harrera-agiria jasotzen duenean, bulego kudeatzailean aurkeztu beharko du espedienteari amaiera eman ahal izateko. Bulego horrek itzuli beharreko kuota erabakiko du eta haren ordainketa egiteko aginduko du.

## **VII. KAPITULUA HIDROKARBURUEN GAINEN ZERGA**

### **1. ATALA SALBUESPENAK ETA TASA MURRIZTUAK**

#### **101. artikulua. Aireontzietarako hornidura.**

1. Legeak 51.2.a) artikuluan ezarritako salbuespena entrega-frogagiriaren bidez justifikatuko da eta betetzeko Ogasun ministroak onesten duen ereduari erreparatuko zaio, hornidura bidean salmenta prozeduraren bidez egindakoa izan ezik. Halakoetan, hornidura araudi honen 27. artikuluan aurrez ikusitako baldintza formalekin bat egingo da.

Entrega-frogagirik, gutxienez, hornitzailearen, hartzailearen eta horniduraren identifikazio-datuak izango dituzte.

2. Hornidurak egindakoa, hornitzaileak luzatutako entregako frogagiriak korrelatiboki zenbakituko ditu. Numerazioa bakarria izango da, egindako eragiketen zerga edo aduanako erregimena edozein dela ere. Aipatutako eragiketa horiek establezimenduaren izakinen kontabilitatean erregistratuko dira, egiaztagiri gisa balio izango duten entregako frogagiriaren zenbakiei erreferentzia eginda.
3. Hornitzaileak lau urtez gorde beharko ditu, emate-agiriak eta eragiketak egin direla egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa.
4. Zerga-obligaziodunek nabigaziorako erregaiak aireratu eta lurra hartzeko instalazio pribatuak erabili ohi dituzten aireontzien titularrei ematen dizkietenean, aipatutako aireontzien titularrek, alde aurretik, aipatutako instalazioei dagozkien bulego kudeatzaileen aldetik, erregaiak zergaren salbuespenarekin jasotzeko baimena eskuratu beharko dute. Bulego kudeatzaileak, bidezkoa baldin bada, baimena formalizatzen duen lurralde-erregistroko inskripzio-txartela emango du eta berau erregaiaren hornitzaileari aurkeztu beharko zaio. Aipatutako titular horiek beharrezko kontabilitatea eraman beharko dute zergaren salbuespenarekin eskuratutako erregaiari emandako xedea justifikatzeko helburuz.

Ezinbestean hala egin behar den kasuetan, jasotako erregaia instalazio pribatuak erabiltzen dituzten baimendutako beste aireontzi-titular batzuei utzi ahalko zaie. Aireontzi-titular lagatzaileak gehienez 48 orduko epean jakinarazi beharko dio kudeaketa-bulegoan.

5. Hiruhilekoa amaitu ondorengo hilearen 20an bukatuko den epearen barruan, hornitzaileak hiruhilekoan zehar Hidrokarburoen gaineko Zergaren salbuespenarekin egindako hornikuntzei buruzko informazioa aurkeztuko du Ogasun ministroak xedatzen duen entrega-frogagrietako informazioa.

#### **102. artikulua. Itsasontzien hornidura.**

1. Legeak 51.2.b) artikuluan zehaztutako salbuespenaren onuradun izateko itsasontzietan erregaien hornidurak araudi honen 29. artikuluko B hizkiaren 2. atalean deskribatutako prozedura bete beharko du, araudiak 27. artikuluan aipatzen duen bidean saltzeko prozedura erabiltzen denean izan ezik. Indar armatuen itsasontziak direnean, ez dira trazatzaileak edo markatzaileak erabiliko.
2. Hornitzaileak hornidura-eragiketa dokumentatuko du eta, horretarako, administrazio-dokumentu elektronikoa egingo du, Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroak onartutako ereduaren arabera. Nolanahi ere, gutxienez hornitzailearen, hartzailearen eta horniduraren identifikazio-datuak izango ditu.
3. Ontziak komunitatetik kanpoko bandera badu, hornidura esportazio gisa dokumentatuko da.
4. Zerga preskribatzen den bitartean, igorleak zirkulazio-albarana gordeko du, araudiaren 27. artikuluari jarraiki, hornidura bidean salmenta-prozeduraren bidez egina bazegoen.

Hornidura araudiak 29. artikuluko B hizkiaren 2. atalean deskribatutako prozeduraren babesean egin bazen, igorleak zergaren preskripzio-epean administrazio-dokumentu elektronikoaren alea gorde beharko du, produktuen hartzaileak izapidetu ostean.

### **103. artikulua. Elektrizitate sorrera, trenbideko garraioa, itsasontzien zein hegazkinen eraikuntza nahiz mantenamendua eta labe garaietako injekzioa.**

1. Legearen 51. artikuluko 2. idatz-zatiko d), e) eta g) hizkietan eta 2. idatz-zatian ezarritako salbuespenak aplikatzeko, aurretik baimena eskatu beharko du bulego kudeatzailean argindarra ekoizteko zentralen edo argindarra eta energia termiko baliagarria sortzeko zentral konbinatuen, tren enpresen eta itsasontzi handiak eta aireontziak eraiki eta mantentzeko zentroen edo labe garaien titularrek.
2. Bidezkoa bada, bulego kudeatzaileak zerga salbuespendun hornidura baimenduko du eta baimen horrek gehienez bost urteko balioa izango du.
3. Aurreko atalean aipaturiko baimena eman ondoren, enpresen titularrek kasuan kasuko establezimenduetako lurralde erregistroan inskribatzeko eskabidea egingo diete kudeaketa bulegoei (zentralak, labe garaiak edo karburante biltegiak dituzten lekuei dagozkien kudeaketa bulegoak). Kudeaketa bulegoak inskripzio txartela eman eta hori erregaien edo karburanteen hornitzaileari aurkeztu beharko zaio.
4. Salbuespenaren onuradunek beharrezko kontabilitatea eraman beharko dute, erregaiak eta karburanteak salbuespena sortu duten helburuetarako erabiltzen dituztela justifikatzeko.
5. Legeak 51. artikuluko 2. atalaren c) hizkian xedatutako salbuespena aplikatzeko, aldeztu aurretik kudeaketa bulegoan eskatu beharko du ekoizpen elektrikorako zentralen eta elektrizitatea nahiz energia termiko erabilgarria batera sortzeko zentral konbinatuen titularrak. Gainera, kudeaketa bulegoak baimendu beharko du eta, horretarako, dagokion lurralde erregistroan inskribatuko du.

### **104. artikulua. Dragatze eragiketak.**

Legearen 51. artikuluko 2. ataleko f) letran ezarritako salbuespena 102. artikuluan 2. atalean eta hurrengoetan xedatutako prozedurari jarraiki egingo da, eta bertan dragatze eragiketak egiten dituen enpresari eta erabilitako gailuei buruzko informazioa jarri beharko da kontsignatarioari eta ontziari buruzko datuen ordez.

### **105. artikulua. Bioerregai eta biokarburagaiei buruzko probako proiektuak.**

1. Legearen 51.3 artikuluan aurreikusitako salbuespenaren aplikazioa artikuluan honetan xedatutakoaren arabera zuzenduko da.

Artikulu honen aplikazioaren ondorioetarako bakarrik, "biokarburagaiak" hitzak horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, karburagai edo erregai gisa, hurrenez hurren, zuzenean edo bestelako karburagai edo erregaiekin nahastuta, erabiltzera zuzentzen diren biokarburagaiak, Legearen 49.1.m) artikuluan zehaztuta, zein bioerregaiak, artikuluan beraren 1.n) zehaztuta, barne hartzen dituela ulertuko da.

Salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izango da, aldeztu aurretik, barneko lurralde-eremuan kokaturiko lantegi edo gordailu fiskal batean biokarburagaiak sartzeko, aurretik establezimendu hauetako batean ez bazeuden, edo bestela, komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik, aipatutako establezimendu horietatik igaro gabe, jasotako biokarburagaiak direnean, hartzaileak erregistratutako hartzailearen izaera edukitzea. Eteteko erregimenetik kanpoko biokarburagaien inportazioei dagokienez, salbuespena aplikatzeko eskubidea inportazioko aduanaren aurrean justifikatuko da.

Biokarburagaia alkohol etilikoa denean, berriz, zati batez desnaturalizatutako alkoholaren izaera eduki beharko du.



2. Salbuespenari heldu nahi dioten pertsonak, zentro kudeatzailearen aurrean, eskabide egokia aurkeztuko dute. Eskabide honekin batera aipatutako probako proiektuaren eta, bereziki, bertan dagoen biokarburagaien erabileraren deskribapen-memoria ere aurkeztu beharko dute. Probako proiektuan parte hartzen duten pertsonak hainbat direnean, eskabidea pertsona guztiek sinatu beharko dute. Aipatutako memoria hori, gutxienez ere, hurrengo hauei buruzkoa izango da:
  - a) Proiektuaren izaera esperimental eta berau bere ekoizpen edo erabileraren bideragarritasun tekniko edo teknologikoa frogatzera mugatzen dela egiaztatzea, bere emaitzen ondorengo ustiapen industrialia baztertuta.
  - b) Erabili behar den biokarburagai mota, baita berau eskuratzeko tokia eta prozedura ere, aipatutako prozedura horren bitarteko estadioak deskribatuta.
  - c) Aipatutako produktu hori, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, erregai gisa erabil daitekeen modua (zuzenean edo beste erregai batzuekin nahasita).
  - d) Probako proiektuaren ezaugarrien deskribapena, produktua lortzen denetik hau azkenean karburagai gisa erabiltzen den arte, proiektuaren fase guztiak garatuko diren establezimenduak adierazita.
  - e) Probako proiektuak barne hartutako biokarburagaiaren kantitatearen aurreikuspena. Aurreko a) lerrokadan ezarritako izaera egiaztatuta dagoela joko da aipatutako kantitatea salbuespena aplikatzea eskatzen den biokarburagaiaren 5.000 litro urteko baino handiagoa ez denean.
  - f) Proiektuaren iraupena, 3. atalean adierazitako epea baino luzeagoa izango ez dena.

Gainera, zentro kudeatzaileak interesdunen aldetik informazio osagarriak edo argibideak jaso ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioari dagokionez.

3. Zentro kudeatzaileak egindako eskabidearen gainean ebatziko du, salbuespena aitortzeko erabaki egokia emanda, bidezkoa bada.

Aipatutako erabakia, ematekotan, interesdunek eskatutako indarraldiarekin emango da, bost urte baino luzeagoa izango ez dena. Salbuespenaren aplikazioa, kasuen arabera, hurrengo ataletan aurreikusi bezala egingo da.

4. Biokarburagaia, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, bestelako karburagai batzuekin nahasi gabe erabiltzera zuzenduta dagoenean, salbuespena, zergaren sortzapena gertatutakoan eta betiere salbuespeneko beste kasuren bat aplikatzea bidezkoa ez bada, aipatutako biokarburagai horren gainean aplikatuko da.

Biokarburagaia hidrokarburoen lantegiaren izaera duen establezimendutik zuzenean igorriko da probako proiektuan horrelakotzat identifikatuta dauden azken kontsumitzaileenganaino. Hala eta guztiz ere, probako proiektuak horrela jasotzen baldin badu, identifikatutako azken kontsumitzaileei egindako biokarburagaien igorpena gordailu fiskal edo biltegi fiskal baten bitartez egin ahal izango da, Legean eta Araudi honetan horren gainean aurreikusitakoa beteta.

5. Horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, eteteko erregimena bukatu baino lehenago erregai batekin nahastera zuzendutako biokarburagaiak direnean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- a) Biokarburagaia eteteko erregimenean bidaliko da hidrokarburoen lantegitzat hartutako establezimendutik horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean karburagaia gaineratzen den horretaraino. Bere aldaketa kimikoa abiapuntukoa ez den establezimendu batean eginez gero, azken honetara (eta honek ere hidrokarburoen izaera eduki beharko du) egindako bidalketa ere eteteko erregimenean egin beharko da.

- b) Jasotzen diren lantegi edo gordailu fiskalaren izakinen kontabilitateak, kontu bereizietan, jasotako biokarburagaien (horrelakotzat edo kimikoki aldatutakoak), establezimenduan kimikoki aldatutako biokarburagaien, nahasten diren karburagaien eta azkenean lortutako nahasketen mugimendua islatuko du.
  - c) Legearen 51.3 artikuluan aurreikusitako salbuespena berau jasotzen duen nahasketan ageri den biokarburagaiaren gainean, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, aplikatuko da, betiere aipatutako nahasketari dagokionez zergaren sortzapena gertatzen bada eta salbuespeneko beste kasuren bat aplikatzea bidezkoa ez bada. Biokarburagaia ez den nahasketaren zatiari Legearen 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik gokia den zerga-tasa aplikagarri izango zaio.
  - d) Biokarburagaia, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, jasotzen duen nahasketa lantegi edo gordailu fiskaletik, barneko lurralde-eremuan kokaturiko beste lantegi edo gordailu fiskal baterako xedearekin, ateratzen denean, bidalketarekin batera administratibo elektronikoko dokumentua joan beharko da. Dokumentu honetan nahasketaren bolumen osoa eta bertan jasotako biokarburagaiaren bolumena, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, adieraziko dira artikuluan honen 8. atalaren terminoetan. Dokumentu honek harrerako lantegi edo gordailu fiskalaren izakinen kontabilitatean egiten den idazpenaren frogagiri gisa balio izango du. Honek, gainera, atal honen b) lerrokadan ezarritakoa bete beharko du. Biokarburagaia, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, jasotzen duen nahasketa lantegi edo gordailu fiskal honetatik, barneko lurralde-eremuan kokaturiko beste lantegi edo gordailu fiskal batera bidaltzearen bestelako xede batez, ateratzen denean, c) lerrokadan aurreikusitakoa aplikagarria izango da.
6. Aurreko bi ataletan ezarritakoaren ondorioetarako, hidrokarburoen lantegitza hartuko dira eta lurraldeko erregistroan horrelakotzat inskribatu beharko dute hurrengo establezimendu hauek:
- a) Biokarburagaia zuzenean erabili ahal daitekeenean edo aldaketa kimikorik gabe karburagai batekin nahastua izatera zuzentzen denean, biokarburagaia lortzen den establezimendua hidrokarburoen lantegitza hartuko da.
  - b) Aurreko a) lerrokadan aurreikusitakoa alde batera utzita, biokarburagaia erabiltzeko alde aurretik bere aldaketa kimikoa egitea beharrezkoa denean, hidrokarburoen lantegitza ere hartuko da aipatutako aldaketa hori egiten den establezimendua. Zehazki, biokarburagaia gehigarri bihurtzera zuzentzen denean, hidrokarburoen lantegitza hartuko dira biokarburagaia lortzen den establezimendua zein aipatutako gehigarri hori lortzen den establezimendua.
  - c) a) eta b) lerrokadetan xedatutakoa ulertzen da biokarburagaia lortu edo prozesatzen den establezimenduak, berez, alkohol edo hidrokarburoen izaera duen kasuak alde batera utzi gabe.
7. Hidrokarburoen gaineko Zergaren araudia aplikatzeko, izakinen kontabilitateko idazpenak, zirkulazioko dokumentuak eta biokarburagaien bolumenarekin lotuta, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, bete beharreko beste edozein dokumentu beti egingo dira 15.°C-ko tenperaturari dagozkionez.
8. Biokarburagaien, horrelakotzat edo aldaketa kimikoaren ostean, edo hauek jasotzen dituzten produktuen zirkulazioa babesteko luzatzea bidezkoa den zirkulazioko dokumentuan, berriz, den biokarburagaia eta, egonez gero, osatu behar duen nahasketan erantsita dagoen proportzioa adieraziko dira.
9. Ekoizitako bioerregaia alkohol etilikoa (bioetanola) denean, eta izaera mantentzen duen bitartean, 108 bis artikulua 2. atalean xedatutakoa aplikagarria izango da.

## 106. artikulua. 1.4 epigrafeko tasa murriztuaren aplikazioa.

1. Legeko 50. artikuluko 1. ataleko 1.4 epigrafean ezarritako tasa murriztuaren aplikazioa, gas-olioaren erabilerari dagokionez, artikuluko honetan ezarritako baldintzen eta markatzaileak gehitzearen menpe geldituko da, Araudi honetako 114. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Tasa murriztua aplikaturik duen gas-olioa jaso dezaketen bakarrak (aurrerantzean "hobeturiko gas-olioa) baimendutako biltegi fiskalak, xehekariak eta kontsumitzaileak izango dira, hurrengo ataletan ezarritako arauen arabera.

Horri dagokionez, "kontsumitzaileak" hobeturiko gas-olioa erabiltzeko jasotzen duten pertsonak eta erakundeak izango dira, eta euren zuzendaritzapean eta ardurapean jasoko dute, Legeko 54. artikuluko 2. atalean ezarritako helburuetarako edo erregaitzat erabiltzeko.

3. Xehekariak:
  - a) Hobaridun gasolioa merkaturatu nahi duten xehekariek salmenta egin nahi duten xehekako salmenta-instalazioari dagokion bulego kudeatzaileko lurralde-erregistroan izen eman beharko dute.
  - b) Hobaridun gasolioa jasotzeko baimendun xehekariek lurralde-erregistroko izen-emate txartelaren bidez frogatuko dute hala direla.
  - c) Xehekari batek baimendutako azken kontsumitzaileari hobaridun gasolioa hornitu ahal izateko, ordainketa ondoko artikuluko aipatzen dituen hobaridun gasolio-txartelen edo hobaridun gasolio-txekeen bidez egin beharko da.

Horri eta Arautegi honetako 107. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, baldin eta txikizkaria nekazaritzako elikagaien kooperatiba bada eta azken kontsumitzailea haren bazkidea bada, bulego kudeatzaileak baimena eman dezake hobaria duen gasolioaren hornidura egitean hobaria duen gasolio-txartela edo gasolio-txekea erabiltzeko baldintza bereziak izateko.

Zerga itzultzeko eskubidea izan dezaten, Legeak 52 ter artikuluan aurrez ikusitako ustezkoan, ezinbestekoa da, gasolioaren hornidura hobaridun gasolio txartelaren bidez egiten bada, itzultzea eskatzen duenaren izenean egotea.

- d) Xehekariek tasa murriztuan jasotzen duten gasolioaren eta hobaridun gasolio-txartel zein hobaridun gasolio-txeke bidez egindako salmentengatik euren banku-kontuetan egindako ordainketen erregistroa mantendu beharko dute produktu horri emandako xedea justifikatu ahal izateko. Araudi honetako 50. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregistro hori bulego kudeatzaileak bideratu beharko du. Kargu-idazpenak kasuan kasuko administrazioaren dokumentu elektronikoei dagozkien JEKen bitartez justifikatuko dira eta gasolioa jaso ondorengo lehenengo hogeita lau orduetan gauzatu beharko dira. Data-idazpenak egunero egin beharko dira gasolio-hornigailuaren kontadoreak islatzen duena adierazita, eta idazpen horiek justifikatzeko hobaridun gasolio-txartelak ematen dituzten erakundeek igorritako aldizkako ordainagiriak eta kreditu-erakundeengandik jasotako ordainketa-kontuen aldizkako laburpenak erabiliko dira. Egindako idazpenen erregistroak eta horien frogagirik zerga-ikuskatzaileek eskuratzeko moduan egon beharko dute lau urtez.
4. Azken kontsumitzaileak.
    - a) Hobaridun gasolioaren azken erabiltzaileek hornidura bakoitzean hornitzailearen aurrean baldintza hori egiaztatuko dute eta, horretarako, xede horrez sinatu den aitortpena aurkeztuko dute. Nolanahi ere, Ogasunaren Publikoaren ministroak onartzen duen eredura doitu da.

Hala eta guztiz ere, azken kontsumitzaileek hornitzailearen aurrean egiaztatzeko hainbat horniduraren alde aurretiko aitortena aurkez dezakete. Nolanahi ere, Ogasunaren ministroak onartzen duen eredura doitu da. Aurreko idatz-zatietan xedatzen denerako, Ogasunaren ministroak onartutako eredura doituak egongo dira azken kontsumitzailearen aitortpenak, dokumentu-euskarrian edo elektronikoa formalizatzen badira eta gutxienez Ogasunaren ministroak onartutako ereduan ageri diren datuak eta informazioa badituzte.

Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren azken kontsumitzaileen erregistroan inskribatzen diren azken kontsumitzaileek, Ogasunaren ministroak zehazten dituen baldintzekin eta prozedurarekin, inskribapen horren bitartez azken kontsumitzaileak direla egiaztatuko dute. Pertsonak eta erakundeak administrazioarekin harremanak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez zehaztu behar badituzte, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregistro honetan inskribatzea izango da azken kontsumitzailearen baldintza balioz egiaztatzeko modu bakarra araudi honek xedatzen duenerako.

Hobaridun gasolioa azken kontsumitzailearekiko pertsona desberdinak har dezake, horrek adierazitako tokian badago eta nortasuna nahiz berarekin harremana egiaztatzen baditu.

Azken kontsumitzaileek hobaridun gasolioa inportazioaren bitartez edo erkidegoaren barruko zirkulazioaren prozeduren bidez jasotzen badute, gasolioaren kontsumo tokiari dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan alde aurretik inskribatu beharko dute eta "baimenduen" baldintza egiaztatu ere bai. Bigarren eskakizuna betetzeko, lurralde erregistroan inskribapen txartela aurkeztuko dute.

- b) Zergen ikuskaritzak hala eskatuz gero, azken kontsumitzaileek justifikatu egin beharko dute benetan nola erabili duten tasa murriztuan jasotako gasolioa.
  - c) 22. artikuluan 2. ataleko e) letran jasotako kasuan, interesdunak hala eskatuta, salbuespenak aipatzen dituen zirkulazio emate-agirien babesean gasolioa hornitu beharreko makinak dauden puntu ezberdinetara eramatea ahalbidetuko duen baimen orokorra emango du azken kontsumitzailearen enpresa-jardueraren helbideari dagokion bulego kudeatzaileak.
5. Biltegi fiskalak. Hobeturiko gas-olioa jasotzeko eta merkaturatzeko baimendutako biltegi fiskalaren izaera egiaztatzeko, lurralde erregistroan inskribaturik egotearen txartela erabili beharko da.
6. Baimendutako xehekari, biltegi fiskal edo kontsumitzaile izaera, beste alde batetik, hornidura egin duen lantegian, gordailu fiskalean nahiz biltegi fiskalean edo inportazioko aduanan egiaztatu behar da.

Xehekariek, kontsumitzaileek edo biltegi fiskalek gas-olioa Elkarte barruko zirkulazio prozeduren baten bidez jaso nahi dutenean, aukeraturiko Elkarte barruko zirkulazio prozedurari loturiko baldintzak ere bete beharko dituzte.

7. Araudi honetako 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta bertan jasotako salbuespenak errespetatuta, hobaridun gasolioaren zirkulazioa administrazioko dokumentu elektronikoa baten babespean egingo da.

#### **107. artikulua. Ordaintzeko bide espezifikoak.**

1. Aurreko 106. artikuluan 3 c) atalean xedatutakoaren ondorioetarako, hurrengo definizio hauek ulertuko dira:
- a) "Hobaritutako gasolio-txartelak". Kreditu, zordunketa edo erosketen txartelak, bere emisioa zentro kudeatzaileak alde aurretik onartuta dagoenean xehekariei lurraldeko

erregistroan inskribatutako txikizkako salmentarako instalazioetan hobaritutako gasolioa eskuratzeko ordainbide gisa erabiliak izateko. Onartzeko beharrezko baldintza izango da hurrengo baldintza hauek betetzea:

- 1.a. Xehekariei lurraldeko erregistroan inskribatutako txikizkako salmentarako instalazioetan hobaritutako gasolioa eskuratzeko bakarrik erabili ahal izango dira.
- 2.a. Gasolioaren saltzailea zein eroslea identifikatuta gelditu beharko dira.
- 3.a. Eskuraketaren zenbatekoa jasota gelditu beharko da.
- 4.a. Hauek erabiliz egindako ordainketen ordainketa edo zordunketako kontuak identifikatuta gelditu beharko dira.
- 5.a. Ordainketak lurraldeko erregistroan txikizkako salmentako instalazioaren titular gisa inskribatuta daudela egiaztatzen duten xehekarien izenean irekitako kontuetan bakarrik egin ahal izango dira. Ordainketaren jakinarazpenetan hobaritutako gasolio-txartelaren bidez ordaindutako eragiketei dagozkiela argi eta garbi agertu beharko da.
- 6.a. Txartela ematen duen erakundeak artikuluko honen 2. eta 4. atalean ezarritakoa betetzeko gaitasuna eduki behar du.

Eskuratzailerak identifikazio fiskaleko zenbakiaren bere etiketa identifikatzailea erantsi beharko du erakundeak finkatuta duen emateko eskabidearen eremuan.

- b) "Hobaritutako gasolio-txekeak". "Hobaritutako gasolioa" esamoldea, karaktere nabarmenez, ageri den erregai-txekeak. Txeke hau xehekariei lurraldeko erregistroan inskribatutako txikizkako salmentarako instalazioetan eskuratzeko ordainbide gisa bakarrik erabili ahal izango da. Kredituko erakunde bati txeke hauek emateko eskatzen zaion lehendabiziko aldia, eskatzaileak aipatutako erakundeak finkatuta duen eskabidearen dokumentuan, identifikazio fiskaleko bere zenbakiaren etiketa identifikatzailea erantsi beharko du. Hobaritutako gasolio-txekeak kredituko erakundeei gainerako txekeetatik bereizita aurkeztuko zaizkie kontuan ordaintzeko. Kredituko erakundeek txeke hauen zenbatekoa lurraldeko erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duten xehekarien izenean irekitako kontuetan bakarrik ordaindu ahal izango dituzte, hurrengo atal honetan ezarrita dagoenarekin bat etorritik.
2. Hobaritutako gasolio-txartelak ematen dituzten erakundeek, Ekonomia eta Ogasun Ministroak erabakitzen dituen bide eta prozedura elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez, hiru hilabete bakoitza bukatu ondoko 20 egunean amaituko den epearen barruan, hurrengo datu hauek jasotzen dituen zerrenda aurkeztuko dute:
    - a) Gasolioa eskuratzen dutenei dagozkien abizenak eta izen edo sozietatearen izena, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia eta karguko bezeroaren kontuaren kodea (b.k.k.).
    - b) Hiru hilekoan zordundutako zenbateko osoa, haiek emandako hobaritutako gasolio-txartelak erabiliz egindako ordainketei dagokiena.
  3. Hobaritutako gasolio-txekeak eman dituzten kredituko erakundeek, Ekonomia eta Ogasun Ministroak erabakitzen dituen bide eta prozedura elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez, hiru hilabete bakoitza bukatu ondoko 20 egunean amaituko den epearen barruan, hurrengo datu hauek jasotzen dituen zerrenda aurkeztuko dute:
    - a) Gasolioa eskuratzen dutenei dagozkien abizenak eta izen edo sozietatearen izena, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia eta karguko bezeroaren kontuaren kodea (b.k.k.).

- b) Hiru hilekoan zordundutako zenbateko osoa, haiek emandako hobaritutako gasolio-txekeak erabiliz egindako ordainketei dagokiena.
- 4. Txartelak ematen dituzten erakundeek eta kredituko erakundeek, era berean, zentro kudeatzaileari hiru hilabetearen barruan aipatutako erakundeek lurraldeko erregistroan inskribatutako xehekariei ordaindutako zenbatekoen zerrenda bidaliko diote, hobaritutako gasolio-txartelak edo hobaritutako gasolio-txekeak erabiliz egindako ordainketei dagokienez, Ekonomia eta Ogasun Ministroak erabakitzen duen egunetik aurrera.
- 5. Hobaritutako gasolio-txartelak ematen dituzten erakundeak eta kredituko erakundeak aipatutako zerrenda horietan jasotako datuak eta erabilitako ordainbideetatik ondorioztatzen direnak bat etortzearen erantzuleak izango dira. Zehazki, kredituko erakundeak aldizkako laburpenetan hobaritutako gasolio-txekeen sarrerari dagozkion ordainketak bereiz identifikatzearen arduradunak izango dira.
- 6. Txartelak emateko baimena, artikuluko honen 1. atalaren a) letrak aipatzen duena, zentro kudeatzaileak ezeztatuko du hobaritutako gasolio-txartelak ematen dituzten erakundeek hauek onartzeko eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenean.

#### **108. artikulua. Beste tasa murriztu batzuen aplikazioa.**

- 1. Legearen 50. artikuluko 1.8, 1.10.1, 1.10.2, 1.12, 2.10, 2.13.1 eta 2.13.2 epigrafeetan zehazten diren tasa murriztuak 1.4. epigraferako 106. artikuluan xedatutako baldintza berdinetan aplikatuko dira hurrengo salbuespenekin:
  - a) Markatzaileak batzea bakarrik kerosenoarekiko izango da aplikagarria, 114. artikuluko xedatutakoarekin bat. Horretarako, "kerosenoa" azalpenpean 1.12 epigrafeko kerosenoa eta 2.10 epigrafeko olio ertainak sartuko dira.
  - b) 160.3. artikuluan xedatutakoa ez da aplikagarria izango. Txikizkariak, ordea, artikuluko honetako 2. atalean xedatutakoa bete beharko dute.
  - c) 106. artikuluko 4. atalaren a) hizkian xedatutakoa ez da aplikagarria izango.
- 2. Euren izaera txartelaren bidez edo identifikazio fiskalaren zenbakia identifikatzen duen etiketaren bitartez egiaztatzen duten xehekariek, 106. artikuluko 6. ataleko lehengo paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, zergen ikuskapenaren eskura kontserbatu beharko dituzte (zergaren preskripzio epearen barruan) jasotako eta emandako produktuen justifikazio agiriak.
- 3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, biltegi fiskalak edo txikizkako establezimenduak badira eta bertan gas naturala saltzen bada 1.9, 1.10.1 edo 1.10.2. epigrafeetan ezarritako edozein zerga-tasa aplikatuz, hauxe beteko da, betiere 13. artikuluan xedatu denari kalterik egin gabe:

Titularrak inskribatu beharko du biltegi fiskala edo txikizkako establezimendua bulego kudeatzailearen lurralde erregistroan. Titular horiek establezimenduan jasotako gas naturalaren erregistroa eramango du, eta bertan agerraraziko dira bertatik emandakoak, betiere edozein zerga-tasa aplikagarri aplikatuz eginikoak bereiziz. Zergen ikuskaritzaren eskura egongo da erregistroa zergaren preskripzio aldian, baita eginiko idazpenen frogagiriak ere.

- 4. Subjektu pasiboek 1.10.2. epigrafean ezarritako zerga-tasa aplikatu ahal izan dezaten, gas naturala helburu profesionaletarako erabiltzea jakinarazi beharko diete nahitaez azken kontsumitzaileek kostubidez gas naturala hornitzen dutenei, erabilera hori gertatu baino lehen eta Legearen 7. artikuluko 14. idatz-zatiko lehengo paragrafoan ezarritako kasuan, edo hala denean, fabrika fiskalen, depositu fiskalen edo biltegi fiskalen titularrei, baldin eta haien instalazioetatik egiten bada hornidura. Azken kontsumitzaileek jakinarazpenaren kopia igorri beharko diote ikatza kontsumitzen den tokiko instalazioko helbideari dagokion bulego kudeatzaileari.

Gas naturalaren jomuga aldatzen bada eta, ondorioz, horrek zerga-tasa aplikagarriaren aldaketa badakar, subjektu pasiboari eta bulego kudeatzaileari jakinarazi beharko zaie edozein bitarteko erabiliz, betiere idatziz jasoa gelditzen bada. Azken kontsumitzaileek izango dute erantzukizun eskusiboa.

Jakinarazpen berririk egiten ez den bitartean, hasierako jakinarazpenak dakarren informazioa izango da aintzat.

5. Argindarraren eta energia termiko baliagarriaren baterako sorkuntzarako zentral batean eta erabili beharreko ikatzaren horniduretan (Sektore Elektrikoaren Legea aplikatzeko arautegian aipaturiko errendimendu elektrikoa betetzen dela egiaztatzeko beharkizunari lotuak) edo errendimenduaren gaineko behar bezalako auditoria egin bada, Legearen 84. artikuluan arauturiko zerga-tasak aplikatuko dira, hain zuzen ere alternadore-borneetan neurturiko produkzioari eta energia termiko baliagarria lortzeari egotzi beharreko ikatzaren portzentajearen arabera, betiere energia horren azken aprobetxamendua industri establezimenduetan gertatzen bada, ondoren ezarriko den prozedurarekin bat etorritz.

Subjektu pasiboek Legearen 50.1. artikuluko 1.10.2. epigrafean ezarritako zerga-tasa aplikatu ahal izan dezaten argindarra sortzeko eta energia termiko baliagarria ekoizteko erabiliko den ikatz hornituaeren kantitatean aplikatu beharreko behin-behineko portzentajea jakinarazi beharko diete nahitaez zentralerako titularrek. Subjektu pasiboek behar bezala izenpeturiko jakinarazpen horiek gorde beharko dituzte.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko urterako behin betikotzat ezarritakoa izango da urte natural bakoitzean aplikatu beharreko behin-behineko portzentajea. Merkatuen eta Konpetenziaren Batzorde Nazionalari aurkezturikoaren errendimendu elektriko baliokidearen edo behar bezalako auditoria izan duen balioaren eta urte horretan kontsumituriko ikatzaren arabera zehaztuko da portzentaje hori.

Baldin eta baterako sorkuntzarako zentral batera egiten bada ikatzaren hornidura industri instalazio elkartu batekin eta horren hornidura-gunea bakarra bada, 1.10.2. epigrafean xedaturiko zerga-tasa aplikatu ahal izango du subjektu pasiboak, bai energia termiko baliagarriaren ekoizpenari egotzi beharreko ikatz kantitatean, bai zuzenean industri instalaziorako den kantitatean, betiere baterako sorkuntzarako zentralaren titularrak erabilera horien portzentajeari buruzko informazioa adierazten badu idatziz aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

Alabaina, bat-bateko edo aparteko inguruabarrak direla-eta baterako sorkuntzarako zentralaren titularrak justifikatzen badu aurreko urteko behin betiko portzentajearen aplikazioa (horren arabera ordainaraziko zaizkio ikatzaren zerga-tasak) eta aribideko urteari dagokiona, neurri handi batean, desberdinak direla, beste datu bat jakinarazi ahal izango dio subjektu pasiboari, baina alde zuzenetik bulego kudeatzailearen baimena beharko da.

Argindarraren eta energia termiko baliagarriaren baterako sorkuntzarako zentralen titularrek gas naturalaren kantitatea zehazteko beharrezko datu guztiak aurkeztuko dituzte urte bakoitzeko lauhileko naturalaren barruan, Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak erabakitako baliabideak erabiliz. Izan ere, alternadore-borneetan neurturiko argindarraren sorkuntzari eta energia termiko baliagarriaren produkzioari egotzi beharrekoa da gas naturalaren kantitate hori.

6. Subjektu pasiboek jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko dituzte, kuota horien zenbatekoa, azken kontsumitzaileak jakinarazitako behin-behineko portzentajearen arabera ezarria, ez badator bat erabilitako behin betiko kantitatearen edo portzentajearen arabera jasanarazi beharko ziratekeen kuotan zenbatekoarekin.

Ondore horietarako, urte natural bakoitzari dagozkion lehenengo lau hilabeteetan azken kontsumitzaileek subjektu pasiboari eta kudeaketa bulegoari legeak 50. artikuluan 1. ataleko 1.10.1. eta 1.10.2. epigrafeetan zehaztutako tasa bakoitzaren araberrako gas naturalaren behin betiko ehunekoak jakinaraziko diete. Lau hilabete horien buruan subjektu pasiboari eta kudeaketa bulegoari datu berriak jakinarazten ez bazaizkie, hornitutako gas

naturalaren kopuruari buruz aplikatu behar diren ehunekoekiko aldaketarik ez dagoela ulertuko da.

Behin betiko portzentajea jakinarazitakoan egin beharko dute zuzenketa subjektu pasiboek, eta zergen gaineko egoera erregularizatuko da zuzenketa egin beharreko epealdiari dagokion autolikidazioan.

7. Gas naturala norberak kogenerazio-unitateetan kontsumitzen badu eta horiek fabrika edo zerga-gordailu bezala erregistratutako instalazioetan badaude, mutatis mutandis, artikuluko honen aurreko ataletan deskribatutako prozedura aplikagarria izango da.
8. ...
9. Norberak kontsumitzen badu eta gas naturalarekiko produktu desberdinez hornitzen badira, baina zerga tasa berdina badagokie, mutatis mutandis gas naturalerako artikuluko honen aurreko ataletan deskribatutako prozedura aplikagarria izango da.

### **108 bis artikulua. Biokarburagai eta bioerregaien zerga-tasak aplikatzea.**

1. Arautegi honetako eta hura garatzeko arautegiko jasanarazpenari, izakinen kontabilitateari, zirkulazioari eta aginduzko aitopenetan eta aitopen-likidazioetan banatuta sartzeari buruzko arauak soilik aplikatuko dira bioerregaietan, baldin eta erregai konbentzionalekin nahastuta ez badaude edo, horiekin nahastuta egonik, estatuko zerga-tasa desberdina bada produktu batzuetan eta besteentzat.

Bioerregaiak beste erregai konbentzional batzuekin nahastu ondoren eta estatuko zerga-tasa berdina bada bi produktu mota horientzat, produktua izango da zerga ondorioetarako, eta dagokion NC kodea eramango du.

2. Bioerregaia alkohol etilikoa bada, prozeduraren arabera zati batez desnaturalizaturiko alkoholtzat hartu beharko da eta prozedura naturalizatailearen arabera, biak bulego kudeatzaileak aurretik onartuak. Konposizioa aldaraziko duen transformazio kimikoa erabiltzen ez den bitartean edo erregai konbentzionalekin nahasten ez bada %95eko edo handiagoko alkohol etilikoko proportzioan, Legearen eta Araudiaren gai horri buruzko xedapenak bete beharko dira, aplikatu beharreko Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren gainekoak.
3. ...
4. Legearen 46.1. artikuluko f) eta g) hizkietan aipaturiko produktuak erregai gisa erabiltzeko direla ulertuko da erabilera horietarako produktuak fabrikatzeko edo biltzeko baimena duen establezimenduan lehen aldiz sartzan direnean. Nolanahi ere, halakotzat joko dira produktuok erregai konbentzional batekin nahasten direnean, baina nahasketa hori hidrokarburoen depositu fiskalean edo fabrian baizik ezin izango da egin.

Produktu hori lurraldeko barne eremutik establezimenduetara bidaltzen duten pertsonak edo produktuak direnean eta, aurreko paragrafoan xedatu denaren arabera, zergaren xedeko eremuan sartu behar badira establezimendu horiek, bidalketa-establezimendua dagoen barrutiko bulego kudeatzaileetan inskribatu behar dira, soil-soilik aurreko paragrafoan aipaturiko bidalketak direnean.

Bulego kudeatzaileak onetsitako ereduari lotuko zaio hiruhilekoaren parte edo gaztigu hori, eta telematika bidez aurkeztuko da hiruhilekoa amaitu ondorengo egutegiko hogege eguneko epearen barruan, bakar-bakarrik hiruhileko horretan benetan bidalketak izan badira.

Baldin eta Erkidego barruko eskuraketa bada edo Legearen 46.1. artikuluko f) eta g) hizketan aipaturiko produktuen inportazioa bada, hidrokarburoen depositu fiskalera edo fabrikara bidaltzen duen eskuratzailerak edo inportatzaileak egongo da aurreko paragrafoan aipaturiko hiruhileko parte bidaltzeko eta inskribatzeko beharrari lotuta.



Fabrika edo depositu fiskal batek produktu horiek Erkidego barruan eskuratzen edo zuzenean inportatzen duenean, ez zaio exijituko establezimendu horien titularrari aurreko paragrafoan aipaturiko hiruhileko parte bidaltzeko eta inskribatzeko beharra.

Aurreko idatz-zatian xedaturikoa ez da aplikatuko Legearen 46.1. artikuluko f) idazkian aipaturiko alkohol etilikoan, Legearen eta Araudiaren arabera Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren xedeko eremuaren barruan dagoen bitartean edo Zerga horren arauen menpe dagoen bitartean.

### **108 ter artikulua. Hidrokarburoen nahasketak egiteko baimen bereziak.**

Arrazoibide ekonomikoak direla-eta komenigarria denean eta baimena ematean kasu bakoitzean ezarritako baldintza bereziak izanik, hauxe baimendu dezake kudeaketa bulegoak: eten araubidean hidrokarburoen gaineko zergaren eremuan sartutako produktuak nahasteko zerga gordetegira edo lantegira badoaz eta bertan zergaren xede diren beste produktu batzuekin nahasten badira, aipatu produktuak garraiatzen dituen itsasontzian egin daitekeela. Gauza bera baimen dezake zergaren xede diren produktuekin lantegian edo zerga gordetegian biltegiratuak badaude. Itsasontzia zerga gordetegia edo lantegia kokaturik dagoen portuan lehorreratuta egon behar da nahitaez horretarako baimena eman ahal izateko.

Instalazioek aldi berean aduana araubide berezietarako baimena dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako eragiketek aduanaren araubidea kontuan hartuta, aduana arautegian ezartzen diren xedapenak eta baimenean finkatzen diren baldintzak errespetatu beharko dituzte.

### **108 quater artikulua. Gordailu fiskal logistikoa.**

...

## **2. ATALA ITZULKETAK**

### **109. artikulua. Erregai edo karburantea ez den beste erabilera bat.**

Legeko 52. artikuluko a) paragrafoan ezarritako itzulketaren hobaria aplikatzeko (Hidrokarburoen gaineko Zergaren 1. tarifan jasota dauden erregai edo karburanteei dagokienez, horiek erregai edo karburantetzat erabiliko ez badira, honako prozedura hau bete beharko da:

1. Hori egingo duen industri ustiapenaren titularrak kudeaketa zentroari eskatu beharko dio aplikazioa, produktuak eskuratu baino lehen. Eskabidearekin batera, industri prozesuaren azalpen memoria erantsi beharko da, eta bertan, produktuek prozesu horretan esku hartzeko modua adieraziko da, baita prozesuaren ondoriozko produktuak ere. Era beran, memoriaren barruan, zergari lotutako produktuen urteroko kontsumoen aurreikuspena ere jasoko da.
2. Kudeaketa zentroak aurkeztu den eskabidea ebatzi eta bidezkoa izanez gero, kasuan kasuko baimena emango du, gehienez jota bost urteko eperako. Memorian azaldutako industri prozesua aldatzen denean, edo bertan parte hartzen edo lortzen diren produktuak aldatuz gero, emandako baimena ez da baliozkoa izango, eta beste eskabide bat egin behar izango da, eta horri ere azalpen memoria bat erantsi beharko zaio, egin diren aldaketa guztiak adieraziz.
3. Aurreko atalean aipaturiko baimena eman ondoren, industrialariak inskripzioa egin beharko du, prozesua egingo duen establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan.
4. Hiruhileko natural bakoitza amaitu ondorengo lehenengo hogeiei egunetan, aurreko 2. atalean aipatzen den baimena duten industria-ustiapenen titularrek memorian deskribatutako prozesuan hiruhilekoan kontsumitutako produktuengatik Hidrokarburoen

gaineko Zergaren inguruan ordaindutako kuotak itzultzeko eskabidea aurkeztuko dute produktua erabili den establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean. Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak xedatutako ereduaren arabera izango den eskabide horretan aurreko 2. atalak hizpide duen baimenaren zenbakia adierazi beharko da.

5. Produktuak erabili diren establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileak aurkezturiko eskaerak izapidetuko ditu eta, bidezkoa bada, itzuli beharreko kuota ordaintzea erabakiko du. Eskatzailearen zerga helbideari dagokion bulego kudeatzaileari jakinaraziko zaio jarduketa horien emaitza.

#### **110. artikulua. Gas-olioa itsasontziei hornitzea.**

1. Legeko 52. artikuluko b) paragrafoan ezarritako zergaren itzulketa honako markatzaile hauek erantsita dituen gas-olioaren hornidurara mugatzen da (114. artikuluan azaldutakoaren arabera): Legeko 50. artikuluko 1. ataleko 1.4 epigrafean ezarritako tasa murriztua aplikatzeko eska daitezkeenak. Gainera, beharrezkoa izango da hornitzaileak zergaren jasanarazpena jasotzea, epigrafe horretarako ezarrita dagoen tasaren arabera. Hornidura lekua, bestalde, horren kokalekuari dagokion kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribaturik egon behar da.
2. Gasolioaren hornitzaileari dagokionez, tasa murriztua aplikatzeko beharrezko baldintza betetzat joko da entrega-ordainagiriaren bidez, Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroak onetsitako ereduarekin bat badator.
3. Itsasontziaren bandera elkartekoa ez bada, hornidura esportaziotzat dokumentatuko da; horri dagokionez, emate-ziurtagiria esportazioko adierazpen sinplifikatutzat hartuko da, aduanako araudian ezarritako baldintzak betetzen badira. Hala eta guztiz ere, zergaren itzulketa artikuluko honetan ezarritako prozeduraren arabera egingo da.
4. Hornidurak egin ondoren, hornitzaileak modu korrelatiboan zenbakituko ditu emate-ziurtagiriak eta hornidura adierazpenak. Zenbakiak bakarrak izango dira, egindako eragiketen araubide fiskala edo aduana araubidea edozein izanda ere.
5. Hornitzaileak honako datuak adierazi beharko ditu kontu batean: zordunketan, jasotako gasolioa eta haren zirkulazioa babestu zuen administrazioko dokumentu elektronikoaren ARC; egindako horniduren datan, hornikuntza-aitorpenak eta emandako emate-agiriak. Hornitzaileak dokumentu horien ale bat gorde beharko du ikuskaritza-zerbitzuek eskatuz gero erakutsi ahal izateko.
6. Itzulketa eskabidea, beste alde batetik, gas-olioa hornitzen duten zergadunen bitartez egingo da, nahiz eta horiek hornituriko gas-olioaren jabeak ez izan. Horretarako, hornitzaileek beharrezko informazio guztia emango diete gas-olioa hornitzen diotenei, azken horiek hurrengo atalean aipaturiko itzulketa eskabidea formalizatu ahal izateko.
7. Subjektu pasibo hornitzaileek kudeaketa-bulegoan Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroak zehazten dituen epeetan, bitarteko eta prozedura elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz, zerga itzultzea eskatuko dute.

#### **111. artikulua. Esperimentu teknologikoak.**

1. Hain kutsagarriak ez diren produktuen (hain zuzen ere baliabide berriztagarrietan oinarrituz lortutako erregaiak eta karburanteak) Garapen teknologikorako proiektu aurrendariak egingo dituzten pertsonak eskabide bat egin beharko diote kudeaketa zentroari, zentro horrek Legearen 52. artikuluko c) paragrafoan ezarritako fabrikazioaren gaineko zergen itzulketarako eskubidea onar dezan. Eskabidearekin batera, proiektu aurrendariaren azalpen memoria erantsi beharko da; bertan, proiektu horretan parte hartzen duten zerga berezietan lotutako produktuak, lortzen diren produktuak eta aurreikusitako kontsumoaren kuantifikazioa adierazi beharko da.

2. Kudeaketa zentroak eskabidea ebatzi eta bidezkoa izanez gero, itzulketarako eskubidea onartuko du, baldin eta proiektuak aurkezturiko memorian deskribaturiko proiektuaren arabera erabiltzen badira. Memorian azaldutako industri prozesua aldatzen denean, baita bertan parte hartzen edo lortzen diren produktuak aldatuz gero ere, emandako baimena ez da baliozkoa izango, eta beste eskabide bat egin beharko da, azalpen memoriarekin batera, eta bertan, egon diren aldaketak jaso beharko dira.
3. Eskabidearen jatorrizko baldintzen ondoriozko aldaketak, bestalde, kudeaketa zentroak ebatziko ditu, aurreko 2. atalean ezarritakoaren arabera.
4. Itzulketa baimena eman ondoren, industrialariak lurralde erregistroan inskribatzeko eskabidea egingo diete, itzulketa eskubidea sortzeko proiektua egiten duten establezimenduei dagozkien kudeaketa bulegoari.
5. Egutegiko hiruhileko bakoitzaren ostean datozen lehenengo hogeitau egunetan, itzulketa baimenen titularrek itzulketa eskabide bat aurkeztuko dute, zergari lotutako produktuen kontsumoa egin den establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoan; eskabide hori Ekonomia eta Ogasuneko ministroak onetsitako ereduaren arabera izango da, eta bertan Hidrokarburoen gaineko zergari lotutako produktuei dagozkien kuotak adieraziko dira (memorian azaldutako proiektuan aipaturiko hiruhilekoan kontsumituriko produktuak). Eskabide horretan, gainera, aurreko 2. atalean aipaturiko baimenaren zenbakia jasoko da.
6. Kudeaketa bulegoak aurkeztu diren eskabideak tramitatu eta, bidezkoa izanez gero, itzuli beharreko kuoten ordainketa ezarriko du.

#### **112. artikulua. Nahasitako edo kutsaturiko produktuen ondoriozko itzulketa.**

Legeko 52. artikuluko d) paragrafoan aipaturiko itzulketa eskabidea, nahigabe beste batzuekin kutsatu edo nahasi diren eta zergari lotuta dauden produktuei dagokienez, honako prozedura honen arabera aplikatuko da:

1. Produktuen jabeak itzulketaren aplikazioa eskatuko dio, kutsaturiko edo nahasitako produktuak dauden lekuari dagokion kudeaketa bulegoari, eta eskabide-idazkian hauxe jasoko da:
  - a) Eskatzailearen eta produktuak dituen establezimenduaren identifikaziorako datuak.
  - b) Itzulketa eskabidea eragin duten produktuen kantitatea, kasuan kasuko unitate fiskalean adierazita.
  - c) Nahigabe egindako nahastea edo kutsadura eragin duten egoerak.
  - d) Produktuen hornitzaileari eta horiek eskuratzeko datari buruzko datuak; kasuan kasuko zirkulazio agiriaren fotokopia erantsi beharko da.
  - e) Produktuen itzulketa jasoko duen lantegiaren edo gordailu fiskalaren identifikazio datuak; titularrak horiek jasotzeari dagokionez emandako adostasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
2. Aurreko 1. atalean aipaturiko kudeaketa bulegoak, bidezko egiaztapen guztiak egin ondoren, eskabidea ebatzi eta bidezkoa izanez gero, produktuak eskabidean adierazitako lantegira edo gordailu fiskalera itzultzeko baimena emango du. Halaber, kudeaketa bulego horrek itzuli behar den kuotaren zenbatekoa ere ezarriko du. Hori guztia, berriz, kutsaturiko edo nahasitako produktuak jasotzen dituen establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoari jakinarazi beharko zaio.
3. Produktuak jaso dituen lantegiko edo gordailu fiskaleko titularra den baimendutako gordailuzainak, bestalde, produktuok izakinen kontabilitatean sartuko ditu, eta idazpena, berriz, itzulketa baimendu duen kudeaketa bulegoaren erabakiaren bitartez justifikatuko du.

Gordailuzain horrek, kasuan kasuko zerga aldiari dagokion kuotatik, itzuli beharreko kuotaren zenbatekoa murriztu ahal izango du.

4. Baimendutako gordailuzainak, itzulketaren eskatzaileari, horren zenbatekoa ordainduko dio.

#### **112 bis artikulua. Jomuga Europar Batasuneko lurralde-eremua izanik, barneko lurralde-eremutik kanpo bidaltzen den gas naturala erostean jasandako zerga itzultzea.**

1. 6. artikulua xedatutakoa alde batera utzi gabe, gas naturala erostean barneko lurralde-eremuan zerga jasan duten enpresaburuek, hori beste Estatu kide batera bidaltzen bada, barneko lurralde-eremuan ordaindu dituzten kuotak itzultzea eska dezakete, betiere ordaindu dela egiaztatzen bada.
2. Horretarako, entrega izan den establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean itzulera-eskaera aurkeztuko da. Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak onartzen duen eredia erabiliko da. Bertan hiruhileko bakoitzean erkidegotik kanpoko lurralde-eremuan izan diren entregak azalduko dira, horiengatik zerga ordaindu bada.
3. Eskaera hiruhileko naturala amaitu eta hurrengo hilabeteko lehenengo hogeiei egunetan aurkeztuko da. Eragiketa bakoitzeko ondorengoak idatziko dira:
  - a) Entregatzeko bidalketaren irteera-data.
  - b) Jomugako Estatu kidea.
  - c) Hartzailearen izena, abizenak edo sozietatearen izena eta helbidea, baita BEZrako identifikazio fiskaleko zenbakia ere.
  - d) Itzultzea eskatzen den produktu entregatuaren kopurua.
  - e) Hartzaileak hartutako data.
  - f) Jomugako Estatu kidean zerga ordaindu izanaren edo ordainketa-bermearen data eta erreferentzia.
  - g) Barneko lurralde-eremuan zergaren ordainketaren data eta erreferentzia.
  - h) Eskatzen den itzulerari dagokion zenbatekoa.
4. Zerga zergaren kuotak jasan dituenari itzuliko zaio. Hala eta guztiz ere, zerga jasan duen enpresaburua gas naturala barneko lurralde-eremutik kanpo bidaltzen duenarekin bat ez datorrenean, azkenekoari itzul dakioke, betiere eskatzaileak hala adierazten badu.
5. Ustezko honetan, hidrokarburoen gaineko zergarengatik ordaindu diren kuotak itzultzeko prozedurak ebazteko, gehienez sei hilabete izango ditu, eskaera bulego kudeatzailean aurkezten den datatik zenbatzen hasita.

### **3. ATALA HIDROKARBUROEN FABRIKAZIOA**

#### **113. artikulua. Hidrokarburoak ekoizten dituzten establezimenduak.**

Hidrokarburoak ekoizten dituzten establezimenduetan, produktuak eramateen edo hodian bitartez bidaltzen nahiz jasotzen badira, sarrerako edo irteerako ponpaketa lekuetan modu ofizialean kontrastaturiko neurketa elementuak edo sistemak instalatu beharko dira; horiek, berriz, plantaren sistema informatikoari konektatu beharko zaizkio, plantak halako sistema edukiz gero (produktuen mugimendua kontrolatzeko).

#### **114. artikulua. Markatzaileen gehikuntza.**

1. Araudi honetako 106, 107 eta 108. artikuluetan eta artikulua honetan adierazitakoaren ondoretarako markatzailetzat Ekonomia eta Ogasuneko ministroak gas-olioari eta kerosenoari gehitzeko onetsi dituen markatzaileak edo trazatzaileak hartuko dira, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.
2. Hurrengo 3 eta 4. ataletan ezarritakoaren kalterik gabe (Elkarte barruko zirkulazio eta inportazio kasuei buruzko artikulua), markatzaileen gehikuntza lantegietan eta gordailu fiskaletan egingo da, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera:
  - a) Lantegitik edo gordailu fiskaletik zerga tasa murriztuta edo Legeko 51. artikuluko 2. atalean ezarritako salbuespenak aplikatuta ateratzen den gas-olioari, bertatik irten baino lehen, markatzaileak erantsi beharko zaizkio ezarritako proportzioetan eta baldintzetan.
  - b) Lantegitik edo gordailu fiskaletik zerga tasa murriztuan aplikatuta ateratzen den kerosenoari, bertatik irten baino lehen, markatzaileak gehitu beharko zaizkio, ezarritako proportzioetan eta baldintzetan.
  - c) Markatzaileak gehitzeko eragiketak nahiko aurrez aldetik jakinarazi beharko zaizkie kontu-hartze zerbitzuei; horrela, bidezko baderitzote, eragiketa horiek nola egiten diren ikusi eta euren garapena nahiz amaiera egiaztatu ahal izango dute. Hala eta guztiz ere, lantegietan eta gordailu fiskaletan eragiketen kontrola bermatzen duten markatzeko sistema automatikoak daudenean (kudeaketa zentroak onetsitako sistemak), zentro horrek baimena eman dezake aurretiazko jakinarazpen hori egin beharrik ez edukitzeko.
3. Elkartean barruko zirkulazio batzuetan, barruko lurralde eremura doazen gas-olio edo keroseno bidalketa guztiek (eremu horretan zergaren tasa murriztuaren aplikazioa lortzeko edo, gas-olioaren kasuan, aurreko 2. atalean aipaturiko salbuespenak lortzeko) markatzaileak gehitu beharko dituzte, jatorrizko Estatu kideak, jasotzailea lantegi edo gordailu fiskal bat denean izan ezik, halakoetan berorrek gehitu ahal izango baitu aurreko 2. atalean ezarritako baldintzetan.

Hala eta guztiz ere, kudeaketa bulegoak jatorrian markatzeko baldintza ez betetzeko baimena eman dezake, gainera, beharrezko berme guztiak beteta, markatzaileak zergaren sortzapena gertatzen den unean gehitzeko baimena ere eman ahal izango du.

4. Araubide etengarrian egiten ez diren inportazioetan, markatzaileak sortzapena sortu baino lehen gehitu beharko zaizkio gas-olioari eta kerosenoari; gainera, tasa murriztua edo, gas-olioa denean, aurreko 2. atalean aipaturiko salbuespenak aplikatuko dira. Inportazioko aduanak laginak ateratzeko agindua emango du, kasuan kasuko azterketa egin ahal izateko.
5. Gas-olioaren eta kerosenoaren zirkulazioa babesteko eman behar den zirkulazio agirian, produktu horiek markatzaileak dituztela adierazi beharko da, halakorik edukiz gero.

#### **115. artikulua. Arauzko kontabilitatea.**

1. Hidrokarburoak sortzen dituzten establezimenduek honako liburu hauek erabiliko dituzte, eguneroko eragiketarako erregistratzeko:
  - a) Lehengaien liburua. Horren karguan, produktu bakoitzaren mota eta ezaugarriak kontuan hartuz, lantegian jasotako lehengai bakoitzaren kantitatea adieraziko da (pisuan edo bolumenean), dentsitatea adieraziz; horren idazpenak justifikatzeko, zirkulazioko edo, bidezkoa izanez gero, barne araubideko agiria erabiliko da.

Dataren barruan, beste alde batetik, fabrikazio prozesura egunero igarotzen diren lehengaien kantitatea adieraziko da, karguari dagokionez adierazitako ezaugarriekin;

halaber, itzulketen edo berriro egindako bidalketen gutxipenak ere adieraziko dira, baldin eta horiek kasuan kasuko idazpenak justifikatuz (agirien bitartez) egiten badira.

Liburu honen osagarritzat, beste liburu laguntzaile batzuk ere erabiliko dira, eta horietan lehengaien gordailu desberdinen arteko barne mugimendua adieraziko da.

- b) Azken produktuena. Karguaren barruan, produktu bakoitzaren mota eta ezaugarriak kontuan hartuz, irteerako gordailuetara edo biltegi-tara igarotzen diren produktuen kantitatea (pisuan edo bolumenean) adieraziko da, horien dentsitatea adieraziz; produktuok ez dute behar euren ezaugarri fisiko-kimikoak aldatzen dituen ondorengo tratamendurik.

Helmugarako irteera produkzio prozesutik bertatik (irteerako biltegitik igaro gabe) egiten denean ere karguko idazpena egingo da.

Dataren barruan, beste alde batetik, establezimendutik irteten diren produktuen kantitatea jasoko da, produktuok helburuaren arabeko taldeetan banatuta, euren zerga tratamendua kontuan hartuz. Era berean, beste tratamendu bat behar duten produktuen partidak ere dataren barruan sartuko dira (produktuok aldaketaren bat izan dute pilatzeko orduan edo ezusteko beste arrazoiren bat egon da, eta kontu-hartzailea jakinaren gainean jarri beharko da); kasuan kasuko idazpenean, aditzera eman beharko da produktuok prozesuko zein unitate-tara bideratuko diren. Datako idazpenak justifikatzeko, zirkulazio agiria edo, halakorik egonez gero, barne araubideko agiria erabiliko da.

Jatorrian amaitutako produkturen bat tratamendu fiskal desberdina duen beste produkturen bati gainjartzen zaionean (markatzaileak gaituz), jatorrizko produktuaren kontua datatuko da eta, aldi berean, ondoriozko produktu berriaren kontua kargatu egingo da.

Liburu horren osagarritzat, beste liburu laguntzaile batzuk ere edukiko dira, eta horietan, azken produktuen gordailu desberdinen arteko barne mugimendua adieraziko da.

- c) Establezimenduan bertan kontsumituriko produktuena. Fabrikazio atal edo unitate desberdinek, eguneroko parteetan, establezimenduan bertan kontsumitzen diren produktuen kantitateak adieraziko dituzte. Establezimenduan bertan kontsumituriko kantitateak bereiz adieraziko dira, euren tratamendu fiskalaren arabera. Tratamendu fiskal desberdina duen helburu bakoitzari aplikatzen zaizkion kantitateak zehaztu ezin badira, interesatuek proposamen bat aurkeztuko dute, koefizienteak ezartzeko, eta proposamen hori kudeaketa zentroak ebatziko du, kasuan kasuko kontu-hartzailearen txostena aztertu ondoren.

Eguneroko parte horiek laburbildu egingo dira, hileroko estraktuak sortzeko; gainera, fabrikazio prozesuari aplikaturiko autokontsumo energetikoak (produktu bakoitzari dagokionez) termiatan baloratuko dira.

2. Aurreko atalean aipaturiko liburuak ez ezik, petrolio birfindegietan eta produktuak distilatzeko nahiz tratatzeko modu jarraituan edo etenean elikatzen diren prozesu-unitateak dituzten industri establezimenduetan, beharrezko fabrikazio erregistroak edota parteak egingo dira, horietan (gehienez jota hilabetean behin) fabrikazio prozesuetan lorturiko bitarteko produktuen mugimendua adierazteko.
3. Zerga Administrazioako zerbitzuek beharrezko laguntza eskainiko dute, kasu bakoitzerako kontabilitate sistematik egokiena ezartzeko, zergaren kudeaketa ahalbidetzeko nahiz errazteko, jarduera bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz.

## **116. artikulua. Produkzio, biltegitratze eta garraio prozesuetan onargarriak diren galeren portzentajeak.**

1. Legeko 6. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako galeren arauzko portzentajeak artikuluko horretan ezarritakoak izango dira. Hurrengo 2. eta 3. ataletan adierazitako galeren portzentajeen taulen aplikazioa, bestalde, Araudi honetako 1. artikuluko 10. nahiz 12. ataletan eta 15., 16. zein 17. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da, galeren portzentajea termikoetarako neurketa unitatetzat kilokaloria hartuta.

Hala eta guztiz ere, Araudi honetako 16. artikuluan eta 1. artikuluko 12. atalean ezarritakoarekiko salbuespenez, hidrokarburoen gordailu fiskal modura baimenduta dauden olio-bideetatik dabiltzan produktuak direnean, galera onargarriak, kontzeptu guztiengatik, sei hilean - sei hilean sare horretara sartutako produktuen bolumenaren gaineko portzentaje batean finkatuko dira. Olio-bideen sarea hidrokarburoen gordailu fiskal modura baimenduta ez badago, edo zirkulazioa hodi finkoetatik badoa, galerak likidazio epe batena establezimendu igortzailetik abiatzen diren produktuen kantitateen arteko diferentziak: likidazioaldi batean bidalketa egin duen establezimendutik zirkulatu duten produktuen kantitateen batuketaren eta aldi horretan establezimendu jasotzaileak hartzen dituen produktuen kantitateen batuketaren arteko diferentziak, alegia; araubide berbera aplikatuko da hidrokarburoak errepide garraioaz bestelako bide batzuetatik doazenean ere.

2. Galeren arauzko portzentajeen taula:
  - a) Distilazio atmosferikoa; eragiketa laguntzaileen artean, egonkortzea, likidotzeko moduko gasen banaketa eta abar hartuko dira (ura eta sedimentuak aintzat hartu barik): 0,7
  - b) Murrizturiko gordinaren distilazioa, hutsean egindakoa: 0,3
  - c) Naften fintzea, merox prozesuaren bitartez: 0,1
  - d) Hidrocracking deritzona: 1,0
  - e) Biskositatea murriztuta egindako cracking-a: 0,9
  - f) Cracking katalitikoa (FCC), kokea ere barne: 7,0
  - g) Berritze katalitikoa (Platforming, Powerforming, Ultraforming, etab.): 0,5
  - h) Gasolinen, gas-olioen eta kerosenoaren hidrosulfurazioa: 1,0
  - i) Alkilazioa: 0,5
  - j) Isomerizazioa: 0,5
  - k) Hidrokarbuero aromatikoak lortzea, pirolisiko gasolinetan edo berrikuntzako gasolinetan oinarrituz: 1,0
  - l) Oinarrizko olioak lortzea, lubrifikatzaileentzat, olio astunetan oinarrituz: 0,8
  - m) Produktu hegazkorren nahastea, disolbagarriak lortzeko: 0,2
  - n) Naftaren cracking-a, olefinak lortzeko: 3,0
  - ñ) Zergaren 1. tarifaren hurrengo epigrafe hauetan aurreikusitako tasetan zergak ordainduko lituzketen produktuen biltegitratzeak, hiru hilabeteko batez besteko izakinen gainean:

1.1, 1.2.1, 1.2.2 eta 1.13 epigrafeak: 0,95.

1.11 eta 1.12 epigrafeak: 0,55.

1.3, 1.4, 1.5, 1.14, 1.15, 1.16 eta 1.17 epigrafeak: 0,35.

1.6, 1.8, 1.9, 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeak: 2,05.

- o) Produktu jakinen karga, garraioa eta deskarga; horien zerga-ordainketa, berriz, Zergaren 1. tarifako epigrafe hauetan ezarritako tasetan gertatuko da:

1.1, 1.2.1, 1.2.2 eta 1.13 epigrafea: 1,0.

1.11 eta 1.12 epigrafeak: 0,6.

1.3, 1.4, 1.5, 1.14, 1.15, 1.16 eta 1.17 epigrafeak: 0,4.

1.6, 1.8, 1.9, 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeak: 2,1.

- p) Olio-bideen sarea, hidrokarburoen gordailu fiskal modura baimendutakoa, sei hilean sartutako bolumenaren gainean: 0,035

- q) Gas naturalaren gordailu fiskal modura baimendutako gasbideen sarea: Gas sistemaren kudeaketa teknikoaren araudian ezarritako gutxitzeen portzentajeak

- r) Berunik gabeko gasolinak aditibatzera zuzendutako ETBERen ekoizpenean: bioetanolaren galeraren ehunekoa ekoizpenean jarritako bioetanolaren 100eko 0,5arena da.

3. Galeren arauzko portzentaje termikoen taula: naftak ur lurrunarekin berritzean, hiriko gasa lortzeko:

a) Prozesu ziklikoetan: 12.

b) Prozesu jarraituetan: 7.

4. Prozesu batean isolaturiko produktu bat edo gehiago lortzen badira (eraldaketa kimiko baten bitartez), bihurtze koefizientea horren arauko koefizientea baino txikiagoa izanez gero, bi horien arteko diferentzia justifikatu edo frogatu egin beharko da, Administrazioari azalpenak emanez. Horri dagokionez, diferentzia horrek galeren arauen portzentajea behetik gainditzen duten diferentzien tratamendu berbera izango du.

5. Aurreko atalean ezarritakoaren ondoretarako:

a) Bihurtzearen arauzko koefizientea beste produktu edo lehengai baten kilogramo batetik lortu beharreko kantitate txikiena da, azken produktuaren kilogramotan adierazita, eta, lortu ere, hurrengo 6. atalean adierazitako taularen arabera lortu beharko da.

b) Bihurtzearen benetako koefizientea, bestalde, prozesu jakinean beste produktu edo lehengai baten kilogramo batetik benetan lortzen den kantitatea da, azken produktuaren kilogramoetan adierazita.

6. Bihurtzearen arauzko koefizienteen taula:

a) Ziklohexanoa ekoiztea, bentzenoaren hidrogenazioaren bidez: 1,07.

b) Bentzenoa ekoiztea, desalkilazioaren bidez:

Bentzenoz, toluenoz eta xilenoz osatutako nahasturatik (BTX): 0,65.

Bentzenodun kontzentratu batetik: 0,76.



- c) Hidrogenoa lortzea, hidrokarburoen erreformaren bidez:
    - Petrolioaren gas likidotuetatik (GLP): 0,388.
    - Goi mailako hidrokarburoetatik: 0,363.
    - Gas naturaletik: 0,306.
    - Nafta arinetik: 0,317.
  - d) Sintesiko gasa lortzea (SG), hidrokarburoetatik:
    - Petrolioaren gas likidotuetatik (PGL): 1,59.
    - Goi mailako hidrokarburoetatik: 1,80.
  - e) Metanola lortzea hidrokarburoetatik, sintesiko gasa erabiliz: :
    - Petrolioaren gas likidotuetatik (PGL): 1,51.
    - Goi mailako hidrokarburoetatik: 1,71.
  - f) Anhídrido ftalikoa lortzea oxilenotik: 1,02.
  - g) Anhídrido maleikoa lortzea bentzenotik: 0,80.
  - h) Azido fumarikoa lortzea bentzenotik, anhídrido maleikoaren bidez: 0,91.
  - i) Fenola lortzea bentzenotik:
    - Sulfonazioaren bidez: 1,00.
    - Klorazioaren bidez: 0,96.
    - Kumenoaren bidez: 1,10.
  - j) Estirenoa lortzea bentzenotik: 1,16.
7. Fabriketan eta depositu fiskaletan lurrundu eta berreskuraturiko gasolinen ziozko kontabilitate-zuzenketa. Lurrun egokiak berreskuratzeko instalazioak dauden fabriken eta depositu fiskalen titularrek, kontabilitate-zuzenketa gisa, kargu-idazpen bat egingo ahal izango dute azken produktuen liburuan. Hauxe bilduko da bertan: aipaturiko epealdian fabrikatik edo zerga depositutik irten den berunik gabeko gasolinaren, bioetanolaren eta biometanolaren guztizko bolumenaren %0,16, betiere zergaren sortzapenarekin eta salbuespenik aplikatu gabe. Korrelazioz, kargu-idazpena egin zaien produktuen bolumenari dagozkion kuoten zenbateko berdinean sorturiko kuoten gaineko kenkaria egin dezakete. Zergaren 1. tarifako 1.2.1, 1.2.2 eta 1.13. epigrafeetan ezarritako tasak aplikatuz zehaztuko da zenbateko hori, tasa bakoitzean ordaindutako bolumenaren zatiari dagokion proportzioan.

#### **4. ATALA**

#### **KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK**

##### **116 bis artikulua. Tarifaren barruko produktuak.**

1. Definizioak: Artikulu honen ondoreetarako definizioak:
  - a) “2. tarifako produktuak”.-

Legeko 50. artikuluko 2. tarifan aipaturiko produktuak.

- b) "Produktu ahulak".-

Legeko 49. artikuluko 1. ataleko definizioan barruko 2. tarifako produktuak.

- c) "Ahulak ez diren produktuak".-

Legeko 49. artikuluko 1. ataleko definizioetan sartuta ez dauden bigarren tarifako produktuak.

2. Bigarren tarifako produktu guztiei eta gas naturalari aplikatzeko moduko arauak

- a) Legeko 53. artikuluko 5. ataleko a) paragrafoan aipaturiko kasuetan, lortzen diren 2. tarifako produktuak Legeko 51. artikuluko 1. atalean ezarritako salbuespena izango dute, baldin eta erregaitzat edo karburantetzat erabiltzen ez badira. Kasu horietan, lorturiko produktuak ahulak direnean, artikuluko 4. atalean ezarritako arauak aplikatuko dira eta horiek lortzen dituen establezimendua biltegi fiskaltzat inskribatu beharko da lurralde erregistroan
- b) Legeko 53. artikuluko 5.b) atalean ezarritakoaren arabera gas naturala edo 2. tarifako produktuak (Legeko 51. artikuluko 1. atalean ezarritako salbuespena aplikaturik dutenak) erregaitzat edo karburantetzat erabiltzen direnean, horretarako erabiltzen edo merkaturatzen dituztenek idazki bat aurkeztu beharko dute kudeaketa bulegoan, eta hogeit eguneko epea izango dute horretarako, aipaturiko erabilera egin denetik zenbatzen hasita, eta idazkian horren berri eman beharko dute. Idazkiarekin batera, egindako auto-likidazioaren kopia ere aurkeztu beharko dute, eta horren barruan, horretarako erabili diren produktuen kuotak jasoko dira.

3. Ahulak ez diren produktuei eta gas naturalari aplikatzeko moduko arauak:

- a) Lortzen diren lantegitik irteten direnean edo inportatzen badira, gas naturalaren edo ahulak ez diren produktuen zirkulazioa, edukitzea eta erabilera ez da formazko baldintzen menpe egongo, Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez. Lerroalde honetan xedatutakoa, gas naturalari dagokiola ulertzen da, arategi honetatik auto-likidatzeko eta zerga eskagarria denean zorrarengatik diren kuotak ordaintzeko betebeharrari lotutako arauak aplika daitezzen kalterik gabe.
- b) Inportazio kasuetan, erregaitzat edo karburantetzat erabiliko ez badira, hori aduanan aitortu beharko da, 51. artikuluko 1. ataleko salbuespena aplikatzeko
- c) Gas naturalaren edo ahulak ez diren produktuen unean uneko egoera fiskala (arabide etengarria edo sorturiko zerga, salbuespenen aplikazioarekin edo halakorik gabe), bestalde, Zuzenbidean onargarriak diren frogabideen bitartez egiaztatuko da, batik bat kasuan kasuko produktuei buruzko merkataritzako informazioaren eta bilduta dauden edo bidalketa egiten duen, eta nora bideratuak joango diren establezimenduaren egoera fiskalaren bitartez.

4. Produktu ahulei aplikatu beharreko arauak:

- a) Oro har, Araudi honetako I. tituluko I. eta VII. kapituluetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei lotutako produktuei.
- b) Legeko 51. artikuluko 1. atalean ezarritako salbuespena aplikaturik duten produktu ahulak direnean, aurreko a) atalean aipaturiko arauak aplikatzeko, honako hau hartu beharko da aintzat:
- 1.a. Handizkako mugimenduak egin eta lantegiak edo gordailu fiskalak ez diren instalazioak biltegi fiskaltzat hartuko dira eta lurralde erregistroan inskribaturik egon beharko dute. Manu horren eta Legeko 49. artikuluko 1. ataleko c) eta e)

paragrafoetan ezarritakoaren ondoretarako, handizkako merkataritza mugimendutzat hartuko dira, jasotzailea edonor izanik ere ontzitzat zisterna, tankea edo antzeko ontzia baino erabiltzen ez dutenak, ontzi hori hornidura egiten duen garraio bidean integraturik dagoenean.

- 2.a. Xehekariak eta kontsumitzaileak ez dute lurralde erregistroan zertan inskribaturik egon, baina jasotako eta erabilitako produktuen jatorria eta norakoa agirien bidez justifikatu beharko dute. Hain zuzen ere, jatorria justifikatzeko, jasotako produktuen bidalketak babestu dituzten zirkulazio agiriak erabiliko
  - 3.a. Zirkulazioa babesteko, zirkulazioko albarana erabiliko da. Hala eta guztiz ere, produktu horiek txikizkako salmentarako egokiturik daudenean (gehienez jota 5 litroko edukierako ontzietan), biltegi fiskalen, xehekariak eta kontsumitzaileen arteko zirkulaziorako ez da zirkulazioko agiririk beharko.
  - 4.a. Lantegien, gordailu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrek produktuen jasotzaileen zerrenda bidali beharko dute, urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoan, establezimenduari dagokion kudeaketa bulegora, baldin eta jasotzaile horiek Legeko 51. artikuluko 1. atalean jasotako salbuespena aplikaturik duten produktu ahulak bidali badizkiete (gehienez jota 50.000 litroko kantitatean). Zerrenda horretan, produktuen arabera, jasotzaile bakoitzari bidalitako kantitatea adieraziko da.
- c) Atal honetako a) eta b) paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Ekonomia eta Ogasuneko ministroak baldintza formal guztiak edo batzuek ez betetzeko baimena eman dezake (produktu ahul guztien zirkulazioan, edukitzean eta erabileran eska daitezkeen baldintzak), baldin eta errazte edo salbuespen hori egiteko Elkarteko araudian ezarrita dagoena betetzen bada, Elkarre barruko baldintza formalei eta kontrolei dagokienez.

#### **117. artikulua. Fabrikazio txikiak aitortzea.**

1. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziki loturiko produktuak lortzen dituzten enpresariak, produktuak industri prozesuen ondoriozko emaitza izan eta euren balioa produkzio osoaren balioaren 1.000ko 1 baino txikiagoa denean, baldin eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren ondorioz produktuoi 600 euroko edo hortik beherako kuota badagokie, produktuak lortzeko erabiltzen duten establezimendua ez dute lantegitzat inskribatu beharrik izango, lurralde erregistroan.
2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, enpresari horiek zergapeturiko produktuen lorpen eta bidalketa horien berri eman beharko diote kudeaketa bulegoari; gainera, loturiko edo bidalitako produktuen kuoten autolikidazioa egin beharko dute, Ekonomia eta Ogasun ministroak ezarritako moduan, epeetan eta inprimaketan.

### **5. ATALA ERABILTZeko DEBEKUAK**

#### **118. artikulua. Erabiltzeko debekuak.**

Legearen 54. artikuluan 2. atalean xedatutakoaren ondorioetarako, "nekazaritzan, baita baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintzan ere, erabilitako traktore eta nekazaritzako makinak motortzat" Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II. Eranskinaren definizioek aipatzen dituzten eta adierazitako jardueretan erabiltzen diren nekazaritzako traktore, motokultore, gurdi traktore, bere indarrez dabilen nekazaritzako makineria eta eramaileen motorrak hartuko dira. Ondorio hauetarako nekazaritzako, baita baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza ere, berezko jardueratzat ez da hartuko besteren kontura egindako garraioa, baita traktore edo atoiak dituzten nekazaritzako makinak bidez egindakoa ere.

### **119. artikulua. Zehapen bereziak graduatzeko irizpideak.**

...

### **120. artikulua. Administrazioko organo eskudunak.**

1. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailaren mendeko zerbitzuei dagokie Legearen 55. artikuluan tipifikatutako arau-haustek antzematera bideratutako zerbitzuak eta jarduerak euren lurralde-eremuan zuzentzea, koordinatzea eta garatzea. Zerbitzu eta jarduera horiek Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteek ere egin ahal izango dituzte.
2. Aipatutako zerbitzu eta jarduketara horien praktikan, agente horiek Zergei buruzko Lege Orokorren 142. eta hurrengo artikuluetan ezarritako ahalmenak edukiko dituzte, baita uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan ezarritakoak ere. Halaber, edozein ibilgailu edo itsasontzi geldiarazi eta ikuskatzeko ahalmena ere edukiko dute, baita bere gordailu, karburatzaile eta eroanbideetan jasotako erregai eta karburagaien laginak hartzeko ere.
3. Zehapenak ezartzea arau-haustea antzematen den lurraldean eskumena duen bulego kudeatzailearen buruarena izango da, arrazoitutako ebazpenaren bidez eta espediente egokia izapidetu ondoren. Espediente honetan inputatu bakoitzari entzunaldia emango zaio.
4. Arau-haustek behin eta berriz egiten dituztela sumatzeko xedez, zentro kudeatzailean Legearen 55. artikulua aipatzen dituen arau-haustek egiteagatik zigortutako pertsonen erregistro berezia eramango dute.

### **121. artikulua. Arau-hausteko espedienteak.**

Zehatzeko prozeduraren instrukzioan Zergei buruzko Legearen 209. eta hurrengo artikuluetan eta garatzeko arauak arauetan, zergen zehatzeko erregimenaren Araudi Orokorrean eta uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan jasotako arauak aplikagarriak izango dira eta, gainera, baita hurrengo atal hauetan xedatutakoa ere:

1. Legearen 55. artikulua aipatutako erantzukizunak zehaztu eta zehapenak ezartzeko espedienteari hasiera ematea beti ofizioz egingo du aurreko 120. artikulua 3. atalak aipatzen duen bulego kudeatzailearen buruak, bere ekimenez edo goragoko agindu bat edo beste organo batzuen arrazoitutako eskabidea betez.
2. Arau-hauste bat egin dutela deskubritzen duten Segurtasuneko Indar eta Gorputzetako agenteek honen berri jasoko dute, hurrengo hau zehaztuta:
  - a) Jarduteko tokia eta eguna.
  - b) Matrikula eta ibilgailua edo itsasontzia identifikatzeko bestelako datuak, motorren potentzia, zaldi fiskaletan, adierazita.
  - c) Ibilgailuaren gidariaren edo itsasontziko patroiararen, baita jabearen ere, izen-abizenak, helbidea, IFZ eta nortasun agiri nazionala edo pasaportearen, identifikatzeko kodea adierazita titularitate pertsona juridiko batena izango balitz.
  - d) Erabilitako karburagai edo erregaiaren klase eta ezaugarria jasotzea, bere kolorazioa eta, egonez gero, erreaktibo kimikoaz egindako saiakuntzaren emaitza adierazita.
  - e) Behar bezala benetakotutako laginak hartzearen eginbidea, interesdunak bere desadostasuna agertzen badu eginbidean aipatutako produktuaren klase eta ezaugarrien gainean.
  - f) Interesdunak egindako azkeneko horniduraren egun, toki eta hornitzaileari buruz egindako adierazpena, egiaztagiriaren datuak aipatuta horrela justifikatuz gero.

- g) Gertaerak kalifikatu eta baloratzeko beste edozein gorabehera.
- h) Agente jardularien eta ibilgailuaren gidari edo erabiltzailearen edo itsasontziko patroiarren sinadura. Hauek egokitzat jotzen duten guztia adierazi ahal izango dute eginbidean aipatutako gertaeren gainean.

Arau-haustea egin dela deskubritzen dutenak Zerga Administrazioaren funtzionarioak izanez gero, hauek eginbidea luzatuko duten. Bertan, gutxienez ere, aurretik adierazitako datuak jasota egongo dira.

Aurreko datuak biltzeko erabilitako dokumentua, atera dituzten laginekin batera, egun berean, edo gertukoenean hori posible izango ez balitz, zehatzeko prozedura hasteko eskuduna den bulego kudeatzailearen Buruari igorriko zaio.

- 3. Aurreko dokumentazioa jasota, bulego kudeatzailearen buruak espediente egokia hastea xedatuko du, horretarako beraren instrukziogilea izendatuta.

Zehatzeko prozedura hasteko erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, entzunaldiko izapidea baino lehenago, alegazioak aurkeztu eta egokitzat jotzen dituzten dokumentuak, justifikazioak eta probak eman ditzaten.

Instrukziogileak egokitzat jotzen dituen txostenak eta jarduketak eskuratu ahal izango ditu. Halaber, ateratako laginetako bat Aduana eta Zerga Berezien Laborategietako bati igorriko dio bertan aztertzeko, eta gainerakoak bere zaintzapean geldituko dira.

- 4. Ebazpena jakinarazi behar den gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eta epe hau erabakia jakinarazteko egunetik aurrera zenbatuko da. Ebazteko gehieneko epeak zenbatzeko, berriz, Zergei buruzko Lege Orokorraren 104. artikuluan eta uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren 102-104 bitarteko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuko da, justifikatutako etenaldiekin eta Administrazioari egotzi ezin zaizkion atzerapenekin lotuta. Zehazki, lagunak Aduanen Laborategira igortzeko egunetik irizpena jaso arte igarotako aldia justifikatutako etenalditzat hartuko da.
- 5. ...
- 6. Jarduketak eta alegazioen epea bukatuta, ebazteko proposamena egingo da. Hau zehatzeko prozeduran interesdun direnen jakinaraziko zaie, eta adieraziko zaie espedientea utzi dela, bai eta komenigarritzat jotako guztia alegatzeko aukera dagoela ere, eta egokitzat jotzen dituzten dokumentuak, frogagiriak eta frogak aurkez ditzaten.
- 7. Zehatzeko prozeduraren instrukziogileak egindako proposamena eta espedientean jasota dauden dokumentuak, frogak eta alegazioak ikusita, bulego kudeatzailearen buruak zehatzeko prozeduraren ebazpen arrazoitua emango du.
- 8. ...
- 9. Bulego kudeatzailearen buruak hartzen duen erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztu ahal izango da ekonomia-administrazio bidean, legez aurreikusitako terminoetan.

## **VIII. KAPITULUA TABAKO MOTEN GAINEKO ZERGA**

### **1. ATALA LOTU GABEKO KASUAK, SALBUESPENAK ETA ITZULKETAK**

#### **122. artikulua. Tabakoaren suntsipena eta desnaturalizatzea.**

1. Tabakoaren suntsipenari eta desnaturalizatzeari dagokionez, Legeko 57. artikuluan eta 61. artikuluko 1. atalean ezarritakoak ondoreak edukitzeko, eskabidea egingo zaie lantegien edo gordailu fiskalen bulegoei.
2. Eskabidean suntsipenaren edo desnaturalizatzearen arrazoiak jasoko dira, baita suntsitu edo desnaturalizatu nahi diren lan motak zein kantitateak ere, eta eragiketa horietarako proposatzen den prozedura ere bai. Desnaturalizatzeak direnean, erabili beharreko desnaturalizagarria eta desnaturalizaturiko lanak zein industri edo nekazaritza helburutan erabili nahi diren adierazi beharko da.
3. Kudeaketa bulegoak, bidezkoa izanez gero, suntsipena edo desnaturalizatzea egiteko baimena emango du; gainera, eskatzaileari eta eskuhartze zerbitzuei jakinaraziko die, azken horrek eragiketak ikus ditzan eta kasuan kasuko eginbideak bideratu daitezten, arauzko kontabilitatean bidezko idazpenak justifikatu ahal izateko.
4. Kudeaketa bulegoek tabako motak suntsitzeko edo desnaturalizatzeko baimena eman dezakete, instalazio horietatik kanpo fabrikak edo gordailu fiskalak egonez gero, baldin eta horien barruan egin ezin izateko arrazoiak badaude, eta horrek guztiak aurreko 1. atalean ezarritako ondoreak izango ditu. Halako kasuetan, suntsipena edo desnaturalizatzea kontu-hartze zerbitzuen kontrolpean egingo da.
5. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da bete beharrekoa izango, suntsitu edo desnaturalizatu nahi diren kantitateak eta lantegiko edo gordailu fiskaleko galerak galeren arauzko portzentajeak baino handiagoak ez direnean.

#### **123. artikulua. Zientzi edo kalitate azterketak.**

1. Legeko 61. artikuluko 1. ataleko b) paragrafoan ezarritako salbuespena lantegiko edo gordailu fiskaleko kontu-hartze zerbitzuari eskatuko zaio; eskabidean aditzera emango da azterketak zein zentrotan egingo diren, horiek zer ezaugarri duten eta azterketa egiteko zer lan mota nahiz kantitate bidali behar den.
2. Establezimenduko kontu-hartzaileak, bidezkoa izanez gero, baimena emango du, beharrezko lan guztiak bidaltzeko, eta horiek, berriz, emandako baimenean aipaturiko zirkulazio albaranaren babesean zirkulatuko dute.
3. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da bete beharrekoa izango, azterketarako behar diren kantitateak eta lantegiko edo gordailu fiskaleko galerak galeren arauzko portzentajeak baino handiagoak ez direnean.

#### **123 bis artikulua. Salbuespena zergarik gabeko dendetarako.**

Legearen 61. artikulua 3. atalak aipatzen duen salbuespenaren aplikazioa hurrengo arau hauekin bat etorriz egingo da:

1. Zergarik gabeko dendek, dagozkien bulego kudeatzaileen lurraldeko erregistroetan Araudi honen 11. 2. 10. 2' artikuluan aurreikusitako gordailu fiskal gisa inskribatuta egon beharko direnek, tabakoko lanak eskuratzen dituztenei garraioaren titulua, aire edo itsasoko bidez egin beharrekoa, erakusteko eskatuko diete. Bertan azken xedetzat hirugarren herri batean edo hirugarren lurralde batean kokaturiko aireportu edo portu bat ageriko da.

2. Aipatutako denda horiek salbuespena aplikatu dieten tabakoko lanen salmenten frogagiriak kontserbatu beharko dituzte. Frogagiri hauetan saltzeko data, egin beharreko hegaldi edo itsas ibilaldiaren zenbakia, azken xedeko portua edo aireportua eta saldutako tabakoko lanen kantitatea jasota beharko dira.
3. Saldutako tabakoaren artean zigarretak eta biltzeko tabako xehea baleude, bilgarriek 26. artikuluan aipatzen duen marka fiskala itsatsia izango dute eta barne lurralde eremutik ateratzen denean ez da inola ere kendu edo suntsituko.

#### **124. artikulua. Birziklapena eta suntsipena.**

Legeko 62. artikuluko a) eta b) paragrafoetan aipaturiko itzulketaren hobaria honako prozedura honen arabera aplikatuko da:

1. Tabakoaren lanen jabeak hobariaren aplikazioa eskatuko dio, lanok egiteko establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoari. Idazkian honako hau jaso beharko da:
  - a) Eskatzailearen eta lanak egiteko establezimenduaren identifikazio datuak.
  - b) Itzulketa eskatzea eragin duen lan mota eta kantitatea.
  - c) Lanen suntsipena edo itzulketa eskatu izanaren arrazoia.
  - d) Lanen hornitzaileari eta horiek eskuratzeko datari buruzko datuak; kasuan kasuko zirkulazio agiriaren eta fakturaren fotokopiak erantsi beharko dira.
  - e) Lanen itzulketa jasoko duen baimendutako gordailuzainaren identifikazio datuak, baita horien bidalketa jasoko duen lantegiaren edo gordailu fiskalaren identifikazio datuak ere; baimendutako gordailuzainak lanen itzulketarekiko duen adostasunaren egiaztatzea erantsi behar da.
  - f) Suntsipenerako proposatzen den prozedura, baita eragiketa hori egiteko lokala ere.
2. Kudeaketa bulegoak, bidezko egiaztapen guztiak egin ondoren, eskabidea egiteko baimena eman eta, bidezkoa izanez gero, lanak eskabidean aipaturiko lantegira edo gordailu fiskala itzultzeko baimena emango du, itzuli beharreko kuota ere adierazita. Baimen hori, berriz, kasuan kasuko establezimenduari dagokion kudeaketa bulegoari jakinaraziko zaio.
3. Baimendutako gordailuzainak sartu diren tabakoaren lanen izakinen kontabilitatea egingo du, eta idazpena justifikatzeko, berriz, itzulketa baimendu duen kudeaketa bulegoaren erabakia erabiliko du. Gordailuzain horrek itzuli beharreko kuotaren zenbatekoa erabaki ahal izango du, itzultako lanen sarrera egiteko zerga aldiko kuotari dagokionez.
4. Baimendutako gordailuzainak, itzulketaren eskatzaileari, horren zenbatekoa ordainduko dio.
5. Lanen suntsipena aukeratu denean, hori (kudeaketa bulegoak horretarako baimena eman ondoren) ikuskapen zerbitzuak bertan daudelarik egingo da, eta horiek kasuan kasuko eginbidea bideratuko dute. Kudeaketa bulegoak, bidezkoa izanez gero, itzuli beharreko kuota zehaztu eta horren ordainketa erabakiko du.

#### **125. artikulua. Ceutari eta Melillari dagozkien salbuespenak eta itzulketak.**

...

## **2. ATALA TABAKO MOTEN FABRIKAZIOA**

#### **126. artikulua. Arauzko kontabilitatea.**

Tabako lantegietan honako liburu hauek erabiliko dira:

1. Tabako landugabearen liburua.

Karguan idatzi beharrekoa: sarrera eguna, tabakoaren pisu garbia (100eko 4ko hezetasunean), bidalketa egiten duena eta herria.

Datan haxe idatziko da: data, hariaren pisu garbia, tabakoaren lanen motak eta markak.

2. Tabako landuen liburua.

Egingo diren tabakoen mota nahiz marka bakoitzerako, kontu bereziak eramango dira.

Karguan idatzi beharrekoa: egiteko prozedurara bideratuko den tabakoa, data eta horren pisu garbia adieraziz.

Datan haxe idatziko da: egindako tabakoaren lanak, data, pisu garbia eta fase honetan lorturiko tabakoaren lanen unitate kopurua adieraziz. Zigarrotxoak milaka unitatetan adieraziko dira, puruak eta zigarroak unitateetan eta tabako txikitua zein gainerako lanak ontziratze unitateetan (jendeari saltzeko egokituriko ontziak, euren barruko pisu garbiaren arabera).

3. Biltegiaren liburua.

Fabrikaturiko tabakoaren lanen besteko kontu kopurua eramango da, moten eta marken arabera.

Karguan idatzi beharrekoa: biltegian sarturiko tabakoaren lanak, sarrera data eta kantitatea adieraziz, tabakoaren lanen liburuko datan erabilitako unitateetan.

Datan haxe idatziko da: biltegitik irtendako lanak (irteera data adieraziz), kantitatea (karguko unitateetan), zirkulazioa, jasotzailea eta herria.

**127. artikulua. Galera onargarrien ehunekoak.**

A) Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, galeren arauzko ehunekoak hurrengo hauek izango dira:

Deskribapena	Ehunekoa
1. Zigarreta beltzak:	
a) Irabiatuta	6
b) Xehatua	6
c) Zigarretaren elaborazioa	7
2. Zigarreta gorriak:	
a) Irabiatuta	6
b) Ligen prestaketa	5
c) Xehatua	4
d) Zigarretaren elaborazioa	4
3. Zigarro puruak edo zigarrotxoak:	
a) Triparen elaborazioa (irabiatuta)	30
b) Tabako naturalaren geruzak edo azpigeruzak lortzea	30
c) Geruzak edo azpigeruzak lortzea tabako homogeneizatuan oinarriturik	30



d) Zigarro puru edo zigarrotxoaren elaborazioa	9
--	---

- B) Ekonomia eta Ogasun Ministerioari baimena ematen zaio artikulua honetan jasota ez dauden prozesuei aplikatu ahal dakizkiekeen galeren arauzko ehunekoak ezartzeko.
- C) Kontaketetan neurketak egiteko orduan oinarritzat 100eko 14ko hezetasun tipoa hartuko da.

### 3. ATALA KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK

#### 128. artikulua. Fabrikatzaileen eta inportatzaileen jakinarazpenak.

1. Azaroaren 22ko 38/1985 Legeko hirugarren artikuluan eta berori garatzeko xedapenetan ezarritakoaren kalterik gabe, Elkartean ezarrita dauden tabakoaren lanen fabrikatzaileek edo horiek Elkartean dituzten ordezkariak nahiz agintariak, baita gainontzeko herrietako inportatzaileek ere, barruko lurralde eremuan merkaturatzeko edo inportatzeko lanen berri emango diote aurretiaz kudeaketa zentroari.
2. Aurreko 1. atalean aipaturiko jakinarazpenean, lanaren deskribapena egingo da, lan mota adieraziz, Legeko 59. artikuluan ezarritako kontzeptuen arabera; beste hauxe ere adieraziko da: zigarro edo zigarrotxo kopurua, pakete bakoitzaren edukia, gainerako lanetarako pisu garbia, marka, fabrikatzailearen izena eta fabrikazioaren herria. Era berean, jakinarazpen horretan, jendeari saltzeko gehieneko prezioa ere adieraziko da, lan horiei dagokienez.
3. Fabrikatzaile edo inportatzaile horiek merkaturatzen diren lanetarako finkaturiko gehieneko prezioak edo jakinarazpenean jasotako ezaugarriak (aurreko 2. atalean ezarritakoak) aldatzeko erabakia hartzen dutenean, aldaketa egin baino lehen kudeaketa zentroari jakinarazi beharko diote.
4. ...

#### 129. artikulua. Tabako gordinaren lehenengo eraldaketari buruzko arau bereziak.

1. Tabako gordina lehenengoz eraldatzen duten establezimenduak instalatu diren mugapeei dagokien kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribatuko dira. Horretarako, "tabako gordinaren lehenengo eraldaketatzat" jotzen da ondu ostean tabako hostoekin egiten diren lehenengo eragiketak, besteak beste, moztu edo zatitzea, produktua ondoren industrian eraldatu gabe erre ahal izateko.
2. 1. atalak aipatzen dituen establezimenduei dagokionez, aurreko atalean xedatutako baldintzetan eskusiboki tabako gordinaren lehenengo eraldaketak egiten badira eta, Araudiak 122. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe, lortutako produktu guztiak gordailu baimenduei entregatzen bazaizkie, honako arauak aplikatuko dira, alde batera utzita esportatuak al diren edo barnekoa ez den erkidegoaren lurralde eremuan jaso al diren:
  - a) Titularrak ez daude behartuak bermea osatzera.
  - b) Aipatu establezimenduetan euskarri informatikoakn biltegitratze liburu bakarria izango da honako ezaugarriekin:

Liburuaren karguan instalazioan tabako gordinaren sarrerak idatziko dira eta hurrengo datuak ageriko dira: sarreraren eguna, kopuruak kilogramotan eta hornitzailea (identifikazio fiskaleko zenbakia eta CAE, izango balu, edo, bestela, jatorrizko herrialdean zerga berezietarako identifikazio kodea eta balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio zenbakia).

Datan produktuaren irteerak idatziko dira eta hurrengo datuak ageriko dira: eguna, kopuruak kilogramotan eta eroslea (identifikazio fiskaleko zenbakia eta CAE, izango balu, edo, bestela, jomugako herrialdean zerga berezietarako identifikazio kodea eta balio erantsiaren gaineko zergarako identifikazio zenbakia).

- c) Ez dituzte autolikidazioak aurkeztuko, sartu beharreko zenbatekoa zero eurokoa denean. Halaber, ez dituzte eragiketen laburpen aitortpenak aurkeztuko.
- d) Erkidegoaren arautegiak xedatutakoaz gain, instalazio horietatik irtendako produktuen zirkulazioa zirkulazio albaranaren babesean gauzatuko da.

Artikulu honetako 2. atalean dauden espezialitateen kasuan izan ezik, 1. atalean aipatzen diren gainerako establezimenduei tabako lanak fabrikatzeko legean eta arautegian aurrez ikusitako arau guztiak aplikatuko zaizkie.

## **IX. KAPITULUA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA**

### **130. artikulua. Salbuespen batzuk aplikatzeko prozedura.**

...

### **131. artikulua. Lurralde erregistroan inskribatzeko arauak.**

...

### **132. artikulua. Jardueren eta instalazioen kontrola.**

...

### **133. artikulua. Arauzko kontabilitatea.**

...

### **134. artikulua. Energia elektrikoa garraiatzean eta banatzean egondako galerak.**

...

## **II. IZENBURUA ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIA**

### **135. artikulua. Menpekotasunik eza edo salbuespena dagoen kasuen aurretiazko onarpena.**

Baldintza bat bete beharko da Legearen 65. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) hizkiko 9 eta 10 zenbakietan aipatu diren eta zergari lotuta ez dauden kasuen aplikazioa, baita Legearen 66. artikuluko 1. idatz-zatiaren a), b), c), d), f), g), h), k), m) eta ñ) hizkietan aipaturiko salbuespen kasuena ere: zergen administrazioak aurretik aintzatetsi egin behar ditu kasu horiek, titulu honetan xedatu denarekin bat etorritik. Garraiobidea behin betiko matrikulatzeko, zergen administrazioaren aurretiazko aintzatespen hori egiaztatu beharko da organo matrikulazioaren arloko organo eskuduneari.

### **136. artikulua. Aurretiazko onarpenaren eskabidea.**

Aurreko artikuluan xedatu denaren ondorioetarako, garraiobidearen lehen behin betiko matrikula egin nahi zaion edo Legearen lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen diren pertsonak edo entitateek idazki bat aurkeztu behar dute aurretik zerga-helbideari dagokion Zergen Administrazioako Estatuko Agentziaren ordezkarietan edo administrazioan, Ekonomia eta Ogasun ministroak zehazturiko ereduaren arabera, eta kasu horiek aplikatzeko eskatuko du.

Idazki horretan, gutxienez, hauek jasoko dira: eskatzailearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza; garraiobidearen klasea, marka eta modelo; eta onar diezaioten nahi duen loturarik ezeko edo salbuespeneko kasua.

### **137. artikulua. Ekarri beharreko agiriak.**

1. Aurreko artikulua aipatzen duen idatziarekin batera, ibilgailuaren ikuskaritza teknikoaren fitxaren kopia bidaliko da, eta itsasontziak edo aireontziak direnean, saltzaileak emandako ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta, gainera, hala gertatzen denean, ondorengo agiriak:
  - a) Armadak, Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarrek, Komunitate Autonomoek eta Toki Erakundeek edo Aduana Gordekinak defentsarako, zaintzarako eta segurtasunerako erabiltzeko zuzendutako ibilgailuak direnean haien erosketa kontratatzeko agintedun organoak edo agintariak sinatutako aitorten bat, zeinetan aipatutako eginkizunetarako benetan ibilgailu horiek erabiliko direla jasoko den.
  - b) Legearen 66. artikuluko a), b), c), g), h), k) eta m) hizkietan aipaturiko garraiobideak direnean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainagiria. Horren bidez egiaztatuko du eskatzaileak garraiobidea erabiliko den jarduera egiten duela, eta salbuespenaren aplikazioa justifikatuko du.
  - c) Minusbaliatuen izenean, beraien erabilerarako bakarrik, matrikulatzen diren ibilgailu automobilak direnean, Gizarte Zerbitzuen Nazio Erakundeak edo eskudun erakunde kudeatzaileek emandako minusbaliotasunaren edo elbarritasunaren ziurtagiria.

Salbuespena onartzeko baldintza bezala Zerga Administrazioak berak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ohiko tasa aplikatzeko edo Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia salbuespena izateko ondorioetarako antzeko baldintzetan beste ibilgailu baten matrikulazioa egin zenetik gutxienez lau urte igaro direla egiaztatuko du.

- d) Legeak 66. artikuluko 1. atalaren f) hizkian aipatzen dituen ibilgailuak direnean, salbuespenaren aplikazioa justifikatzen duen lan-kontratuaren kopia.
- e) Legeak 66. artikuluko 1. atalaren ñ) hizkian aipatzen dituen garraiobideak direnean, garraiobidearen errentamendu-kontratuaren kopia, iraupena egiaztatu eta salbuespenaren aplikazioa justifikatzen duena.

...

2. Organo kudeatzaileek menpekotasunik gabe edo salbuetsia dagoela eskatzen duelako eskegileak bere eskutan izan behar duen beste edozein agiri aurkez dezala eska diezaiokete, baita beraiek zertarako edo zein helburutarako egokitzea egiaztatzeko ibilgailuak frogatu ere.

## **III. IZENBURUA IKATZARI BURUZKO ZERGA BEREZIA**

### **138. artikulua. Lurraldeko Erregistroan inskribatzea.**

1. 140. artikuluan adierazten diren eragiketengatik urteko aitortenak eta autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dituztenak legeak 84.1. artikuluko 1.1. epigrafean zehazten den zerga-tasa aplikatzearen onuradun badira eta legeak 79. artikuluko 1. eta 2. ataletan nahiz artikuluko 3. ataleko b), c) eta e) hizkietan zehaztutako salbuespenak badituzte, lurralde-erregistroan inskribatzea eskatu beharko diote zerga berezien kudeaketa bulegoari. Hori establezimendua edo, hala badagokio, sozietatearen egoitza kokatzen den tokian egingo da, Ogasunaren ministroak aurrez ikusitako prozedurarekin bat.

Ondore horietarako, establezimendua, produktu komunitarioa erosten dutenentzat, eta produktua birsaltzen dutenentzat, ikatza kontsumitu edo biltegitratzen den tokia izango da, hurrenez hurren. Birsaltzaileek produktua biltegitratuta edukitzeko instalaziorik ez dutenean, beren helbide fiskala joko da establezimendutzat. Ikatz ekoizleak edo erauzleak direnean, establezimendua ikatza erauzten den tokiak, eta zerbitzua ematen dieten azpiegiturak, lurpekoak zein gainazalekoak, ikatza gordina beste unitate batzuekin loturarik gabe ekoitz dezaketenak osatzen duten produkzio unitatea izango da establezimendua.

2. Inskribapena egin ondoren, Araudi honen 1.9. artikulua aipatzen duen bulego kudeatzaileak interesdunari inskribapenaren identifikazio-txartela entregatuko dio eta Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak onartutako ereduaren arabera izango da. Bertan idatziz jasoa geldituko da «Ikatzaren Jarduera Kodea» (IJK), hurrengo atalean aipatutakoa. Hain zuzen ere, hori izendatuko da autolikidazioetan eta eragiketen urteko aitorpenetan.
3. "Ikatzaren Jardueraren Kodea" zerga honengatiko zerga-obligaziodunen jarduera identifikatzen duen kodea da, atal honetan ezartzen den moduan egituratuta. Kode honek hamahiru karakterek osatuta dago, honela banatuta daudenak:
  - a) ES letrak lehenengo bi karaktereak konfiguratuko dituzte.
  - b) Ekonomia eta Ogasun Ministroak beste karaktere batzuek ordezkatzea xedatzen ez duen bitartean, hirugarren, laugarren eta bosgarren karaktereak zeroak izango dira.
  - c) Seigarren eta zazpigarren karaktereak establezimenduaren bulego kudeatzailearen lurraldeko eremua identifikatzen dute.
  - d) Zortzigarren eta bederatzigarren karaktereak zerga-obligaziodunaren jarduera identifikatzen dute.
  - e) Hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren karaktereak c) letrak aipatzen duen lurraldeko eremuan inskribatzeko zenbaki sekuentziala adieraziko dute.
  - f) Azkenik, kontrol-letra bat.

Ekonomia eta Ogasun Ministroak atal honen lehenengo lerrokadak aipatzen dituen jardueren erreperitorioa ezarriko du eta aurreko d) letrak aipatzen dituen identifikazioko digituak eta karaktereak zehaztuko ditu.

### **139. artikulua. Zergaren itzulketa.**

1. Abenduaren 28ko Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legearen 80. artikuluan itzulketarako finkatzen diren suposamenduetan, itzultzen diren kuoten zenbatekoa jasandako kuotenaren bestekoa izango da.
2. Aurreko atalean esandakoa gorabehera, zenbateko hori zehazterik ez dagoenean, kuotak itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa egin den data baino hiru hilabete lehenago indarrean zegoen tasa aplikatuz zehaztuko dira.
3. Zergaren itzulketa behin behinekoan baimendu ahal izango da. Behin behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira ikuskatzailearen egiaztapenaren ondorioz, edo itzulketarako eskubidea sortzen duen eragiketa egiten den datatik hasi eta lau urteren barruan egiaztapenik egin ez bada.
4. Itzulketa, kasu guztietan, egutegiko hiru hilekoa amaitu eta hurrengo hogeita egunetan eskatuko da, onuraren titularraren helbide fiskalari dagokion zerga berezien kudeaketa bulegoaren aurrean. Bulego horrek, itzulketa behin behinekoan onetsi aurretik, itzultzea eskatzen den kuotak ordaindu direlako frogagiriak eskatu ahal izango ditu, baita eskubide hori sortzen duen eragiketa egin delako frogagiria ere. Frogagiriak, nagusiki, hauek izango dira:

- a) zergapetzea ageri den faktura, 38/1992 Lege horren 85. artikulua dionaren haritik;
  - b) saltzaileak erabilitako faktura, albarana edo bestelako edozein salerosketa agiri, zergaren aplikazioko lurralde esparruaren barruko erosketak direnean, aurreko letrakoez bestelakoak;
  - c) zerga ordaindu delako frogagiriak, eskarigilea komunitateko lurralde esparrutik datozen produktuen inportazio edo jasotze eragiketak tarteko zergaren subjektu pasiboa denean.
  - d) Esportazio kasuetan aduanetako bulegoko dokumentua.
5. Ikatzaren gaineko Zerga Berezia dela-eta ordaindutako kuotak itzultzeko prozedurak gehienez sei hilabetean ebatziko dira, itzulketa eskariaren erregistroko sarrera datatik zenbatzen hasita.

Administrazioa ebazpen zehatza ematera behartuta dagoen arren, atal honetan araupetutako kasuetan itzulketa eskariak ezetsi direla ulertuko da, baldin eta epe horretan ebazpen zehatzik ematen ez bada.

#### **140. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.**

1. Inportazioaren kasuetan izan ezik, ikatzaren gaineko zerga bereziaren subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute eta 3. atalean adierazten diren epeen barruan sortutako kuotak izango ditu. Halaber, aldi berean, kuota likidoak ordainduko dituzte.

Ez dira autolikidazioak aurkeztu behar, likidazio-aldian ez badira ordaintzeko kuotak.

2. Autolikidazioaren aurkezpena eta, hala badagokio, aldi bereko zerga-zorraren ordainketa, oro har, establezimendu edo, hala badagokio, harrera-toki bakoitzeko egingo da. Kudeaketa bulegoak zergapekodunei autolikidazioen aurkezpena eta aldi bereko zerga-zorraren ordainketa zentralizatzen baimen diezaieke. Horretarako, autolikidazio bakarra aurkeztuko dute baimendutako erakunde kolaboratzailean.
3. Likidazio-aldia, autolikidazioa aurkezteko epea eta, dagokionean, kuotak aldi berean ordaintzeko epeak hurrengoak dira:

Likidazio-aldia: hiruhileko natural bat.

Epea: Sortzapenak izan diren hiruhilekoa amaitu eta hurrengo 20 egun naturalak.

4. Autolikidazioen ereduak edo, hala badagokio, zerga-zorra zehaztu eta ordaintzeko ordezkari ditzaketen bitarteko eta prozedura elektronikoak, informatikoak edo telematikoak Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak onartuko ditu.
5. Gainera, subjektu pasiboek urtero ekitaldi bakoitzean egindako eragiketekin aitortpena aurkeztu beharko dute, baita izakinak besterik ez dituztenean ere, Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak zehazten dituen eredu edo prozedurekin bat.

#### **141. artikulua. Zerga-tasa murriztuaren aplikazioa.**

1. Subjektu pasiboek legeak 84. artikuluko 1. atalaren 1.1. epigrafean zehaztutako zerga-tasa aplikatzeko, azken kontsumitzaileak ikatza kontsumitzen den kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribatuak egongo dira eta, gainera, bere hornitzaileari egiaztatuko diote lan-xederako erabiliko dela. Horretarako, BEK erakutsi beharko dute.

Ikatzaren jomuga aldatzen delako zerga-tasa aldatuz gero, jakinarazi beharko zaie, bai kudeaketa bulegoari, baita ikatza kontsumitzeko jartzen duenari eta horretan azken kontsumitzaileek erantzukizun eskusiboa izango dute.

Jakinarazpen berririk egin ezean, hasierako jakinarazpenak dakarren informazioa izango da aintzat.

2. Argindarraren eta energia termiko baliagarriaren baterako sorkuntzarako zentral batean eta erabili beharreko ikatzaren horniduretan (Sektore Elektrikoaren Legea aplikatzeko arautegian aipaturiko errendimendu elektrikoaren betetzen dela egiaztatzeko beharkizunari lotuak) edo errendimenduaren gaineko behar bezalako auditoria egin bada, Legearen 84. artikuluan arauturiko zerga-tasak aplikatuko dira, hain zuzen alternadore-borneetan neurturiko produkzioari eta energia termiko baliagarria lortzeari egotzi beharreko ikatzaren portzentajearen arabera, betiere energia horren azken aprobetxamendua industri establezimenduetan gertatzen bada, ondoren ezarriko den prozedurarekin bat etorriz.

Subjektu pasiboek Legearen 84.1. artikuluko 1.1. epigrafean ezarritako zerga-tasa aplikatu ahal izan dezaten, artikuluko horretako 1. idatz-zatian xedaturikoaz gain, argindarra sortzeko eta energia termiko baliagarria ekoizteko erabiliko den hornituriko ikatz kantitatearen aplikatu beharreko behin-behineko portzentajea jakinarazi beharko diete nahitaez zentralerako titularrek. Subjektu pasiboek behar bezala izenpeturiko jakinarazpen horiek gorde beharko dituzte.

Aurreko leerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko urterako behin betikotzat ezarritakoa izango da urte natural bakoitzean aplikatu beharreko behin-behineko portzentajea. Merkatuen eta Kompetentziaren Batzorde Nazionalari aurkezturikoaren errendimendu elektriko baliokidearen edo behar bezalako auditoria izan duen balioaren eta urte horretan kontsumituriko ikatzaren arabera zehaztuko da portzentaje hori.

Baldin eta ikatzaren hornidura hori baterako sorkuntzarako zentral batera egiten bada industri instalazio elkartu batekin eta horren hornidura-gunea bakarra bada, 1.1. epigrafean xedaturiko zerga-tasa aplikatu ahal izango du subjektu pasiboak, bai energia termiko baliagarriaren ekoizpenari egotzi beharreko ikatza kantitatean, bai zuzenean industri instalaziorako den kantitatean, betiere baterako sorkuntzarako zentralaren titularrak erabilera horiei dagokien portzentajeari buruzko informazioa adierazten badu idatziz aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

Alabaina, bat-bateko edo aparteko inguruabarrak direla-eta baterako sorkuntzarako zentralaren titularrak justifikatzen badu aurreko urteko behin betiko portzentajearen aplikazioa (horren arabera ordainaraziko zaizkio ikatzaren zerga-tasak) eta aribideko urteari dagokiona, neurri handi batean, desberdinak direla, beste datu bat jakinarazi ahal izango dio subjektu pasiboari, baina alde zuzenetik bulego kudeatzailearen baimena beharko da.

Argindarraren eta energia termiko baliagarriaren baterako sorkuntzarako zentralen titularrek ikatzaren kantitatea zehazteko beharrezko datu guztiak aurkeztuko dituzte urte bakoitzeko lauhileko naturalaren barruan, Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak erabakitako baliabideak erabiliz. Izan ere, alternadore-borneetan neurturiko argindarraren sorkuntzari eta energia termiko baliagarriaren produkzioari egotzi beharrekoa da ikatz kantitate hori.

3. Subjektu pasiboek jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko dituzte, kuota horien zenbatekoa, azken kontsumitzaileak jakinarazitako behin-behineko portzentajearen arabera ezarria, ez badator bat erabilitako behin betiko kantitatearen edo portzentajearen arabera jasanarazi beharko ziratekeen kuotan zenbatekoarekin.

Ondore horietarako, urte natural bakoitzari dagozkion lehenengo lau hilabeteetan azken kontsumitzaileek subjektu pasiboek legeak 84. artikuluko 1. atalean xedatzen duen tasa bakoitzari atxikitako behin betiko ehunekoa jakinaraziko diete. Lau hilabete horien buruan subjektu pasiboek eta kudeaketa bulegoari datu berriak jakinarazten ez bazaizkie, hornitutako ikatzaren kopuruari buruz aplikatu behar diren ehunekoekiko aldaketarik ez dagoela ulertuko da.

Behin betiko ehunekoa jakinarazitakoan egin beharko dute zuzenketa subjektu pasiboek, eta zergen gaineko egoera erregularizatuko da zuzenketa egin beharreko epealdiari dagokion autolikidazioan.

#### **141 bis artikulua. Salbuespenak aplikatzea.**

Legearen 79. artikuluko salbuespenen onuradunek preskripzio-epean jomuga egiaztatzen duen dokumentazio guztia gordeko dute, horiekin salbuespena lortu bada. Nolanahi ere, salmenta eta ematearen justifikazio-fakturak kontserbatuko dira.

Ikatza lehenengoz saldu edo entregatzen dutenei legeak 79. artikuluko 1. eta 2. atalean aipatzen diren salbuespenak aplikatzeko hurrengo beste beharko dute: helburua zerga aplikatuko den lurralde-eremuan beste batzuei salduko dietenak badira, lurralde erregistroan inskribatuak daudela ziurtatzen duen txartela erakustea edo aurkeztea eskatuko zaie. Gauza bera egingo da enpresaburuekin, nahiz eta gero horiek zergaren aplikazio-eremutik kanpo bidali. Eskaera berdina gauzatuko dute ikatza kontsumitzeko jartzen dutenek, salbuespena aplikatu badakieke. Eskaeraren hartzaileak, kasu honetan, legearen 79. artikuluko 3. atalaren b), c) eta e) hizkietan dauden erabileretarako bideratzen dituztenak izango dira.

### **IV. TITULUA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA**

#### **142. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.**

Zerga honen ondorioetarako, hurrengoak ulertuko dira:

1. Legea: 38/1992 Legea, abenduaren 28koa, Zerga Bereziei buruzkoa.
2. Bulego kudeatzailea: Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren egitura organikoari buruzko arauarekin bat, zerga berezien arloan organo eskuduna.

#### **143. artikulua. Salbuespen zehatzak aplikatzeko prozedura.**

1. Legeak 94. artikuluko 1., 2. eta 4. zenbakietan aipatzen dituen nazioarteko harremanen esparruan salbuespenak aplikatzeko, interesdunek Kanpoko Gaietarako eta Kooperaziorako Ministerioan eskaera bat aurkeztuko dute eta salbuespenaren babesean hornitu behar zaien elektrizitatea, kilowatt ordun (kWh) adierazita, izango du. Eskaeran urtebeteko kontsumoak edo, txikiagoa bada, onuraren aplikazio-aldiari dagozkionak sartu ahal izango dira. Ministerio-sail horrek, nazioarteko hitzarmenetan, elkarrekikotasunekoan barne, finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, eskaera ebazteko bulego kudeatzaileari pasako dio. Bulego kudeatzaileak, hala denean, salbuespena aplikatzeko baimena emango du, justifikaturiko kontsumo beharretarako egoki irizitako argindarraren horniduraren gainean.

Bat-bateko igoera gertatzen bada, behar bezala justifikatua, kontsumoaren beharretan (horien arabera eman zen salbuespena aplikatzeko baimena), bolumena handitu dezake baimenean bulego kudeatzaileak igoerari dagokion mailaraino.

Arestian xedatutakoa alde batera utzi gabe, Legearen 94. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen dituen salbuespenak 3485/2000 Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, diplomazia-eta kontsul-araubidearen edo nazioarteko erakunde frankizia eta salbuespenari buruzkoak; eta Ibilbideei buruzko Araudi Orokorraren aldaketak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, xedatutakoaren arabera aplikatuko dira.

2. Indar armatuei hornitutako elektrizitateari buruzko salbuespenaren kasuan, Legeak 94. artikuluko 3. zenbakian aipatutako horretan, onura aplikatzeko prozedura Defentsa Ministerioari Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmenetan finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu dezan eskatuz hasiko da. Egiaztapena lortutakoan, salbuespenaren onuradunak bulego kudeatzaileari aplikatzea eskatuko dio. Eskaerari egiaztapena lagunduko zaio. Nolanahi ere, eskaeran, aurrez ikusitako beharren arabera, salbuespenaren babesean hornitu beharreko energia elektrikoaren kantitatea, kilowatt ordun (kWh) adierazita, azalduko da. Bulego kudeatzaileak, hala denean, salbuespena

aplikatzeko baimena emango du, justifikaturiko kontsumo beharretarako egoki irizitako argindarraren horniduraren gainean.

Bat-bateko igoera gertatzen bada, behar bezala justifikatua, kontsumoaren beharretan (horien arabera eman zen salbuespena aplikatzeko baimena), bolumena handitu dezake baimenean bulego kudeatzaileak igoerari dagokion mailaraino.

#### **144. artikulua. Salbuesenez gozatzean horniduraren datuak zuzendu behar izana.**

Urte natural bakoitzaren lehenengo bi hilabeteetan kontsumitzaileek zergapekodunei eta bulego kudeatzaileari, onuradun izanik, aurreko urte naturalean egiaz kontsumitutako energiaren kantitatea jakinaraziko diete, Legeak aurrez ikusitako salbuespenei buruz hornidura egitean datu zehatzak ez baitituzte.

Zergapekodunek jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko dituzte, zenbatekoa, jakinarazitako datuen arabera zehaztutakoa, jasanarazi behar diren kuotekin bat ez datorrenean, salbuespenerako eskubidea duten jardueretan egiaz erabilitako energiaren arabera.

Zergapekodunek zuzenketa egin beharko dute, salbuespenerako eskubidea duen elektrizitatearen behin betiko kantitatea jakinarazten zaienean. Era berean, zerga-egoera zuzenketa egin behar den aldiari dagokion autolikidazioan erregularizatuko da.

#### **145. artikulua. Zerga-oinarriaren murrizketa aplikatzeko prozedura.**

1. Legeak 98. artikuluan xedatutako murrizketa aplikatzeko, murrizketa-eskubidearekin jarduerak garatzen dituzten establezimenduetako titularrek establezimendu bakoitzaren kokaguneari dagokion bulego kudeatzailean zerga-onuraz gozatze baldintzak betetzen dituen jarduera bakoitzeko jakinarazpena aurkeztuko dute.

Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpena aurkezteko eredia eta gainerako baldintzak xeda ditzake.

Nekazaritzan ureztatzeko elektrizitatea kontratuen bidez hornitzen denean eta horien titularra ureztapen-erkidegoa edo Konfederazio Hidrografikoa denean, azkenekoek egingo dute murrizketaz gozatze jakinarazpena. Jakinarazpena ureztapen-erkidegoak edo Konfederazio Hidrografikoak zerga-helbidea duen kudeaketa bulegoari aurkeztuko zaio.

Establezimenduak jardueren arabera banan-banako hornidura-puntuak ez baditu, jakinarazpenean murrizteko baldintzak betetzen dituen jardueran hornidura bakoitzeko kontsumituko energia elektrikoaren ehunekoa adieraziko da.

2. Jakinarazpena jasotzen denean, bulego kudeatzaileak lurralde-erregistroan inskribapen-txartela egingo du. Hori elektrizitatearen hornitzaileari erakutsi beharko zaio, hornidura dagokion murrizketarekin gauzatu ahal izateko.
3. Urte natural bakoitzaren lehenengo bi hilabeteetan, murrizketaren onuradunek zergapekodunei eta bulego kudeatzaileari aurreko urte naturalean egiaz kontsumitutako energiaren kantitatea eta, bidezkoa bada, murrizketarako eskubidea izanik, kontsumitu den elektrizitatearen behin betiko ehunekoa jakinaraziko diete. Behin betiko ehunekoa hornidura berrietarako kontuan hartuko da. Urte natural bakoitzaren lehenengo bi hilabeteetan bulego kudeatzaileari eta zergapekodunei datu berriak jakinarazten ez bazaizkie, hasieran jakinarazitako datuekiko ez dela aldatetarik izan ulertuko da.

Zergapekodunek jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko dituzte, zenbatekoa, jakinarazitako datuen arabera zehaztutakoa, jasanarazi behar diren kuotekin bat ez datorrenean, murrizketarako eskubidea duten jardueretan egiaz erabilitako energiaren arabera.



Behin betiko ehunekoa edo kantitatea jakinarazitakoan egin beharko dute zuzenketa zergapekodunek, eta zergen gaineko egoera erregularizatuko da zuzenketa egin beharreko epealdiari dagokion autolikidazioan.

4. Hornitzailearekin energia elektrikoaren hornidura-kontratua desegiten bada, desegin eta hurrengo hilabetean azken kontsumitzaileak desegin arte egiaz kontsumitutako energiaren kantitatea edo, hala badagokio, murrizketa-eskubidearekin behin betiko kontsumitutako elektrizitatearen ehunekoa jakinaraziko dio.

Bidezkoa bada, hornitzaileak jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko ditu, behin betiko datuen arabera eta, horretarako, jakinarazi behar zaizkio. Zerga-egoera zuzenketa egin behar den aldiari dagokion autolikidazioan erregularizatuko da.

5. Zuzeneko elektrizitate-hornidurak egiten direnean, burutu beharreko erregularizazioak, aurreko ataletan aipatutakoarekin bat datozenak, ordu-tarte bakoitzean esku hartzen duten eragileek egindako erosketen zenbatekoarekiko proportzioan gauzatuko dira eta merkatuko operadoreak eskaintako datuei erreparatuko zaie horretarako.
6. Murrizketa aplikatzea eragiten duten baldintzak betetzez uzten direnean edo beste salbuespenezko egoeraren bat gertatzen denean eta, ondorioz, zerga-onura ezin denean aplikatu, baldintzak betetzen ez direnetik edo, hala badagokio, salbuespeneko egoera suertatzen denetik zenbatzen hasita, hilabete epean egoera bulego kudeatzaileari eta elektrizitatearen hornitzaileari jakinaraziko zaie eta idatziz jaso gelditzen den edozein bitarteko erabiliko da.

Xede horrez, salbuespenezko egoeratzat jotzen da ondoz ondo hiru hilabetez jakinarazitako azkeneko kontsumo-ehunekoa ehuneko 10etik gorako hazkuntza edo murrizketa izatea.

#### **146. artikulua. Lurralde-erregistroan inskribatzea.**

1. Legeak 102.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde-erregistroan inskribatzea eskatu behar dutenak eta, hala badagokio, ureztapen-erkidegoak alta emanak egongo dira Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzaileen Erroldan, garatu beharreko jarduerari dagokion epigrafean. Halaber, zerga oinarrian murrizketak edo salbuespenak lortu nahi dituztenek zerga obligazioak eguneratuak dituztela egiaztatu beharko dute.

Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan inskribatzea Konfederazio Hidrografikoen kasuan ez da beharrezkoa, elektrizitatea nekazaritzan ureztatzeke bada.

2. Legeak eta Araudi honek xedatutako arauak, mugak eta baldintzak betetzen ez badira, lurralde-erregistroan inskribapena baliogabetuko da. Baliogabetze-espeditentea establezimendua inskribatuta dagoen lurralde-erregistroari dagokion bulego kudeatzaileak edo, bidezkoa denean, inskribapena egin duen organoak izapidetuko du.

Baliogabetze-espeditentea hasi ondoren, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren ordezkariak bulego kudeatzailearen lurralde-erregistroan behin-behinekoz baja ematea erabaki dezake. Horretarako, aldeztatik proposatzen duen organoak txostena egin beharko du.

3. Aurkeztutako dokumentazioan edo eskaeran datuak izendatu ostean edozein aldaketa egiten bada, bulego kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio.
4. Inskribapena egindakoan, bulego kudeatzaileak interesdunari erregistroan inskribatua dagoela egiaztatzen duen txartela entregatuko dio. Eredua Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren Ebazpenak onartuko du eta «Elektrizitatearen Identifikazio Kodea» (EIK) izango du. Nolanahi ere, zerga honengatik aurkeztu behar diren autolikidazioetan eta gainerako aitortpenetan izendatu beharko da.

#### **147. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.**

1. Zerga honen zergapekodunek eta gainerako zerga-obligaziodunek autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte eta, aldi berean, zerga-zorra ordaindu beharko dute.

Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak aurreko paragrafoan aipatzen diren autolikidazioak aurkezteko prozedura xedatuko du.

Merkaturatzaileak edo banatzaileak ez diren zergapekodunek ez dituzte autolikidazioak aurkeztu behar dirua sartzeko kuotak ateratzen ez diren likidazioaren aldietan.

2. Zerga-autolikidazioaren aurkezpena eta, hala badagokio, aldi bereko zerga-zorraren ordainketa, oro har, establezimendu edo, hala badagokio, harrera-toki bakoitzeko egingo da. Bulego kudeatzaileak zergapekodunei autolikidazioen aurkezpena eta aldi bereko zerga-zorraren ordainketa zentralizatzen baimen diezaieke. Horretarako, autolikidazio bakarra aurkeztuko dute baimendutako erakunde kolaboratzailean.

3. Hiruhileko natural bakoitzari dagokio likidazio-aldia; salbuespena: zergapekodunak balio erantsiaren gaineko zergaren eremuan likidazio-aldia hilekoa izatea, eragiketen bolumenarengatik edo zergari buruzko araudian aurrez ikusitako beste egoera batzuegatik. Halakoetan, zerga honen likidazio-aldia hilekoa izango da ere bai. Beste salbuespen bat litzateke Legeak 96. artikuluko 3. atalean xedatutako ustezkoa izatea eta, kasu horietan, aurreko urte naturalarena izango da.

Autolikidazioa dagokion likidazio-alditik zenbatzen hasita hurrengo hogeitun egun naturaletan aurkeztuko da.

Legeak 96.3. artikuluan aipatzen dituen zergapekodunek autolikidazioa apirilaren lehenengo hogeitun egun naturaletan aurkeztu beharko dute.

4. Hornitutako edo kontsumitutako energia elektrikoarengatik zergapekodunek aldizka informazio-aitorpena aurkeztu beharko dute. Aldizkako informazio-aitorpena Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak xedatutako tokian, moduan, epeetan eta ereduarekin aurkeztuko da.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

#### **Lehen. Zenbait administrazio organori buruzko aipamenak.**

Zerga Berezien Araudian eta hura garatzeko arautegian zentro kudeatzaileari buruz eginiko aipamenak Zerga Berezien Araudiko 1. artikuluko 9. idatz-zatian definituriko bulegoari buruzkoak direla ulertu behar dira.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

#### **Lehen xedapen iragankorra. Gasolioaren azken kontsumitzaile zehatzentzat lurralde erregistroan inskribatzeko epea.**

Gasolioaren azken kontsumitzaileei legeak 50. artikuluko 1.16. epigrafean xedatutako tasa murriztua aplikatu behar bazaie, gasolioa argindarra ekoizteko edo argindarra eta berao batera sortzeko erabiliko den tokiari dagokion kudeaketa bulegoko lurralde erregistroan inskribatu beharko dute.

#### **Bigarren xedapen iragankorra. Tabako gordina lehenengoz eraldatzen duten establezimenduen kasuan lurralde erregistroan inskribatzeko epea.**

Tabako gordina lehenengoz eraldatzen duten establezimenduak 2018ko ekitaldiaren lehenengo hilabetean instalatzen diren mugapeei dagokien kudeaketa bulegoaren lurralde erregistroan inskribatuko dira.

**Hirugarren xedapen iragankorra. Zigarro eta biltzeko tabako xeherako behin-behineko araubidea.**

Zigarroak eta biltzeko tabako xehea 2019ko maiatzaren 20a baino lehen Europar Batasunean fabrikatuak badaude edo inportatu badira eta ontziek 2014ko apirilaren 3ko 2014/40/EB Zuzentarauaren 16. artikuluan aurrez ikusitako segurtasun neurriei buruzko zerga-markak atxikiak ez badituzte, 2020ko maiatzaren 20ra arte merkatuan jarrai dezakete. Izan ere, aipatu zuzentaraua estatu kideek tabako-produktuak eta harekin zerikusia dutenak fabrikatu, aurkeztu eta saltzeari buruz dauzkaten lege-, erregulamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da.